

Martxoaren 8a Euskal Herriko prentsan: Interpretazio-markoak eta edukien ezaugarriak

Doktorego Tesia

Doktoregaia: Miren Itxaso Fernandez Astobiza

Zuzendaria: Iñaki Zabaleta Urkiola



Aitorri, bizitza honetan gertatu zaidan onena

*Amari, ikastera bultzatzeagatik, euskara eskaintzeagatik,
beti nire ondoan egoteagatik*

esker onez

Eta bat-batean amaitu egin da bidaia, bidaia luzea eta korapilatsua baina azkenean portura ailegatu naiz. Bidaia honetan lagundu nautenek eskertu nahi nituzke orain. Asko izan dira nire ondoan egon direnak.

Lehenik nire zuzendari eta lagunari, Iñaki Zabaleta Urkiolari, bidea markatu baitu. Haren laguntza funtsezkoa izan zen bidaia hasteko. Eskerrak eman behar dizkiot tesi-prozesu honetan ikerketarloan emandako laguntzagarri, eta HEKA ikerketa-proiektuari harrera egiteagarri, enpresa pribatutik unibertsitatera itzuli nintzenean.

Kazetaritza eta Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitate sailkoei, Gizarte eta Komunikazio Zientziak Fakultateko langilego guztiari eta Bibliotekako langileei emandako laguntzengatik.

Zaila da, ia ezinezkoa ez esateagarri, Jexuxmari Zalakaini nire bizitzako bidaiari irakatsi didan guztia eskertzea, maisu, gero irakasle, lankide, eta batez ere laguna da. Laura Mintegi eta biok kilometroak egin genituen Jexuxmariri bisitatzeko Palentziako kartzelan. Bidaia horietan literaturari, unibertsitateari, maitasunari, bikote-harremanei, familiari eta bizitzari buruzko elkarrizketa luzeetatik sortutako adiskidetasunak betiko markatuko gaitu.

Nire bizitzako bidaietan, bidaia feministak, bidaia militanteak, bizitza-bidaiak, une onenetan eta, batez ere txarretan, bidelagun izan ditudan lagun horiek guztiei eskerrak eman nahi dizkizuet ere, bizitza oso aspergarria izango lirake zuek gabe. Batzuek ez daude jada baina bihotzean jarraitzen dute. Algunas lleváis mas de 30 años compartiendo mis caminos, mis locuras, mis tristezas y mis alegrías, Isabel, Silvia...

1988ko udako goiz batean udal-irradi batean ezagutu genuen elkar, eta harrezkero hainbeste ordu, proiektu eta emozio partekatu ditugu, ahizpa baino zerbait gehiago bihurtu zara, Arantza.

Ez dut ahaztu nahi familia, eredugarriak izan zirenak eta nirekin bidaiatzen jarraitzen dutenak.

Ekueadorren hilabete batzuk lan egiteko gonbidapena egin zenidan, eta zu, Aitor, (ber)ezagutzeko aukera izan nuen. Han konturatu nintzen pertsona ikaragarria bihurtu zarela, mila esker ematen didazun guztiagarri. Orain zure txanda da.

Eskerrak Wafa Abderramani, bere jolasak eta barreekin eta etxe korridorean ibilaldi amaigabeekin, entzierroa itxaropenez bizitza lortu zuelako.

AURKIBIDEAK

Aurkibide orokorra

Aurkibideak	9
Aurkibide orokorra	11
Taulen aurkibidea	15
Irudien aurkibidea	17
Grafikoen aurkibidea	18
1. Sarrera	19
1.1 Feminismoaren irudia Euskal Herriko prentsan: Martxoaren 8aren analisia	21
1.2 Tesiaren egitura	24
1.3 Zenbait ohar	26
2. Corpus teorikoa	29
2.1 Feminismoa	31
2.1.1 Sarrera	31
2.1.2 Feminismoaren definizioa	32
2.1.3 Patriarkatua	37
2.2 Ikasketa Feministak eta Generokoak	40
2.2.1 Sarrera	40
2.2.2 Generoaren definizioa	43
2.2.3 Ikasketa Feministak AEBn eta Europan	47
2.2.3.1 Historia	50
2.2.3.2 Hizkuntza eta generoa	52
2.2.3.3 Euskal Herria	53
2.3 Emakumeen Askatze Mugimendua	56
2.3.1 Sarrera	56
2.3.2 Lehenengo uhina: Emakumeen Bindikazioak Argien Mendean.	58
2.3.2.1 Sufragismoa	63
2.3.2.2 Feminismoaren harremanak sozialismoarekin eta marxismoarekin	67
2.3.3 Bigarren uhina	70
2.3.3.1 Simone de Beauvoir eta Le Deuxième Sexe	70
2.3.3.2 Betty Friedan eta The Mystique Feminine	72
2.3.3.3 1970. hamarraldiko feminismoak	73
2.3.3.4 Berdintasunaren feminismoa	74
2.3.3.5 Diferentziaren feminismoa	76
2.3.4 Feminismo Postmodernoa edo 3. uhina	78
2.3.5 Feminismoa eta erakundeak	79
2.3.5.1 Euskal Herrian	81
2.4 Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna	84
2.4.1 M8aren jatorria	84
2.4.2 Martxoaren 8aren hasiera Euskal Herrian	86

2.5	Emakumeen mugimenduaren ekintzak, Konferentziak eta martxak.	88
2.5.1	Emakumeei buruzko mundu-mailako lau Konferentziak 1975-2000	88
2.5.2	Euskal Herriko Jardunaldi Feministak	91
2.5.3	2000-2020 Emakumeen Mundu Martxak	94
2.5.4	Euskal Herriko Mundu Martxa	96
2.6	Emakumeak eta hedabideak	97
2.6.1	Emakume kazetariak kazetaritzaren historian	99
2.6.1.1	Estatu Batuetan	100
2.6.1.2	Britainia Handia	102
2.6.1.3	Frantziar estatuan	104
2.6.1.4	Espainiar estatuan	104
2.6.1.5	Euskal Herrian	107
2.6.2	Emakumea eduki periodistikoan	108
2.6.2.1	GMMP proiektua	112
2.6.3	Framing edo enkoadrea eta feminismoa	115
2.6.4	Emakumeak enpresa periodistikoan: lanbidea, profesionalizazioa	121
3.	Iker galderak eta hipotesiak	131
3.1	Hipotesiak	133
3.2	Martxoaren 8a: interpretazio-markoak eta diskurtsoak	133
3.3	Eduki, protagonista eta autoreen azterketa M8an	134
4.	Metodologia	135
4.1	Metodoari sarrera	137
4.2	Agenda-ezarpina (agenda setting)	138
4.3	Eduki-analisia	140
4.4	Framing edo interpretazio-markoa	143
4.5	Unibertsoak	146
4.5.1	Denbora-unibertsoa	147
4.5.2	Komunikabide-unibertsoa	147
4.5.3	Eduki-unibertsoa	148
4.6	Egunkarien ezaugarriak: lerro periodistiko eta ideologia	148
4.6.1	Diario de Navarra (1903)	150
4.6.2	El Correo (1910)	151
4.6.3	Diario Vasco (1934)	152
4.6.4	DEIA (1977)	152
4.6.5	EGIN (1977 -1998)	154
4.6.6	NAVARRA HOY (1982-1994)	157
4.6.7	Euskaldunon Egunkaria (1990-2003)	157
4.6.8	Diario de Noticias (1994)	158
4.6.9	Gara (1999)	158
4.6.10	Berria (2003)	159
4.7	Laginak	159
4.7.1	Lagina denboraren arabera	159
4.7.2	Komunikabideen lagina	160
4.7.3	Edukiaren araberako lagina	161
4.8	Egunkarien bilaketa eta eskuratzea	164

4.9	Unitateak	165
4.9.1	Analisi-unitatea	165
4.9.2	Neurketa-unitatea	165
4.10	Kodifikazio-kategorien sistema	165
4.10.1	Edukia kodetzeko fitxa	166
4.10.1.1	ID Modulua	166
4.10.1.2	Egiletzaren modulua	167
4.10.1.3	Gaiaren modulua	167
4.10.1.4	Interpretazio-markoen modulua	168
4.10.1.5	Irudiaren analisisa	170
4.10.2	Protagonistak kodetzeko fitxa	171
4.10.2.1	NOR Fitxa honen garapena:	171
4.11	Kodelarien arteko fidagarritasun-maila eta kodetzea	173
5.	M8aren azterketa Hego Euskal Herriko egunkarietan 1978-2013 eta 2018	175
5.1	M8a Euskal Herriko hegoaldeko egunkarietan 1978-2013	178
5.1.1	Martxoaren 8a EHko prentsan: gai nagusien errelatoa	178
5.1.1.1	1978: Lehenengo ospakizunak eta manifestazioak	178
5.1.1.2	1983: abortuaren inguruko eztabaida pil-pilean	181
5.1.1.3	1988: M8a agendatik kanpo	184
5.1.1.4	1993: Emakumeak bai, feminismoa ez	188
5.1.1.5	1998: Kabulgo emakumeen protagonismoa	195
5.1.1.6	2003: Feminismoaren kontrako iritziak	200
5.1.1.7	2008: Hauteskunde-kanpaina eta ETaren ekintza	202
5.1.1.8	2013: Hugo Chavez-en heriotza	207
5.1.2	Martxoaren 8a informazio- eta iritzi-artikuluetan 1978-2013	211
5.1.2.1	Estaldura periodistikoa 1978-2013	211
5.1.2.2	Informazioaren eta iritziaren arteko erlazioa M8aren estalduran	214
5.1.2.3	M8ko estalduran erabilitako genero periodistikoak	215
5.1.2.4	M8aren estaldura egunkarietako ataletan	219
5.1.2.5	M8a egunkariak landu dituzten gaien arabera	225
5.1.2.6	M8ko kazetarien eta iritzi-egileen generoa	228
5.1.2.7	M8ko egileen rolak	230
5.1.2.8	M8ko artikuluen tamaina	234
5.1.3	Egunkariak 1978-2013 epealdian argitaratu dituzten irudien azterketa	235
5.1.3.1	Irudi-kopuruak	235
5.1.3.2	Irudi-motak	237
5.1.3.3	Irudi-egileen generoa	239
5.1.3.4	Irudien protagonistak	241
5.1.3.5	Irudien kokapena	242
5.1.3.6	Irudien dinamika	244
5.1.4	M8an argitaratu diren artikuluen interpretazio- enkoadreen azterketa	246
5.1.4.1	Interpretazio enkoadreak "gai-gertaera" binomioan	247
5.1.4.2	Generoaren enkoadrea	252
5.1.4.3	Feminismoaren enkoadrea	267
5.1.5	M8an egunkarietan agertu diren protagonisten soslaiak	281
5.1.5.1	M8aren estalduran izendatutako pertsonen kopurua	281
5.1.5.2	Norbanakoen soslaiak: generoa, izendapena, adina, familiako loturak	283
5.1.5.3	Norbanakoen rolak: artikuluan, soziala, ikasketak, lanbidea	288
5.2	Emakumeak, planto! 2018. urteko eztanda feminista	292

5.2.1	Testuingurua: 2018a, aldaketaren urtea _____	295
5.2.2	2018ko Martxoaren 8a informazio eta iritzi artikuluetan _____	297
5.2.2.1	Kazetaritza-estaldura 2018. urtean _____	297
5.2.2.2	Informazioaren eta Iritziaren arteko oreka 2018ko M8an _____	300
5.2.2.3	Kazetaritza-generoak 2018an _____	300
5.2.2.4	M8aren estaldura egunkarietako atalean 2018an _____	304
5.2.2.5	M8an landu diren gaiak 2018an _____	308
5.2.2.6	M8ko kazetarien eta iritzi-egileen generoa 2018an _____	310
5.2.2.7	M8ko egileen rolak 2018an _____	313
5.2.2.8	M8ko artikuluen tamaina _____	317
5.2.3	Irudien azterketa 2018ko martxoaren 8aren inguruan _____	318
5.2.3.1	Argitaratutako irudi-kopuruak 2018an _____	318
5.2.3.2	Irudi-motak eta tamainak 2018an _____	319
5.2.3.3	Irudi-egileen generoa 2018an2018an _____	320
5.2.3.4	Irudien protagonistak 2018an _____	321
5.2.3.5	Irudien kokapena 2018an _____	322
5.2.3.6	Irudien dinamika 2018an _____	325
5.2.4	Interpretazio-markoak 2018an _____	327
5.2.4.1	Interpretazio-enkoadreak "gai-gertaera" binomioan, 2018an _____	328
5.2.4.2	Generoaren markoa 2018an _____	330
5.2.4.3	Feminismoaren enkoadrea 2018an _____	333
6.	Ondorioak _____	341
7.	Bibliografia _____	349
8.	Eranskinak _____	361

Taulen aurkibidea

1. Taula: Egunkari-kopurua urtez urte 1978-2013	161
2. Taula: Item-kopurua 1978-2013	162
3. Taula: Item-kopurua 2018	163
4. Taula: Item-kopurua Nor Atalean 1978-2013	163
5. Taula: Item-kopurua, testu eta irudiak barne	211
6. Taula: Estaldura orokorra 1978-2013	215
7. Taula: Egunkariak erabilitako kazetaritza-generoak	219
8. Taula: M8aren kokapena egunkarien sailei begira	221
9. Taula: M8a gaien ikuspegitik	225
10. Taula: Egileen generoa, eduki guztiak barne (info+iritzi).....	228
11. Taula: informazio-egileen generoa	229
12. Taula: : iritzi-artikuluen egileen generoa	230
13. Taula: Informazio-egileen rolak	231
14. Taula: Iritzi-egileen rolak	233
15. Taula: Artikuluen tamaina.....	234
16. Taula: irudi-kopurua eta urteko batz bestekoa.....	236
17. Taula: Irudi-mota	237
18. Taula Irudi-egileen generoa	239
19. Taula: irudien protagonistak.....	241
20. Taula: irudien kokapena.....	243
21. Taula: argazkien dinamika	245
22. Taula: Gorputzaren tratamendua	246
23. Taula: Gaikako eta Gertaerak enkoadrea informazioan eta iritzian	248
24. Taula: Gaikako eta Gertaerazko enkoadreak informazioan.....	249
25. Taula: Gaikako eta Gertaerazko markoak, informazioa gaiekin uztartuz.	250
26. Taula: Genero-markoak informazio eta iritzietan.....	253
27. Taula: Genero-enkoadreak iritzietan.	262
28. Taula: Feminismoaren enkoadreak azterketa	268
29. Taula: Egunkarien enkoadreen azterketa iritzi-artikuluetan	274
30. Taula: Protagonisten kopurua informazio-atalean	283
31. Taula: Informazio-artikuluen protagonisten generoa.....	284
32. Taula. Informazio-artikuluen protagonisten izendapena	285
33. Taula: Protagonisten familiako aipamenak	287
34. Taula: Norbanakoen papera (%)	289
35. Taula: norbanakoen rol soziala	291
36. Taula: 2018ko item-kopurua, testu eta irudiak barne	298
37. Taula: Informazioaren eta iritziaren arteko oreka, 2018	300
38. Taula: M8an egunkarietan landu diren gaiak	309
39. Taula: Egileen generoa, eduki guztiak barne (info+iritzi).....	311
40. Taula: informazio-egileen generoa	312
41. Taula: iritzi-artikuluen egileen generoa	313
42. Taula: Informazio-egileen rolak	313
43. Taula: Iritzi-egileen rolak	316

44. Taula: Artikuluen tamaina.....	317
45. Taula: irudien eta testuen kopuruak eta portzentajeak	319
46. Taula: Irudi-mota	320
47. Taula Irudi-egileen generoa	321
48. Taula: irudien protagonistak.....	322
49. Taula: irudien kokapena.....	324
50. Taula: argazkien dinamika	325
51. Taula: Gorputzaren tratamendua	326
52. Taula: Gaikako eta Gertaerak enkoadreak informazioan eta iritzian	328
53. Taula: Gaikako eta Gertaerazko enkoadreak informazioan.....	329
54. Taula: Genero-markoak informazio eta iritzietan.....	330
55. Taula: Feminismoaren fokatzeen azterketa.....	334
56. Taula: Feminismoaren fokatzeen azterketa iritzi-artikuluetan.....	335

Irudien aurkibidea

1. Irudia.: DIARIO DE NAVARRA, 1978-03-09, komunikatua hitzez hitz-	179
2. Irudia: NAVARRA HOY, 1983-03-09, elkarrizketa.....	182
3. Irudia: EL Correo, 1988-03-08.....	185
4. Irudia, EL CORREO , 2013-03-09, x.....	208
5. Irudia, EL CORREO, 2013-03-10;	208
6. Irudia; DIARIO VASCO, 1998-03-08; 26. or.	222
7. Irudia: Diario Vasco, 2013-03-07; 18. or.	222
8. Irudia: Egin, 1978-03-09; 1- or.	224
9. Irudia: Egin, 1978-03-7. 10. or. Marizikin M8aren aurrean	238
10. Irudia: EGIN, 2008-03-08, 22. or. Tasioren Bineta	239
11. Irudia: Egunero, 2003-03-09; 13.or. informazioa eta argazkia sinatu barik.....	240
12. Irudia: Marcela Ojedaren txioa	294
13. Irudia: EL Correo, 2018-03-07; 15. orrialdea. Gai-nahasketa.....	306
14. Irudia: DIARIO DE NOTICIAS 2018-03-09, azal doblearen adibidea.....	307
15. Irudia: Berria 2018-03-09; Emakume kazetarien grebaren ondorioak	308
16. Irudia: EL Correo. 2018-03-08; 7. or.....	318
17. Irudia: EL Correo	327
18. Irudia: Diario de Navarra.....	327
19. Irudia: Gara, Tasioren bineta	327

Grafikoen aurkibidea

1. Grafikoa: 1978 -2013 publikatutako item-kopuruak urtez urte	212
2. Grafikoa: Egunez egun publikatutako item-kopuruak (1978-2013).....	214
3. Grafikoa: erabilitako kazetaritza-generoak.....	216
4. Grafikoa: Martxoaren 8 gaia egunkarien atalen arabera.....	220
5. Grafikoa: Argitaratutako irudi-kopuruak urtez urte 1978-2013	236
6. Grafikoa: Eskubideen aldarrikapena markoaren kronologia	257
7. Grafikoa: Genero-rol tradizionala markoaren kronologia	258
8. Grafikoa: Politikan parte-hartzea markoaren kronologia	259
9. Grafikoa: Tribalizazioa markoaren kronologia	260
10. Grafikoa: Deabruaren markoa	261
11. Grafikoa: Enkoadre tradizionalaren kronologia	270
12. Grafikoa: Feminismoaren enkoadrearen kronologia	272
13. Grafikoa: Berdintasunaren enkoadrearen kronologia	273
14. Grafikoa: Antifeminismoaren enkoadrearen kronologia.....	274
15. Grafikoa: Pertsonen aipamenak urtez urte	282
16. Grafikoa: Egunez egun publikatutako item-kopuruak (2018).....	299
17. Grafikoa: 2018an erabilitako kazetaritza-generoak.....	301
18. Grafikoa: "Martxoaren 8a" gaia egunkarien atalen arabera	305

1. SARRERA

1.1 Feminismoaren irudia Euskal Herriko prentsan: Martxoaren 8aren analisia

Albisteak ez dira errealitatearen isla, baizik eta errealitate horren irudikapen, errepresentazio eta interpretazio bat, albistearen narrazioa zenbait faktorez dago mugatuta, lehenengoa kazetariak egiten duen hautaketan: zer den albiste-gai eta zer ez, zeintzuk hitz hautatzen dira albiste horren lanketan, non eta nola argitaratzen den albiste. Albiste leihobat da eta leihobat horren bidez mundua ikusten dugu, mundua ikasten dugu. Albisteak zer jakin nahi dugu esaten digu, zer jakin behar dugu eta zer jakin beharko genuke. Leihobat horren tamainak, leihobat horren kristalaren koloreak, leihobat horren kokapenak ikuspegi desberdina emango du, eta munduaren irudi aldakorra irudikatuko du.

Lan honetan Hego Euskal Herriko prentsak Euskal Mugimendu Feministari eraiki dion irudia aztertu nahi da, irudi horren koloreak eta marrazkiak/mugak ezagutzera eman.

Kostatu zitzaidan gaia finkatzea, eta zehaztea, argi nuen emakumeak izango zirela ardatza, eta zehazki feminismoa landu nahi nuela, baina ez neukan oso argi nondik abiatu. Ideia artikulua baten irakurketak eman zidan, «*Análisis del tratamiento de la mujer en la prensa española. Día Internacional de las Mujeres*» (Gomez Patiño 2011). Hortik aurrera bidea disenatzea eta abiatzea bestetik ez zen gelditzen

Feminismoak emakumeen esperientzian oinarritutako eta emakumeak menderatu dituzten iragan eta gaur egungo erlazio sozialak kritikatzeko eta akabatu nahi duen teoria sozial eta praktika-multzo bat da, horrela gizarte justuago bat sortzeko. Azken helburua antolakuntza-forma generiko ez zapaltzaile eta mugitzen den gizarte bat sortzea litzateke (Legarde, 1997: 21, Gemma Nicolasek ekarria).

Euskal Herria poliedrikoa da, eta horren adibide bat prentsa-aniztasuna da. Prentsa-eredu desberdinak ditugu, talde editorial handiak, Vocento adibidez, eta talde txikiak (EKT, Noticias Taldea, EKHE). Ideologikoki ere anitzak dira, esker eskuin banaketa klasikotik hasita, eta prentsa abertzale, ez abertzale

banaketarekin jarraituz, aniztasun honen emaitza da lau probintzia hauetako kioskoetan gaur bertako bederatzi hedabide idatzi orokor aurki ditzakegula.

Aniztasun horren isla dira aztertuko diren hedabideak. Hamaika egunkari hautatu dira, ahal den esparru ideologiko zein politiko zabalena ordezkatzeko. Hauek dira aztertutako hedabideak, BERRIA eta EGUNKARIA (EGUNERO), NAVARRA HOY, DEIA eta DIARIO DE NOTICIAS, EL CORREO eta DIARIO VASCO, DIARIO DE NAVARRA, EGIN eta GARA¹, hau da, Hego Euskal Herrian argitaratu diren egunkari orokor garrantzitsuenak, zabaltasun ideologiko horren isla emango dutenak.

Ikerketak hasieran Hego Euskal Herrian 1978 eta 2013 tartean argitaratu diren egunkariak nola irudikatu duten Martxoaren 8a aztertu behar zuen. Baina lana ia amaitutzat zegoenean 2018ko Martxoaren 8a eztanda bat izan zen gure gizartean eta mundu-mailakoan. Horregatik ezinbestekotzat jo genuen hura ere aztertzeraz.

Ikerketaren denbora-lerroa 1978tik 2018ra doa. Bi mugarri nagusi daude hasiera-data hori hautatzeko, alde batetik DEIA eta EGIN egunkariaren sorrera, urte horretan jaio baitziren (1997ko ekainean eta irailean hurrenez hurren) Bi egunkari hauek, ideologia abertzalearen inguruan kokatzen dira (Idoiaga eta Ramirez, 2002), trantsizio-garaian jaio eta denboran mantendu ziren².

Bestetik 1977. urteko abenduan Euskadiko Lehen Jardunaldi feministak antolatu ziren Leioako Unibertsitateko Campusean. Teresa Del Valle-ren arabera, Euskal Mugimendu Feministaren lehen mugarrira litzateke. Sortze-mugarria lirateke jardunaldiok, identitate feministaren legitimatzaile (Del Valle, 1997: 75). Gure ikerketa gaur egun amaitzen da, uste baitugu 40 urteko ibilbide honek argituko dituela marrazki horren koloreak.

Martxoaren 8a lehenengo aldiz 1911. urtean opatu zen Austria-Hungarian, Danimarkan, Suitzan eta Alemanian, Clara Zetkin ekintzaile sozialista deialdiari jarraituz. Urte bat lehenago, 1910.ean alegia, Emakume Sozialisten Nazioarteko II Bilkura egin zen Kopenhagen eta bertan Zetkin-ek, Alemaniako emakume sozialisten liderra zenak, emakumeen eskubideen aldeko eguna proposatu zuen, eta aho batez onartu zuten bertaratuta zeuden 100 emakumek. Eskaera horrek,

¹ Euskadi Información at geratzen da hartutako epeak direla eta.

² 1988ko uztailaren 15an Espainiako Auzitegi Nazionalak EGIN itxi zuen eta bere Zuzendaria Javier Salutregi eta beste zenbait kide atxilotu zituen

oinarrian, Ameriketako Estatu Batuetako emakumeek 1908tik emakumeek botoa lortzeko ospatzen zuten “*Women’s Day*” zuen.

Franko hil ondoren 1977. urtean lehenengo aldiz Emakume Langileen Eguna ospatu zen Hego Euskal Herrian. Egun hartan Bilbon 1000 bat emakume batu ziren eguna ospatzeko, (Anaitasuna, 1977).

Hego Euskal Herriko prentsak azken 40 urtetan islatu duten Feminismoaren irudia aztertuko da eta horretarako Martxoaren 8 ardatza izango da, borroka egun honen inguruan Mugimendu Feministaren mezuak agendan sartzen direla uste baitugu.

Framing eta eduki-azterketan oinarritzen da lan hau. Metodo kuantitaboez gain, aldaera kualitatiboa ere kontutan hartuko da. Gure lehenengo helburua izango da nola enkoadratu duten feminismoa EHko egunkariak, zeintzuk eta zenbat *frame* edo koadratze-eskemak erabili dituzten azken 40 urtetan feminismoaz berri emateko. Bigarren helburu bat egunkari horien artean desberdintasun nabariak dauden edo ez ikertzea da, baita urteen poderioz enkoadre horiek aldatu diren. Badago hirugarren helburu bat, *framing* edo koadratze-teoria hauen ikerketa sakona egin eta gure errealitatea aztertzeko tresna baten oinarriak sortzea.

Framinga ikertzerakoan, aditu batzuek bost enkoadre identifikatu dituzte gai baten inguruan informazioa eratzean: protesta-paradigma, giza interesa, konfliktua, ondorio ekonomikoak, ardurak edo erresponsabilitatea, eta moralaren markoa. Feminismoaren kasuan Lind eta Salok aurkitutako 6 markoak erabili ditugu (Deabruaren markoa, tribializazioa edo hutsaltzearena, eskubideen aldarrikapena, tradizionala, politika esku-hartzea, eta borroka/ekintzaren kokapenarena).

M8a informazio-gai edo ardatza bada, aurreko egunetako agendan markatuta egongo da, prebisioak eta aurre prestakuntza-lanak hedabidetako plangintzan agertuko dira. Eta ondorengo 3 egunetan erreakzioak eta balorazioak argitara emango dira. Honek asteburuak aztertzeko aukera ematen digu, non elkarrizketa edota erreportaje luzeak lantzeko aukera aurkituko dugun. Ale hauen hustuketa sistematikoa egingo da, eta informazioa, iritzia edota gehigarriak hartuko dira kontuan, baita grafiko zein binetak ere. Publizitatea ikerketatik kanpo geldituko da.

Tesia egunkari bakoitzak feminismoari emandako trataera ulertzeko baliogarria izango da. Uste dugu desberdintasunak aurkituko ditugula, egunkarien ideologiari lotuta tratamendu eta jokaera desberdinak agertuko direla, baina ikerketak esango digu noraino edo zeri lotzen diren desberdintasun horiek, horretaz ikerketa mintzatuko da.

Izan ere, honelako tesi batek balio sozial eta akademikoak ditu nagusi eta ikertzaileen marfilezko dorrean (Lazarsfeld-Adorno eztabaida 1940etan) bakarrik gelditzea ez da ona, baizik gizartera zabaltzea, hedabideen praktika ezagutarazteko eta, behar balitz, aldarazteko..

1.2 Tesiaren egitura

Ikerketa honen irakurketa egoki baterako irakurleak jakin behar du nondik nora joan. Tesi hau zortzi kapitulutan dago banatuta: irakurtzen ari zaren Sarrera, non gaia kokatu dugun eta tesiaren irakurketa-gida egiten saiatu garen; ondoren Corpus teorikoa, iker-galderak eta hipotesiak, metodologia, emaitzak eta ondorioak jasotzen dituzten kapituluak datoz. Azken bi ataletan erabilitako bibliografia eta eranskinak daude.

Corpus teorikoan hainbat bide aztertu ditugu; alde batetik, feminismoaren definizioa bilatu ondoren, genero-ikasketetan sartu gara, bai Estatu Batuetan, bai Europan, Hego Euskal Herriko egoeran bukatzeko. Feminismoaren eta Emakumeen Askatze Mugimenduaren historian ere sartu gara, gaurko errealitatea ulertzeko funtsezkoa tresna zirudien. Hurrengo urratsa M8a finkatzea izan zen, nondik datorren eta nola finkatu den egutegian. Mugimendu global horrek munduan antolatzen dituen mobilizazioak eta horiek gure gizartean zehaztea aurrekari horien guztien ondorio zuzena izan zen.

Bigarren ardatz bat emakumearen eta hedabideen arteko harremanak ikertzea izan zen. Harreman horretan hainbat norabidetan lan egin da, alde batetik emakume kazetarien historia, kazetaritzaren historiako liburuetan agertzen ez diren ezezagun horiek, bestetik emakumeak eduki periodistikoaren inguruan egindako ikerketak aztertu dira, baita feminismoaren tratamenduari *framingaren*

teoriak aplikatuz egindako ikerketa, eta amaitzeko, emakumeak enpresa periodistikoan duen papera ikertu dituzten lanak aztertu dira.

Horrek guztiak egoeraren ikuspegi zabala izateko aukera eman digu, eta gure ikerketa diseinatzeko tresnak eskaini dizkigu.

Hurrengo bi kapitulutan iker-galderak eta hipotesiak eta metodologia zehaztu ditugu. Aurretik esan dugunez eduki analisisan eta framing-en teorietan oinarritzen da tesi hau. Gure hipotesiak eta ikerketa-galderei erantzuteko aproposa den metodologia bat diseinatzeko erabili ditugun tresnen azterketa sakona aurkitzen da hemen, baita zeintzuk izan diren gure unibertsoak, laginaren aukeraketa, unitateen definizioa eta kodifikazio-kategorien sistema osoa. Lan honetan erabili diren egunkarien ezaugarrien sintesi bat egitea erabaki genuen, izan ere horietako bakoitza baldintza eta testuinguru desberdinetan garatu da, eta guztiek dituzte historia eta ezaugarri propioak. Kontsultatutako zenbakien kokalekuen eskema ere erantsi dugu. Hemen ere EHUko Hemerrotekako langileen profesionaltasuna eskertu behar dugu, han aurkitu baititugu gure lagin gehienak.

Bosgarren kapituluan gure analisiaren emaitzak azaldu ditugu. Kapitulu hau bi ataletan banatu da: batetik, hasierako emaitzak (1978-2013) eta, bestetik, 2018ko datuak. Hori egiteko bi arrazoi nagusi daude: batetik, 2018rako ia bukatuta zegoen kapitulua, eta urte horretako datuak bateratzea zaila zen. Bestalde, 2018ko lagina oso handia zen, eta konparazioa desorekatuegia. Horregatik hartzen da bi atalak egiteko erabakia.

Kapitulu honetan, alde batetik, irakurketa kualitatibotik abiatuta, aztertutako urteen testuinguruaren panoramika bat egin da, M8aren ospakizuna garaiko gizartean kokatzeko, eta, ondoren, laginaren azterketan lortutako emaitzak aztertu dira.

Doktorego-tesi hau seigarren kapituluarekin amaitzen da. Honetan emaitzen laburpena eta planteatutako hipotesiekiko erlazioa aurkezten dira, bai eta ondorioak eta etorkizuneko ikerketa-ildoak ere. Zazpigarrenak erreferentzia bibliografikoak ditu. Eta zortzigarrena eta azkena eranskinei dagokie.

1.3 Zenbait ohar

Sarrera hau amaitu aurretik, zenbait ohar egin behar dira doktorego-tesi honen idazketari buruz.

Erabilitako hizkuntzari dagokionez, euskaraz idaztea eta garatzea izan da nire hautua. Ezin bestela izan. Nire jatorriak Lamiakon (Leioa) eta Portugaleten daude, amamen belaunaldian euskara galdu zuen familia batekoa naiz, baina nire amaren amore eta ahaleginari esker, lau neba-arrebek euskaraz ikasi ahal izan genuen. Bi urterekin jarri ninduten harremanetan euskararekin lehen aldiz, Francoren garaian, Portugaleteko Elai Alai entsaio-lokalean haurtzaindegi txiki batean. Geroztik nire ikasketa-ibilbide guztia hizkuntza honetan landu dut, salbuespen batzuekin. Unibertsitatean ere euskaraz ikasi nuen, Kazetaritzako hasierako euskal adarrak euskaraz bizitzea posible zela erakutsi zidan, eta Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) euskaraz ikertzea dibertigarria ere izan zitekeela ikasi nuen.

Euskara batua erabili da, Euskaltzaindiaren arauak modu ahalik eta estuenean betez.

Hego Euskal Herriko prentsa aztertu dut, hau da, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako prentsa. Iparraldea alboratu dut arrazoi praktikoengatik, ez baitut frantsesa ezagutzen.

M8a eta martxoak 8a bereiztu ditut. M8a Emakumaren Nazioarteko Egunari aipatzeko erabili dut, martxoak 8a, aldiz, datari dagokio. Agian, paragraforen batetan aldatuta ikusiko duzue, barka endredoa.

Egunkarietako izenak MAIUSKULA TXIKIETAN idaztea erabaki dut irakurketa errazteko. Baita Emakunde edo Nafarroako Berdintasuna Institutua aipatzeko.

Bibliografia kudeatzeko Zotero kudeatzaile bibliografikoa erabili dut, euskarara moldatuta. Software librea da, edozeinek eskura dezake eta euskarara itzulita dago aspaldian, horiek izan ziren nire arrazoi nagusienak erabaki hau hartzeko.

Erabilitako bibliografia hiru hizkuntzetan dago, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Corpus teorikoan gaztelaniaz eta ingelesez aukeratu ditudan aipuak euskaratu ditut, Jexuxmari Zalakainek lagundu dit hainbat itzulpenetan. Egunkariekin egindako aipuak berriz ez dira itzuli, egunkari bakoitzak hautatu duen hizkuntza errespetatu da. Hori ere esanguratsua baita.

Bibliografian autoreen izen abizenak osorik erabili ditud, arrazoi nagusi bategatik, izan ere, badakigu lehenengo hizki baten atzean autoreea emakumea dela asmatzea zaila egiten dela, eta erakutsi nahi dut hemen erabiltzen diren lan asko emakume ikertzaileek egin eta idatzi dituztela.

Hizkuntz orrazketan ere lagundu dit Zalakainek. Zaila egiten zait eskerrak ematea egin duen lan desinteresatuagatik eta erakutsitako pazientziagatik.

2. CORPUS TEORIKOA

2.1 Feminismoa

Atal honetan, sarrera txiki baten ostean, tesi honen funtsean dauden bi kontzeptu nagusi definitu eta azalduko ditugu, **feminismoa** eta **patriarkatua**.

2.1.1 Sarrera

XXI. mendeko emakumeen egoera soziopolitikoak ulertzeko emakumeek historikoki jasan duten diskriminazioa ikusi eta azaldu behar da. Emakumeek historikoki ikusezinak izan gara gizartearen edozein arlotan, bai zientzian, baita historian, artean, hedabideetan, eskola-liburuetan, enpresako agintaritzan, politikan edota ekonomian ere.

Fenomeno honen atzean munduaren ikuspegi androzentrista ez ezik, emakumeek gure hezkuntza eta giza garapenean izan ditugun zailtasun, oztopo eta debekuak daude. Oraindik ere emakumezkoen presentzia urria eta murrizta da gizartearen edozein esparrutan, nahiz eta azken urteotan egoera honi buelta emateko saiakera, eta lorpen, anitz egon diren. Ikusezintasun honen arrazoiak ugariak dira: historikoki emakumezkoak botere-zirkuluetatik kanpo gelditu dira, emakumeak esfera pribatuetan mugatuta egon dira, gizonek esfera publikoa dominatzen zuten bitartean.

Androzentrismoak, hau da, «Gizonezkoa unibertsoaren erdigune eta gauza guztien neurri bezala hartuta»³ (Sau 2001, l:45) errealitatea deformatu du, zientzia baldintzatu, eta eguneroko bizitzan eragin nabarmena izan du. Edozein ikerketa edo azterketa fokatzerakoan gizonezkoen errealitateak bakarrik hartu ohi dira oinarritzat, baina horren ondorioak orokorrak balira bezala ematen dira, hau da, gizon eta emakumei dagozkiela esaten da, eta honek emaitzen desbirtualizazioa dakar.

Azterketa eza honek emakumeen ikusezintasun historikoa sorrarazi du. Ikusten ez dena ez da existitzen. Oinarrian gizartearen ikuspegi androzentrista dago, non gizonek, botera bereganatu zutenetik, mundua haien ikuspegira moldatu duten.

³ «El Hombre es el centro y medida de todo».

Antropologoen herrien ohiturak ikertzen zituztenean, askotan, soilik gizonezkoen esperientzietan oinarritzen ziren, horrela emakumezkoen soslaia ikusezin bihurtzen zuten, eta gizartearen zati bat islatu, ez osorik.

Egoera honetaz jabetuta, 1950-60ko hamarkadetan zenbait emakume ikertzaile feministak Emakumezkoen Ikerketak garatu eta bultzatu zituzten AEBko eta Europako Akademian.

Ana de Jorge-ren arabera, ikertzaileak ez dira ados jarri Emakumezkoen Ikerketak definitzeko garaian batzuentzat feminismoak teoria oso bat garatu du, beste kasu batzuetan metodologia feministari garrantzia ematen zaio, eta ikerketa- metodo feminista bat eratu dela esaten da. Ikerketa hauetan ikertzaileak ikuspuntu berri batetik arakutzen du ikerketa-gaia, eta horretan gehiengoa ados dago. Autore honen arabera ezin dugu ahaztu ikerketa hauen jaiogunea ez dela izan zientzia-arloa, baizik eta emakumezkoen eskubideen aldeko borroka, eta hori ekidin ezina dela (Jorge, 2004, 25. or.).

2.1.2 Feminismoaren definizioa

Ilustrazioaren oinarria gizonen arteko berdintasunaren printzipioan oinarritzen bada, feminismoak oinarri hori baldintzapean jarriko du, eta gizonen eta emakumeen arteko harremanen antolaketan jarriko du gakoa. Marcela Legarde, feminismoak definitzean, horrela mintzatzen da:

«Feminismoak defini ditzakegu mugimendu sozial feministak garatutako politika praktiko eta teoria sozialen multzo gisara, lehengo eta egungo emakumeen menderakuntza-harremanak kritikatu eta amaiera emateko zein, gizartea justuago bihurtzeko xedez eraldatzeko, borrokatzen direnak. Azken helburua erakundetze-modu generikoko, eta ez zapaltzaileko gizartea, mugimenduan dagoena, antolatzea litzateke»⁴.

Emakumeek emakume izateagatik jasaten duten diskriminazioaz ohartuta, teoria eta praktika politiko bat eratu dute diskriminazio horri aurre egiteko eta gizartean aldaketa bat emateko: Feminismoa. Gizarte-mugimendu eta filosofia politikoa da aldi berean feminismoa, batzuetan mugimendu moduan izan du

⁴ «Podríamos definir feminismos como el conjunto de políticas prácticas y teorías sociales desarrolladas por el movimiento social feminista que critican las relaciones pasadas y presentes de sometimiento de las mujeres y luchan por ponerles fin, y transformar, así, la sociedad para hacerla más justa. El objetivo último sería contruir una sociedad con formas de organización genérica no opresiva y en movimiento».

indarra, sufragismoaren garaian adibidez, eta beste batzuetan teoria politikoan murgildu da. Feminismoaren oinarrian (hasieran) emakumeen eskubideen ahalduntze-prozesua dago, emakumeek beraien eskubideen urraketaz kontzientzia hartu zutenean eta hauen aldarrikapena egiten hasi zirenean. Kontzientzia-hartze hori feminismoaren lehen urratsa da.

Harluxet Hiztegi Entziklopedikoak honako definizioa ematen du:

«Feminismoa: iz. Emakumeen eskubideak eta estatusa zabaldu eta sakontzea helburu duen teoria eta mugimendu soziopolitikoak. Emakumeek patriarkatuaren baitan gizonetzkoek osatutako giza taldearekiko menpekotasuna eta esplotazioa jasan eta jasaten dituen giza taldea osatzen dutela oinarritzat hartuz, bere sexuaren askapenerako gizarteak behar dituen aldaketak eragin nahi ditu feminismoak»

Eta Lur hiztegi Entziklopedikoak eta Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiak (22. Argitalpena) doktrina kontzeptua erabiltzen dute Feminismoa definitzeko: «Emakumearen eta gizonaren eskubide-berdintasunaren alde egiten duen doktrina» da, eta «Emakumeen aldeko gizarte-doktrina, zeintzuei ematen baitzaizkie iraganean gizonari bakarrik zegozkien ahalmenak eta eskubideak»⁵ hurrenez hurren. Baita Maria Moliner-en Hiztegiaren ere: «Emakumeen eta gizonen eskubideen arteko berdintasuna bidezkoztat duen doktrina»⁶ (1981).

Victoria Sau-k filosofa feministak emakumeek kontzientzia hartzean jartzen du indarra, emakumeak patriarkatuak inposatzen duen dominazioaz eta esplotazioaz jabetzen direnean eragiten duten mugimendu askatzailea da, hemen definizioa: (2001, I:121):

«Feminismoa XVIII. mendearen bukaera aldera formalki hasten den mugimendu sozial eta politikoa da, eta adierazten du emakumeen talde zein kolektibo gisa, patriarkatu barruan, berorren produkzio-ereduaren fase historiko ezberdinetan, gizonen kolektibotik jasan eta jasaten duten zapalkuntza, menderakuntza eta esplotazioaz kontzientzia hartzea, zeinak

⁵ *Doctrina social favorable a la mujer, a quien concede capacidad y derechos reservados antes a los hombres. 2. m. Movimiento que exige para las mujeres iguales derechos que para los hombres.*

⁶ *«Doctrina que considera justa la igualdad de derechos entre hombres y mujeres» eta «movimiento encaminado a conseguir esa igualdad».*

beren sexu-askapenerako ekinbidera eragiten dituen, horrek eska ditzakeen gizarte-eraldaketa guztiekin»⁷.

M. Isabel Carrera Bosch historialariak honela definitu zuen feminismoa: «emakumearentzako estatus pertsonal, sozial eta juridikorako mugimendua»⁸(2007).

Bietan kontzeptu bera topatzen dugu, emakumeen aldaketa, emakumearen estatus berria. Are gehiago, Ana de Miguel-en definizioak zehazten du emakumezkoen diskriminazioaz jabetu behar dela, bestela ezin dela feminismoaz hitz egin:

«Emakumeei buruzko istorio gertatu berriek nabarmentzen dutenez, haiek protagonismo garrantzitsua izan dute ia beti matxinada eta mugimendu sozialetan. Aldiz, emakumeen parte-hartzea ez bada sexu-diskriminazioaren jabe, ezin kontsidera daiteke»⁹ (Ana de Miguel Álvarez 2007).

1949an Simone de Beauvoir-ek pentsamendu feministaren artikulaturiko teoria eta praktika den *Bigarren Sexua* liburua publikatu zuen. Liburuaren ardatz nagusia da emakumea ez dela jaiotzen, baizik eta egin egiten dela. Liburuak arrakasta handia izan zuen eta kritika ugari jaso zituen ere. Feminismoaren historia mugarri bat izan den liburu honetan Beauvoir filosofia existentzialistatik abiatzen da “emakumea” zer den azaltzeko. Beauvoir-ek dioenez, emakumetzat ulertzen duguna (friboloa, apetatsua, pinpirina, basatia edo apala, esanekoa, goxoa) produktu kultural bat da, sozialki eratu dena. Historikoki emakumea beste zerbaitekin alderatu da ama, alaba, emaztea, arreba... Beraz, emakumearen lehenengo beharra bere identitate espezifikoa berreskuratzea da, norbere

⁷ «El feminismo es un movimiento social y político que se inicia formalmente a finales del siglo XVIII y que supone la toma de conciencia de las mujeres como grupo o colectivo humano, de la opresión, dominación y explotación de que han sido y son objeto por parte del colectivo de varones en el seno del patriarcado bajo sus distintas fases históricas de modelo de producción, lo cual las mueve a la acción para la liberación de su sexo con todas las transformaciones de la sociedad que aquélla requiera”.

⁸ «un movimiento reivindicador de un nuevo estatus personal, social y jurídico para la mujer».

⁹ «Como ponen de relieve las recientes historias de las mujeres, éstas han tenido casi siempre un importante protagonismo en las revueltas y movimientos sociales. Sin embargo, si la participación de las mujeres no es consciente de la discriminación sexual, no puede considerarse feminista».

irizpideak aplikatuz. Bere teoria esaldi ezagun batean laburtu zuen, «Emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da»¹⁰.

Hamahiru urte beranduago, 1963ean, Betty Friedan-ek *La mística de la feminidad* lanarekin emakumeak esfera publikora salto egitera bultzatu zituen, Alicia Puleo-k (2007, 19) jasotzen duenez.

«etxeoandre ia perfektu haiek, depresio-zantzu ugari eta guzti, jasaten zuten “izenik gabeko gaitzaren” kontrako erremedioa politikaren, soldatapeko lanaren, kultur kreaazioaren, politikaren mundura ateratzea besterik ez zen»¹¹.

Emakumeen identitate-arazoekin kezkatutik, Friedan-en ustez bigarren mundu-gerraren ondorioz gertatu zen egoera ekonomikoaren gorakadak egonezina sortu zuen emakumeen artean, menpekotasun-harremanak agerian utziz. «Emakumea da, gizonarekin harremana den heinean»¹². Emakumea “Bestea” da, gizonarekin alderatzen da izateko. Bi autore hauek, Friedan-ek eta Beauvoir-ek, hurrengo urteetako feminismoaren garapen teorikoren oinarriak jarri zituzten.

Feminismoa justizian oinarritzen den diskurtso politikoa da, Nuria Varela-k esaten duenez (2005):

«Feminismoa justizian oinarritutako diskurtso politikoa da. Bizi duten errealitatea aztertu ondoren, soilik emakume-izate hutsagatik jasaten duten diskriminazioaz kontzientzia hartu eta haiekin amaitzeko, gizartea aldatzeko, antolatzeko erabakia hartzen duten emakumeek teoria eta praktika politiko bat artikulatu dute. Errealitate horretatik hasita, feminismoa filosofía politikoa eta aldi berean herri-mugimendu moduan artikulatzen da»¹³.

¹⁰ «La mujer no nace, se hace».

¹¹ «el remedio contra el “mal que no tiene nombre” que aquejaba a estas amas de casa perfectas, con múltiples síntomas de depresión era, simple y llanamente, la salida al mundo de lo público, del trabajo asalariado, de la creación cultural, de la política».

¹² La mujer es en relación con el hombre.

¹³ «El feminismo es un discurso político que se basa en la justicia. Es una teoría y práctica política articulada por mujeres que tras analizar la realidad en la que viven toman conciencia de las discriminaciones que sufren por la única razón de ser mujeres y deciden organizarse para acabar con ellas, para cambiar la sociedad. Partiendo de esa realidad, el feminismo se articula como filosofía política y, al mismo tiempo, como movimiento social».

Emakumeek, bizi duten errealitatea aztertu ondoren, egoera injustu batean bizirautean direla konturatu dira, eta horri aurre egiteko eta gizartea aldatzeko teoria eta praktika politiko bat eratu dute, Feminismoa hain zuzen.

Mary Nash-ek *Feminismoaz* hitz egiten du, alegia, pluralean. Honen ustez ez dago feminismo bakar bat, baizik eta hainbat korrontez osatutako mugimendu konplexua:

«Pentsamendu feminista eta, mugimendu soziala den heinean, gaurkotasan handieneko adierazpena fenomeno historiko konplexuak dira, manifestazio uniformetara mugatu ezin diren hainbat adar dituena. Ez dago feminismoaren kanon unibertsal bakarra»¹⁴ (2005, 68).

Feminismoa etengabe birplanteatzen den kontzeptua dela dio Nash-ek:

«Feminismo terminoaren definizioa ikerketa historikoetan ez da beti berbera izan, aldiz faktore horien arabera birformulatuak izan dira. Haren interpretazioa etengabe birmoldatzen ari da »¹⁵ (2005, 68).

Nash-ek abiapuntutzat Akkerman eta Stuurman holandar historiagileek 1998an emandako definizioa hartzen du. Historiagile hauek zenbait gai hartzen dute aintzat Europako feminismoaren historia azaltzeko:

«misoginia eta gizonaren gorentasuna, emakumeen egoera ez zela egitate natural bat, baizik eta hobetu zitekeela, talde-identitate, genero-identitatean, emakumeen izenean hitz egiteko gogo eta sexu femeninoaren defentsa»¹⁶ (Akkerman eta Stuurman 1998).

Definizio honetan bi elementu bereizten dira, gizonaren gorentasuna eta emakumeen egoeraren aldaketa-nahia.

¹⁴ «El pensamiento feminista y la expresión más contemporánea del feminismo como movimiento social constituyen un fenómeno histórico complejo, con múltiples corrientes que no pueden reducirse a manifestaciones uniformes. No existe un único canon universal del feminismo».

¹⁵ «La definición del término feminismo en los estudios históricos no ha sido siempre la misma, sino que ha sido reformulada en función de la influencia de estos factores. Su interpretación está en constante reelaboración».

¹⁶ «La crítica a la misoginia y la supremacía masculina; la convicción de que la condición de las mujeres no era un hecho inmutable de la naturaleza, sino que podía mejorar; la existencia de un sentido de identidad de grupo, de género; la voluntad de hablar en nombre de las mujeres y de defender el sexo femenino con la intención de ampliar el ámbito de actuación de las mujeres».

Gaur egun ez dugu Feminismo bateratu batez hitz egiten, Feminismoak adar ugari ditu, hala nola ekofeminismoa, desberdintasunaren feminismoa, *Queer* teoriak edota ziberfeminismoa, beste askoren artean. Beste korrante batzuek feminismoz eta islamez, feminismo postkolonialistaz edota emakume indigenen feminismoez hitz egiten dute¹⁷.

Emakumeen Munduko Martxa mugimenduaren arabera feminismoa pentsamolde bat da, munduari begiratzeko beste modu bat. Desberdintasunak azpimarratzetik harago doan pentsamoldea da eta desberdina denarekiko beldurra betikotzen duen sistema ezabatzea da bere xedea, desberdintasunarekiko gorrotoa eta indarkeria pizten duen sistema, alegia¹⁸.

2.1.3 Patriarkatua

Patriarkatua Grezian eta Erroman sortutako sistema da, sistema horretan etxe bakoitzeko familia-buruak botere legal eta ekonomiko osoa zuen familiako beste kideen gainean, bai gizonen eta baita emakumeen gainean ere. Zentzurik zabalenean hartuz gero, gizonek familiako emakume eta haurrengan duten nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa da, eta nagusitasun maskulino hori gizarteko emakume guztiengana zabaltzea.

Teoria feministek, ordea, kontzeptua eguneratu eta honela definitu zuten: Patriarkatua gizarte-ordena bat da, zeinak sexua ezartzen duen marka gisa, pertsona bakoitzari jarduera, zeregin, harreman eta botere zehatz batzuk esleitzeko. Botereen, hierarkien eta balioen sare egituratu horrek maskulinitasunaren eta femeninitasunaren eredu jakin batzuk proposatzen ditu, unibertsal, dikotomiko eta elkarren arteko aurkari gisa. Horren arabera, gizonek gizarteko erakunde garrantzitsu guztietan dute boterea, eta emakumeei haietan sartzea galarazi zaie, baina ez du esan nahi emakumeek batere botererik, eskubiderik edo baliabiderik ez izatea.

Menderapen-sistema hori sexu biologikoaren bitartez justifikatzen denez, ezartzen duen ordena normalean naturaltzat hartzen da eta ezin eralda daitekeen eraikuntza sozialtzat.

¹⁷ "Los feminismos a través de la historia" webguneak hasiera puntuak ematen digu gai honetan sakontzeko, De Miguel Alvarez 2007.

¹⁸ <http://2010emakumeenmundumartxa.blogspot.com.es/>

Emakumeen ikasketen arabera, gizonen eta emakumeen arteko asimetrien existentzia gizarte-eredu patriarkalaren ondorioa da. Gizarte patriarkalaren egituraren muinean familia legoke, eta gizonaren autoritatea familia barruan abiapuntua litzateke talde sozialaren botereaz jabetzeko.

Gerda Lerner-ek definizio hau eman zuen:

«Gizonek emakumeen eta familiako neska-mutilen gainean duten nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa; nagusitasun hori gizarte osora hedatu da»¹⁹ (Lerner eta Tusell 1990).

Horren arabera, gizonek gizarteko erakunde garrantzitsu guztietan dute boterea, eta emakumeei haietan sartzea galarazi zaie, baina ez du esan nahi emakumeek batere botererik, eskubiderik edo baliabiderik ez izatea.

Alberdi eta Matas-ek esaten dute patriarkatua ezagutzen diren kultura guztietan eredu izan dela eta, hain zuzen ere, hori bere tresnarik indartsuena dela, unibertzialitate horrek ematen dio legitimitatea, naturan oinarritutakoa balitz bezala (Alberdi eta Matas, 36–39).

Nuria Varela-k (2005, 177) Dolores Reguant-en (1996) definizioa ematen digu:

«Gizonaren autoritatean eta lidergoan oinarrituriko antolamendu-modu politiko, ekonomiko, erlijioso eta soziala da, non gizonen nagusitasuna dagoen emakumeekiko; senarrarena emaztearekiko; aitarena ama, seme eta alabekiko; zaharrena gazteekiko eta aitaren ondorengo lerroarena amarenarekiko. Patriarkatua gizonen botere-hartze historikotik sortu da, zeinak emakumeen sexualitateaz, erreproduzioaz eta haren produktuaz, seme-alabez, jabetu ziren, aldi berean mitoen eta erlijioen bitartez ordena sinbolikoa sortu eta egitura posible bakartzat iraunaraziz»²⁰.

¹⁹ «la manifestación e institucionalización del dominio masculino sobre las mujeres y niños/as de la familia y la ampliación de ese dominio sobre las mujeres en la sociedad en general».

²⁰ «Es una forma de organización política, económica, religiosa y social basada en la idea de autoridad y liderazgo del varón, en la que se da el predominio de los hombres sobre las mujeres; del marido sobre la esposa; del padre sobre la madre, los hijos e hijas; de los viejos sobre los jóvenes y de la línea de descendencia paterna sobre la materna. El patriarcado ha surgido de una toma de poder histórico por parte de los hombres, quienes se apropiaron de la sexualidad y reproducción de las mujeres y de su producto, los hijos, creando al mismo tiempo un orden simbólico a través de los mitos y la religión que lo perpetúan como única estructura posible».

Gizonen boterean oinarritutako jendartearen hasierako antolaketa honek emakumeak gizonen mende jartzea ekarri zuen. Genero-bereizketak jendarte-antolakuntza horretan dauka funtsa, zeinak, aurre zehaztatze biologizista baten laguntzaz, komunitatea bi taldetan bereizten duen. Talde horiek (gizonak eta emakumeak) ez daude maila berean, eta haien ekintza-esparrua ere ez da berdina (kanpo-eremua vs eremu pribatuak).

Abiapuntu horretatik rolen eta guneen banaketa bat ematen da jendartean, gizonak esparru publikoaz jabetzen dira, baita lan produktiboaz, boterea bereganatzen dute eta hornitze-lanak ere bai. Emakumeak, aldiz, eremu pribatuetan gelditzen dira, etxe barruan, eta ugalketa eta zaintza-lanak bereganatzen dituzte. Bi eremu horiek modu ezberdinean baloratuak izango dira eta horrek emakumezkoen esparrua eta lana gutxiesteak ekarri du.

Banaketa honetatik gizon eta emakumeen gaineko sinesmen batzuk sortu dira, gure sozietatearen imaginarioan finkatu direnak, adibidez, gizonak arrazionalak dira eta emakumeak emozionalak, gizonak bizitza publikorako gaitasun gehiago dute eta emakumezkoek, berriz, afektibitatea eta sentsibilitatea areagotua dute, gizonak aktiboak dira eta emakumeak pasiboak, edota gizonak sexu-premia handiak dituzte eta emakumeek ez (emakumeek maitatu egiten dute, gizonak desiratu) eta abar luze bat, (Limone Reina 2003). Autore honen arabera, jendarteak emakumeen bereizketa egiten du atributu horien arabera, hau da, emakume onak atributu horiek dituzte, eta aldiz, atributu horiek ez dituzten emakumeak gizarteak gaitzesten ditu.

Bosch, Ferrer eta Alzadora-ri jarraiki (2006), patriarkatua ez da bakarrik gizonen botere eta abantaila gehiago ematen dien gizarte-antolakuntzako sistema bat; horrez gain, ideologia bat ere bada, hau da, boterearen egoera hori legezkotzat jotzen duen eta horri eusten dion sinesmen multzoa da. Ideologia horrek oinarritzko bi sinesmen hauek ditu oinarrian: a) Bizitzaren arlo guztietan gizonak emakumeen gainetik duten boterea eta aginpidea legezkotzat jotzen duen sinesmena –arloan pribatuan ere bai, hau da, ezkontzan edo bikotekidearekin–; eta b) Ideia edo sinesmen horiek hausten dituzten emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen duen sinesmena edo jarrera, uste baitute emakume horiek gizarte antolatzearen eredu horren aurkako eraso direla.

Emakumeari buruzko ideal patriarkalaren oinarrian emakumeak buru-belarri aritzeko eta besteak zaintzeko duen gaitasuna dago. Lagarde-k (2001) dioenez,

emakumeek, beste batzuentzako izaki gisa eratuta daudenez, besteengan uzten du autoestimua, eta, neurri txikiagoan, baita gaitasunak ere, eta hori guztia agindu horiek barneratzearen ondorio da. Horrek esan nahi du eredu femenino hori balioespen pertsonalerako irizpidea dela, eta itxaropenak eta desirak, aintzatespena eta gizartearen onarpena eratzen dituela.

Pierre Bourdieu-k indarkeria sinbolikoaren kontzeptua erabiltzen du, dominazio-harremanak aztertzen dituenean. Indarkeria sinbolikoa da, alor edo kokapen sozial bati halabeharrez loturik dagoen gizarte-dominazioko agenteak barneratzea. Dominazio hau kontzientziaren azpitik dago eta ez da oinarritzen subjektueen arteko dominazioan, gizabanako batek beste baten gainean duena hain zuzen, baizik egiturazko dominazio batean, kokapen bat beste baten gainean. Egitura hau, agenteek duten kapitalaren arabera egiten da, eta biolentzia da, zeren agenteek ez baitute antzematen. Indarkeria hau, beraz, gutxiagotasun-uste edo ezdeusaren sentimendu-iturri izan daiteke: sufritua baino ezin daitekeena izan; inolaz ere ez objektibatua. Biolentzia sinbolikoak bere oinarria talde sozialen hierarkizazioari loturik dagoen sailkapen-eskemen legitimazioan aurkitzen du. (Bourdieu 2000, 12). Biolentzia honek klase dominatzaileen jakinduria, baloreak eta irizpideak baliodun bakarrak bailiren aukerazten ditu, horrela euren mantentzea eta erreprodukzioa bermatuz. Eta aldi berean besteen irizpide eta baloreak mespretxatu eta ukatzen ditu.

2.2 Ikasketa Feministak eta Generokoak

Atal honetan Ikasketa feministen sorreraz eta garapenaz arituko gara, baita genero-kontzeptua nola definitu den ikasketa horietan argitzen ere.

2.2.1 Sarrera

Emakumeei buruzko ikerketa sistematizatua, “*Ikasketa Feministak*” edo “*Women’s Studies*”²¹ deituak, XX. mendearen azken hamarkadetan zabalduta ziren

²¹ Ikerketa lerro honen izena ez da adostu, eta era desberdinetan agertu dira: Emakumeen ikerketak, Genero ikasketak, Ikasketa feministak. (Torres Ramirez 2003a)...

Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan, unibertsitateko irakasle emakume militanteen eskutik, mugimendu feministaren bigarren olatuak bultzatuta. Kapitulu honetan ikasketa hauetara hurbilduko gara laburki, gure corpusaren sustraiak kokatzeko.

Irakasle horiek beraien ikerketetan eta dozentzia-lanetan berdintasunaren aldarrikapena sartu zuten, mugimendu feministaren ildo ideologikoari jarraipena emanez. Aurreko hamarkadetan hainbat lan kaleratu ziren emakumeen egoera desberdinak aztertzen zituztenak, baina benetako hazkundea 70eko hamarkadan, eta batez ere 1977tik aurrera²² izan zen. Fenomeno honen ugalketan Parisko 68ko maiatzak zeresan handia izan zuen.

Ikasketa hauek *Genero*²³ hitzarekin ere lotu dira, “*Gender Studies*”, Bosh eta Ferrer ikertzaileen arabera, feminismoarekin lotura zuzena daukate, «*Genero ikasketak ikasketa feministak dira*»²⁴ (2002, 237); bestalde, Flecha-ren hitzetan hau ada genero-ikerketaren definizioa: «*ikasketa batzuk, zeinek diziplinak berriztatu nahi dituzten zientziaren ikuskera objektibo eta neutroa kuestionatu eta kritikatzten dituzten kategoria analitiko eta interpretaziozkoak erabiliz*»²⁵ (Flecha García 1999, 225). Mary Evans-ek honela azaltzen du orain arteko zientziaren objektibitate eza:

«iradoki [gure gizartean] ezagutzaren postulatu unibertsalak faltsuak eta partzialak direla, sexu bakar baten, maskulinoaren noski, esperientzietan oinarritzen direlako, hortik androzentrikoa delakoa –hots, gizonezkoa- erreferente nagusi eta bakarra izan dena»²⁶ (Evans 1998, 196).

Guk UPV/EHUUn ematen den Masterraren izena hartu dugu eredu moduan, Ikasketa Feministak eta Generokoak.

²² 1975ean Mexikon Emakumeari Buruzko Nazioarteko I Konferentzia burutu zen, eta nazio Batuen erakundeak Emakumeen Nazioarteko Urtea izendatu zuen.

²³ “genero” hitza ingelesezko “gender”-en kalko zuzena da. Gaztelainaz Beijing95 Konferentziaren ostean erabiltzen hasi zen. Konferentzia honetan erabaki zen hitz hau nazioartean erabiliko zela izen komun bat izateko sexuen araberrako gizonen eta emakumeen rolei buruz hitz egitean; hortik aurrera hitzak garrantzia eta indarra hartu du bai ikerketan eta baita txosten ofizial eta instituzionaletan.

²⁴ Los estudios de género son estudios feministas.

²⁵ «unos estudios que aspiran a renovar las disciplinas utilizando categorías analíticas y de interpretación que cuestionan y critican una visión de la ciencia objetiva y neutra»

²⁶ «sugerir que [en nuestra sociedad] los postulados universales del conocimiento son falsos y parciales, porque se basan en experiencias de uno sólo de los sexos, el masculino, por

Esan dugu ikerketa hauek berez feminismoarekin lotura zuzena daukatela, hain zuzen ere bigarren olatuko feminismoarekin. Ana de Jorge-k azaltzen duenez:

«Emakume-ikasketen hasieran emakumezkoen memoria eta ahotsa erreskatatu nahi bazuten, hortaz ikasketen objektu berri bilakatuz, gaur egun mundua bi sexuen arteko tentsio sozial gisara berrinterpretatu nahi duen gero eta korronte indartsuagoa ageri da»²⁷ (Jorge Alonso 2004, 23).

Isabel Torres-en arabera *Genero ikasketak* eta *Emakume ikasketak* sinonimotzat hartzeak ez du esan nahi emakume eta gizonen artean ezagutza desberdina dagoenik, baizik eta gure kulturaren sormenean errotuta daudela desberdintasun hauek:

«... ez da emakumeen ezagutza eta gizonen ezagutza dagoela, hasieran bizitza intelektualari buruzko txosten feministek iradokitzen zuten [eta “Emakume ikasketak” formulazioak pentsaraz zezaketenez], baizik genero-presuntzioak gure kulturaren sormenean ehunduta daudela»²⁸ (2003a, 9).

Feministek oso argi ikusi zuten arazoaren ardatza *Androzentrismoa* zela, aurretik esan dugun bezala, “gizonezkoa unibertsoaren erdigune eta gauza guztien neurri bezala hartuta” (Sau 2001, 1:45). *Androzentrismoak* berekin dakar emakumeen eta euren munduaren ikusezintasuna, emakumezkoen begiradaren ukazioa eta emakumezkoek egindako ekarpenak ezkutatzea, gizona erdian jarriz gauza guztien neurria balitz bezala.

Mugimendu feministek agerian utzi nahi izan dute zientziaren androzentrismoa, hau da, zientziaren kontzeptualizazio-eraketa gizonezkoen ikuspuntutik eraikia izan dela, emakumeen ikuskera kontuan hartu barik. Horren adibide, pentsamendua kategoriatan dikotomikoetan egituratzea izango litzateke (publiko eta pribatu, objektibotasuna eta subjektibotasuna, arrazoia eta

supuesto, de aquí lo de androcéntrico -entendiendo como tal el varón- que ha sido el punto central y único de referencia».

²⁷ Si en los inicios los Estudios de Mujeres intentaban rescatar la memoria y la voz de las mujeres, que se convertían por tanto en el nuevo objeto de estudios, en la actualidad existe una corriente cada vez más fuerte que pretende reinterpretar el mundo a la luz de las tensiones sociales entre los dos sexos.

²⁸ «... no es que haya un conocimiento de mujeres y un conocimiento de hombres, como los primeros informes feministas sobre la vida intelectual habían sugerido [y como podría hacer pensar la formulación “Estudios de las mujeres”], sino que las presunciones de género están entretejidas en la creación de nuestra cultura».

sentimendua...). Dikotomia hauetan kategoria maskulinoztat hartzen direnek arrazoa, objektibotasuna, publikoa, garrantzi handiagoa daukate eta femeninoztat jotzen direnak, ustez balio gutxiagokoak bailiren hartu dira.

2.2.2 Generoaren definizioa

Generoa, aldagai sozial gisa, gaur egungo feminismoaren ekarpen nagusienetakoa da. Aldagai hau gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak aztertzeke jaio zen.

Teoria Feministak sexuaren eta generoaren arteko banaketa egiten du. Sexua, giza-espezian iraunkorrak diren ezaugarri biologiko batzuek gauzatzen dute eta ez du zer-ikusirik ingurune sozialarekin. Generoa, berriz, desberdina da testuinguru sozial eta kulturalaren arabera, eta jendarteak pertsonen, duten sexuaren arabera, ezartzen dizkien gaitasun-, jokaera- eta jarrera-multzoaz osatuta dago, horrela generoa aldagarria da, sozialki eta kulturalki berreraikitzen den kontzeptua. Gerda Lerner-ek dioenez, generoa «sexu bakoitzari, gizarte jakin batean eta une jakin batean dagokion jokamolde egokiaren definizio kulturala da»²⁹ (1990, 339).

Genero hitzaren lehenengo esanahia ezaugarri komun bat edo batzuk dituzten izakien multzoa da³⁰. Feminismoaren diskurtsoak adierazi digu ezaugarri horiek ez direla jaiotzetikoak baizik eta bizitzan zehar hartzen edo esleitzen direla. Genero kontzeptuaren oinarria da *femenino* eta *maskulino* identitateak eraikuntza kulturalak direla, eta ez gertaera naturalak edo biologikoak. Sexua eta generoa ez dira sinonimoak, sexuaz hitz egiten dugunean biologiaz ari gara: generoaz hitz egiten dugunean, aldiz, emakumeei eta gizonei esleitutako jokabide eta arauz hitz egiten dugu. Azken finean generoa sexuaren interpretazio kulturala da, hau da, gizarteak sexu bakoitzari esleitzen dizkion rola, identitateak, portaerak eta funtzioak. Kontzeptu honen lehenengo harria Simone de Beauvoir-ek jarri zuen

²⁹ El *género* es la definición cultural de la conducta que se considera apropiada a los sexos en una sociedad y en un momento determinados.

³⁰ Harluxet Hiztegi entziklopedikoan honako hau da Genero hitzaren definizioa: iz. 1. Ezaugarri komun bat edo batzuk dituzten izakien multzoa. 2. BIOL. Bizidunen sailkapenean, familia baino txikiagoa den eta oso antzekoak diren espeziez osatuta dagoen taxonomi taldea. 3. HIZKL. Izenak, propietate formaletan oinarrituz, hainbat klasetan sailkatzen dituen kategoria gramatikala. 4. LIT. Arau- eta estilo -ezaugarri multzo berezi batzuek mugatutako literatur lanen kategoria. *Genero dramatiko*, *epikoa*. 5. Ik. **jenero**. • **genero-pintura**. ART. Eszena familiar eta herritarrak irudikatzen dituzten obrak biltzen dituen kategoria.

1949an idatzitako *Bigarren Sexua* liburuan, «emakumea ez da jaiotzen baizik egin egiten dela»³¹ aldarrikatu zuenean (Beauvoir 1949).

Historialari feministek *Genero* kontzeptua gizon eta emakumeen arteko harremanak azaltzeko erabili zuten. Horrela Joan W. Scott historialariak 1990ean “Gender: a useful category of Historical Analysis” argitaratzean duenean oinarritzko definizio bat eman zuen eta kontzeptu honen mugak jarri zituen:

*«Generoa sexuak bereizten dituzten ezberdintasunetan oinarrituriko gizarte-harremanen osagaia da eta generoa erlazio adierazgarrien forma primarioa da »*³² (Scott 1990)³³.

Hau da, sexuen artean ematen diren harremanak boterearen arabera sortzen dira maila hierarkiko batean. Scott-ek gogoratzen digunez:

«generoari dagozkion kezka teorikoak ez dira XX. mende bukaera arte sortu. Ez daude XVIII. mendetik XX. mendearen hasiera arte formulaturiko teoria sozial gehienetan. Izatez, teoria horietako batzuek maskulino/femenino oposizioko analogien gainean eraiki dute beren logika, beste batzuek aitortu dute arazo femeninoa; bada sexu-identitate subjektiboaren eraketaz arduratu den teoriarik ere, baina generoa, gizarteko eta sexuen arteko harreman sistemez mintzatzeko era modura ez, ez zen agertu» (Scott 1990)³⁴.

Scott-en ustez ikergaia ez da emakumeen papera mundu berezitu batean, gizonen mundutik aparte. Maskulinitatea feminitatea baztertuz eraikitzen da, botere-ariketa bat da. Maskulinitatearen eraikuntzak feminitatea baldintzatzen du, beraz: «*Gizonen eta emakumeen identitate subjektiboen jatorri erabat sozialak*

³¹ La mujer no nace, se hace.

³² «El género es un elemento constitutivo de las relaciones sociales basadas en las diferencias que distinguen los sexos y el género es una forma primaria de relaciones significantes»

³³ «las preocupaciones teóricas relativas al género no han emergido hasta el final del siglo XX. Están ausentes en la mayor parte de las teorías sociales formuladas desde el siglo XVIII hasta el comienzo del siglo XX. De hecho, algunas de estas teorías han edificado su lógica sobre analogías sobre la oposición masculino/femenino, otras han reconocido la cuestión³³ femenina, incluso otras se has preocupado de la formación de la identidad sexual subjetiva, pero el género, como medio para hablar de sistemas de relaciones sociales o entre los sexos no había aparecido».

³⁴ «las preocupaciones teóricas relativas al género no han emergido hasta el final del siglo XX. Están ausentes en la mayor parte de las teorías sociales formuladas desde el siglo XVIII hasta el comienzo del siglo XX. De hecho, algunas de estas teorías han edificado su lógica sobre analogías sobre la oposición masculino/femenino, otras han reconocido la cuestión³⁴ femenina, incluso otras se has preocupado de la formación de la identidad sexual subjetiva, pero el género, como medio para hablar de sistemas de relaciones sociales o entre los sexos no había aparecido».

*adierazteko modu bat. Definizio honen arabera, generoa da gorputz sexuatuaren gainean inposaturiko kategoria soziala»³⁵ (Scott 1990). Horregatik Genero kontzeptu hau ikerketaren ildo guztietan aplikatu behar dela esaten du, desberdintasunak azaltzen duelako eta horren zergatiak. Zeregin bat, *femeninoa* denetik, hau da, emakumeen zereginekin lotuta ikusten denetik, gutxien da, nahiz eta gizonek egin. Eta bestalde, emakumeek gizonezkoen postuak betetzen dituztenean ez daukate botere-maila berdina, eta gaizki ikusiak dira askotan.*

Maria Ramos-ek generoaren definizio bat ematean botere-harreman asimetrikoak aipatzen ditu:

«Gizon eta emakumeen identitate subjektiboen jatorri erabat sozialak adierazteko modu bat. Definizio honen arabera, generoa da gorputz sexuatuaren gainean inposaturiko kategoria soziala»³⁶ (1995, 88).

Gisela Bock-ek ildo bera hartu du. Esaten du historiaren historia aztertzerakoan emakumeen ikerketak ezin direla bakarrik sexuari lotu, baizik eta gizartearen arlo guztiak kontuan hartu behar direla, baita gizartearen egiturak ere. Generoaren pertzepzioa harreman konplexu baten isla da, beraz emakumeen historia egiterakoan ez da emakumeen miaketa soil bat egin behar, baizik eta emakumeen eta gizonen arteko harremanen ikerketa eta baita emakumeak beste emakumeekiko harremanak ere. Pertsonen arteko harremanetan finkatu behar da, eta ez banaketa eta desberdintasunetan. Gizonezkoen arteko harremanak historian askotan aztertu dira, beren alde militar, politiko edota ekonomikoetan, baita familiartekotasunak ere. Adibide batekin argi ikusten da, gerren kasuetan orain arte gizonezkoen arteko harremanak aztertu dira gehien bat (mendebaldeko kasuan gutxienez, gerrak gizon-taldearen arteko liskarrak izan dira) baina ez da aztertu gizonen historia balitz bezala; baizik historia orokorraren aterkipean argitaratu dira. Emakumeentzat gerrak beste aurpegi bat dauka, biolentziaren biktima, garaipenaren saria, ekonomiaren eta etxearen ardura, prostituzioa edota mugimendu pazifisten agerpena. Fenomeno hauek guztiak gerrak eragindakoak

³⁵ «Una forma de referirse a los orígenes exclusivamente sociales de las identidades subjetivas de hombres y mujeres. Género es, según esta definición, una categoría social impuesta sobre un cuerpo sexuado».

³⁶ «una construcción cultural que rige las relaciones sociales entre los sexos y los códigos normativos, y valores -filosóficos, políticos y religiosos-, a partir de los cuales se establecen criterios que permiten hablar de lo masculino y lo femenino, y unas relaciones de poder asimétricas...»

dira, baina orain arte, ez dira historia orokorraren parte izan, emakumeen historiaren parte baizik (Bock 1991).

Alicia Puleo-k Filosofiaren ikuspegitik aztertu du *Genero* kategoria, eta sexuen arteko botere harremanak azaltzeko baliagarria zaio; alde berean feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntza historiko-sozialaren azterketa kritikoa egiteko erreminta da. *Genero* kontzeptuak bi sexuen arteko dialektikaz hitz egiten du, beraz ez da emakumearen eta feminitatearen ikerketa, baizik eta emakume eta gizonen arteko harremanen ikerketa. Azkenik giza espeziaren erdia baztertu duen diskurtso deformatzailea salatzen borondate etiko eta politiko bat da (Puleo 2000).

Lola G. Luna-k *Generoaren* eta diskurtsoaren arteko harremanak aztertzen ditu. (González Luna 2002). Historiagile honentzat, mintzaira ez da bakarrik hitzak edo lexikoa; "esanahi-eredu" bat eratzen du. Adibidez, emakumeen boto- eskubideak berdintasun formala ekarri eta paritatearen kontzeptua sortu zuen, aurretik existitzen ez zena.

Ikerketa bateko marko teorikoan genero-perspektiba txertatzeak zera dakar:

- Harreman horiek sozialki ta historikoki eman dira eta pertsonen baitan daude.
- Generoen artean ematen diren botere-harremanak ikustea, gehienetan gizonen alde eta emakumeen kalterako.
- Gizartean saretuta daude eta beste harreman sozialetan artikulatzen dira, etnia, adina, erlijioa...

Genero-perspektiba genero- eta botere-harremanen begiradatik hurbiltzen da errealitatera. Generoa ez da gehitu behar den beste kapitulu bat, izan ere botere harremanek eragina dute gizartearen eraketaren esparru guztietan, eta desberdintasunak sortzen dituzte, bai lan-eremuan, baita familian, elkarteetan, artean, enpreetan, osasunean, historian edo sexualitatean. Genero-ikuspegia ez dagokie bakarrik emakumeei eta ez du aztertzen bakarrik emakumeei dagozkien arazoak, munduari eta gizarteari begiratzeko modu bat da.

Baina azken hamarkadetan genero-ikuspegiak zalantzak sortu ditu feministen artean, genero terminoaren instituzionalizazio politikoaren erruz. Genero-ikuspegia nahierara erabili izan da ezkerreko nahiz eskuineko diskurtsotan eta estatu politikan.

Nahiz eta kontzeptuaren inguruan dibergentziak egon, orokorrean genero kategoria izaera historiko eta soziala duen definizio bat da, zeinak kontutan

hartzen duen gizonei eta emakumei egozten dizkieten rol, balore eta identitateen bilakaerak. Susana Gamba-ren arabera ezaugarri eta neurri hauek izaten ditu (Gamba 2007):

- Eraikuntza soziala eta historiko bat ba, beraz gizarte batetik bestera eta aro batetik bestera alda daiteke.
- Harreman sozial bat da, emakumeen eta gizonen arteko harremanen arauak zehazten dituelako.
- Botere-harreman bat da, harreman horien ezaugarri kualitatiboak definitzen digulako.
- Harremana asimetrikoa da, gizonen eta emakumeen arteko harreman mota desberdinak egon arren (gizon menderatzailea, emakume menderatzailea edo harreman parekideak) orokorrean hauen konfigurazioan gizon menderatzaile eta emakume menperatua daude oinarritzen.
- Biltzailea da, ez da bakarrik bi sexuen arteko harremanez arduratzen, baizik eta gizartean ematen diren beste prozesuez ere arduratzen da; alegia instituzioez, sinboloez, identitateez, sistema ekonomikoez edota politikoez.
- Zeharkakoa da, harremanak ez daude isolatuta, gizarte-egitura osoa zeharkatzen dute, beste eragile batzuekin antolatzen da, dela egoera zibila, adina, hezkuntza, etnia, klase soziala, etab.
- Barne-hartze proposamena da, generoen arteko harremanen arazoak bakarrik ekidin daitezke emakumeak eta gizonak kontuan hartuko dituzten aldaketak egiten.
- Ekitate-bilatze bat da, zeina bakarrik izango den posible emakumeek boterea bereganatzen duten heinean, —boterea edota ahalmena zentzu zabalenean hartuta—: sortze-ahalmena, jakintza-ahalmena, zuzentze-ahalmena, gozatu-ahalmena, erabaki-ahalmena, hautatua izateko ahalmena, etab.

2.2.3 Ikasketa Feministak AEBn eta Europan

Estatu Batuetan, Antropologian, Literaturan eta Filologian oinarritzen ziren ikerketak lehenak izan ziren, eta ondoren historiagileek, psikologoek eta soziologoek jorratu zuten *Genero* kontzeptua. Emakumea ezagutzaren erdigunean jarrita, ikerketa objektu bilakatu zuten (Amurrio Vélez 2003, 41). Emakumea ikergai bihurtzeak paradigma-aldaketa sakonak ekarri ditu; antropologian adibidez, generoa kontuan hartzen duen ezagutzak eraldaketa sakonak sorrarazi ditu paradigma nagusian. «Antropologo feministek emakumeak ezagutzaren ardatz bihurtaraztean, bizitza sozial eta kultural osoaren oinarri *generizatuak* iragarri dituzte eta, aldi berean, emakumeen eta gizonen bizitzaren itxuraketan,

bai eta instituzio guztietan genero-harremanetan oinarritutako antolaketak duen esangura ere azalarazi dute» (2003, 42).

Genero-ikuspegiaren garapenak diskurtsoen desegin- eta berregin-prozesu bat dakar. Historikoki indartsuak izan diren korronteek (marxismoa, determinismoa, estrukturalismoa...) ez dute kontuan izan emakumeen ikuspegia, horregatik teoria feminista agertu izanak krisia eragin du pentsamolde hauetan. Emakumeak gizarte-ikerkuntzan agertzen direnean, bai ikertzaile moduan eta baita ikergaiak aztertuz, kolokan geratzen dira paradigma hauek. Ikerketa hauen emaitzak eta metodoak zalantzan jartzen dira, ordura arte ez baita kontuan hartu aldagai garrantzitsu bat. Aldaketa honek politika-arloan ere eragina dauka, emakumearen eskubide eza aldarrikatua izan den heinean.

Teoria feministak azaleratu du emakumeen lanak ez daudela biologikoki determinatuta, baizik eta gizarteak erantsitako lanak direla. Teoria honek bi norabidetan eragin du, alde batetik teoria patriarkalaren azterketa eta kritika sakona egiten, eta bestetik ikergai eta analisi-kategoria berriak asmatzen, errealitatearen azterketa fidelago bat egiteko (Cobo Bedia eta Sanchez Bello, Ana 2004).

1977a urte garrantzitsua izan zen feminismoaren eta ikerketa feministaren historian: eta hori bi gertaerengatik; alde batetik Nazio Batuen Erakundeak (NBE), Mexikoko Bilkuran, 1977a *Emakumearen Nazioarteko Urtea* izendatu zuen, bestetik urte horretan *National Womens Studies Association* sortu zen. Elkarte honen helburuetako bat emakumeen edota generoaren inguruko ikerketak eta ikasketak koordinatzea izan zen, emakumearen berdintasunaren aldeko lana era akademiko batean burutzea, alegia.

AEBan, eta Ingalaterran aldi berean, unibertsitateetako emakumezko irakasle taldeek, gehienak feminismoaren militanteak, Unibertsitateetan haien ikerketa- eta dozentzia-lanetan feminismoaren ikuspegia sartzearabaki zuten, berdintasuna aldarrikatuz.

Hasieran lanaren planifikazioa eta sistematizazioa egiteko ahalegin kolektibo bat egin behar izan zuten, lan hauen zabalkundea aurrera eramateko. *Genero-ikasketak* legitimazioa eta gizartearen onarpena lortu zuten ikasketak- planetan sartu ahala.

Europan, aitzindari izan ziren Pariseko Unibertsitateak; izan ere 1973-1974 ikasturtean *Emakumezkoek historia dute?* izeneko ikastaroa eman baitzuten eta

Oxforden *Emakumezkoen historia existitzen da?* izenburukoa urte berean eman zen. Ikasketa hauek Europan zehar zabaldu ziren. 1995ean Ingalaterran 30 unibertsitate-erakundetan emakumei buruzko Ikerketak eta ikasketak eskaintzen ziren, eta Herbereetako unibertsitateetan 260 ikastaro zeuden gai horren inguruan. Suedian, aldiz, unibertsitate guztiek eskaintzen zituzten ikasketa hauek. Alemanian emakumeen mugimenduekin batera hasi ziren ikerketa-zentroak sortzen, eta baita Irlandan eta Portugalen 80ko hamarkadaren hasieran.

Italian, aldiz, ikerketa eta ikasketa hauek unibertsitateetatik kanpo gelditu ziren, unibertsitatearen antolaketa zentralizatuaren eraginez ikasketa formaletatik at gelditu ziren, halere irakasle- eta emakume-taldeek bultzatuta *Emakumearen Ikerketak* oso ibilbide oparoa izan zuen, eta unibertsitateko ikerketa askok genero-ikuspuntua barneratu zuten (Flecha García 1999, 226).

Europako unibertsitateetan *Generoaren Ikerketen* hazkundeak eta beste zenbait kezkek, 1984an Europar Erkidegoak "*Donne: ricerca nei dieci paesi della Comunità Europea*" txostena argitaratzea behartu zuten, Flecha Garcia-ren ustetan; eta 1989an Europako Emakumeen ikerketen Lehenengo Konferentzia antolatzerarekin, *Women's Studies Concept and reality* izenburuarekin. 1994an Europako Parlamentuak zenbait neurri proposatu zituen I+D ikertzaileen arteko desberdintasunak saihesteko, *Amsterdango Itunean* zehazten dena.

1979an Bartzelonan *Seminari D'Estudis de la Dona* (SED) sortu zuten, eta Madrilen, Unibertsitate Autonomoan, *Seminario de estudios de la Mujer*; hiru urte beranduago, 1982an, *Centre d'investigació Histórica de la Dona* (CIHD) sortuko dute Bartzelonako Unibertsitatean. 1987an hamar talde baino gehiago ziren hainbat unibertsitateetan, eta Valentziako Unibertsitateak *Encuentro mujer y discurso científico* jardunaldietan batu zituen. Jardunaldi horren emaitzetariko bat AUDEM (Emakumeen Ikerketarako Unibertsitate Elkarte) sortzea izan zen (Ballarín Domingo et al. 1995). Genero-perspektibatik eta androzentrismotik at zientzia egiteko modu berri bat eratzea izan da feministen asmoa.

Hiru hamarkada hauetan Genero Ikasketak ugaritu dira bai Estatu Batuetan eta baita Europan. 300 ikerketa-programa eta 3.000 unibertsitate-ikasketa zeuden 2002an, egile hauen arabera. Honekin batera, hainbat aldizkari sortu ziren, ekoizpen zientifiko hori sustatzeko: "*Arenal. Revista de Historia de las mujeres*" Granadako unibertsitatean 1994tik argitaratzen da, historia eta "*Women Studies*" hori ardatz izanik. "*Asparkia*" 1992-2007 urteetan argitaratu zen feminismoaren

ikerketaren inguruan, Castellóko Unibertsitat Jaume I.an. Bartzelonako Unibertsitatekoa da *“Douda. Estudios de la Diferencia Social”* (lehen beste azpititulu batzuk izan ditu) 1990z geroztik argitaratzen dena. Europako beste herrialde batzuetan ere beste batzuk daude, *“Clio. Historie, Femmes et Societés”* Frantziako Université de Toulousen argitaratzen da 1995tik aurrera, eta SAGEren eskutik *“European Journal of Women”s Studies”* 1994tik aurrera. Herrialde Nordikoetan *“NORA. The Nordic Journal Of Women Studies”* kaleratzen da 1993tik aurrera. Lehenengoa, halere, *“Feminist Review”* izan zen 1979. urtekoa, Erresuma Batukoa (Torres Ramirez 2003b).

Zenbait unibertsitatetan ere liburu- edo monografia-bildumak argitaratu dituzte feminismoa edota *Emakumeen Gaien* inguruan, adibidez *Biblioteca de Estudios de la Mujer* Malagako Unibertsitatean edota *Feminae*, Granadako unibertsitatekoa.

Aipamen berezia merezi dute generoa, emakumearen rola eta hedabideen arteko harremanak aztertzen dituzten aldizkariak: *Feminist Media Studies* aldizkaria, eta *European Journal of Women”s Studies* delakoa.

Ikerketa hauek hainbat jakintza-arloetan ugaritu ziren 1990-2000 hamarkadan, baita espainiar estatuan, adibidez.

2.2.3.1 Historia

Historiagile feministek gizarte-klase eta politikari buruzko oinarritzko ezagupideak birplanteatu eta barneratuta izan den bizitza publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa zalantzan jartzen hasi ziren. Horrela dio Mary Nash-ek:

«Historia klabe femeninoan berrirakurtzeak emakumeek lehenaldian izandako protagonismoa ikusarazteko erreskate-saiakera ez ezik, dinamika historikoa bere osotasunean birpentsatzeko tresnak aurkeztea esan nahi du. Gaur egungo gizartean berekin dakar gune pribatuak, eta berorren baitan emakumeen paperak, garapen historikoan duen garrantzi erabakigarria behatzea. Berekin dakar ikuskera historikoa marko politiko tradizionalaren aldetik begiratuta baino alde sozio-kulturaletik garatzea. Genero-ikuspegitik begiratuta perspektiba integratzaileagoa eta konplexuagoa izan dezakete gai historiko nagusiek, adibidez gizon ala emakumeengan prozesu politikoek izan duten inpaktu hain ezberdinek, dela XIX. mendeko iraultza liberalek, XX. mendeko

dinamika demokratizatzaileek, edota gizon ala emakumeentzat pasa den mendeko industrializazio-prozesuek zein gaur egungo teknologiarenak daukaten esanahi ezberdinek»³⁷ (Nash 1999)

Historiaren ikerketa oinarritzko gaia izan da *Genero Ikerketetan*, feministek ikusi baitzuten behar-beharrezkoa zela emakumeen paper historikoa berreskuratzea, etorkizunerako bidea eraikitzeko. Abiapuntuan Humanitatearen esperientzia historikoa populazio osoaren emaitza izan den baieztapena izan zen, emakumeen eta gizonen bizipenez osatutakoa alegia.

Historiaren berrazterketa honetan Aro Garaikidearen azterketak garrantzi berezia hartu du, batez ere, emakumezkoen hezkuntza, erlijiozaletasuna eta lan-munduan parte-hartzea. Azken ikerketa-ildo honek presentzia berezia dauka emakumeen egoera historikoa azaltzeko. Genero-ikuspuntutik ekonomia eta botere ekonomikoaren garrantzia ikertu dutenen historialarien artean Carmen Sarasua eta Lina Muñoz daude. Hauek 2003an argitaratutako liburuan (2003) ardatz honetan oinarritzen dira. Gloria Nielfa-k, lana, legegintza eta generoa aztertu zuen, Cristina Borderias-ek XX. Mende-hasierako emakumeen lan-merkatua Bartzelonan, Mercedes Arbaizak lanaren banaketa sexualaren hastapen kulturalak edota Pilar Perez Fuentes-ek Bizkaiko emakumeen lan-egoera azaldu zuen. Ikerketa hauetatik abiatuz, emakumeek izan duten eragina familia ekonomian eta ekonomia orokorrean aztertu duten ikerketa-lerro eta teoria berriak sortu dira³⁸.

³⁷ «Releer la historia en clave femenina no significa solo una tarea de rescate para hacer visible el protagonismo de las mujeres en el pasado, sino la tarea de presentar instrumentos para repensar la dinámica histórica en su conjunto.

En la sociedad contemporánea implica contemplar el significado decisivo del ámbito privado en el desarrollo histórico y el papel de las mujeres en su seno. Implica desarrollar una visión histórica más desde el aspecto socio-cultural que desde el marco político tradicional.

Desde la clave de género se puede desarrollar una perspectiva más integradora y compleja de los grandes temas históricos, como por ejemplo el impacto tan diferente que han tenido para hombres o mujeres los procesos políticos tales como las revoluciones liberales del siglo XIX, las dinámicas democratizadoras del siglo XX o el significado desigual para hombres y mujeres de los procesos industrializadores del siglo pasado o de la tecnología en la actualidad»

³⁸ Honetaz AEIHEMek 2010. Urtean ospatutako "XV. Coloquio Internacional de AEIHM" Mujeres e historia" barruan 3. Jardunaldiaren partaideek sakondu zuten, Cristina Borderias eta Pilar Perez Fuentesek zuzenduta. Ikus: <http://www.aeihm.org/actividad/xv-coloquio-internacional-aeihm-mujeres-e-historia-dialogos-entre-espana-y-america-latina>.

2.2.3.2 Hizkuntza eta generoa

Hizkuntzaren eta generoaren arteko harremanak luze aztertu dira azken hamarkada hauetan. Hizkuntzaren erabilera sexista eta nola hizkuntzak emakumea ikusezina bihurtzen duen hitzen erabilpen androzentrikoagatik. Hainbat lanen artean azpimarratu dezakegu Eulalia Lledó filologoak *Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiaren Hiztegian* agertzen diren hitzen definizio, erabilpen eta adibideen azterketa. Ikerketa honetan argi ikusten da emakume gutxi agertzen direla hitzen adibide eta definizioetan. Bestalde erlijio, zientzia edo giza garapenarekin lotuta dauden hitzen adibideetan inoiz ez dira agertzen emakumeak, beti agertzen dira gizonen ereduak (Lledó Cunill 2004). Calero Fernández-ek hizkuntzaren irakaskuntza aztertzeaz gain, atsotitzetan jartzen du arreta berezia, eta zera ikusten du, alegia, atsotitzetan emakumea maltzurra, tentela eta adingabekoa da, eta gizonaren tutoretza behar du zentzuzko portaera bat izateko (1999, 130–136). Azken urte hauetan hainbat administraziok (udal, foru aldundi, sindikatu eta beste organismo publikok) hizkuntza sexista ekiditeko eskuliburuak, hiztegi eta baliabide digitalak argitaratu dituzte (nombra, la lupa violeta, recursos lenguaje no sexista)... Baita hedabideei bereziki zuzendutakoak ere, adibidez Susana Guerrero Salazar-ek argitaratutako *Medios de comunicación y español actual* (2002)

Euskararen genero gramatikalaren ezak hizkuntza neutroaren mitoa sinetsarazi digu. Amaia Alvarez Uriak hizkuntzaren erabilera sexistaren inguruan egindako artikuluan gai honi buruz argitaratutako bibliografiaren bilketa egiten du, hogei bat artikulua eta ponentzia, Emakundek eta HAEE-IVAPek argitaratutako gida eta hizkuntza erabileraren proposamenak batez ere (Alvarez Uria 2004). Bestalde *Emakundek*, Emakumearen Euskal Erakundeak, 2008an argitaratutako *Euskararen erabilera ez sexista* liburuxkan, hizkuntzaren erabilera aztertzen du, asimetria lexikalak, jauzi semantikoak, androzentrismoa, maileguak, atsotitzak, etab. Erabilitako bibliografian ere aipamen zientifiko gutxi ditugu: Alvarez Uriaren artikuluan, hainbat udalek eta erakundek sortutako gidak, eta bizpahiru artikulua zenbait aldizkaritan. UPV/EHUk ere argitaratu du *Hizkuntza sexista ez erabiltzeko*³⁹ gida bat eta zenbait ikastaro antolatu du ikasle, langile eta ikertzaileentzat.

³⁹ Hau da azken helbidea: <http://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/gida>

2.2.3.3 Euskal Herria

UPV/EHUn, EHuko “*Emakumea Aztertzeke diziplina arteko Mintegia*” (EBIM. 1981-1994) sortu eta garatu zen Gizarte Antropologiako ikasgaiaren inguruan. 1981. urtean Joxe Migel Barandiaran (Eusko Ikaskuntzako) Etnografia-beka irabazi zuen mintegi horretako Ikerketa-proiektuak. Mintegi horren helburu nagusiak ikerketa bultzatzea, jardunaldiak eta ikastaroak antolatzea, eta dokumentazio-fondoa sortzea ziren, beste batzuen artean.

Horren emaitza Teresa del Valle-k zuzendutako “*Mujer Vasca, Imagen y Realidad*” liburua izan zen. Ikerketa horretan Euskal Herriko kostaldeko, landa-eremuko eta hirietako 17 komunitate aztertu ziren. Hurrengo urteetan zenbait hitzaldi antolatu zituzten «Emakumea, Kultura eta Sozietatea» gai-lerroa jarraikiz.

Tamalez 1994an Euskal Herriko Unibertsitatean garatutako seminario hau desagertu egin zen, eta bildutako dokumentu eta liburuak Psikologia Fakultateko liburutegian biltzen dira, “*Maite Rekarte Gunean*⁴⁰” hain zuzen.

90eko hamarkadan hiru sailek eraman zuten emakumeen ikerketaren zama handiena, Antropologiak, Historiak eta Hezkuntzak. Hiruren artean 208 ekarpen bideratu zituzten 1992-1995 urteen tartean. Antropologian, sexualitatean eta ugalketan, amatasunean eta senide harremanetan, eta identitate eta memorian lan egiten zuten bederatzi irakasle zeuden; Teresa del Valle Murgarena izan da ekoizpen horren erdia. Historian Pilar Perez-Fuentes eta Mercedes Ugalde Soriano-k emakumea industrializazio-garaian gaia jorratu zuten garai honetan. Hezkuntzan, berriz, emakumeen rola hezkuntzan eta abertzaletasunaren igorle-eta hedatzaile-papera landu zuten Begoña Martinez eta Idoia Fernandez-ek (Ortiz et al. 1999, 92–95)

Gaur egun (2020/21 ikasturtean) bi Master daude martxan Euskal Herriko Unibertsitatean, “*Ikasketa Feministak eta Generokoak*” delakoa, Unibertsitate-masterra eta Doktorego-ikastaroa dena, eta “*Emakume eta Gizonen arteko Berdintasuna. Berdintasun Eragileak*”, berezko masterra dena. Bi master hauek gaztelaniaz ematen dira, ikasgai bakan batzuk euskaraz eman arren. Nafarroako Unibertsitate Publikoan “*Generoan Aditua*” berezko titulua martxan jarri dute, hau

⁴⁰ 1999an Fakultate Batzordean Fondoa kokatuko zen tokiari “Maite Rekarte” izena ematea erabaki zen, irakasle, ikertzaile, dekanok eta EBIMeko kide gisa Fakultatean pasatutako urte guztiengatik eskerrak emateko

ere gaztelaniaz. Beste Master eta Berezko Titulu batzuetan ere generoa zenbait ikasgaitan lantzen da.

Feminismoa akademiara hedatzen zen heinean ekimen garrantzitsuak izan dira dokumentazio-zentroak. Zentro hauen helburuetako bat ikerketa hauen ekoizpena batu, katalogatu, eta ondoren ikertzaileen eta publikoaren eskuetan jartzea da, baita sareak sortu ere beste zentroekin batera, hainbat eta jende gehiagoarengana hurbiltzeko. Euskal Herrian honako zazpi gune ezagutu ditugu: Goian aipatutako *“Maite Rekarte Gunea”*; Ipes-Gitek Nafarroan kudeatzen duen *“Emakumearen Liburutegia-Dokumentazio Zentroa”*, non 10.000 erreferentzia aurki daitezkeen. Institutu hau Madrilgo Instituto de la Mujer erakundeak 1985ean laguntza bati ezker abiatu zen, nahiz eta aurretik, IPES-GITE sortu zenetik, emakumeen inguruko gaiekin sentsibiltate berezia izan eta pixkanaka dokumentazio-funtsa osatuz hasi.

Bilbon aitzindaria izan den *“Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio zentroa”* 1982an jarri zuten abian Bizkaiko Emakumeen Asanbladako lantalde batek, gaur egun Bilboko Udaletxearen babesarekin kudeatzen dena. Euskal Herriko feminismoaren historiari buruzko dokumentazio ugari aurki dezakegu, baita kartelak eta literatura grisa ugari ere, osotara 4.700 monografia baino gehiago daude liburutegian, 1.000 kartel, bideoteka, baliabide digitalak eta hemerroteka-zerbitzua. Baliabide-zentro gisa sortu zen eta kontsulta-eta mailegu-zerbitzua eskaini zituen hasieratik.

Emakundek eta Nafarroako Berdintasuna Institutuak ere Dokumentazio Zentro espezializatua bana sortu dute, non osasuna, hezkuntza, gizarte arloak, lana lortzeko aukerak eta lan-partaidetza eta zuzenbideko gaiei inguruko dokumentuak batzen dituzten.

Seigarrena sarean zegoen, online, *Andresare* Eusko Ikaskuntzak 2002an Euskal Herriko sistemei eta genero-harremanei buruzko ikerketen azterlan bibliografikoa bekaren emaitza izan zena. XX. mendeko laurogeiko hamarkadan garatzen ari zen ezagutza-corpusa jasotzea izan zen ikerketaren helburua, feminismoaren eta generoaren alorreko azterlanek pizten zuten interesari jarraituz. Kudeatzen zuten datu-basean, dokumentuak aurkitu eta, agian interesgarriena dena, Euskal Herriko esfera publikoan lan egiten duten emakumeen errolda eta biografiari buruzko aipamenak irakur zitezkeen. Gaur egun, tamalez, webgunea desagertu egin da.

Zazpigarrena *Emagin* da, pentsamendu kritiko feminista sustatzen duen elkarte. Jendartea eraldatzearen alde lan egiten du, eta horretarako prozedura feministak erabiltzen dituzte oinarrizko lan esparruetan: Formakuntza, Ikerketa, Ekoizpena eta Dokumentazioa, horrela azaltzen baitute webgunean. Dokumentazio-zentruan euskal herriko ikuspegia biltzen duten ikerketa feministak eta Mugimendu Feministak eta herri-mugimenduetatik sortutako dokumentuak jasotzen dituzte, eta aldi berean argitaratu gabe eta eskuratzeko zailagoak diren hainbat dokumentazio ere.

Atalarekin amaitzeko, eta Euskal Herriko Generoaren inguruan ekoizpen zientifikoa aztertzeko asmoz, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) mantentzen duen INGUMA (1977-2020) datu-basean agertzen den ekoizpena arakatu dugu. Feminismo hitza erabiliz 57 sarrera daude eta emakumea erabiliz gero 38⁴¹. Liburuak, artikuluak, ikastaroak edota konferentziak agertzen dira.

UEUk berak 1990etik aurrera argitaratzen duen *Uztaro* aldizkarian 35 artikulua aurkitu ditugu emakumeak ardatz daukatenak. Feminismoarekin lotura zuzena daukaten 5 artikulua besterik ez dira agertzen. *Zer* komunikazio-ikasketen aldizkariak, Euskal Herriko Unibertsitatearen argitalpenean, feminismo hitzaren bilaketak bost emaitza bueltatzen dizkigu, denak gaztelaniaz.

Baina azken urte hauetan beste zenbait egitasmo jarri dira martxan gure herrian Feminismoaren teoriak eta pentsamendua gurera ekartzeko, horien artean *Lisipe* eta *Eskafranda* bildumak, eta *Katakrak* liburudendak egindako ekarpena nabarmendu nahi dugu. *Susa* argitaletxearen eskutik *Lisipe* bildumak euskaraz argitaratu ditu saiakera originalak, Euskal Herria eta pentsamendu feminista ardatz dituztenak. *Eskafranda* Jakin aldizkariaren egitasmoa da, feminismoaren azken hiru mendeetako lan-giltzarriak euskaratzea du helburu eta azkenik Iruñeako *Katakrak* liburudenda eta argitaletxea pentsamendu feministaren oinarri izan diren hainbat liburu itzuli ditu azken urteetan ere.

⁴¹ Azterketa 2021.eko martxoan egin dugu

2.3 Emakumeen Askatze Mugimendua

Kapitulu honetako asmoa feminismoaren historiari hurbilpen bat egitea izan da. Ez da mapa definitibo bat, baizik eta emakumeek beren askapen-prozesuan emandako urratsen laburpen bat. Egoera zeharo aldatu da azken bi mendeetan, eta aldaketa horren arrazoien bila abiatu gara.

2.3.1 Sarrera

Hasiera Iraultza Frantsesaren garaian kokatu ohi da, nahiz eta *feminismo* terminoa bera urte batzuk geroago sortu. Olympe de Gouges iraultzaileak Emakume eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioa idatzi zuen 1793an Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioari (1789) erantzunez, azken honek ez baitzituen emakumeenak jasotzen.

Ondorengo urteetan feministen eta mugimendu feministaren indarrak hainbat eskubideren aldarrikapenean jarri ziren nagusiki, hala nola hezkuntza, lanpostu, jabego, seme-alaben zaintza eta botoa emateko eskubidea lortzeko ahaleginetan. Hain zuzen ere, boto-eskubidearen aldarrikapena oso indartsu bilakatu zen 1880tik Lehen Mundu-Gerra bitartean, sufragisten eskutik, bereziki Estatu Batuetan eta Britainia Handian. XX. mendean eta batez ere 1960ko hamarkadaz geroztik, mugimendu feminista zabalduz eta ugarituz joan da eta hainbat korrante jaio dira: feminismo sozialista, erradikala, katolikoa, homosexuala, diferentziarena, postkolonialista, eta abar.

Gizonezkoek legea eta hezkuntza erabili dituzte emakumezkoen menpekotasuna urtez urte iraunarazteko. Emakumeek mendeetan zehar jasan duten hezkuntza, edo hezkuntzarik eza, menpekotasun honen arrazoi nagusietako bat izan da, eta ez emakumeen gaitasunik eza. Historian zehar, emakumeek goimailako heziketarako bidea libre aurkitu dutenean, asmakizun eta lorpen garrantzitsuak eman dizkigute, nahiz eta testuliburuetan agertu ez. Zientzietan aritu ziren Hipatia Alejandriakoa (370-415) matematikaria, Émilie du Chatelet (1706-1749) matematikaria eta fisikaria, Mary Somerville (1780-1872) matematikaria, Marie Slodowoska Curie (1867-1934) kimikaria⁴², edo Ada Lovelace, Lord Byron poetaren alaba, historiako lehen konputagailu-

⁴² Nobel Saria bi esparru desberdintean jaso duen munduko persona bakarra, Fisikan eta Kimikan hain zuzen

programatzailea izan zena (XIX. mendean lehenengo aldiz kalkulu-programa bat idatzi zuen).

Literaturan hainbat emakume nabarmendu dira historian zehar. Venezian Christine de Pizan bizi zen (1364-1430), Europako lehenengo idazle profesionala kontsidera daitekeena, haren obrarik famatuena, *Damen Hiria*, feminismoaren aitzindaria izanik; Avilan Santa Teresa de Jesús (1515-1582), Parisen Olympia de Gouges (1748-1793), Frantses Iraultzan parte hartu eta Emakumeen eskubideen aldarrikapena publikatu zuena, edota Jane Austen (1775-1817) Britainia Handian.

Filosofia ere jorratu dute zenbait emakumek. Lehenengo emakume filosofoak Grezian aritu ziren, Aspasia Miletokoa (k.a. 470-400), erretorikan maistra eta kartografoa izan zena. Grezian ere Mantinea Diotimakoa bizi zen, Sokrates filosofoari maitasunaren filosofia erakutsi ziona. Beste filosofo emakume batzuk Madame Sevigne (1626-1696), Catherine Trotter (1679-1749) eta Flora Tristan (1803-1844) izan dira.

Emakume aitzindariak, baina halere ezezagunak, topatzen ditugu zenbait arlotan. Esate baterako, 1010. urtean Murasaki Shikibuk (Japonia), munduko lehen eleberrizat hartzen dena idatzi zuen (*Genjiren historia*, Cervantesen *On Quixote Mantxakoarekin* konparatua izan dena (Janés 2015, 10)), edo Alice Guy-Blanch (1873-1968), lehenengo gidoidun filmak ekoiztu zuena.

XIX eta XX. mendeetan zehar emakumeen ikuspegia eta soslaia gizarteratu da feminismoari⁴³ esker, feministen aldarrikapenetako bat ikusezintasun horrekin apurtzea izan baita, eta emakumeek gizarteko esparru guztiak estaltzeko eskubidea daukatela aitortzea ere.

XX. mendea emakumeen mendea izan zela esan ohi da. XIX. mendean emakumeak bigarren mailako herritarrak ziren, haien bizitza etxeko esparrura lotuta zegoen eta eskubide sozial eta politikoak erabat mugatuta zeuzkaten. Emakumeen emantzipazioaren historia erabat lotuta doa feminismoaren historiarekin, ezin baita bata ulertu bestea ezagutu barik.

⁴³ Honekin ez dugu esan nahi aurretik ez dela egon emakumeen eskubideen aldeko aldarrikapenik. Adibidez Christine de Pizan-ek (1364-1430) *Damen Hiria* idatzi zuen, non iraindutako emakumeak autoritate bihurtzen diren hiri utopiko batean. Geroago, Poulain de La Barre filosofo frantsesak 1673 eta 1674. urteetan *De l'égalité des deux sexes, discours physique et moral où l'on voit l'importance de se défaire des préjugés* eta *De l'éducation des dames pour la conduite de l'esprit dans les sciences et dans les mœurs* liburuak idatzi zituen, non emakumeen eskubideez idatzi baitzuen eta baita hauek pairatzen zuten diskriminazioaz, batez ere hezkuntzaren arloan.

Ana de Miguel-ek esaten du feminismoa beti existitu dela, eta hiru aro desberdin ikusten ditu beraren historian: feminismo aurremodernoa, modernoa eta gaur egungoa. Feminismo aurremodernoa antzinako klasikoetan agertzen dela dio (de Miguel Álvarez 2005, 15–32), baina garai hartan oraindik antolatuta gabe eta hedapen gutxiko korrontea zen. Hala ere, hemen feminismoaren historian ezagutzen diren hiru aro edo olatu desberdinetan finkatuko gara. Lehenengo uhina Argien Mendeko bindikazioekin⁴⁴ hasten da; sufragismoak bigarren olatuaren mugak jartzen, eta hirugarrenak pasa den mendeko 70eko hamarkadaren hasierako neofeminismoa dauka mugarri. Bindikazioaren feminismoa eztabaida bat izan zen, emakumeen gaitasun intelektuala eta hezkuntzarako eskubidearen eztabaida; sufragismoak eskubide politikoak, lan egiteko eskubideak eta hezkuntza-maila guztietarako sarbidea gehitu zuen. XX. mendeko feminismoak, ostera, eskubide zibilak, parekidetasuna eta ugalketa-eskubideak aldarrikatzen ditu, baita emakumeen ahalduntzea ere.

2.3.2 Lehenengo uhina: Emakumeen Bindikazioak Argien Mendean.

Frantziako Luis XVI.ak Estatu Nagusietarako hauteskundeetara deitu zuenean, “hiru estatuak” –apaizak, nobleak eta herritarrak– bildu ziren, erregeari aurkeztu nahi zizkieten keak idazteko⁴⁵. Emakumeak baztertuak izan ziren, eta beren Arrangura Kaierak⁴⁶ idazteko bildu ziren, eta “hirugarren estatuaren hirugarren estatua” zirela esan zuten.

Frantziako Iraultzan emakumeen ahotsa modu kolektiboan entzuten hasi zen, emakumeak teoriarik eta praktikan gizatalde moduan antolatzen hasi ziren, zapalduetako gizatalde moduan, interes eta berezitasun propioekin, hau da, mugimendu sozial gisa. 1789ko abuztuan, Frantziako Iraultzaileek *Gizonaren Eskubideen Aitorpena* argitaratu zutenean, gizonen arteko berdintasuna, legearen

⁴⁴ Banaketa honen hasiera sufragismoan jarri ohi dute beste lan batzuetan, batez ere feminista anglosaxoien artean.

⁴⁵ Gaztelainaz vindicar hitza erabili zen garai hartan: vindicar, RAEren hiztegiko, hirugarren adieran zera da: recuperar lo que le pertenece, (dicho de una persona)

⁴⁶1789an Estatu Generalak bildu zirenean, Ziburu eta Donibane Lohizuneko emakumeek ezagutzen den lehen aldarrikapen feminista, “Les doléances du sexe de St. Jean de Luz et de Ciboure au Roy” igorri zuten. Besteak beste, karrerak ikasteko eskaera egiten zuten, unibertsitatean gizonen pareko izateko gai sentitzen zirela adieraziz. Emakumeentzako bozkatzeko eskubidea ere galdetzen zuten...”. 1793an, berriz, Teresa Cabarrus (Madame Tallien izena ere erabili zuen) emakume baionatarrak eskaera bat zuzendu zion Konbentzioari emakumeentzat Eskubide Politikoak eskatuz. . (<http://www.euskomedia.org/aunamendi/65159/35687>)

babesa, gizonen askatasuna eta herriaren burujabetasuna jarri zituzten ardatz. Frantziako Iraultzak berdintasun juridiko eta politikoa lortzea jarri zuen helburu nagusitzat. Baina eskubide horiek gizonentzat aurreikusten ziren bakarrik, eta horrek kontraesan handiak sortu zituen iraultzaileen artean. Garai hartako emakume “feministek⁴⁷” aitorpen harekin batera sorturiko “*liberté, égalité, fraternité*” esaldi famatua hartu zuten oinarri, jasaten zuten bazterketa salatze eta indarrak batzeko.

Aurretik komentatu dugun bezala, Olympia de Gouges-ek 1791ean “*Emakumeen eta emakumezko herritarren Eskubideen Aldarrikapena*” publikatu zuen, oinarri moduan “*Gizonaren Eskubideen Aitorpena*” hartuz, baina “*gizon*” hitza agertzen zen guztietan “*emakume*” hitza jarritz. Aldarrikapen horrek gillotinarako atea zabaldu zion, 1793an urkamendira eraman baitzuten bere ideia politikoen gainetik. Haren delitua iraultzaren izpirituaren eta naturaren legeen aurka jotzea izan zen; hau da, emakumeak, ama edo emazte izan beharrean, “*estatu-gizonak*” bihurtu nahi zituela egotzi zioten (López 2009).

Condorcet-eko markesak (1743-1794) emakumeak eta gizonak modu berean heztea eta emakumeentzako “*herritartasun-eskubidea*” eskatu zuen, baina haren proposamenak ez ziren onartuak izan. Espetxean zegoela, 1794an, “*Giza izpirituak egindako aurrerapen zerrenda baterako zirriborroa*” izenburuz idatzitako testuan honelaxe argudiatzen zuen: «*gizonen eskubideen jatorria izaki sentikorrek eta ideiak eskuratzeko gauza izatean datza. Emakumeek gaitasun berberak dituzte, ondorioz, eskubide berberak izan behar dituzte*» (Varela 2005, 34).

Hala ere, Frantziako Iraultzak ez zituen onartu emakumeen eskubideak, eta edozein aktibitate politikotik at utzi zituen. Iraultzan protagonista izandako emakumeak zigortuak izan ziren.

Mary Wollstonecraft-ek (1759-1797) *Emakumeen eskubideen aldarrikapena* argitaratu zuen 1792an Britainia Handian (Tomaselli 2010). Lehenengo feministatzat hartzen da Mary Wollstonecraft, feminismo liberalaren aitzindaritzat, hain zuzen. Neska eta mutil guztientzat –langileen alabak barne– lehen mailako hezkuntza eskatu zion Ingalaterrako gobernuari, baita gaitasun handia erakusten zutenentzat unibertsitatean sartzeko aukera izatea ere. Era berean, emakumearen menpekotasunarekin amaitzeko legeria eskatu zuen, uste

⁴⁷ Feminismoaren kontzeptua beranduago sortu zen, baina emakume hauen aldarrikapenak feminismoaren sustraietan daude

baitzuen emakumeen emantzipazioak bi oinarri zituela, pentsamenduzkoa eta ekonomikoa. Lehena izan zen emakume guztientzako eskubide zibilak eskatzen.

Aurretik, emakumeen hezkuntzaz arduratu ziren beste zenbait emakume egon ziren, hala nola Christine de Pizan (1365-1430) eta Marie de Gournay (1566-1645) Frantzia, Mary Astell (1666-1731) eta Catharine Macaulay historiagilea (1731-1791) Ingalaterran. Egile horiek filosofiaren ikuspegitik idatzi zuten, ez politikarenetik. (Anderson eta Zinsser 2000, 396–405).

Amelia Valcarcel-en ustez, feminismoa Argien Mendeak nahi ez zuen semea da, eta baieztapen hori Rousseau-k *Émile ou de l'éducation* liburuaren hitzaurrean agertzen diren hitzetan finkatzen du:

«Sexuari dagokionez, emakumea gizonaren berdina da: organo berberak ditu, premia berberak eta gaitasun berberak; makina berdin eraikita dago, pieza berdinak ditu eta berdin funtzionatzen dute. Sexuari dagokionez, gizonaren eta emakumearen artean beti daude harremanak eta beti diferentziak. Harreman eta diferentzia horiek eragina izan behar dute arlo moralean. Ondorio ukigarria esperientziaren arabera, eta nabarmentzen duena sexuen arteko nagusitasun edo diferentziei buruzko eztabaiden hutsaltasuna. Euren artean komuna denari dagokionez berdinak dira, baina ezberdintasunean ez dira alderagarriak. Gizon eta emakume perfektuak ezin dira elkarren artean oso berdinak izan, ez ezagumenduan ez aurpegikeran. Batek aktibo eta indartsua izan behar du, besteak pasiboa eta ahula. Ezinbestekoa da batek nahi eta ahal izatea, nahikoa besteak erresistentzia eskasa egitea. Printzipio hori ezarrita ondorioztatzen da emakumearen destinoa gizonaren atsegina izatea dela... gizonaren meritua bere boterean datza, indartsu izate hutsagatik da gustagarria»⁴⁸ (A. Valcárcel 2008, 60–62).

⁴⁸ «En lo que se relaciona con el sexo la mujer es igual al hombre: tiene los mismos órganos, las mismas necesidades y las mismas facultades; la máquina tiene la misma construcción, son las mismas piezas y actúan de la misma forma. En lo que se refiere al sexo se hallan siempre relaciones entre la mujer y el varón y siempre se encuentran diferencias. Estas relaciones y diferencias deben ejercer influencia en lo moral. Consecuencia palpable, conforme a la experiencia, y que pone de manifiesto la vanidad de las disputas acerca de la preeminencia o igualdad de los sexos. en lo que existe de común entre ellos, son iguales, pero en lo diferente no son comparables. Se deben parecer tan poco un hombre y una mujer perfectos en el entendimiento como en el rostro. El uno debe ser activo y fuerte, el otro pasivo y débil. Es indispensable que el uno quiera y pueda y es suficiente con que el otro oponga poca resistencia. Establecido este principio, se deduce que el destino especial de la mujer consiste en agradar al hombre.. el mérito del varón consiste en su poder, y sólo por ser fuerte agrada»

Beraz, bere izaera naturalagatik, gizona emakumeen gainetik dago. Rousseauk proposatu zuen feminitatearen eredu berria ere, publiko-pribatuaren dikotomian finkatuta:

«Elkarrekin bizi izateko ohiturak gizonek ezagutzen duten sentimendu gozoena sorrarazi zuen, ezkontzako maitasuna eta aitatasunekoa. Familia bakoitza gizarte txiki bihurtu zen, are eta batuagoa non elkarren arteko esteka eta askatasuna lotura bakarra zuten; eta orduantxe ezarri zen lehen diferentzia bi sexuen arteko bizikeran, ordura arte bakarra izan baitzuten. Emakumeak sedentarioago bihurtu eta etxola zein haurrak zaintzen ohitu ziren; gizona, berriz, denontzako janariaren bila joan ohi zen»⁴⁹ (A. Valcárcel 2008, 61).

Emakumeak bigarren mailan geratzen dira eta euren lekua etxea da, ez dute zertan heziak izan, bakarrik behar dute heziketa dagozkien lanak bete ahal izateko, etxea kudeatzeko, semeak hezteko, laguntzeko eta goxoak izateko.

Frantziako Iraultzaren ondoren Napoleonek ezarritako Kode Zibilak (1804) emakumea adingabeko izaki bihurtu zuen. Atzerapauso handia eman zuten garai hartan emakumeen eskubideen defentsan ibili ziren taldeek. Mary Nash historiagileak honelaxe azaltzen digu:

«Frantziako Iraultzak eta ondorengo politika napoleondarrak emakumeen aurkako arauak estutu zituzten, etxearen espazio domestikoa emakumezkoen aktuzio giro bakartzat hartzean. Estatu "gizon" izateko aukera ukatu zieten emakumeei, eta berriro mundu publikotik at eta transgresio politikoengatik umilduta geratu ziren. Napoleonen Kode Zibilak (1804) iraultza aroan gizonezkoei aitortutako eskubide zibilak ukatu eta adin txikikotzat jo zituen, beti senarrak edo aitak babesturik»⁵⁰ (Nash 2005, 75).

⁴⁹ «El hábito de vivir juntos hizo nacer los más dulces sentimientos que los hombres conocen, el amor conyugal y el amor paternal. Cada familia se volvió una sociedad pequeña, tanto más unida cuanto que el vínculo recíproco y la libertad eran sus únicos lazos; y entonces se estableció la primera diferencia en la forma de vivir de los dos sexos, que hasta aquí no habían tenido más que una.

Las mujeres se volvieron más sedentarias y se acostumbraron a guardar la cabaña y los hijos, mientras que el hombre se iba a buscar la subsistencia común»

⁵⁰ «La Revolución francesa y la posterior política napoleónica endurecieron las normas contra las mujeres al definir el espacio doméstico de la casa como el único ambiente de actuación femenina. Negó a las mujeres la posibilidad de convertirse en "hombres" de estado y quedaron excluidas de nuevo del mundo público y humilladas por sus transgresiones políticas. El Código Civil de Napoleón (1804) vedó a las mujeres los derechos civiles reconocidos para los hombres durante

Gai honen inguruan Amelia Valcarcel-ek (2009) uste du kontraesan nabaria dagoela lege horietan: emakumeak intelektualki gai ez baziren, ez litzateke beharrezkoa izango legez ikastea debekatzea. Debekatze horren arrazoia izan zen, hain zuzen, emakumeak ahalduzko-prozesuan lehenengo urratsak ematen hastea, eta estatuak ezin zuen halakorik onartu.

Mercedes Roig-ek Kode horri buruz dioenez:

«Geroko enperadorea antifeminista amorratua zen, kontuan hartuz haren heziketa, gerrara emandako gazaroa eta esperientzia pertsonala familia eta gizarte-inguru hala-moduzko eta ustelean. Autoritatearen eta ordenaren zale oso, familia buruzagi bakarraren menpe ikusi zuen: gizonaren menpe. Emakumeak haurrak ernaltzeko makinak ziren. Holako mentalitatez idatzita daude emakumearen estatutuari dagozkion artikulua, mende bat baino gehiago indarrean egon direnak, Frantzian ez ezik, Europako herri askotan. Emakume ezkondua ez zen herritartasun-eskubidearen jabe. Ezin zuen abokatu ez tutore izan. Obedientzia zor zion senarrari, eta senarrak eskubide gehiago zeuzkan seme alabekiko zein ondasunekiko emakumeak baino. Senarrak adulteroa espetxera eramanez eta dibortzioa eskura zezakeen; bete-betean adulterioan harrapatu eta erailez gero legearen salbuespena zeukan. Aldiz, senar adulterioak soilik maitalea etxera eramanez gero jaso zezakeen isuna, eta emazteak dibortzioa eskuratu. Ama ezkongabea eta sasiko umea gogortasun berberaz hartzen ziren »⁵¹ (1989, 47).

el periodo revolucionario y definió a las mujeres como menores de edad, siempre tuteladas por el marido o el padre».

⁵¹ «El futuro emperador era un antifeminista empedernido, dada su educación, su juventud dedicada a la guerra y su experiencia personal en un entorno familiar y social por demás mediocre y corrompido. Apasionado por la autoridad y el orden consideró a la familia sometida a un único jefe: el hombre. A las mujeres como máquinas para concebir hijos. Con esta mentalidad están redactados los artículos referidos al estatuto de la mujer, vigentes durante más de un siglo no sólo en Francia sino en muchos países europeos. La mujer casada no gozaba del derecho de ciudadana. Tampoco podía ejercer la abogacía ni ser tutor. Debía obediencia a su marido y éste tenía muchos más derechos sobre los hijos que la mujer y también sobre sus bienes. El marido podía llevar a la adúltera a la cárcel y obtener el divorcio; si la mataba al sorprenderla en el acto de cometer adulterio, la ley le eximía. Sin embargo, el marido adúltero sólo era castigado con multa si llevaba a su amante al domicilio conyugal, en cuyo caso la mujer podía obtener el divorcio. La condición de madre soltera y de hijo natural eran tratadas con igual dureza».

Frantziako feminismoak sufragio eta berdintasunaren diskurtsoa defendatzen zuen XIX. mendean, baita amatasuna eta genero-ezberdintasunak kontuan hartzea ere. Mugimendu feministak erreforma sozialak eskatzen zituen, eta alkoholismoaren, prostituzioaren eta pornografiaren aurkako kanpainak bultzatu zituen. XX. mendearen hasieran, estatu frantziarrean jaiotze-hazkundeak beherakada handia izan zuen, 1870ean jaiotze-tasa milako hogeita seikoa izan bazen, 1918ean milako hamabikoa zen. Emakumeek amatasuna babestea eskatu eta gogor salatu zuten Kode Napoleonikoaren 340. artikulua, aitatasuna ikertzea debekatzen zuena. Horrez gain, 1892an *Erakunde Feministen Kongresu Orokorra* amen eskubideak eta umearikiko guraso bien erantzukizunaren berdintasuna aldarrikatu zituen.

Feminista frantsesek *Feministen V. Nazioarteko Kongresuan* (1896) lau hilabeteko amatasun-subsidioa eskatu zuten, amatasuna lanbidetzat aitortzea eta horretarako aurrekontu bat finkatzea. *Emakumeen Eskubideen Aldeko Liga erakundearen* gurasoen eskubideen berdintasuna eta emakumezkoen administrazio publikoan lan egiteko eskubidea sartu zituen (Cova 1997, 88).

2.3.2.1 Sufragismoa

Sufragismoa Estatu Batuetan sortu zen, esklabotzaren kontrako mugimenduaren inguruan. Londresen 1840an egindako *Esklabotzaren Kontrako Kongresura* lau emakume joan ziren Ipar Ameriketako ordezkarietan, baina, emakume izateagatik, kongresuan parte-hartzea galarazi zieten, eta errezel batzuen atzean jarraitu behar izan zuten han esandakoa; egoera hura baliagarria izan zitzaizen emakumezkoen eskubide ezaz ohartzeko.

Estatu Batuetara itzuli zirenean lehenengo urratsak eman zituzten, 1848ean **Seneca Falls Adierazpena** edo *Sentimenduen Adierazpena* publikatuz, amerikar sufragismoaren oinarritzko testua dena (Miyares 1999): hirurogeita hamar emakume eta hogeita hamar gizon batu ziren emakumeen giza eskubideei, erlijio-eskubideei eta eskubide zibilei buruz eztabaidatzeko, eta horren ondorioz, adierazpen bat eman zuten argitara. Estatu Batuetako Independentzia Adierazpenean oinarritu ziren, eta hainbat eskakizun egin zituzten: emakumezkoen hezkuntza-eskubidea, publikoaren aurrean hitz egiteko eskubidea, profesio bat jorratzeko eskubidea, elkarteetan parte hartzeko eskubidea, antolatzeko eskubidea, ondasunak izateko eta maneiatzeko

eskubidea... Emakume haien borroka gogorrena emakumeen “*hilketa zibilaren*” kontrakoa zen, emakumeak ezkontzarekin senarraren menpe geratzen baitziren, eta senarrari baitzegokion erabakitzekeo gaitasun osoa (Miyares 2005). Elizabeth Cady Stanton, *Emakumeen Biblia* liburuaren egilea eta Susan B. Anthony izan ziren garai hartako sufragistarik garrantzitsuenak

Sufragistek ez zuten bakarrik boto-eskubidea eskatzen, nahiz eta borroka harengatik gogoratuak izan diren. Botoa emateko eskubidearekin batera, hezkuntzarako eskubidea ere aldarrikatu zuten XIX. mendean, baita XX.ean ere. Jarduera luzea izan zen, 1910ean Washingtonen emakumeen boto-eskubidea onartzea lortu arte. Horrela, 1920an lehen aldikoz, emakumeek botoa eman zuten estatuko lehendakaria hautatzeko hauteskundeetan (Miyares 2005, 84).

Ordea, Ingalaterrako mugimendu sufragista da gogoratuena, nola haren kiderik nabarmenenaren nortasuna bitarteko (Emmeline Pankhursts⁵²), hala emakume ingeles haiek sorturiko erakunde ahaltsua eta erabilitako zituzten metodoak bitarteko ere. Horrez gain erreibindikatu zituzten betidanik emakumezkoen bitartekotzat jo direnak, hala nola dirua biltzeko zozketak egitea eta goi-mailako sufragistei eta agintariei bisita egitea; eta orobat, erresistentzia pasiboa⁵³ eta desobedientzia zibila agertu zituzten. Hasieran apal eta legezko metodoekin lan egin bazuten ere, sufragistek 1903an borroka erradikalizatu zuten. Manifestazioak egin, ministroen hitzaldiak boikotatu, partidu liberalaren batzarretan sartu... ez zituzten isunak ordaintzen eta horregatik kartzelatuak izan ziren. Gose-greba erabili zuten ere, eta puntu gorenera iritsi ziren 1913an Emily Davison-ek bere burua erregearen zaldiaren hankartera bota zuenean Epsom Hipodromoan. Haren hileta feminismoaren aldeko egun handia bihurtu zen. Indarkeria horrek izan zuen oihartzunik handiena Europako prentsan –kontra bueltatu zitzaien–, eta adiera ezkorra erantsi zion sufragismo terminoari lehenengo eta feminismoari ondoren. Prentzari esker sufragistak emakume zintzo orok baztertu beharreko eredu bihurtu ziren.⁵⁴

⁵² 1999an Time aldizkariak Emmeline Pankhurst “XX. mendeko 100 pertsona garrantzitsuen zerrendan” sartu zuen, heroiak eta ikonoak atalean. “She shaped an idea of women for our time; she shook society into a new pattern from which there could be no going back”

⁵³ Gandhi-k Londonen ezagutu zituen sufragisten protesta-ekintza pazifikoak eta bere borrokan erabili zituen geroago.

⁵⁴ Horretaz zeharo jabetu zen María Maeztu 1913an, eta “Feminismoa” zeritzon artikulu bat argitaratu zuen Europako prentsan: «Gizarte-desordena sustatzen duten emakume horien keinu heroikoa irigarri utzi ordez, ez al litzateke errukarriago izango

Ingalaterran 1832ko abuztuan emakumezkoen botoaren aldeko lehenengo eskakizuna aurkeztu zuten Parlamentuan, baina ez zen onartu. Hogeita hamar urte beranduago John Stuart Mill eta Henry Fawcet diputatuek aurkeztu zuten 1.499 emakumek sinatutako “*Ladies Petition*”, eta kamerak atzera bota zuen berriz ere. Stuart Mill (1806-1873) emakumezkoen defentsa aritu zen filosofo, politikoa eta ekonomialaria zen. Berak idatzitako *The subjection of Women* (1869) feministen biblia izan zen garai horretan. Ingalaterran, Estatu Batuetan, Australian eta Zeelanda Berrian argitaratu zen urte berean, baita Frantzia, Alemanian, Austriar, Suediar eta Danimarkan ere. Hurrengo urtean polonieraz eta italieraz argitaratu zen, eta baita Errusian ere. Argitalpena mugimendu feministen hastapenekin kointzidentea da, bai Finlandian, baita Alemanian, Frantzia eta beste zenbait herrialdetan (Evans 1980, 15–16). Mill-ek defendatzen zuen emakumeak norbanako askeak zirela, eta gizaki guztiak berdinak zirela. Baieztapen hau egia bihurtzeko ezkontza-, dibortzio- eta hezkuntza-legeen aldaketa beharrezkoa zen, emakumea libre izateko independentzia ekonomikoa behar zutelako, eta horretarako goi-mailako hezkuntza beharrezkoa baitzen.

Mill-ek berezitasun bat nabarmentzen zuen emakumeen menpekotasuna azaltzeko. Uste zuen emakumea ez zela bortxatutako esklaboa, baizik eta borondatezkoa. Borondatezkoa zen emakumezkoen esklabotza eta horren arrazoi nagusia hezkuntza zen:

«Hartara, emakumeak oro haurtzarotik hezten dira beren izaeraren ideala gizonaren guztiz aurkakoa den sinesmenean: inizatibarik ez izaten irakasten zaie, beren borondate kontzientez ez ibiltzen, baizik makurtu eta besteen borondateari men egiten. Portaera oneko printzipio guztiek esaten diete emakumearen betebeharra besteen alde bizitzea dela: eta sentimentalismo arruntak, beren izaerak horrela eskatzen

mugimendu hori zurriz saiatazea eta sufragistak militantziara bultzatzen dituzten arrazoiak argitzea. Ba ote dugu eskubiderik, akaso, horren atzean dagoen gizarte-arazo sakon horretaz arin antzean libratzeko, gure ingurune osoari darion kontua izaki, gizaki guztioi bihotz-muinean eskean, berehalako konponbide bat emateko? Haien aurkako jarrerarik hartu aurretik, zergatik ez dugu astiroago aztertzen emakume horien biziaren mingostasun neurrigabea? Izan ere, oinazea isil-gordean pairatzen duen gizateriaren zati baten atsekabearen adierazgarri dira, oro har, sufragista ingeles horiek; milioika emakumeren oihartzun eta bozgorailu dira, etsiak jotakoak eta egonarri handikoak izaki, etxe xume bateko bazter batean zokoratuak bizi baitira, ahots askatzailea noiz entzungo zain-zain, Lazarori behinola Nazaretekoak esan bezala inork noiz esango «zatoz kanpora!» (Martinez Martin 2009, 17)

*duela: bere burua erabat ukatu eta bere afektuetara emana
besterik ezin du bizi»⁵⁵ (J. S. Mill eta Mill 2000, 161).*

Stuart Mill feminista ezagun batekin (Harriet Taylor) ezkondu zen, harreman luze eta korapilatsu baten ondoren (Harriet Taylor alarguna zen Mill-ekin ezkondu zenean, baina aurreko 21 urtetan nahiz eta bere senarrarekin bizi, harremanetan egon ziren). Bikotearentzat gizakiak askeak eta berdinak ziren, eta horrela bizi izan ziren beti (Varela 2005, 66).

Hala ere, 1917ra arte ez zuten lortu Ingalaterrako emakumeek botoa emateko eskubidea (Salas 2000). Eta 1928an, I. Mundu Gerra amaitu ostean emakumeek boto eman zuten herri horretan.

Estatu Espainiarren sufragismoaren figurarik garrantzitsuen Clara Campoamor abokatua eta Partidu Erradikaleko parlamentaria izan zen. Campoamor-ek (1888-1972) emakumezkoen boto-eskubidea Madrilgo Gorteetan II. Errepublikara aldarrikatu zuen. Eztabaida gogorra izan zuen Victoria Kent diputatu sozialistarekin 1931eko urriaren 1ean proposamen honi buruz egin zen eztabaidan. Emakumezkoen botoa eskuinera joango zela erabili zuten kontrako argudio moduan, elizaren menpe zirela emakumeak. Alderdi sozialistaren barruan iritzi eta jarrera kontrajarriak zeuden gai honen inguruan, adibidez, Bilboko delegazioa edota Indalecio Prieto kontra agertu ziren, eta azken hau ez zen bozketara joan. Halere bozketa 161 aldeko botoekin, eta 121 kontrakoekin, onartu zen (Roig Castellanos 1989, 258). Euskal parlamentarien artean elkartuta joan ziren *Eusko Alderdi Jeltzaleko sei* diputatuk, *Comuni3n Tradicionalistak-eko bostek* eta *Cat3licos Independientes* alderdiko laurek alde bozkatu zuten, uste baitzuten emakumeek botoa emango zirela hurrengo urteetan. Ezkerreko diputatuen artean ordezkapena lortu zuten bakarrak errepublikar-sozialistak izan ziren, beren bederatzi diputatuekin, eta horietatik bik bakarrik eman zuten emakumeen boto-eskubidearen aldeko botoa. Gogora ekarriko dugu Campoamor-ek egun horretan bere diskurtsoaren amaieran esandakoa:

⁵⁵ «Así, todas las mujeres son educadas desde su niñez en la creencia de que el ideal de su carácter es absolutamente opuesto al del hombre: se les enseña a no tener iniciativa y a no conducirse según su voluntad consciente, sino a someterse y a consentir en la voluntad de los demás. Todos los principios del buen comportamiento les dicen que el deber de la mujer es vivir para los demás: y el sentimentalismo corriente, que su naturaleza así lo requiere: debe de negarse completamente a sí misma y no vivir mas que para sus afectos»

«Ez egin sekula damutzeko haina denborarik izango ez duzuen akats historikorik, emakumeak, Errepublikaren bazterrean utzita, indar berria, gaztea adierazten baitu; espetxean egon diren gizonen sinpatia eta babesa izan baita; zuek bezalaxe sufritu baitu hainbatetan, eta gogotsu baitago, Humboldt-ek esandakoa bere buruari egotziz, alegia askatasuna erabiltzeko eta denentzako eskuragarri egiteko modu bakarra haren barnean ibiltzea dela»⁵⁶ (Campoamor 2006, 152–153).

Hurrengo urtean dibortzioaren legea onartu zen, Europan garai hartan progresistena zena. Frankismoak aurrerapen horiek guztiak ezabatu zituen, eta emakumezkoen egoerak atzerapauso handia egin zuen.

Europako beste herrialde batzuetan emakumeen boto-eskubideak gorabehera asko gainditu behar izan ditu, baina batez ere XX. mendeko borroka izan da: Tasmania 1903an, Finlandia 1906an, Norvegia 1913an, Danimarka 1915ean, Armenia, Herbeereak, Errusia, Estonia, Letonia, Lituania eta Polonia 1917an, Alemania, Irlanda, Hungaria, Azerbaijan, Georgia 1918an, Suedia, Belgika, Luxenburgo, Ukraina eta Albania 1919an... Oso deigarria da Suitzako adibidea, han 1971ean onartu baitzen emakumezkoen boto-eskubidea. Zeelanda Berria 1893an eta Australia 1901ean aitzindariak izan ziren gai honetan (Ocaña Aybar 2000).

2.3.2.2 Feminismoaren harremanak sozialismoarekin eta marxismoarekin

Industrializazioak eta kapitalismoak generoen arteko harremanak aldatu zituzten. Burgesian emakumeak etxean geratu ziren, gizonen estatusaren erakusleho bihurtu ziren. Aldiz, proletarioen artean emakumeak fabriketan lanera sartu ziren, lan-indar merkea eta menperagarriagoa baitzen. Sozialismoak kontuan izan zuen hasieratik emakumeen egoera, zaila baitzen XIX. mendean berdintasuna aldarrikatzea jendartearen erdia kontuan izan barik. Hala ere, honekin ez dugu esaten sozialismoa feminista denik.

Hiru emakume sozialista eta feministak (edo feminista eta sozialistak) nabarmendu ziren garai horietan, Flora Tristan (1803-1844), Clara Zetkin (1857-1933) eta Alejandra Kollontai (1872-1945)

⁵⁶ «No cometáis un error histórico que no tendréis nunca bastante tiempo para llorar; al dejar al margen de la República a la mujer, que representa una fuerza nueva, una fuerza joven; que ha sido simpatía y apoyo para los hombres que estaban en las cárceles; que ha sufrido en muchos casos como vosotros mismos, y que está anhelante, aplicándose a sí misma la frase de Humboldt de que la única manera de madurarse para el ejercicio de la libertad y de hacerla accesible a todos es caminar dentro de ella».

Flora Tristán Unión Obrera (1843) liburuan, *Zergatik hitz egiten dut emakumeei buruz* tituludun kapitulu batean emakumeen egoeraz mintzo zen. Haren esanetan: «munduko ezbehar guztiak gaur arte emakume izatearen eskubide naturalak ahaztu eta mespretxatzeagatik datoz»⁵⁷. Politikari harentzat emakumezkoen heziketa langileriak aurrera egiteko ezinbestekoa izango zen beren senar edo semeengan zuten eragina medio, ez ordea emakumeen emantzipazioaren bidean.

Emakumeen bizimodu latzez hitz egiten zuen, eta uste zuten gizartearentzat oso errentagarria zela emakumeak menpekotasun horretan mantentzea, horregatik ez zituzten hezten:

«Eskolara bidali ordez, etxean gordeko da bere anaiak baino sarriago, etekin gehiago ateratzen baitzaio etxean, dela haurrak sehaskan kulunkatzeko, mandatuak egiteko, janaria zaintzeko, etab. Hamabi urte beteta aprendiz kokatzen da: han ugazabandreak zapalduta jarraituko du eta, sarri, gurasoen etxean zegoenean bezala tratatu txarrak jasoz»⁵⁸ (Tristan 2003, 54)

Flora Tristan-entzat emakumeen egoera «*natura femeninoaren gutxiagotasuna baieztatzen duen printzipio faltsua onartzetik eratortzen da*»⁵⁹. Haren diskurtsoa emakume langileen egoeratan oinarritzen da, hauek jasaten baitute menpekotasun larriena, langile izateagatik eta emakume izateagatik. Emakume hauen heziketa ezak menpekotasun hori areagotzen du. Uste du emakumeen heziketak gizarte justuago bat ekarriko duela. Hiru argudio erabiltzen du baieztapen hau egiteko: 1) gaitasun instrumentala, emakumeak heziz gizarteak ez zituen popatik botako haien lana eta adimena, 2) gaitasun morala, emakume langileak ondo heziz gero, bere seme-alabak hezteko gai izango dira eta 3) kidearen argudioa, bere bikotekideekin ere harreman goxoago izango dute, menpekotasunetik ihesi eta parekide bihurtuko direlako (Ana de Miguel Álvarez 2005).

⁵⁷ «todas las desgracias del mundo provienen del olvido y el desprecio que hasta hoy se ha hecho de los derechos naturales del ser mujer».

⁵⁸ «En lugar de enviarla a la escuela, se la guardará en casa con preferencia sobre sus hermanos, porque se le saca mejor partido en las tareas de la casa, ya sea para acunar a los niños, hacer los recados, cuidar la comida, etc. A los doce años se le coloca de aprendiz: allí continuará siendo explotada por la patrona y a menudo también maltratada como cuando estaba en casa de sus padres» (Tristan 2003, 54).

⁵⁹ «*se deriva de la aceptación del falso principio que afirma la inferioridad de la naturaleza femenina*».

Clara Zetkin (1854-1933) *Die Gleichheit (Berdintasuna)* aldizkariaren zuzendaria eta mugimendu sozialista feministaren bultzatzailea izan zen. 1907an *Emakumeen Nazioarteko Lehenengo Konferentzia* antolatu zuen (gaur egun Emakumeen Nazioarteko Sozialista dena). Emakumeen eskubideen defendatzailea izan zen eta 1911n *martxoaren 8a, Emakume Langileen Nazioarteko Eguna* berak izendatu zuen.

Zetkin-ek uste zuen emakume langileen arazoak kapitalismoarekin eta langileen esplotazioarekin zerikusi zuzena zeukatela eta ez klase bereko gizon langileekin. Bozka-eskubidea ez ezik sindikalki eta politikoki antolatzeo aukera izatea ere aldarrikatu zuen, momentu horretan guztiz debekatuta zegoena emakumeentzat.

Emakumeen interesak ez dira homogeneousak, klase sozialen interesei lotuta daude. Zetkin-ek emakumearen papera klase sozialetako familia-eredu desberdinetan aztertzen du.

Hala ere, zenbait sozialistentzat emakumeen emantzipazioa pentsaezina zen. Horrela zioen August Bebel pentsalariak: «Ez pentsa sozialista guztiak emakumearen emantzipatzaileak direnik, badira batzuk zeinentzat emakume emantzipatua sozialismoa kapitalistentzat bezain antipatikoa den»⁶⁰. Lenin-entzat ere feminismoak ez zeukan zentzurik, eta uste zuen indarra kenduko ziola benetako iraultzari, Zetkin-i idatzitako gutun batean esaten baitzuen: «sexuari eta ezkontzari buruzko eztabaidak mundu guztia sozialista izan arte itxaron behar du, edota inon kontrairaultzailerik egon ez arte»⁶¹ (Herrera Gómez 2010, 159).

Alejandra Kollontai (1872-1945) errusiar iraultzaile feminista izan zen. Emakumeen aldeko borroka familia autoritarioa eta sexu-zapalkuntza hautsiko dituen ikuspuntu iraultzailean oinarritu zuen. Bere obra nagusiak hauek dira: *Emakumearen arazoan oinarri sozialak* (1909); *Moral berria eta langileria* (1919); *Sexu askatasunean bizi izan den emakume baten autobiografia* (1920); *Bakartasuna eta amatasuna* (1921); eta *Langileriaren oposizioa* (1921).

Kollontai-k uste zuen ez zela nahikoa emakumeak produkzio-prozesuetan parte hartu eta jabego pribatua deuseztatzea, bi sexuen arteko harremanen aldaketaz

⁶⁰ «No se crea que todos los socialistas sean emancipadores de la mujer, los hay para quienes la mujer emancipada es tan antipática como el socialismo para los capitalistas».

⁶¹ «la discusión sobre el sexo y el matrimonio debe de esperar a que todo el mundo sea socialista o hasta que no haya contrarrevolucionarios en ninguna parte».

idazten zuen, eguneroko bizitzaren eta ohituren eraldaketaz. Emakumeen benetako emantzipaziorik gabe nekez hitz egin zezaketen iraultza sozialistaz. Pentsamolde honek arazo larriak sortuko zizkion sozialisten (gizonen) artean, hauek ez baitzuten ikusten emakumeen borroka espezifikoren beharra, emakumeen emantzipazioa egituraren aldaketarekin etorriko zela argudiatzen baitzuten.

Emakume Berria Kollontai-rentzat bere opresioaz jabetzen zen emakumea zen, opresio horretatik ateratzeko bere bide propioa bilatzen ari zen emakumea. Emakume hauek klase sozial guztietan egon bazeuden, gizonen isla izateari utzi ziotenak: «eskakizun propioz aurkezten dira bizitzan, beren nortasuna baiesten duten heroinak, estatu barruan, familiaren baitan, gizartean emakumeek bizi duten egoeraz protestatzen dute, beren eskubideen alde borrokatzen dakiten heroinak»⁶² (Ana de Miguel Álvarez 2005). Kollontai-k soldata berdinak, abortu-eskubidea, etxeko arduren sozializazioa, eta batez ere emakumeen bizitza intimoa eta sexuala aldatzea eskatzen zuen. Emakume berriak independentzia behar zuen, bai emozionala eta baita ekonomikoa. Kollontai-k ez zituen emakumeak iraultzan integratzen, baizik eta iraultza propioa proposatu zuen emakumezkoentzat.

2.3.3 Bigarren uhina

Boto-eskubidea lortu ondoren mugimendu feminista erlaxatu egin zen, borrokaren maila jaitsi eta hurrengo hamarkadan feminismoaren ikurra etxera bueltatu zen; autore batzuek, hamarkada horri “lotsaren 50ak” deitzen dute. Hala ere, bi pentsalari eta bi liburu aipatuko ditugu, hurrengo olatuari abiapuntua emateko, Simone de Beauvoir eta *Le Deuxième Sexe (Bigarren Sexua)* alde batetik eta Betty Friedan eta bere lana *The Mystique Feminine (Feminitatearen Mistika)*

2.3.3.1 Simone de Beauvoir eta Le Deuxième Sexe

1949an existentzialismo frantseseko filosofo emakumezko ezagunenak, Simone de Beauvoir-ek alegia, *Bigarren Sexua* argitaratu zuen. Beauvoir-ek, 40 urtekoa momentu hartan, intelektualen (gizonen) artean errekonozimendua zeukan, eta ez zuen bere burua feministatzat hartzen, errebindikazio burges-sorta

⁶² «Se presentan a la vida con exigencias propias, heroínas que afirman su personalidad, que protestan por la servidumbre de la mujer dentro del estado, en el seno de la familia, en la sociedad, heroínas que saben luchar por sus derechos»

bat baino ez zen feminismoa harentzat. Hala ere, eta J.P. Sartre-k hala iradokita, emakumea izateak beregan zuen eragina aztertzen hasi, eta hortik abiatu zen liburua. Bi liburukitan argitaratu zuen, lehenengoa *Egintzak eta mitoak* eta bigarrena *Bizitako esperientzia*.

Existenzialismoa subjektuaren filosofia bat da, zeinak arazoak subjektu horien esperientziatik aztertzen dituen, subjektuaren singularitateak bere baldintzen unibertsalitatea ematen duena. Horregatik, bere esperientzian hasten denean ikertzen, galderak unibertsalak direla konturatzen da.

De Beauvoir-en esanetan «*la-ia txiripaz konturatu nintzen ezen, nitaz idatzi nahi banuen, beste eze baino lehen, emakume-izatearen kondizioaz hitz egin behar nuela*», (Agirreurreta 2008, 76); baina liburuak hurrengo hamarkadetan feminismo mendebaldarraren borroka aurreirudikatu zituen eta klasiko bat bilakatu zen denbora laburrean.

Itxuraz galdera simple batekin hasten da haren ikerketa, Zer da emakume izatea? Zerk ematen dio emakumeari emetasuna? Gizon batek ez luke inoiz bere burua sexu berezi bateko indibiduo bezala ikusiko, ez litzaioke bururatuko gizartean duen egoera berezian liburu bat idaztea.

Maskulinitasuna eta feminitasuna ez da egitate naturala, guztiz kulturala baizik. “*Berezko feminitasunaren*” moldean hezten dituzte emakumeak gizonen menpe. Horregatik dira bigarren sexua; lehenarekiko –gizonarekiko– bestea da, gizonak bere burua subjektutzat eta emakumea objektutzat hartzen baitu. Hierarkizazio hori eta bertatik ondorioztatzen den emakumeen zapalkuntza ez dira halako esentzia edo izate femerino baten ondorio, baizik eta egitate soziokulturalak. Olaziregik (1999, 11) horrela azaltzen du: «bestek aintzatesten gaituzten neurrian gure nortasuna finkatzen dugula kontuan hartuz, harreman hau ez da berdintasunez eman sexu desberdineko izakien artean, gizona ez baitu emakumezkoaren beharrik izan bere izatea gauzatzeko. Emakumezkoaren erreferentzia gizona izan den bezala, gizona ez da kontrako gertatu».

«*Emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da*» (Beauvoir 2019), esaten du Simone de Beauvoir-ek⁶³. Desberdintasun biologikoak garrantzitsuak izan arren, ez dira nahikoak sexuen arteko desberdintasunak justifikatzeko. Zibilizazioa da arraren

⁶³ Irene Arraratsek euskarara itzuli zuen *Bigarren Sexua* 2019an, aipaturiko *Eskafanda* bildumaren baitan

eta irenduaren bitarteko femeninoa deritzan izaki hori sortu duena. «*Haurtzaroan, neskatoa makurrarazi eta elbarri egiten dute*», “Haren gaztetasuna gizonaren zain alferrik galtzen da”, bere jabearen zain, «*Ezkontza ez da bi existentzia autonomo batera bizitzen hastea, baizik emakumea gauza bera errepikatzen eta eguneroko ohikeriara kondenatzea*». «*Etxekoandrea, gizon bati betiko lotua, haurra besoetan duela, haren bizitza bukatu da betiko*» (Agirreurreta 2008).

Emakumeak gizonen nahi bezalakoak izan dira beti, Beauvoir-en ustez, eta zapalkuntza guztiak justifikatzeko gizonen mitoak asmatu zituzten, eta mitoak dira emakumeek jasan duten bazterketa teorikoki oinarritzen duten ideologia patriarkalaren funtsa (Agote eta Landa 1986). Horrela, emakumearen eginbearra bere identitate propio eta espezifiko bereganatzea da, bere irizpideak landuz eta eraikiz.

Estatu Batuetako feministek liburuari bultzada eman zioten (Varela 2005, 92) oso denbora laburrean bi miloi ale salduz. Handik aurrera munduko beste hainbat tokitara zabaldu zen. Varela-ren ustez, liburuak sortutako erantzun horrek bihurtu zuen Beauvoir bera feminista, konturatu zenean edozein lekutako emakumeek euren izate horrekin identifikatzen zirela.

Liburua mugarrizko izan da XX. mendean feminismoaren eztabaidan, eta oraindik erreferentzia da, bai adostasunak azpimarratzeko eta baita kritikatu izateko ere. Ana de Miguel-ek horrela azaltzen du: «*Simone de Beauvoir adibide bikaina da, teoria feminista errealitatearen gure ulermenaren eraldaketa iraultzailea dela esan ahal izateko*»⁶⁴ (Ana de Miguel Álvarez 1995, 15).

2.3.3.2 Betty Friedan eta *The Mystique Feminine*

Betty Friedan-ek *The Mystique Feminine* 1963an publikatzen du. Liburua ikerketa psikologiko sakon baten emaitza da. Friedan-ek emakumeek pairatzen duten “izenik ez duen gaitza” sakonki aztertzen du. Izen horrekin zera definitu nahi du, batez ere Estatu Batuetako emakumeek psikologoaren kontsultetan hainbatetan aipatzen duten zorientasunik eza. Elkarrizketa horietan emakumeek frustrazioa azaleratzen zuten, nahiz eta teorikoki emakume zorientsu izateko baldintza guztiak bete: etxera dirua ekartzen zuen senar egokia, etxea, seme-alabak, etxetresna modernoak.

⁶⁴ «*Simone de Beauvoir constituye un brillante ejemplo de como la teoría feminista supone una transformación revolucionaria de nuestra comprensión de la realidad*».

II. Mundu-gerra amaitu ondoren, ABeko emakumeen⁶⁵ eredu bakarra ama-emazte izatea zen, gerra-garaian fabrika eta enpresetan lanean egon eta gero etxe barrura sartu nahi zituzten berriz, gizonak espazio publikora bueltatzen ziren heinean. Ideal hau hainbat literatur lanetan, filmetan eta musikan ere islatu zen, non emakumeak ederrak ziren, ama paregabeak, sentsualitate handikoak eta ezkontzea zen bizitzaren helburu handiena. Etxekoandrearen figura goraiatzen da, sukaldari trebeak, umeen hezitzaile eta zaintzaile paregabeak, tresneria sofistikatuekin arazorik ez dutenak, ederrak egoten dakitenak goizetik gauera. Eredu honetatik kanpo bizitzeak marjinazioa zekarren.

Friedan-ek zioenez, sistema ekonomikoak eredu hori bultzatzen zuen, non emakumeen lan profesionala bigarren mailakotzat hartzen zen. Emakumeek nahiago zuten etxeko lanen “nagusia” izatea txarto ordaindutako lan bat izatea baino.

Liburuak bi miloi ale saldu zituen eta Pulitzer saria jaso zuen 1964an. Emakume estatubatuarrek, eta beraiekin europarrak ere kalera atera ziren galdutako identitatearen bila. Emakumeen Askapen Prozesuaren hasiera izan zen, feminismoaren bigarren olatua.

2.3.3.3 1970. hamarraldiko feminismoak

Boto-eskubidea lortu ondoren mugimendu feminista erlaxatu egin zen, borrokaren maila jaitsi eta, hurrengo hamarkadan, feminismoaren ikurra etxera bueltatu zen, autore batzuek, hamarkada horri “lotsaren 50ak” deitzen diote.

Carol Hanisch feminista erradikalak, “*The personal is Political*”⁶⁶ artikuluan, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa salatzen zuen. Agenda politikoan pribatutzat jotzen ziren gai asko sartu zituen, hala nola, osasuna, zaintza eta etxeko lanak, sexu-erasoak.

Haren aburuz, emakumeek jasaten duten bereizkeria eta indarkeria ez da norbanakoaren arazoa, baina norbanakoaren “*desberdintasun-bizipen*” horiek emakumei gizatasuna kentzeko erabiltzen dituzten sistemak, beraz arazo politikoa da, eta neurri politikoak behar dira arazoa konpontzeko. Esaten du feministek euren buruaz hitz egiterakoan, beti partekatzen dituztela antzeko esperientziak:

⁶⁵ Estatu Batuetako familia zuri-tako emea, klase ertainekoa, ikasketak egin dituen eta bizitegi-auzoetan bizi zirenei buruz ari da.

⁶⁶ “Pertsonala politikoa da” ikur bihurtu zen garai honetan.

ikusezintasuna, diskriminazioa, bazterketa eta indarkeria, nahiz eta klase sozial edo etnia, erlijio edo klase desberdinekoak izan. Esperientzia komun horiek soilik emakume guztiak menperatzen duen sistema baten barruan azal daitezke. Hartara adierazi zuen norbanakoaren bereizkeria edo zapalkuntza-esperientzia horiek emakume guztiak diskriminatzen duen sistema baten ondorio direla; eta sistema horri patriarkatua deitu zion. Bigarren olatuak erakutsi zuen ez zela nahikoa gizonezkoek definitutako abstrakzioak bereganatzea, azken finean gizonezkoen abstrakzio horiek ez baitira unibertsalak, baizik eta gizonezkoen talde konkretu baten erduei erantzuten «*maskulinoaren teilakatze iruzurtia gizatasun generikoarekin*»⁶⁷ (Amorós 2005, 369). Hiru ikuspegi nagusitu ziren 80ko hamarkadan, liberala, sozialista eta erradikala, baina azken urteotan beste perspektiba feminista batzuk hedatu dira, hots, kulturala, desberdintasunaren feminismoa edo ekofeminismoa. Horregatik Leonor Suarez Llanos ikertzaileak bi kategoria nagusi proposatzen ditu, feminismo domestikatua edo berdintasunaren feminismoa alde batetik eta feminismo menderakaitza edo desberdintasunarena. Lehenengoak gizonezkoen buruzko definizioak emakumeenganaino luzatu nahi ditu, gizonek eta emakumeek estatus berdina dutelakoan, eta bigarrenak sistema patriarkalaren oinarriak apurtu nahi ditu (Suarez Llanos 2002, 63–66).

2.3.3.4 Berdintasunaren feminismoa

Kategoria honetan feminismo liberala, sozialista eta marxista sartzen ditu, hauentzat gizaki guztiak berdinak dira eta gizartean ikusten diren desberdintasunak dominazio-harremanen emaitzak dira. Hau da, hain zuzen, berdintasunaren feminismoaren abiapuntua. Emakumeek gizonen eskubide berberak dituzte, baliabide berdinak eskuratu behar dituzte eta aukera berdinak izan behar dituzte. Hauek ez dituzte onartzen balio femeninoak eta balio maskulinoak daudenik, baizik eta generoen arteko desberdintasunak jendarte-arauek ezarritako botere harremanen ondorioak direla esaten dute. Susana Gamba-k Delphy-ren hitzak dakar gogora *Feminismo Historia y Corrientes* kapituluan (Gamba 2007):

⁶⁷ «*el insidioso solapamiento de lo masculino con lo genéricamente humano*».

«Gaur egungo gizarte hierarkikoan ez daude arrak eta emeak, baizik gizarte eraikuntzak diren gizonak eta emakumeak»⁶⁸ (Delphy, 1980)⁶⁹.

Amelia Valcarcel-ek bere aldetik zera esaten du: emakumetasuna ez da existitzen, ez da existitzen emakumea; emakume anitz eta desberdinak existitzen dira eta, era berean, Gizona ez da existitzen, gizon anitz eta desberdinak baizik (Valcarcel 1997).

Feminismo liberala

Feminismo liberalak onartzen du emakumeen egoera desberdina dela, baina ez du opresio edo esplotazioa ikusten, eta sistemaren aldaketa aldarrikatzen du sexuen arteko berdintasuna lortu arte (Ana de Miguel Álvarez 1995, 15). Liberalen aitzindarietako bat Betty Friedan izan zen. AEBn 1966. urtean NOW (National Organization for Women) sortu zen eta Friedan ordezkari nagusietakoa izan zen. Liberalentzat emakumeen arazo nagusia esfera publikotik at egotea zen, eta lan-munduaren ateak zabaltzea eskatzen zuten, baita esfera politikoan ere.

Feminismo sozialista eta marxista garaikidea.

Feminismo marxistaren kezken ondorio da sozialista: Marxismoak ez du generoa ikusten. Langileen borrokak du lehentasuna, eta emakumeen askapenak itxaron behar du. Feministek, berriz, eremu pribatuan ere zapalketa dagoela salatzen dute. Kapitalismoarekin batera patriarkatuak zapaltzen ditu emakumeak eta, beraz, biak suntsitu behar dira. Jendearen harreman material edo ekonomikoak ezin dira aldatu euren ideologiak ere aldatzen ez badira.

Feminismo *domestikatu* honi zenbait kritika egiten zaizkio, alde batetik emakumeak gizonekin parekatuz emakumeak gizonen parametroetara eramaten dutela, gizonen berezitasun eta premietara moldatzen dituztela, beraz emakumearen maskulinizazioa egiten da. Bestetik, feminismo hauek ez dute aldaketa instituzionala, politikoa, edo soziala eragiten, baizik eta dagoen markoan baztertuta gelditzen diren subjektuak (emakumeak) sortzen.

⁶⁸ «Lo que se encuentra en la sociedad jerárquica actual no son machos o hembras, sino construcciones sociales que son los hombres y las mujeres».

⁶⁹ Susana Gamba-k aipatzen du, Feminismo Historia y Corrientes kapituluaren (Gamba 2007).

2.3.3.5 Diferentziaren feminismoa

Kultura patriarkalari aurre egiten dio baita botere-eredu guztiei ere, gizonaen balioetat hartuz. Sistema patriarkalak tasun femeninoak gutxiesten ditu –amatasuna, sentsibilitatea, irrazionala– eta diferentziaren feministek balio horiek balioetsi. Emakumeek ez dute askatasuna lortuko gizonen eredu jarraituz baizik eta eredu propioa eraikiz. Emakume izatearen esperientziatik abiatuz, emetasuna balioetsiz, nor bere buruaren jabe egitea zuten helburu. Tendentzia hau Italian eta estatu frantsesean nagusi izan zen, baita estatu espainiarrean ere, teoriko nagusienak Luce Irigaray eta Annie Leclerc, Carla Lonzi eta Victoria Sendon izan zirelarik. Desberdintasunaren feminismoan feminismo erradikala, feminismo kulturala eta feminismo postmodernoa bereizi ditugu.

Feminismo Erradikala

Feminismo erradikala 60ko eta 70eko hamarkadetan sortu eta hedatu zen. Korrante honen esanetan, emakumeen zapalkuntza ez da sistemaren ondorio hutsa, baizik eta emakumeak menderatzeko sistema espezifiko bat. Generoan oinarritutako zapalkuntzari beste zapalkuntza-motei baino garrantzi gehiago ematen dio. Menderatze-prozesu honen oinarrian patriarkatua dago, emakumeak menderatzeko indarkeria erabiltzen duen erakundea, alegia. Emakumea sexu-klase zapaldua da, eta genero-zapalkuntzari borroka garrantzitsuena irizten dio, beste zapalkuntza guztien gainetik. Feminismo erradikalaren helburua jendartea modu berri batez antolatzea da, modu horizontalagoan, hierarkiak apurtuz. Erradikalak dira, izan ere eraldaketa pertsonala, ekintza politikoa eta garapen teorikoa uztartzen baitute.

Garai honetan, 1968an hain zuzen, Kate Millet-ek bere doktore-tesia defendatu zuen, generoan oinarritutako lehenengo tesia alegia: *Sexual Politics*. Egile honen tesia da patriarkatua instituzio politiko bat dela, gizonen interesak sostengatzen dituen sistema, eta gizonen pribilegioak defendatzen dituen egitura. Are gehiago, “*sexua kategoria soziala da, politikoki bustita dagoena*”, egile honen ustez. Patriarkatuak ahalbidetzen du populazioaren erdiak (gizonak) beste populazioaren erdia (emakumeak) menpean hartzea, eta horretarako tresna garrantzitsu bat botere ekonomikoa dela baieztatzen du:

«Gobernu patriarkalaren tresna garrantzitsuenetarikoa emakumeen kontra ezartzen duen menpekotasun ekonomikoa»

da... Izan ere gizarte patriarkaletan emakumeek beti egin dute lan, maiz zeregin errutinario edo astunenak eginez; arazo nagusia ez dago emakumeen lanaren inguruan ardaztuta, haien ordainsari ekonomikoan baizik» (Millett 2010, 94).

Millet-en liburua feminismoaren oinarrizko liburua bihurtu zen oso denbora laburrean, eta feminismo erradikalaren sortze-prozesuan oinarrizko testua.

Sulamith Firestone-k idatzi zuen feminismo erradikalaren oinarrian dagoen bigarren lana, *La dialéctica de la sexualidad* (Firestone 1976). Emakumea klase sozial bat direla dio, biologikoki determinatua dena:

«klase ekonomikoetan ez bezala klase sexualak errealitate biologikotik eratorzen dira zuzenean; gizona eta emakumea ezberdin eginak izan ziren eta pribilegio ezberdinak jaso zituzten» (1976, 12).

Bi lan hauetan patriarkatua, generoa edota kasta sexuala kontzeptuak landu ziren. Bi autore hauek, lan akademiko eta intelektualarekin batera, militantzia aktiboa ere landu zuten, emakumeen elkarte eta mugimenduetan parte aktibo izan baitziren. Kathleen Barry-ren (2005, 192) esanetan: «*«muturreko teoria feminista feministen komunitatearen produktua da eta teoriaren eta praktikaren elkarreaginetik dator»*.

Feminismo erradikalaren lehenengo urratsetako bat gizonengandik banatzea eta entitate propioak sortzea izan zen. Talde feministetan antolatu ziren emakumeek opresio-egoerez kontzientzia har zezaten, eta egoera horri modu antolatuan buelta emateko, teoria feminista esperientzia pertsonaletik eraikiz eta beste emakume eta taldeen ahotsen balioa handituz.

Ana de Miguel-ek uste du (1995, 17–18) teoria politikoa eraldatu zutela familia eta sexu-harremanak botere-harremanen ikuspegitik aztertu zituztenean, hau da, ohartu zirenean emakumeak menpekoak zirela emakume izategatik.

Feminismo erradikalaren helburuak honakoak ziren: antolaketa horizontala eta hierarkia gabekoak, emakumeen botere ekonomiko, sozial eta kulturala handitu eta ugalketa eta sexual kontrola bereganatzea. Partidu politiko eta sindikatuetatik at kokatu zuten beraien borroka.

Feminismo kulturala

Feminismo kulturala deritzona sortu zen AEBan —feminismo erradikalaren altzoan— eta kultura-adierazpideak eta egiturak aldatzea zuen jomuga, praktika artistiko feministak oinarri. Emakumeen kontrakultura-mota bat sortzea, emakumeentzat bakarrik, hau da emakumeen mundu berri bat sortzea emakumeentzat. Kontrakultura honek “emakumetasuna” nabarmentzen du eta maskulinitatea gaitzetsi, beraz, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak nabarmentzen ditu. Gizonek kultura ordezkatzan dute eta emakumeek natura. Gizonen helburua emakume-natura hori kontrolatu eta domestikatzea da. Emakumeek bizitza ordezkatzan dute amatasunarekin; eta gizonek, berriz, heriotza eta bortizkeria. Gizonek diseinatzen eta sortzen dituzte armak, eta gerrak hasten dituzte, haien esanetan.

Natura izatea eta amatasuna izatea nolakotasun positiboak dira, moralki gizonen gainetik daude eta planeta salba dezakete emakumeek. Korrante honek heterosexualitatea gaitzesten du gizonekin harremanetan jartzen delako, eta lesbianismoa onartzen duen aukera bakarra da. Pentsamendu dikotomiko honek feministek urteetan salatu eta deseraiki nahi zuten hierarkizazioa eta sexualizazioa indartzen du, eta jendartean feminismoaren gaitzespena dakar.

2.3.4 Feminismo Postmodernoaren edo 3. uhina

“Hirugarren uhina” deitu izan dena XX. mendeko azken urteetan jaio zen bigarren uhinari erantzuna emateko. Emakumeak gero eta kontzienteagoak ziren ez zela emakumeaz hitz egin behar, emakume-eredu asko eta anitzak existitzen zirela, bakoitzak bere baldintzapen propioekin.

XXI. mendeko feministei politikan parte-hartzeko ereduak interesatzen zaizkie, baita sexualitate- eta ugaltze-eskubideak, ekonomia, merkatuak eta lan-merkatua edota inguruarekin harreman-moduak. Garai hauetan hiru elementu edo faktore garrantzitsu eman dira, aldaketak ekarri dituztenak. Alde batetik, belaunaldi gazteek erronka berriak sortu dituzte, aurretik lortutako garaipenak normalizatutzat hartu dituzte eta hortik abiatu dira arazo berriak planteatzeko unean. Bestetik, migrazioek jaioterri anitzeko emakumeak elkartzera bultzatu dute, zeinek munduaren eta gizartearen ikuspuntu desberdin eta batzuetan kontrajarriak dituzten. Emakume migrante hauek askotan zaintza-lanak hartzera behartuta daude, gutxien ordaintzen direnak, kontziliazio-esplotazio binomio

arriskutsu baten ertzean. Hirugarren aldaketa generoa-sexoa eraikuntzaren ulertzeko modu berriak dira, non sexu biologiko eta genero bikoitzaren harreman dikotomikoa apurtzen den, *Queer* teoriak erakusten digun moduan.

Feminismo postmodernoa 1990an Judith Butler-ek idatzitako *Gender Trouble* liburua oinarritzeko testua da *Queer* teoriak eta feminismo postmodernoa ulertzeko. Egile batzuek hirugarren uhinaren hasiera ikusten dute momentu honetan. Liburuan Teoria Feminista, filosofia postestruturalista, psikoanalisi eta literatur teoria nahasten dira *Genero* kontzeptuaren inguruan eztabaida sortzeko, Butler-ek, Lacan, Derrida eta Foucault-en teoriak erabiltzen ditu bere lana aurrera eramateko. Generoa gizarte-konstruktoa bada, Butler-ek urrats bat harago ematen du, eta sexu-orientazioa eta generoa eta sexu-identitatea gizarte-eraikuntzaren ondorioa direla esanez; beraz, ez dago biologikoki aurre-determinaturiko sexu-rol edo joerarik. Hau da hain zuzen *Queer* Teoriaren oinarritzeko lema, emakumea edota emakumeak kategoriatik desagitzen du, genero eta sexu-identitatea zalantzan jartzen du. *Queer* teoriak generoa eraikuntzat du eta ez ezaugarri naturalizat. Horrela, *Queer* teoriak identitateak gizarte arauetatik harago birpentsatzeko aukera eskaintzen du. Gizarte-arauek ezarritako sexu-izaera pertsonen banaketa binarioan datza, banaketa hau bikote heterosexualaren osagarritasunean oinarritzen delarik.

Queer teoriak baztertzen du pertsonen sailkapena *gizon*, *emakume*, *homosexual*, *heterosexual*, *bisexual* bezalako kategoriatan. Horren aurrean sailkapen hauek guztiak kultura-aniztasunaren isla direla defendatzen du, hauetako bat bera ere ez dela besteak baino oinarritzeko edo naturalagoa. Generoaren kontzeptu klasikoak bereizten dituen *normaltasun* eta *anormaltasunaren* ikuspuntuari kontrajarriz, gizarte-identitate guztiak neurri berean *anormalak* direla baieztatzen du.

Azken hamarkada hauetan *Queer* teoriarekin batera beste korrante batzuk sortu dira, hala nola ekofeminismoa, feminismo postkoloniala edota ziberfeminismoa.

2.3.5 Feminismoa eta erakundeak

Eztabaida eta errezelo handiak sortzen du feminismo instituzionalaz hitz egiteak. Zenbait feministek uste dute ezinezkoa dela feminismoa egitea instituzioetatik, beste batzuen aburuz, ordea, instituzioetan egoteak aukerak eskaintzen ditu benetako politika feministak aurrera eramateko. Bide hau

lehenengo mundu-gerra amaitu ondoren hasi zen, Nazioen Ligak (*League of Nations*) Emakumearen Estatusari buruzko Mundu-mailako txostena bultzatu zuenean. Ekimen horrek emakumeen estatusak gobernu nazionalen kompetentzietatik alderatu eta nazioarteko erakundeen menpe egon beharraren ideia ekarri zuen. (Nash 2005, 159–170). Hurrengo urratsa Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Emakumeen Estatusaren komisioa sortzea izan zen 1946an.

NBEren Sortze Gutunean (1945) lehenengo aldiz saiatzen da sexua diskriminazio-arrazoia izan daitekeela esaten, hortik aurrera hainbat hitzarmen, programa, eta gutunetan aintzat hartzen da diskriminazio-arrazoi hau, eta hainbat erakundek jasotzen dute, NBEk, Europako Kontseiluak eta zuzenbide komunitarioak.

NBEren Batzar Orokorrak 1979an emakumeen bazterketa-mota guztiak arbuatzen duen Konbentzioa onartu zuen, estatu espainolak 1983an berretsi zuen konbentzio hau.

Europar Batasunean ere Berdintasuna oinarritzko printzipioa da. Amsterdameko Itunak (1999) espresuki esaten du Komunitatearen helburuetako bat gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatu eta berdintasuna bultzatzea izango dela (Union Europea 1997, 3.2 Artikulua). Lan-arloan ere (118. artikulua) emakumeena eta gizonen arteko berdintasuna aipatzen da, lan-merkatuko aukerei eta laneko tratuari dagokionez.

Feminismo instituzionalak garapen desberdina izan du herrialde bakoitzean. Eskandinaviar herrialdeetan adibidez, Estatuaren feminismoaz hitz egiten da, han 1975etik emakumeen arteko paktuek lortu dute botere-gunetan eta politikan emakumeen parte-hartzea handitzea, eta are gehiago, feminismoren ikuspegitik politikan parte-hartzea handitzea (Posada Kubissa 2005). AEBn feministek *lobbyak* sortu dituzte politika publikoetan eragiteko, adibidez aipaturiko NOW elkarteak (National Organization for Women), Betty Friedan-ek 1966 sortutakoa.

Estatu espainolean, aldiz, hainbat administrazioek institutuak sortu dituzte, lehenengoa 1983an (16/1983 legea), Emakumearen Institutua; Kultura Ministerioren erakunde autonomoa izan zen eta bere zereginen artean berdintasun-planak prestatzea eta aurrera eramatea zegoen, Berdintasun politikak aurrera eraman, eta politikan, kulturean, ekonomian eta gizartean emakumeen parte-hartzea areagotzea. Lehengo zuzendaria Carlota Bustelo izan zen.

Feminismoa instituzioetan sartzeak kontradikzioak sortu ditu mugimendu feministan. Instituzioek feminismoaren errebindikazioak bereganatu dituzte eta zentzu kritikoa kendu, aldi berean mugimendu feministaren beharra eta balorea bera eztabaidan jartzen dute. Emakumeen berdintasuna bermatzeko ahalmenarekin fidatuz, mugimendua bigarren plano batean utzi nahi dute, laguntza-paper batetan. Mugimendu feminista instituzioen partetik kontrolatuta sentitzen da, batez ere diru-laguntzen banaketak direla-eta (Montero 2004).

2.3.5.1 Euskal Herrian

EAEEn Emakumeen Euskal Institutua sortzeko 2/1988 legea onartu zuen 1988ko otsailaren 5ean Eusko Legebiltzarrak, emakumeen eta gizonen benetako parekotasuna lortu nahi zuen institutu honen bidez, eta emakumeen diskriminazioa ezabatu. Nahiz eta otsailean onartu legea, 1988ko urriaren 22ra arte ez zuten lehenengo lehendakaria izendatu, Txaro Arteaga hain zuzen, eta orduan abiatu zen EMAKUNDEREN bidea.

Hasieratik EMAKUNDEK bi arlo nagusitan jardun zuen, batetik administrazio publikoekin lan egiten berdintasunaren aldeko egiturak sortu eta sendotzeko, eta bestetik, politika publikoetan generoaren ikuspegia txertatzeko neurriak martxan jarri eta bultzatzen.

EMAKUNDE ez zen jaio Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren politikari lehentasuna eman nahi zuelako, ezta zenbait antolakunde feministak egindako presioaren ondorioz ere. Lourdes Mendez-en (Méndez 2005) esanetan, EMAKUNDEREN sorreran bi faktore esanguratsuak eragin zuten: batetik Espainiako Estatuan autonomia-erkidegoak egituratzea; eta bestetik, nazioartean eta Europan sexu-diskriminazioari aurre egiteko sustaturiko erakunde-politikak.

1986an, maiatzean, «Emakumeen arazoa eta Euskadi Erakundeak» mintegia iragarri zuten zortzi emakume horiek (batzuk feminista independenteak ziren, beste batzuk alderdi politikoetako militanteak, tartean kargu politikoak zituztenak). Talde feministak ez zituzten gonbidatu parte hartzera, bai ordea *UPV/EHUko Seminario de Estudios de la Mujer/Emakumeari Buruzko Ikerketarako Mintegia* antolatzaile gisa, uste baitzuten bertako zenbait unibertsitate-irakasle feministek egitasmoa babestuko zutela. Mintegiko kideek ezezkoa eman zioten gonbidapenari.

Mintegi horretan ehun pertsona elkartu ziren, feminista batzuk maila pertsonalean ere bai, eta nahiz eta diferentzia politiko esanguratsuak izan, adostasunetara iritsi ziren, zortzi akordioetan egituratu ziren adostasun horiek, horien artean Euskadin emakume batek zuzendutako erakundea sortzea; ekintza positiboak bultzatzeko genero-politikak abiatzea, horretarako elkartearen sorrera sustatuz; ikerketa eta dokumentazio zentroak sustatzea (Méndez 2005).

Urtebete geroago, Zarautzen bildu zen berriz ere Mintegia. Mintegiko emakumeek partidu politikoen jarrera salatu zuten emakumeen arazoekiko zuten sentiberatasun gabeziagatik eta arazo horiek hauteskunde-programetan izan zuten oihartzun urriagatik. Emakumearen Euskal Erakundea eratzea sustatuko zutela hitz emanda zeudela gogoratu zen. Orduan hasi ziren Erakundea sortzeko Legearen aurreproiektua lantzen. Lege Proposamena Legebiltzarreko talde guztiek batera aurkeztu zuten eta 1988ko otsailaren 5ean onartu, PNV/EAJ eta PSE-PSOE gobernua zeudelarik.

EMAKUNDE gaur egun Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoa da, eta haren helburuak berdintasunerako politikak diseinatu, bultzatu, haien inguruan aholkatu, koordinatu eta ebaluatzea dira, bai eta gizartea sentsibilizatu eta euskal autonomia-erkidegoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea. Erakundeak bi jardute-arlo nagusi ditu: alde batetik, administrazio publikoekin burututako lana, berdintasunaren aldeko egiturak sendotzeko eta politika publikoetan generoaren ikuspegia txertatzeko neurriak martxan jar daitezen bultzatzeko; bestetik, gizartearekin oro har egiten duen lana, emakumeen ahalduntzea bultzatuz, enpresetan berdintasuna egotea sustatuz, emakumeekiko indarkeria prebenitzeko neurriak hartuz, diskriminazio-kasuetan aholkularitza eta defentsa eskainiz, bai eta gizartea berdintasunaren alde sentsibilizatuz ere. Gaur egun Zuzendaria Izaskun Landaida da.

Nafarroan EMAKUMEEN INSTITUTUAK aldaketa ugari izan ditu urte hauetan, bai izenean eta baita Institutuaren helburuen definizioetan. Institutua 1995eko abuztuaren 3an sortu zen, 177/1995 Dekretu foralaren bidez, Nafarroako Emakumearen Institutua izenenarekin. Irailean institutuaren estatutuak onartu ziren, 398/1995 Foru-dekretuaren bidez. Institutu hau Presidentetza sailaren pean gelditu zen eta bere funtzioen artean, emakumeek pairatzen duten diskriminazioak ezabatzea lagunduko zituzten neurriak bultzatuz Foru Gobernu jardueretan integratutako programak garatzea, heziketa-eremuetako maila

desberdinetan heziketa ez sexista bultzatuko duten proiektuak garatzea, eta bizitzaren esparru guztietan gizon eta emakumeen arteko berdintasun egiazkoa eta eraginkorra lortzea zen, baita enpresa eta erakundeei laguntza ematea eta haien sarbidea suspertzea. Institutuaren lehenengo zuzendari-gerentea Loren Albeniz Ascorbe izan zen. Garai horretan PSN-PSOE gobernuan zegoen, CDNren eta EAren laguntzarekin.

Lehenengo aldaketa 2006an etorri zen, UPNren eta CDNren gobernupean, abenduaren 29an 90/2006 Foru Dekretua argitaratu zen, non erakundeari izen berria ipintzen zaion, NAFARROAKO BERDINTASUNAREN INSTITUTUA, emakumeei zein gizonei zuzendutako programa eta ekintzak bultzatzeko xedearekin. Garai honetan Institutua Ongizate Sozial, Kirol eta Gazteria Sailari atxikita egon zen Teresa Aranazen gidaritzapean.

UPNren gobernuak NAFARROAKO FAMILIARAKO ETA BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA, 35/2012 Foru dekretuaren bidez sortu zuen, 2012an (hasierako izena NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO ETA FAMILIARAKO INSTITUTUA zen), eta 75/2012 Foru Dekretuak bere estatutuak onartu zituen. Institutu hau Gizarte Politiketako Departamentuaren erakunde autonomo bat izan zen eta Teresa Nagore Ferrer-ek gidatu zuen. Institutu honen eskumenak hauek ziren: a) Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak koordinatzea eta kudeatzea, b) Familia-arloko politiken koordinazioa eta kudeaketa, baita haur eta nerabeentzako sustapenaren, arretaren eta babesaren arloko koordinazioa eta kudeaketa ere, eta c) Adingabeen arretari eta genero-indarkeriaren biktimen arretari dagokienez, gizarte-zerbitzu orokorren arloko prestazioak koordinatzea eta kudeatzea.

Azken aldaketa Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerr Batua alderdien gobernuarekin etorri da. 240/2015 Foru Dekretuak NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUAREN estatutuak onetsi zituen eta erakunde autonomo honi emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikekin eta genero-indarkeriaren aurkako jarduerekin zerikusia duten eskumenak esleitu zizkion. Aro honetako zuzendari-gerentea Mertxe Leranoz izan zen, eta gaur egun Eva Isturiz da.

2.4 Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna

M8a emakumeen eskubideak aldarrikatzeko eguna bihurtu da mundu osoan. Baina bere jatorria ez dago batere argi. Batzuek New Yorken, beste batzuek Petrogradon edo Moskun ipintzen dute jatorria. Atal honetan Martxoaren 8aren sorrera eta historia aztertuko dugu.

2.4.1 M8aren jatorria

M8aren jatorrian ez dago gertaera bakar bat, testuinguru sozial eta politiko zabal batean kokatu behar dugu. XX. mendearen hasieran bai Europan eta baita AEBn emakumeen borrokak anitzak ziren, lan-baldintzak hobekien eskatzen zituzten, soldata duinak, antisorgailuak, hezkuntza jasotzeko eskubidea, bozka emateko eskubidea, eskubide sozial eta politikoak aldarrikatzen zituzten. Egoera honetan emakumeen kale-mobilizazioak ugaitu ziren hainbat herrialdetan.

New York hirian 1908ko martxoaren 8an, ehungintza-enpresetan lan egiten zuten 15.000 emakumetik gora atera ziren kalera *Ogia eta Arrosak* lelopean. Ogia segurtasun ekonomikoaren ikur eta arrosak bizi-kalitatearen ardatz. Hurrengo urtean, 1909an, emakume sozialista iparramerikarrek *Women's day* antolatu zuten otsailaren azken igandean, hau da, otsailaren 28an, bozka-eskubidearen aldarrikapena eta lan-baldintza duinak ardatz izan ziren egun horretan eta baita hurrengo urtekoan ere (Kaplan 1985).

Bestalde 1910ean, Kopenhagen, *Emakume Sozialisten Nazioarteko II Konferentzia* egin zen, eta bertan Clara Zetkin Alemaniako emakume sozialisten liderrak egun berezi bat proposatu zuen emakumeen eskubideak aldarrikatzeko. Proposamena aho batez onartu zen. Hurrengo urtean, 1911aren martxoaren 19an *Nazioarteko Emakumearen Eguna* lehendabizi ospatu zen Austrian, Alemanian, Danimarkan eta Suedian. Martxoaren 19a Alemaniako 1848ko iraultza gogoratzeko hautatu zuten, zeinetan Prusiako Erregeak herriaren eskubideak onartu eta emakumeei boto-eskubidea emango ziela agindu zuen, nahiz eta gero promesa hori bete ez (Barredo Ibáñez eta Oller Alonso 2012, 8). Beste ikertzaile batzuek martxoaren 19ko data hautatzeak Pariseko Komunaren berrogeigarren urtemugarekin lotzen dute (Kaplan 1985). Urte horretan milioi bat emakume eta gizon atera ziren kalera. Bozka-eskubideaz eta kargu publikoak hartzeaz gain, lanerako eta heziketarako eskubidea eskatu zuten, baita lan-bereizkeriaren kontrakoa ere (Nazio Batuak).

Aste horretan bertan, martxoaren 25ean 140 pertsona hil ziren sute batean Triangle Shirtwaist Company fabrika, New Yorken, gehienak emakume gazteak, migranteak. Sutea piztuta, ezin izan zuten ihes egin ateak eta eskailerak blokeatuta zeudelako. Hau ohikoa zen makinak lapurtzearen aurkako neurri gisa. Triangle Shirtwaist Company enpresan gertatutako suteak oihartzun ikaragarria izan zuen AEBan, bertan hil ziren emakumeak aurreko urtean lehen emakume-greba egin zutenak izan baitziren, lanerako baldintza hobekien eskatzen zituztenak, alegia. Greba 1909ko azaroaren 23an hasi zuten emakume langileek, eskari nagusiak lanaldiaren jaitsiera, soldataren igoera eta boto-eskubidea ziren. Hurrengo egunetan sufragistak, AEBko emakumeen sindikatuen Liga Nazionala (NWTUL) eta Emakume Sozialisten Liga Nazionala batu zitzairen. 1910eko otsailan langileek hainbat enpresetako jabeekin soldaten igoera, lan-baldintzen hobekuntza eta lanaldiaren murrizketa adostu zuten eta greba bertan behera gelditu zen. Baina seguritate-neurriak ez ziren eztabaidatu negoziaketetan eta ez ziren abian jarri. Sute horrek aldaketa garrantzitsuak behartu zituen AEBko lan-segurtasunerako legeetan.

Estatu espainolean 1910eko martxoaren 8an emakumeek unibertsitaterako ateak zabaltzea lortu zuten, Emilia Pardo Bazan Hezkuntza Publikoko kontseilaria izendatu ondoren.

Errusian ere emakumeak eta langileak 1913ko otsailaren 17an (martxoaren 2an egutegi gregorianoan) kalera irten eta Emakume-Langileen Nazioarteko Eguna izendatu zuten. Errepresio bortitza jasan zuten Tsarraren eskutik eta antolatzaileak Siberiara deportatu zituzten.

Errusiako emakumeek ere 1914tik aurrera martxoaren 8an kalera ateratzen ziren, eta 1917an (beraien egutegian otsailaren 23a zela) kalera atera ziren lan-baldintzak duinak eskatuz, elikagaien eskasia eta Lehen Mundu Gerran Errusiaren parte-hartzea salatuz. *Ogia eta Bakea* leloarekin egin zuten greba. Emakume hauen grebek eta mobilizazioek iraultza boltxebikeari hasiera eman zioten, egun batzuk geroago monarkia bukaraziko zuen herri-altxamendua hasi baitzen.

Lehenengo urte horietan herrialde bakoitzean data desberdinak erabili ziren Emakumearen Nazioarteko eguna antolatzeko, baina 1914an emakume alemanek martxoaren 8aren data proposatu zuten.

Hortik aurrera Errusian martxoaren 8a Emakume Komunistaren Nazioarteko Eguna izendatuko zuten eta, Alexandra Kollontai-ren lanari esker, jai ofiziala

izendatu zuten Sobiet Batasunean, nahiz eta lan-eguna izan 1965era arte. Urte horretan jai-eguna bihurtu zen. Herrialde komunistetan batez ere 1920tik aurrera ospatzen dute eguna, eta mendebaldean ere poliki-poliki zabaltzen da aldarrikapen-eguna. Txinan, adibidez, 1922tik aurrera ospatu zen, eta Estatu Espainolean gerra zibila hasi aurretik lehendabizi, 1936an. Egund horretan Dolores Ibarruri, Pasionaria, eta alderdi Komunistaren beste zenbait buruzagi Madrilen egin zen manifestazioaren buruan izan ziren, eraso faxisten aurrean errepublikaren babesa eskatzeko. Milaka emakume eta gizon parte hartu zuten manifestazio honetan (Kaplan 1985, 170).

1970era arte Emakumearen Nazioarteko Eguna batez ere herrialde komunistetan ospatzen bazen ere, NBEk 1975ean, Emakumeen Nazioarteko Urtea izendatu zuen eta horrekin batera martxoaren 8a *Emakumearen Eskubideen Aldeko Nazioarteko Eguna* izendatu zuen 32/142 erresoluzioaren bitartez. (Álvarez González 1999), jatorri sozialista edo iraultzailea baztertuz, eta hortaz, klase-aldagaia ere ikusezin eginez.

2.4.2 Martxoaren 8aren hasiera Euskal Herrian

Euskal Herrian 1977an antolatu zen, lehen aldiz, martxoaren 8a. Bilboko 700 emakume inguru San Frantziskito eleizan batu ziren, *Elkartasuna munduko emakumeen borrokarekin* lemapean. Bizkaiko emakumeen zapalkuntza-egoera larrienak salatu zituzten bertan, adibidez Artiach fabrikako ordezkari batek hartu zuen hitza eta fabrikako emakume langileen borrokaren berri eman zuen, patronalaren utzikeria salatu zuen, oinarrizko eskubideak betetzen ez zirelako. (Epelde Pagola et al. 2015). Beste zenbait emakumek hartu zuten hitza asanblada hortan: Galeriaseko kide batek, bi preso ohik, Bizkaiko Emakumeen Asabladaren kideak. Amaitzerakoan Santutxutik zehar manifestazioan joan ziren, baina poliziak martxa ete zuen. Anaitasuna aldizkariko martxoaren 15eko alean topatu dugu emakume haiek plazaratutako agiria:

«BIZKAIKO EMAKUME GUZTIEI MARTXOAREN 8-an: EGUN HONETAN MUNDU GUZTIARI EGUNEROKO BORTXAKETA, ZAPALKETA ETA ALDERAKETAREN AURKAKO BORROKA GOGORA ERAZTEN DIOGU.
1.857.ko Martxoaren 8an: EEUU-n greban zeuden emakumeek poliziari aurpegi ematen diote.

1.910.ko Martxoaren 8an: Emakumeen borroka egunean hasten da iraultza. Petrogrado-ko emakumeen ekintza egun internazionala proposatzen du.

1.917.ko Martxoaren 8an: Emakumeen borroka egunean hasten da iraultza. Petrogrado-ko emakumeen manifestaketa izan zen 1.917.go prozedura iraultzaileari hasiera eman zion.

1.943.ko Martxoaren 8an: Italiako emakumeek faxismoaren aurkako manifestaketa bat antolatzen dute.

1.977.ko Martxoaren 8an: Bizkaiko Asambladako emakumeek ere borroka egun izendatzen dugu egun hau, konturatzen baikara gure egoera ordutik ez dela ezer aldatu.

- Oraindik gure Herrian ez dago zerbitzu kolektiborik, hots, haurtzaindegi, jantoki etab... guk etxetik kanpora lan egin dezagun. Emakumeak "etxeko" gartzelara edo lan doble batetara gaude mermaturik.

- Jabeentzat ez gara errentableak: asko nekatzen garelako, gehiagotan faltatzen garelako, haurdun jartzen garelako. Eta arrazoi hauetan finkaturik lanik txarrenak ematen dizkigute, gizonek nahi ez dituztenak, halegia.

- Emakumea oraindik gartzelara eraman dezakete bere gorputza libreki erabiltzeagatik, hots, abortoa, adulterioa, etab... Emagalduta jende guztiak mesprezatzen du, hori bere nahiez egingo balu bezala. Giro sozialak eta lanezak bihurtzen dute horretara.

- Geure Herrian emakumeok ez dugu eskubiderik zenbat haur eduki nahi dugun erabakitzeke, ez eta ere nahi dugun ala ez planteatzeko. Antikontzeptiboak, abortoa eta sexu-informazioa legez debekaturik daude.

- Geure Herrian emakumeok egiten dugun lana mesprezaturik dago: Seme-alabak, etxeko lana, gizonek gure zerbitzuarekin lortzen duten bizimoldea, etab... lan hauek ez dute balorerik, ez dira lan. Halere pentsatzen dugu guk egiten dugun lan hau norbaitek egin beharko duela eta ez dohan, guk orain arte egin dugun bezala.

1.977.ko Martxoaren 8an Bizkaiko emakumeok buruhauste honekin aurkitzen gara. Baina gure borroka ezin da izan ez egun batetakoak, ez urtebetekoa. Gure borroka egunerokoa behar du izan. Martxoaren 8an bizitzan zehar gurekin sufritu duten emakume guztiakin elkartu nahi genuke.

EMAKUMEA, EGIN HITZ, EGIN GARRAISI GUREKIN, NAHI DUZUNA ETA GUSTATZEN EZ ZAIZUNA ADIERAZTEKO!!!

EMAKUMEA, BORROKA ZAITEZ ZEURE ASKATASUNAGATIK!!!

ELKAR ZAITEZ GUREKIN MARTXOAREN 8an ARRATSALDEKO 7'30etan SAN FRANCISQUITO ELIZAN EGINGO DUGUN EKINTZAN!!!»⁷⁰

⁷⁰ Anaitasuna, 1977-03-15; 7. or.

Gasteizen manifestazio-deia egin zen baina debekatu egin zuten. Donostian zenbait taldek ekimenak antolatu zituzten.

Euskal Herriko I. Jardunaldi Feministen ostean (1977, ikusi 2.5.2atala) feministen arteko kontaktuak eta sarea sortu ziren. Kanean ere emakumeak antolatzen hasi ziren eta 1978ko martxoaren 8a herrialde guztietan antolatu zen.

Ez zuten talde feministek bakarrik antolatu urte horretako ekintzak, talde politiko eta sindikatu askok hartu zuten bere gain manifestazio-deia. Bilbon Bizkaiko Emakumeen Asanbladak egin zuen dei mobilizatzerara. Manifestazioa debekatu zutenez, elkarretaratzea egin zuten *Martxoak 8, emakumearen eguna* lelopean. Baionan eta Donostian, aldiz, mobilizazioez gain, zenbait formazio- eta eztabaida-saio antolatu zituzten. Iruñean 3.000 pertsona inguru hartu zuten parte manifestazioan eta emakumeek lan-merkatuan izandako diskriminazioak izan zituzten aldarri. Gasteizen ere mobilizazioak egon ziren (Epelde Pagola et al. 2015, 529–530).

2.5 Emakumeen mugimenduaren ekintzak, Konferentziak eta martxak.

1975etik geroztik Emakumeen aldeko mugimenduak lau nazioarteko konferentzia, beste lau Mundu Martxa eta Nazioarteko bederatzi topaketa antolatu ditu. Euskal Herrian egindako lau jardunaldi feminista eta zenbait topaketa aipatuko ditugu. Horietaz arituko gara hurrengo orrialdeetan, azken urteetako feminismoaren ispilua izan direlako.

2.5.1 Emakumeei buruzko mundu-mailako lau Konferentziak 1975-2000

XX. mendeko azken laurdenean⁷¹ Nazio Batuek emakumeak ardatz izan dituzten lau nazioarteko konferentzia antolatu dituzte (Mexiko Hiria, 1975;

⁷¹ Atal honetako informazio iturria NBen orrialdea izan da, hain zuzen ere, hemen topatu dugu: <http://www.un.org/spanish/conferences/Beijing/Mujer2011.htm> (Ezez)

Kopenhage, 1980; Nairobi, 1985, Beijing 1995). Konferentzia horien ardatza emakumeen egoera eta garapena aztertzea eta azaleratzea izan zen.

Nazio Batuen Erakundeak gizonen eta emakumeen berdintasuna aldarrikatu zuen lehenengo momentutik, horrela agertzen baita 1945ean sinatutako "Nazio Batuen Gutunaren" sarreran: *"gizakiaren oinarrizko eskubideetan, pertsonaren duintasunean eta balioan, gizon-emakumeen arteko berdintasunean, eta nazio handi zein txikietan izan beharreko fedea"*. Geroago, 1948an, Nazio Batuen Batzar Orokorrak aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpenean zehaztu ziren gizon eta emakumeen eskubideak.

Lehenengo hiru konferentziak (Mexiko Hiria, 1975; Kopenhage, 1980; Nairobi, 1985) oso lagungarriak izan ziren emakumeen kezkei buruz nazioarteko kontzientzia areagotzeko.

1975ean Nazio Batuek Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatu zuten, eta Mexiko Hirian lehenengo konferentzia antolatu zen. Konferentziak hiru helburu nagusi proposatu zituen, genero-berdintasun osoa, eta genero-arrazoiengatik sortzen diren diskriminazioen desagertzea, emakumeen integrazioa eta parte-hartzea herrien garapenean, eta emakumeen laguntza munduko bakea lortzeko prozesuan.

Lan-ardatzak emakumeen egoera juridiko eta soziala ziren eta hurrengo bost urteetan lortu beharreko xede batzuk ezarri ziren, emakumeen eskubideak bermatzea hezkuntza, lana, parte-hartze politikoa, osasun-zerbitzuak, etxebizitza, elikadura eta familia-planifikazioa bezalako baliabideak eskuratzeko orduan. Konferentzia honetan emakumeen parte-hartzea eztabaidetan oso aberatsa izan zen, han bildu ziren 133 estatuen ordezkarietatik 113 emakumezkoak izan ziren. Gobernuz kanpoko taldeek ere euren foro propioa antolatu zuten, Emakumeen Nazioarteko Urtearen Tribuna, bertan 4000 kide parte hartu zutelarik; feministen arteko harremanak eta loturak sortu eta garatu ziren honetan.

1980an 145 estatu bildu ziren Kopenhageko II. Konferentzian, aurrekoan adostutako Jardun-plana aztertu eta ebaluatzeko asmoarekin. Urte bat lehenago, 1979an, Estatu Batuen Asanblada Orokorrak emakumearen berdintasunaren aldeko tresna indartsua onartu zuen: Emakumearen diskriminazioaren kontrako Konbentzioa, "Emakumezkoen giza-eskubideen gutuna" bezala ezagutzen dena.

Aurrerapenak egonik ere, Kopenhageneko Konferentziak onartu zuen ezberdintasun nabariak zeudela bermatutako eskubideen eta emakumezkoek

eskubide horiek aurrera eramateko zuten gaitasunaren artean. Konferentziak hiru lan-ildo proposatu zituen ezberdintasunak gainditzeko, hezkuntza-eskubidea eta sarbidea, lan-aukerak eta osasun-zerbitzu egokiak bermatzea.

Nairobiko Konferentzia deitu zenean 1985ean, gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko mugimenduak mundu-mailako errekonozimendua zeukan. Konferentzia honetan aurreko hamarkadan lortutako aurrerapenak aztertu ziren. Aurkeztu ziren txostenek erakusten zuten hamarkadarako jarritako helburuak ez zirela bete.

15.000 kide parte hartu zuten paraleloki antolatutako “Gobernuz Kanpoko Elkarten Foroan”, eta horregatik askok “mundu-mailako feminismoaren sorreraz” hitz egiten dute konferentzia honetaz hitz egiterakoan. Emakumeen mugimendua nazioarteko solaskide bihurtu zen hamarkada horretan.

Egoera honek beste fokapen bat hartzeko beharra ezarri zuen. Oraingoan, emakumeen eta gizonen berdintasuna bizitzako esparru guztiak ukitu behar zituela onartu zen lehenengo aldiz. Hori dela-eta, Nazio Batuek hamarkadarako ezarritako helburuak eta xedeak lortzekotan ezinbestekotzat jo zen emakumezkoen ikuspuntua eta parte-hartze eraginkorra gai guztietan presente egotea.

Esan daiteke, Beijingko Konferentzia honekin leiho berri bat irekitzen dela genero-berdintasunaren aldeko borrokan. Konferentziak egindako Adierazpenean neska eta emakumeekiko diskriminazioak izan ditzakeen moduak aztertzen dira, besteak beste, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloetan. Era berean, nazioarteko komunitatearentzat funtsezkoak diren helburu batzuk ezartzen dira: emakumeek hezkuntza eskuratu ahal izateko berdintasuna bermatzea; emakumezkoaren analfabetismoa erabat ezabatzea; lanbide-hezkuntza, irakaskuntza zientifikoa eta teknologikoa eta hezkuntza iraunkorra emakumezkoentzat eskuragarriago egotea.

Beijingek ekarri zuen aldaketa nagusia zera izan zen: arreta-gunea emakumearengandik genero-kontzeptura eramatea, jendartearen egitura eta egitura horren barruko gizonen eta emakumeen arteko harremanak berrikusi eta berraztertu behar direla onartuz. Era horretan bakarrik bermatuko da emakumeak bizitzaren esparru guztietan dagokion lekua beteko duela gizonarekin berdintasunean. Aldaketa honek emakumearen eskubideak giza eskubideak direla

berresten zuen, eta genero-berdintasuna guztiontzako interesgarria eta onuragarria dela.

Beijingo Foroan genero-berdintasuna estrategia-moduan landu zen bere Jardunbidean. Jardunbide hori onartzerakoan gobernuek beren erakunde, politika, plangintza eta hartzen ziren erabaki guztietan genero-ikuspuntua sartzeko konpromisoa hartzen zuten. Horren arabera, erabakiak hartu aurretik edo planak ezarri aurretik, gizonengan eta emakumeengan eta beraien beharretan izango zuten eraginaren azterketa egin beharko zen. Hedabideek beraien trataera eta atal propioa izan zuten. Konferentziak emakumeen papera hedabideetan indartzea eskatzen zuen, bai lan profesionalaren planoan eta baita edukietan, J puntuan⁷².

1995eko Beijingeko Ekintzarako Plataforma baloratzeko asmoz, 2000. urtean *Beijing+5* bezala ezaguna egin den biltzar nagusia egin zen: *Emakumea 2000. urtean: generoen arteko berdintasuna, garapena eta bakea XXI. mendean*. Gobernuek saio hau Beijingeko *Ekintzarako Plataforma* aplikatzeko zituzten erronkak eta zailtasunak partekatzeko baliatu zuten. Generoen arteko berdintasuna sustatzeko politika eta konpromisoak bultzatu zituzten, neurri eta ekimen berriak aurkeztuz. Saioak iraun zuen artean Emakumeen Mundu Martxako mugimendua emakumeen borrokan atzerapausorik ez emateko exijitzen kontzentratu zen.

2005ean, Beijing+10 biltzar berezia egin zen, eta 2010 *Beijing+15*. Bietan NBE osatzen duten gobernuek berretsi zituzten aurretik hartutako konpromisoak. Nazioarteko Mugimendu Feministak *Emakumeen Eskubideen Aldeko Ekintza Globalen Astea* antolatu zuen, *Xedeak baino, Plataforma osorik aplikatu nahi dugu* eta *Beijingetik haratago* leloak erabili zuen (Epelde Pagola et al. 2015, 307)

2.5.2 Euskal Herriko Jardunaldi Feministak

Euskal Herriko Jardunaldi Feministak Euskal Herriko hainbat talde feministek bultzatutako jardunaldiak dira, feminismoarekin lotutako gai desberdinei buruz eztabaidatzea eta Euskal Herriko mugimendu feministaren artean komunikazioa bultzatzea helburu dutenak. Orain arte bost izan dira topaketa hauek, lehenengoa 1977an izan zen, eta hurrengoak 1984, 1994, 2008 eta 2019. urteetan. Lehenengo

⁷² Tesi honetan aurrerago lantzen da J puntua.

hirurak UPV/EHUko Leioako kanpusean egin ziren, hurrengoa Portugaletekoan, eta azkenak Durangoko Landako eraikinean.

Lehen jardunaldien izena *Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketak-Jornadas de la mujer de Euskadi-Recontre des femmes d'Euskadi* izan zen, baina geroago Euskal Herriko Jardunaldi Feministak izendapena hartu zuten. Bizkaiko Emakumeen Asanblada (BEA), Arabako Emakumeen Asanblada eta hiriburuetako nahiz herrietako asanbladak izan ziren jardunaldien antolatzaileak. Helburu nagusienak bi ziren: batetik, emakumeen menderakuntza ahalbidetzen duen zapalkuntza patriarkala ikusgarri egitea eta zapalkuntza horren deskribapena eta azalpena egitea; bestetik, emakumeak batzea, eta jai-giroan, emakumeen arteko harremanetan, loturetan eta elkertasunean sakontzea. Garai hartan, 1977an, Leioan bildu ziren 3000 emakumeek lau ardatz landu zituzten: sexualitatea, patriarkatua eta militantzia bikoitza, etxeko lanak eta enplegua eta alternatiba berriak (Epelde Pagola et al. 2015, 101, 102). Lehen topaketa hauen ondorioetako bat 1978rako Nazio Koordinadora bat eratu beharra, sexualitatearen kanpaina bat abian jar zezan eta martxoaren 8ra begirako egitasmoez ere jardutea.

Euskal Herriko II. jardunaldi feministak 1984an antolatu ziren, bertan 3000 emakumek parte hartu zuten. Antolaketa-lanetan hainbat talde ibili ziren, haien artean Euskadiko Koordinadora Feminista (Donostiakoa, Bizkaikoa zein Arabako Asanbladak eta Nafarroako Koordinadora Feministak osatzen zuten) eta Aizan!. Urte horietan emakumeek pixkanaka eremu publikoak hartu zituzten, eta espazio horietan diskriminazio-egoera anitzi aurre egin behar izan zioten, horrek borroka-fronte berriak sortu zituen. Hedapen horrek eztabaida teoriko berrietan sakontzeko premia ekarri zuen. Topaketa hauetan landu ziren gaien artean emakumea eta lana, emakumea eta zientzia, auzoak, indarkeria, sexualitatea, maitasuna eta prostituzioa zeuden. Baita aztertu zuten hamar urteko ibilbidea eta aurrera begirako erronkak proposatu zituzten (Epelde Pagola et al. 2015, 161–165).

Hurrengo jardunaldiak, hirugarrenak, 1994an egin ziren, Leioan baita ere. Hauetan bi gai nagusi jorratu zituzten: batetik, Euskal Herriko Mugimendu Feministaren egoera eta norabidea, eta bestetik, boterearen gai sakondu zuten. Desadostasun handienak mugimendua bera definitzen agertu ziren, talde oso desberdinak ziren eta bakoitzak bere identitate propioa zeukan. Mugimendu Feministaren erronka nagusia aniztasun hori metatu eta ikuspuntu ezberdin

guztien arteko biltoki aberatsa eta konplexua sortzea. Jardunaldi hauen antolaketan tentsio-uneak bizi izan ziren, eta zenbait taldek antolaketan parte ez hartzea erabaki zuten, adibidez *Egizanek*. Tentsio horren oinarrian mugimenduaren kontzepzio ezberdina zegoen. Osotara 1500 emakumek arte hartu zuten jardunaldi hauetan (Epelde Pagola et al. 2015, 239–242).

Hamalsu urte behar izan zituzten Euskal Herriko IV. Jardunaldi Feministak antolatzeko, 2008an izan ziren Portugaleteko UPV/EHUko Nautikako fakultatean. Talde ugari aritu ziren antolakuntzan, besteak beste *Bizkaiko Emakumeen Asanblada*, *Bilgune Feminista*, *Medeak*, *Arabako Emakumeen Asanblada*, *Emakume Internazionalistak*, *Amalatz* eta *Plazandreak*.

Jardunaldi hauetan 1.300 emakumek hartu zuten parte, espero baino gehiagok. Nahiz eta belaunaldi ezberdinetako feministak elkartu, gehiengo gaztea izan zen. Portugaleten hiru ardatzetan antolatu ziren ponentziak eta tailerrak: a) *Emakumeak hemen eta munduan*, b) *Emakumeak indarkeria sexistari aurre eginez* eta c) *Emakumeok, gure identitateak eta gure gorputz intsumituak* (Epelde Pagola et al. 2015, 424–427).

Aurreko urteetan M8an izandako mobilizazioen eta erantzunaren ondorioz, Euskal Herriko Mugimendu Feministak 2019an jardunaldiak antolatu zituen Durangon. Landu zituzten gaiak bost ardatzetan sailkatu zituzten, mugimendu feministaren barne-egitura, bizitzak erdiguneratzeko neurriak, indarkeriarik gabeko bizitzen eraikuntza, sexualitatea eta gorputzaren merkantilizazioa. Jardunaldien antolaketan eta parte-hartzean talde anitzak jardun ziren: Etxaldeko Emakumeak, Trabajadoras no domesticadas, Itaia, Euskal Herriko Bilgune Feminista, Oneka, Red de mujeres racializadas de Euskal Herria, Ahizpatasuna, Raizes, AMAR, Mujeres del Mundo, Garaipen, Medeak, Bala, Farrukas, Emakume Internazionalistak eta abar luze bat. Jardunaldi hauetan 3000 emakume baino gehiagok parte hartu zuten.

Beste topaketa eta jardunaldi batzuk antolatu dira urte hauetan zehar, adibidez Bilgune Feministak zortzi aldiz burutu ditu Emakume Abertzale eta Feministen topaketak (2001, 2003, 2005, 2009, 2012, 2014, 2017 eta 2020 urteetan) eta Euskal Herriko Emakume Gazteek 1986az geroztik hainbat jardunaldi ere antolatu dituzte.

2.5.3 2000-2020 Emakumeen Mundu Martxak

Emakumeen Mundu Martxa mugimendu feminista eta antikapitalista da, eta oraingoz bost Munduko Martxa eta bederatzi Nazioarteko Topaketa antolatu ditu. Gaur egun 163 herrialdeetako 5000 talde baino gehiagok parte hartzen du modu antolatuan.

1995ean Quebeceko emakume-mugimenduak martxa bat egin zuen, Ogia eta Arrosten Martxa. Bertan 15.000 pertsona batu ziren, hamar egunez. Martxak nazioarte-mailan eragin handia izan zuen eta hori dela-eta, 2000. urtean martxa modu zabalean deitzea erabaki zen, mundu-mailan, demokrazia, itxaropena, berdintasuna eta bakea aldarrikatzeko. Horretarako 1998ko urrian Montrealean Munduko 64 herrialdeetako 122 emakume-talde batu ziren Emakumeen Lehenengo Mundu Martxa (LMM) antolatzeko asmoz. Topagune honen helburua zen LMMren errebindikazio taula prestatzea, taula hori gauzatzeko eginkizunen plangintza eta programa adostea eta elkar-lankidetzaren oinarriak ipintzea. Proposatutako errebindikazioak arlo ekonomiko, politiko eta sozialetan errotuak ziren, baina bi ardatz nagusi landu zituzten, pobrezia eta indarkeria sexista.

2000. urteko martxoaren 8an Quebecen eta Genevan abiatu zen Emakumeen I. Mundu Martxa, eta urrian New Yorken amaitu. Lan-eremuak guztion ongizatea eta elikadura-burujabetza, Bakea eta desmilitarizazioa, emakumeen lan ikusgarria eta ikusezina eta emakumeen kontrako indarkeria izan ziren (Matte eta Guay 2001).

Hurrengo urratsa Ruandan eman zen 2004ko abenduan, bertan eztabaida-prozesu luze baten ondorioa adostu zen: *“Emakumeen Gutuna Gizateriarentzat”*. 2005ean Sao Paulon hasi zen martxa, beti martxoaren 8an, eta gutuna herrialdez herrialde eraman zuten lekuko gisa. Gutunean emakumeek sortu nahi duten mundu berria azaltzen da, berdintasunean, askatasunean, solidaritatean eta bakean oinarritutako mundua. Aldi berean, lurralde eta herrialde hauetan guztietan oihal- zati bat josi zitzaion denon artean egin zen tapaki bati, emakumeek sortu nahi duten munduaren irudia alegia. Tapakia urriaren 17an Burkina Fasora ailegatu zen, munduko herririk txiroenera hain zuen. Egun horretan ere eguerdiko 12etan meridiano guztietan ekintza bat egin zen, solidaritate feminista irudikatu nahian.

2010eko Emakumeen Mundu Martxak hiru lan-esparru izan zituen, herri bakoitzeko eskaera nazionalak piztu karabanen bidez, Martxoaren 8ko

mendeurrena nabarmendu, eta gerrak eta konfliktoak pairatzen dituzten emakumeen egoera aditzera eman. 75 herrialdeetako taldeek parte hartu zuten, horietatik 56tan ekitaldiak eta ekintzak antolatu ziren eta beste 19k delegazioak bidali zituzten nazioarteko ekitaldietara. Osotara 220 egun iraun zuen eta 80.000 pertsonak parte hartu zuten zuzenean (Nobre eta de Roure 2012, 56).

Laugarren Mundu Martxa 2015eko martxoaren 8an Kurdistanetik abiatu zen *“Geure Gorputzak, Geure Lurraldeak. Martxarekin jarraituko dugu guztiok libre izan arte”* lemapean. Helburua zen herrialde guztietako emakumek munduari erakustea zer-nolako aukera feministak proposatzen dituzten eredu kapitalista eta heteropatriarkalaren aurka. Ibilbidea Coimbran amaitu zen urriaren 17an. Urte honetako (2015) helburuak honako hauek dira: emakumeek bizi duten indarkeria ikusaraztea eta salatzea, sistema kapitalista, patriarka, arrazista eta heteronormatiboari alternatiba bat eraikitzea, emakumeek beren gorputzen gainean duten erabaki-eskubidea aldarrikatzea eta emakumeen mugimendua indartu eta zabaltzea.

Bostgarrena 2020rako zegoen prestatuta, baina Covid19 pandemia dela-eta, egitarauaren zati handi bat bertan behera gelditu zen. Urte honetako lema hau izan zen: *Resistimos para vivir, marchamos para transformar, euskaraz Zubi guztien gainetik, Mugarik ez, Transnazionalik ez*. Hala ere, apirilaren 24an egin ziren Emakumeen Mundu Martxako Elkartasun feministako 24 orduak, boterearen eta korporazio transnazionalen garrantziaren aurka.

Emakumeen Mundu Martxak zenbait nazioarteko topaketak antolatu ditu, tartean:

- 1989an Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko Topaketa (Montreal, Quebec) urriaren 16tik 18ra
- 2001ean Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko III. Topaketa (Montreal, Quebec) urriaren 2tik 6ra
- 2003an Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko IV. Topaketa (New Delhi, India) martxoaren 18tik 22ra
- 2004an Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko V. Topaketa (Kigali, Ruanda) abenduaren 4tik 12ra
- 2006an Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko VI. Topaketa (Lima, Peru) uztailaren 2tik 9ra
- 2008an Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko VII. Topaketa (Vigo, Galizia) urriaren 14tik 21era
- 2011n Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko VIII. Topaketa (Quezon city, Filipinak) azaroaren 12tik 25era

- 2013an Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko IX. Topaketa (Sao Paulo, Brasil) abuztuaren 25etik 31ra

2.5.4 Euskal Herriko Mundu Martxa

Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako plataformaren aurrekariak 2000. urtetik aurrera antzematen dira Euskal Herriko talde feministen Koordinadoran. Askotariko eragile eta kideekin osatu zuten, hala nola hainbat herrialdeetako talde feministekin, sindikatueta eta alderdietako emakume- arloekin eta talde mistoetako emakumeekin. Plataformaren helburua Emakumeen Mundu Martxaren dinamika Euskal Herrian ezagutaraztea zen. Era berean indarkeriaren eta pobreziaren aurkako aldarrikapenek Euskal Herrian zuten isla zehaztu eta horren aurkako borrokak eta mobilizazioak sortzea leku eta eremu askotan. 2005eko Mundu Martxan *2005 arrazoi martxan jarraitzeko!* eta *Euskal Herrian emakumeok martxan!* lelopean lau egunez zeharkatu zuten gure herria. Egun bakoitzeko gai bat aukeratu zuten: horrela lehenengo eguna (maiatzak 24) gerraren aurkako eguna izendatu zuten, bigarrena ekologiaren eta lurraren eguna, hirugarrena indarkeria sexistaren aurkako eta laugarrena pobreziaren eta prekaritatearen kontrakoa.

2010eko leloa *Euskal Herria morez tindatuko dugu!* izan zen, eta martxoaren 8an iragarri zuten Iruñean plaza ke morez bete ostean. Urte honetan aldarrikapenak ugalketa eta sexu-eskubideak, lan-prekarietatea, indarkeria sexista eta elikadura-burujabetza izan ziren. Bost egunez, Euskal Herri osoko 28 herri eta hirietatik igaro zen, 870 kilometro inguruko ibilbidea egin ostean. (Epelde Pagola et al. 2015, 333–343).

Murrizketak, arrazakeria, matxismoa, heterosexismoa, helduen nagusitza, eurozentrismoa, esklaboen salerosketa, kolonialismoaren eta inperialismoaren kontra egitea izan zen IV. Emakumeen Mundu Martxaren helburu nagusia, Euskal Herriko Lurraldeak zeharkatu zuen 2015eko urrian eta «*bizitzaren iraunkortasuna da bizitza erdigunean ipintzea, merkatuen logikaren orde, hau da, ikusezinak izaten diren lan guztiak ikusaraztea, bizitzari eusten dioten lanak eta sistema kapitalista heteropatriarkalean ezkutuan daudenak, historikoki emakumeari egokitu zaizkion lanak, derrigorrez*»⁷³, doan egin ditzan esaten zuten bere manifestuan.

⁷³ IV Mundu Martxaren manifestua, bilduma propioan gordeta. Webgunea desagertu da.

V. Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrian 2020ean eraman zuten aurrera, honetan ere transnazionalak, mugak eta migrazio-politikak ikusgarri egin eta salatu nahi ziren, sistema arrazista, kolonial, kapitalista eta heteropatriarkalaren tresna izateaz gain, pertsona migranteen zein jatorrizko lurraldeetan daudenen bizitzak zapaltzen dituztelako, bere aurkezpen-orrialdean azaltzen zutenaz. Urte horretako lema *Zubi guztien gainetik, Mugarik ez, Transnazionalik ez izan zen, gaztelaniaz Resistimos para vivir, marchamos para transformar.*

2.6 Emakumeak eta hedabideak

“Emakume-ikerketek” hasieratik detektatu zuten emakumeei historian zehar diskurtso, ezagutza eta informazioari heltzeko mugak jarri zaizkiela. Hedabideak sozializazio-tresna garrantzitsuak dira, askotan familia, eskola eta elizak baino eragin handiagoa daukate. Hedabideek rola, baloreak, arauak eta sinboloak barneratze-funtzioa betetzen dute. Liesbeth van Zoonenn-en (1988) arabera, 60-70eko hamarkadetan, emakumeen eta hedabideen arteko harremanak aztertzen eta ikertzen hasi ziren ikertzaileek gai hauetan zentratu ziren:

- Emakumeen lan-egoera enpresa komunikatiboetan.
- Emakumeen presentzia-dukietan, bereziki irudi estereotipatuen azterketan, eta horren eragina audientzietan.
- Informazioaren iturri eta protagonisten azterketa kuantitatiboa
- Hedabideetako profesionalen lan-jarrerak generoaren ikuspuntutik, eta honen eragina gizonen eta emakumeen irudikapena hedabideetan.
- Genero-ikuspegia informazioaren tratamenduan.

Hona etorrita Katalunian eta Euskal Herrian 80eko hamarkadan zenbait unibertsitateko irakasleek gai honekin konprometitu ziren, Concha Fagoaga eta Amparo Moreno adibidez, eta 90ean Joana Gallego, Natividad Abril eta Rosa Franquet hainbat ikerketa-lerro zabaldu zituzten. Hala ere, salto kualitatibo nabarmena eman zen 95etik aurrera, Beijing 95 ospatu ondoren.

Beijing 95 inflexio-puntua izan zen. Aurretik komentatu ditugu Nazioarteko Emakumeen Konferentzietan 1975-85 (Mexiko76, Copenague80 eta Nairobi85) “*Emakumea hedabideetan*” gai nagusietako bat izan zen, baina **Beijing95**ean atal propioa izan zuen gai honek lehenengo aldiz, eta Konferentziaren Ondorioetako batek (J ondorioa, hain zuzen) Komunikazioa eta Hedabideei buruzko hausnarketa egiten zuen⁷⁴.

Ondokoa esaten da J) puntu horretan:

"Komunikabideek emakumeen eta gizonen irudi estereotipatu gabeen sustapenean duten erantzukizunaren gainean kontzientziatzea, irudiotan aurkezten diren jokabide-eredu bortizkeria-sortzaileak baztertzea, eta zabaltzen duten edukiaz arduratzen diren pertsonak norabide eta jokabide-kode profesionalak ezartzera animatzea; orobat, herritarrak emakumeen kontrako bortizkeriaren arrazoiei eta ondorioei buruz informatzeari eta hezteari eta gai honi buruzko eztabaida publikoa suspertzeari dagokionez informazio-bideek betetzen duten funtzio garrantzitsuaren inguruan sentsibilizatzea".

Beijing 95en nabarmendu zen emakumeek komunikazio-sektoretan gero eta presentzia handiagoa daukatela, baina gutxi batzuek lortzen dutela hedabide horietako zuzendaritza-taldetara eta politika-ildoetan eragina daukaten organoetara heltzea, horren ondorioz, genero-gaiei arreta gutxi ematen zaie eta generoan finkatutako estereotipoak mantentzen dira argitaratzen dituzten berrietan.

Prentsa, telebista eta irratieta emakumei buruzko irudi negatibo eta apalgarriak desagertu behar dira. Herrialde gehienetako hedabideek, paperezkoek zein elektronikok, ez dute emakumeen irudi orekatu bat islatzen, emakumeen bizitzeko era diferenteek eta hauek giza eboluzioan ekarritako ekarpenek ez dute lekurik bertan. Produktu bortitz eta pornografikok emakumei kalte egiten diete, eta gizartean parte-hartzea oztopatzen die. Behin eta berriz emakumea rol tradizionalen aurkezten duten programek ere kalte egiten diote emakumeen irudiari (Beijing 95 J.235).

Emakumeen kontrako bortizkeriaren arrazoiak eta ondorioak eta prebentzio-neurrien eraginkortasuna aztertzeko neurriak jasotzen dituen D.2. helburu estrategikoan, 129. neurrian, d) puntuan, ondokoa esaten da:

⁷⁴Gehiago ikusteko: <http://www.nodo50.org/mujeresred/spip.php?article502>

"Komunikabideak animatzea estereotipo sexisten ondorioak aztertzea, generoko bortizkeria eta desberdintasunak sustatzen dituzten publizitate-iragarkietan iraunarazten direnak barne, baita bizitzaren zikloan nola transmititzen diren aztertzea ere, eta halaber, irudi negatibo horiek baztertzeko neurriak hartzea, bortizkeriarik gabeko gizartea sustatze aldera".

J puntuan, eta J.1. helburu estrategikoan, 241. neurrian, d) puntuan ondokoa esaten da:

"Emakumeen parte-hartzea bultzatzea norabide profesionalak eta jokabide-kodeak eta beste zenbait autorregulazio-mekanismo egoki egiteko lanetan, komunikabideetan emakumeen irudi orekatua eta estereotipatu gabea sustatzeko".

242. neurrian, a) puntuan: *"Komunikabideak gainbegiratuko dituzten kontrol-taldeen sorrera suspertzea eta horiekin kontsultak egitea, emakumeen premiak eta kezkak behar bezala isla daitezen arduratzeko".*

J.2. helburu estrategikoan, 243. neurrian, c) puntuan:

"Komunikabideetako profesionalak genero-gaietan prestatzeko eta sentsibilizatzeko programak garatzea, bi sexuetako jabeak eta kudeatzaileak hartuz horien baitan, komunikabideetan emakumei buruzko irudi orekatuak, askotarikoak eta estereotipatu gabeak erabili eta susta daitezen".

Esan dugunez, Beijing95ek ondorioak publikatu ondoren, emakumeak eta komunikazioa (bai hedabideen azterketa, zein publizitatea, edota edukiak eta irudiak) lotzen dituzten ikerketak biderkatu egin dira. Proiekturik handiena, bai kronologikoki eta baita geografikoki ere, aurrerago aztertuko dugun GMMP proiektua izan da.

2.6.1 Emakume kazetariak kazetaritzaren historian

Emakume kazetarien historia aztertzen hasten garenean hutsune nabarmenak topatzen ditugu. Gaia oso gutxi landu da nazioarteko ikerketetan, eta aurkitzen ditugun iturriak urriak dira. Prentsa femeninoa eta emakume kazetariak batera agertzen zaizkigu askotan, nahiz eta esparru desberdinak izan. Prentsa femeninoa askotan, gehienetan, gizonezkoek zuzentzen dute, eta emakumeak kazetaritzalanak egiten dituzte horietan, baina emakume kazetariak kazetaritzaren esparru

guztietan egin dute lan, gerran eta fronteetan barne. Halere emakume gutxi egon dira kazetaritza-lanetan XX. mendearen bigarren zatira arte, eta gutxi horiek ez dira zuzendaritza-taldeetan egon, berriemaileak izan dira. Euskal Herrian topatzen dugu, hala ere, kazetaritzaren aitzindarietako bat Francisca de Aculodi, inprenta baten jabea 1678an, Gipuzkoan. Emakume honek senarrarengandik heredatu zituen inprimatze-lanak egiteko baimenak, eta *NOTICIAS EXTRAORDINARIAS DEL NORTE* ETA *NOTICIAS PRINCIPALES Y VERDADERAS* argitaratu zituen bere semearekin batera (Capel Martínez 2010).

Azken urteotan ikerketa hauek, emakumeen kazetari-lana aztertzen dutenak, hazkunde bat bizi izan dute, baina erreferentzia historiko gutxi daude oraindik.

2.6.1.1 Estatu Batuetan

Ipar Ameriketako kazetarien soslaiak XIX. eta XX. mendeen hasiera maskulinoa zen, bai zuzendaritza postuetan eta baita idazgelan. Emakumeak emakumeei zuzendutako orrialdeetan baztertuta zeuden, beste emakumeei idazten zieten bakarrik, eta askotan, moda, edertasuna, eta etxeko arazoek konponketaz. Emakume horiek, gehienetan kazetaritza-munduarekin lotura familiartekotasunarekin zetorren, hau da, aita, senarra edo anaiarengandik. Linda Steiner-ek gidatutako ikerketan (2004, lehenengo bi kapituluetan, Ingalaterra eta AEBko XIX. eta XX. mendeko emakume kazetarien historia jorratzen da. 1880an AEBn 12.308 kazetari erroldatuta zeuden, eta horietatik 288, emakumeak ziren. 20 urte beranduago, hau da, 1900. urtean, 30.098 kazetarietatik 2.193 ziren emakumezkoak, eta beste 20 urte beranduago kazetarien %16,8. Kazetari hauen soslaiak: emakume zuria, ekonomikoki erdi-mailakoa eta goi-mailako ikasketaduna zen, prentsa beltzean edo “*Black press*” delakoan salbu, hartan emakume beltzek idazten baitzuten.

Esan dugu askotan emakume hauek zeharka ailegatzen zirela kazetaritza-mundura, senar, aita edota neben eraginagatik, eta gai arinen orrialdeak, edo emakumeei zuzendutako orrialdeak idazten zituzten gehienetan⁷⁵. Emakumezkoen orrialdeak NEW YORK WORLD egunkarian sortu zituen Pulitzer-ek, 1890-1900 hamarkadan, bezero berriak egiteko asmoz. 1900. urtean egunkari

⁷⁵ Joseph Pulitzer-en emazteak bultzatu zuen New York World erostera 1883an, Cyrus H.K. Curtis-en emazteak Ladies Home Journal sortzen lagundu zion, Adolph Ochsen emazteak eta alabak New York Timesen garapenean paper handia jokatu zuten. Life Aldizkaria Clare Booth Luce eta bere senarrak argitaratu zituzten (Goodrey and Pratte 1994, 209:74-79).

askotan zeuden emakumeei zuzendutako orri bereziak, bertan moda, etxeko lanak, eta gizarte informazioa eskaintzen zen.

Aurretik Margaret Fuller (1810-1850) bizi izan zen. 1844an NEW YORK TRIBUNEko literatura-editorea izan zen, eta bi urte beranduago korrespontsal modura etorri zen Europara, hain zuzen ere Italiara. Ipar Amerikako atzerriko lehenengo korrespontsala izan zen (Chambers et al. 2004, 199). Italian, Britainia Handian eta Frantzia ibili zen kazetari gisa eta hainbat politiko eta idazle ospetsuak elkarrizketatu zituen.

Emakume beltzen artean Victoria Earle Mathews (1861-1907) izan zen ezagunena, erlijio-egunkarietan eta bereziki beltzei zuzendutako egunkarietan idazten zuen, NEW YORK AGE, THE NEW YORK ENTERPRISE eta abarretan. Deborah Chambers-ek (2004:22-30) beste kazetari batzuen nondik-norakoak eskaintzen digu, adibidez Elizabeth Cochran-erenak (Nelly Bly), zeinak 1889an munduari bira eman zion, Phineas Fogg Julio Vernerren pertsonaiaren urratsak jarraituz. Nelly Bly-k gaur egun modan dagoen kazetaritza jorratu zuen, horretarako mozorroak erabili zituen zenbait gaiez idazteko, presondegiak, fabriketako lan-baldintza kaxkarrak, edo merkatalguneen lan-baldintzei buruz idazteko (Beasley 2003, 65), hain juxtu.

Sufragismoari lotutako prentsa XIX. mendearen bigarren erdialdean agertu zen AEBn, gogora dezagun Seneca Falls Convection 1844an izan zela. Hiri honetan argitaratzen da LILY aldizkaria (1849-1856), baita New Yorken, Vernonon edo Ohion, REVOLUTION (1868-1870) New Yorken, WOMAN'S JOURNAL (1870-1917), Bostonen, WOMAN'S TRIBUNE (1883-1909) lehenengoz Beatricen⁷⁶ eta gero Washington eta Portlandera mugitzen dena. Egunkari hauetan feminismoaren guztiz lotuta zeuden lau gai ziren nagusi: emakumeen sarrera bizitza publikoan, botoa emateko eskubide morala eta konstituzionala zen aldarrikapena, gizartearen erreformaren beharra emakumezkoen influentziaren eraginez eta ekonomian eta politikan emakumezkoen parte-hartzeak ekarriko zituen onurak eta abantailak (Lomicky 2002).

1932tik 1945era, Eleanor Roosevelt-ek, AEBko lehendakariaren emazteak, emakume kazetarien lana bultzatu zuen. Roosevelt-ek antolatzen zituen prentsaurrekoetara emakume kazetariak deitzen zituen bakarrik, eta hainbat hedabidek emakumeak kontratatu behar izan zituzten hauen jarraipena egiteko.

⁷⁶ Nebraska Estatuko hiria, AEB

Roosvelt-ek irratsaioetan parte hartzen zuen, eta zutabe bat idazten zuen hainbat egunkaritan, baita iritzi artikulua ere (Sloan eta Parcell 2002, 27).

2.6.1.2 Britainia Handia

Britainia Handian, beste tokitan bezala, emakume kazetariak XIX. mendeko azken urteetan agertzen dira, aldizkari edota orrialde femeninoetara lotuta, salbuespen batzuk izan ezik. Soslaiari begiratzen badiogu ekonomikoki eta sozialki maila ertainetan mugitzen ziren, goi-ikasketak zituzten –garai hartan salbuespena zena, hain zuzen–, eta askotan nahi ez zuten ezkontza batetik ihes egiteko bide bakarra zen kazetaritza-munduan sartzea (Shingler eta Wieringa 1998, 46).

Bretainia Handian goiz hasi ziren emakumeak kazetaritza-lanetan, 1822an Harriet Martineau-k (1802-1876) bere lehen artikulua publikatu zituen, eta 1829tik aurrera, aita hil eta umezurtz gelditu zenean, lanbide bihurtu zuen kazetaritza. Halere, salbuespena da Harriet Martineau. Goi-mailako ikasketak zituen eta kazetaria ez ezik ekonomialaria eta soziologoa ere bazen. Aitaren eragina funtsezkoa izan zen bere heziketan; eta mutikoen ikasten zituzten gaietan hezi zuen, uste baitzuen emakumeak independenteak izan behar zirela. Martineau Emakumeen eskubideen defendatzaile sutsua izan zen, eta artikulua, foiletoak eta baita nobelak ere idatzi zituen ekonomiaz (Chambers et al. 2004, 54).

XIX. mendearen amaieran Flora Shaw-ren (1852-1929) izena THE TIMES egunkariaren staffean agertu zen lehendabizikoz. Shaw 1890ean hasi zen egunkarian sinatu gabeko zutabe bat idazten. Bi urte beranduago, 1892an Hegoaldeko Afrikara bidali zuten berriemaile, haren artikuluek arrakasta handia lortu zuten, handik Australia, Zeelanda Berria eta Kanada bisitatu zituen. Bueltan egunkarian editore gisa geratu zen. Emily Peacock bere aldetik hamabost urterekin erreportari moduan hasi zen bere aitak editatzen zuen NORTHEM ECHO egunkarian 1898an, eta 1902an YORKSHIRE DAILY OBSERVERren zuzendariorde-postua eskatu zuen, baina nahiz eta ziur aski bera hautagai prestatuena izan ez zuen lortu (Roig Castellanos 1989, 40–88).

Emakume hauek aitzindariak izan ziren, baina salbuespenak ere bai. Oro har emakumeak ez ziren ondo ikusiak idazgeletan, emakumeen orrialdeetan eta beheko lanpostuetan gelditu ziren gehienetan. Idazgela hauetan oihuak, biraoak, tentsioak eta presak ohitura omen ziren, eta gizartearen ikuspegitik begiratuta emakumeak hauskorrak eta ahulak ziren, beraien burua eta bihotza ez zegoen giro

horretara egokituta. Egoera Munduko Lehenengo Gerraren garaian aldatu zen pixka bat. Gizonak fronteetara mugitu ziren heinean emakumeek beraien postuak hartu zituzten, eta lanbide berrietara moldatu behar izan zuten. Lantegietan, ospitaleetan eta baita ere hedabideetan emakumeen presentzia areagotu egin zen, nahiz eta momentu horretan egunkariak eta aldizkariak produkzioa murriztu, eta askotan gerraren inguruko propaganda zabaldu besterik ez egin (Chambers et al. 2004, 199).

Bigarren Mundu Gerraren ostean aldaketa bat eman zen emakumeen kazetaritzan. Nahiz eta oraindik emakumeen lan-sarrera beraiei omen zegozkien orrialdeak izan, bestelako gaiak hasi ziren jorratzen orrialde berezi horietan. Gai politikoez eta gizartean ematen ziren arazoei buruz hasi ziren idazten. Feminismoaren bigarren olatuak aldarrikatzen zuen “norberarena politikoa ere bada” hark isla izan zuen emakumeei zuzendutako orrialdeetan Ingalaterran. Garai honetan, adibidez, Jill Tweedi-ek zutabe bat zeukan DAILY TELEGRAPH egunkarian: “*Letters from a Faint Hearted Feminist*” deitutakoa (*Bihotz feminista ahul baten eskutitzak*), oso arrakastatsua izan zena, non eguneroko bizitzan feminismoaren teoriak aurrera eramateko aurkitzen zituzten oztopoen alde komikoak islatzen zituen.

Irratiari dagokionez 1922an BBC EDO BRITISH BROADCASTING COMPANYk irratie- misioak hasi zituen, eta 1927tik 1938ra John Reith izan zen Zuzendari Orokorra. Gizon hau presbiterianoa zen, eta erlijio honen moral zorrotzari jarraituz, BBCk debekatu zuen emakume ezkondu edo dibortziatuak kontratatzea 1960ra arte, eta 1970ra arte berriak irakurtzen zituzten ahots guztiak gizonezkoenak ziren (Beasley 2003, 65). Bestalde, arazo tekniko batek, mikrofonoen diseinua hain zuzen, emakumeen presentzia oztopatzen zuen, izan ere gizonezkoen ahotsetarako diseinatuta zeudenez emakumezkoen ahotsa oso zorrotz ateratzen zen, desatsegina suertatzen zen. 1974ra arte ez zen egon irratie- esatari emakumezkoak, eta gutxi batzuk lan egin zuten kazetari moduan garai haietan. Telebistaren kasuan, aldiz, 1955eko irailean Barbara Mendell eguerdiko albiste- bulletina aurkeztzen hasi zen, audientzia gutxiko bulletina zen eta atzeko dekoratua sukalde baten irudia zen (Sloan eta Parcell 2002, 27). 20 urte pasa behar izan ziren emakume bat albistegi nagusietako berriak irakurtzen ikusteko, Angela Rippon 1975ean.

2.6.1.3 Frantziar estatuan

1797. urtean LE JOURNAL DES DAMES argitaratu zen (1797-1839). Aldizkari honek izen desberdinak izan zituen urteetan zehar, eta edukietan moda, gizarte kronika eta hezkuntza lantzen zituen. Aldaketa ugari izan zituen baina oro har emakumeen lekua etxea zela aldarrikatzen zuen, haurrak hezi, etxea txukundu, ezkondu...

Egunkari asko sortu ziren XIX. mendeko lehen urteetan, baina oso iraupen eskasa izaten zuten. Gehienek etxeko lanetara bideratzen zituzten emakumezkoak. Horrela Luis Felipe erregearen agindupean emakumeei zuzendutako 43 egunkari sortu ziren, baina gehienek hiru urte baino gutxiago irautesen zuten⁷⁷.

Garai honetakoa da LA FEMME LIBRE egunkaria, gero LA TRIBUNE DES FEMMES izango dena. Marie-Reine Guindorff eta Desirée Veréte-k, biak jostunak eta Saint-Simon filosofoaren jarraitzaileak, 1832an sortu zuten egunkari hau eta 1835eko prentsa askatasuna murrizten zuten legeek itxi zuten. Santsimoninoek emakumezkoen askatasuna, independentzia ekonomikoa eta heziketa aldarrikatzen zuten. Emakumeen borroka bakarra zela defendatu eta proletarioen eta goi-mailakoen emakumeen arteko tartea apurtzea zen beraien nahia, emakumeen burujabetze sexuala haien identitatearen eta askatasunaren oinarritzko elementutzat hartzen zuten.

1848ko iraultzaren porrotaren ondorioz emakumezkoen prentsa eta elkarteak desagertu egin ziren berriz ere. Uztailean Asanbladak gehiengoz onartutako lege bati esker aurrerantzean emakumezkoek debekaturik izango zuten klubetako kide izatea, klubetara joatea (Roig Castellanos 1989, 40-88).

2.6.1.4 Espainiar estatuan

XIX. mendean zehar emakumezkoen prentsak hazkunde bat bizi izan zuen. Adibidez, 1843-1868 urteen artean, Isabel II.a boterean zegoen bitartean, hamazazpi aldizkari femenino jaio ziren (Seoane Couceiro eta Saiz Garcia 2007) EL TOCADOR, (1844-45), EL DEFENSOR DEL BELLO SEXO (1845-46) edo EL PENSIL GADITANO (1856-57). Azken hau lehenengo aldizkari feministatzat ezagutu zen. María Josefa Zapata eta Margarita Pérez de Celis izan ziren horren arduradunak (Arenal 1896).

⁷⁷ Mercedes Roig, La mujer en la Historia a través de la prensa, Francia, Italia, España siglos XVIII-XX liburuan epe hoietan argitaraturiko emakumeei zuzendutako aldizkari eta egunkari guztien izenak jasotzen ditu, 300 baino gehiago.

Beranduago EL PENSIL DE IBERIA izena hartu zuen eta 1859an Kadizko Gotzainak haren itxiera eskatu zion gobernadoreari moral katolikoaren kontrako gaiak jorratzen zituelako (Roig Castellanos 1989, 188–192).

Bi motatako aldizkari sortzen dira garai honetan, aldizkari femeninoak⁷⁸, edo teorian emakumeei interesatzen zaizkien gaiei buruzko aldizkariak, moda, familia, higiena...; eta beste alde batetik aldizkari feministak, hau da, emakumezkoen eskubideen alde egiten dutenak. Egunkari orokorrak bereziki gizonezkoei zuzenduta daude, baina irakurlego femenino bat badute, batez ere foiletinak edo zatika argitaratzen diren nobelen orrialdeak (Diaz-Diocaretz eta Zavala 1993, 62) irakurtzen dituenak.

Aitzindarietako bat Concepción Arenal (Galizia 1820-1893), idazle eta politikaria, izan zen. 1841ean Madrilgo Unibertsitatean Zuzenbideko ikasketak egiteko gizonen mozorroto behar izan zuen, emakumezkoek debekatuta baitzeukaten goi-mailako hezkuntza jorratzea. Geroago LA IBERIA egunkarian gai politikoak jorratzen hasi zen senarra gaixotu zenean. Senarra hil ondoren lanak izenpetzen hasi zen, irakurleen protesten artean. Arenal Espetxetako Ikuskari izendatu zuten 1863an. Hasierako feminismoaren bultzatzaileetako bat zen eta emakumezkoen egoera hainbat lanetan aztertu zuen, honen adibidea 1881ean idatzitako *“La mujer en la casa”* liburua, non etxean lanean gelditzen den emakumeari egiten dion kritika, edo *“La educación de la mujer”* entseguan, non hezkuntza-berdintasuna eskatzen duen gizonentzat eta emakumeentzat:

“Uste dugu, beraz, hezkuntzak berbera izan behar duela gizonentzat zein emakumeentzat; are premiazkoagoa dela emakumeari dagokionez, zeren, nortasuna garrantzitsuago izanik berarentzat, legeek eta ohiturek zapuztuago baitago”
(García-Albi 2007, 18).

XIX. mendearen amaieran beste galiziar bat nabarmentzen da, Emilia Pardo Bazán (Galizia 1851- 1921). 1887an Erromara joan zen EL IMPARCIAL aldizkariko korrespontsal moduan, eta bertan zegoelarik Don Carlos erregegai karlistari elkarrizketa bat egin zion. Bi urte beranduago, 1889an Parisko Erakusketa Unibertsalean korrespontsal moduan egin zuen lan. Bi kasu hauetan idatzitako kronikek eta elkarrizketek iskanbila ugari sortu zuten irakurleen artean, emakume

⁷⁸ Perinat eta Marrades-ek definizio hau ematen dute: Revistas femeninas son aquellas que, ya sea por su título o subtítulo, ya sea por declararlo así sus redactores, o ya sea por su temática, tienen como principal destinatario a la mujer.

batek idazten zituelako. 1889an sarrera ukatu zioten “Real Academia Española” delakoan, eta emakumezkoen eskubideen defendatzaile sutsua bihurtu zen (Olmos 2006).

Garai honetan beste idazle batzuk ere egon ziren, batez ere Andaluzian, Patrocínio de Biedma, Carolina Soto adibidez, eta Katalunian, Sofia Tartilan, Josefa Pujol de Collado, Clotilde Cerdá Bosh, María Josepa Massanés, María de Bell-Hoc eta abar. Azken bi hauek katalanez idazten zuten eta Kataluniar identitatea eta kultura berreskuratu nahi zuen “*La Renaixença*” taldeko kide ziren (Diazhandino 2008, 16–25).

1895ean Madrilen “Asociación de la prensa de Madrid” sortzen da 173 kide-sortzailek bultzatuta; beraien artean emakume bakarra zegoen, Jesusa Granda. Kazetari honek EL GLOBO egunkarian idazten zituen kolaborazioak eta baita hiletaharrak ere (Luengo López 2008)⁷⁹.

1901ean Carmen de Burgos DIARIO UNIVERSALEAN hasi zen lanean erredaktore moduan. Columbine ezizenaz sinatuz emakumeei zuzendutako zutabe bat idazten hasi zen, “lecturas para las mujeres” zeritzona. Bera izan zen kazetari moduan aritu zen lehenengo emakumea, aurrekoak idazleak baitziren (García-Albi 2007, 43).

Bigarren Errepublika garaian emakumeak nabarmentzen hasi ziren kazetaritzan, bai Madrilen eta bai Bartzelonan. Emakumeen hezkuntza-maila hobetu eta gero eta kazetari gehiago agertzea ahalbidetu zen. Emakumeek boto-eskubidea zeukatenez, publiko garrantzitsu bihurtu zen eta prentsan hori islatzen hasi zen.

1931ean Josefina Carabias LA ESTAMPA aldizkarian hasi zen idazten, lehenengo lanetariko bat izan zen Victoria Kenti, momentu horretan Espainiar Estatuko presondegietako zuzendaria zenari, elkarrizketa bat egitea. Gerra-garaian Frantzian ibili zen exiliatuta, baina gero Madrileratu bueltatu zen eta idazten jarraitu zuen. 1953an AEBra joan zen korrespontsal-lanak egitera, beranduago Parisen ere ibili zen. LA VOZ eta CRÓNICA aldizkarietan hartu zuen parte (García-Albi 2007, 21).

Luisa Carnes 27. belaunadiko partaidea izan zen, feminista eta komunistatzat aurkezten zuen bere burua. Idazlea eta kazetaria, 1930ean LA ESTAMPA egunkarian hasi zen zenbait kolaborazio argitaratzen, eta aurrerago Alderdi Komunistaren prentsan argitaratu zituen bere lanak. Gerra zibilaren ostean Mexikora exiliatu zen

⁷⁹ Liburu honetan 10 bat emakumezko kazetari agertzen dira 1895-1950, elkartekide. Elkarteko zuzendaritzan emakume bakarra agertzen da, Concepción Santalla, 1939an (559 orrialdea)

eta hango egunkarietan, LA PRENSA, EL NACIONAL eta NOVEDADES hainbat narrazio eta errelato publikatu (Carnés et al. 2017).

Galiziar kazetari bat LA VANGUARDIA egunkariko zuzendaria izan zen, Maria Luz Morales Godoy, 1936ko uztailean; Maria Zambrano filosofoa, ostera, EL LIBERAL eta José Bergamín zuzentzen zuen CRUZ Y RAYA aldizkarian zenbait artikulua idatzi zituen (García-Albi 2007, 67). Natividad Adalia EL SINDICALISTAKO zuzendaria, heriotzara kondenatua izan zen gerra zibilaren amaieran; pena hau 30 urteko kartzela-zigorra bilakatu zen beranduago (Gallego Abaroa, 251–278).

EL IMPARCIAL aldizkarian Carmen Eva Nelken-ek idazten zuen, Magda Donato ezizenez, Margarita Nelken parlamentariaren ahizpa berau, eta Concha Espinak ere bertan idatzi zuen aldi batean.

2.6.1.5 Euskal Herrian

Euskarazko kazetaritzaren historia egiteke dago oraindik, eta hasierako euskal emakume kazetariei buruzko datu gutxi ditugu. Eusko Jaurlaritzak argitaratzen zuen *Bidegileak* bilduman hauetako batzuen aztarnak aurkitu ditzakegu.

Hogeigarren mendearen hasieran hasten da argitaratzen emakume-talde bat. Fenomeno honen bultzatzaile Antonio Abadiaren euskal jaietako sariak eta *Euskal-Esnalea* eta *Euskal Herriaren alde* aldizkarien literatur lehiaketak dira, baita Emakume Abertzale Batzaren esfortzua ere. *Euskal-Esnalea* aldizkariak hitzaldiak antolatzen zituen garai horretan, eta bertan, Maria Etxabek, Maddi Ariztiak eta Julia Fernandez Zabaletak parte hartu zuten hizlari gisa. Adibidez, Donostiako Novedades antzokian mintzatu zen Maria Etxabe 1930eko apirilaren 27an. "Zorionaren iturria gizonak non du?" argitu nahi izan zuen. "Emakumien Etorkizuna" aztertu zuen 1926an Julia Fernandez Zabaletak. Maddi Ariztiak, berriz, "Euskal Etxe Zaharrak", 1933an.

Errose Bustinza (1899-1953) kronikak idazten zituen EUZKADI egunkariaren *Erijetatik* deitzen zen sail batetan. Sail horretan herri bakoitzak bazuen bere kronikaria eta herri mailako gertaera xumeak argitaratzen ziren. Hasieran izenik gabe, gerora "Mañariko" izengoitiz izenpetzen zituen kronikak eta ipuinak. Egile honek ehun kronika baino gehiago sinatu zituen eta egunkaria itxi arte lanean ibili zen (Kaltzakorta 1999).

Julene Azpeitiak (1888- 1980) zumaiarra hainbat aldizkaritan argitaratu zituen bere artikulua, irratsaio ugari egin zituen, eta kultur munduko pertsonaia

publikoekin ere izan zituen harremanak. Aldizkarigintzan ere, ehunka artikulua zuen argitaraturik, "Arritokieta" ezizenarekin EUZKADI egunkarian, KARMEL, YAKINTZA, EGAN eta ZERUKO ARGIA aldizkarietan (Mintegi 1993).

Dolores Agirre (1903-1997) adibidez, 25 urtez aritu zen irratigintzan, nahiz eta bere lanbidea irakaskuntza izan eta antzerkilaritzan murgilduta bizi. Emakume hau LA VOZ DE GUIPUZCOA irradian aritzen zen astelehenetik ostegunera Baserria deritzan programa batean, euskarari indarra ematearren egiten zuen (Auzmendi 2002).

Pilar Lekuona (1906-1999) EUSKALERRIAREN ALDE aldizkarian idazten hasi zen, gero ZERUKO ARGIA astekarian herriko kronikak idatzi zituen, "Mirentxu" izengoitia erabiliz. Emakume honek 1990eko hamarkadan oraindik sinatzen zituen bere kronikak Oiartzungo herri-aldizkarian.

Beste batzuk ere izan, Robustiana (Tene) Mugika (1888-1981), Julia Claudia (Maite) Gabilondo (1902-994), Rosario Artola (1869-1950), Madalena Jaureguiberry (1884-1977) iparraldekoa eta hainbat aldizkaritan idatzi zuena, tartean HERRIAN, GURE HERRIAN, eta SUD-OEST egunkarian.

Gaztelaniaz idatzi dutenen artean Teresa Eskoriatza (1861-1968) aipatu behar dugu. Jaiotzez donostiarra, emakume inkorformista, New Yorkera abiatu zen hogeitasei urterekin kultura eta bizimodu ezberdinak ezagutzeko. Hiri horretatik LA LIBERTAD egunkari sozialistan sinatu zituen bere artikulua *Felix de Haro* ezizenez 1019tik aurrera eta geroago Maroko eta Espainia arteko gerrako korrespontsala izan zen egunkari horretan. Beste hainbat mediotan ere argitaratu zituen bere artikulua, baita Radio Ibéricako hainbat saioetan ere (Palenque 2006).

XX. mendearen hasieran hainbat emakume kazetari frentetan ibili ziren, Cecilia G. de Gilarte (1915-1989) gipuzkoarra kasu, azken honek gaztelaniaz idazten zuen ere.

2.6.2 Emakumea eduki periodistikoan

Europar Batasunak europar hedabideetan emakumeen irudia nola islatzen den inguruko ikerketa bat burutu zuen 2000. urteko atarian, bertan emakumearen irudia eta hedabideak uztartzen dituzten ikerketen azterketa sakona argitaratu zen. Agerian geratzen da Estatu Batuetan ikerketa hauek tradizio handia daukatela, Europarekin konparatuz; Europan ikerketa gutxi daude, sakabanatuta, eta askotan Akademiatik kanpoko instituzioek bultzatu dituzten lanak dira

(Serrano et al. 1995); honen adibidea Euskal Herrian 2003an Emakundek antolatutako “*Komunikabideak eta Generoa*” jardunaldia.

Azken hamarkadetan berrien eduki eta produkzio-prozesuetan generoaren tratamendua sakonki planteatu da, berrietan agertzen diren emakumeen tipologia eta irudiari buruzkoa bereziki, eta genero-indarkeriarekin dituzten jarrerazkoa baita.

Europar edukiaren azterketa izan da gai nagusia, audientzien ikerketa eta ekoizpenaren azterketaren gainetik. Telebistak eta publizitateak eskaintzen dituzten emakume-ereduak izan dira gehien aztertu direnak, eta eguneroko prentsa bigarren mailan gelditu da. Askoz gutxiago aztertu dira irratia eta aldizkarietako irudiak. Interneti buruzko ikerketak beranduago hasi ziren.

Arlo akademikoan Gaye Tuchman-ek (1978) abiatu zuen generoa. eta hedabideen arteko harremanak aztertzen zituen ikerketa-ildoak 70eko hamarkadan. Ikerlari honek berrien produkzio-errutinak aztertu zituen, hala nola baita agendaren eraketa, emakumeen presentzia idazgeletan eta baita hedabideen edukiak genero-ikuspegitik. Tuchman-en ustez hedabideek jendartean nagusi diren baloreak islatzen dituzte eta emakumeak degradatzen dituzte, emakumeak aipatzen ez dituztelako edota estereotipoak erabiltzen dituztelako. Egile honek “emakumeen suntsiketa sinbolikoa hedabideetan” (*symbolic annihilation*) kontzeptua erabiltzen du emakumeen denigrazio honetaz hitz egiteko, kondenez, tribializazioz edo ausentziaz egiten dutelarik. Emakumeak apenas agertzen dira subjektu gisa hedabideetan, gutxitan protagonista gisa eta ia inoiz ez lider moduan. Emakumeak esfera publikotik at eta esfera pribatuaren espazio sinbolikoan gelditzen dira.

Liesbet Van Zoonen-ek, adibidez, antzeko emaitzetara ailegatu zen Herbereetako hedabideak aztertu zituenean. Aipatutako medioetan ehun pertsonetatik 87 gizonak ziren, emakumeek minutu erdi hitz egiten zuten kameran aurrean, eta gizonak minutu bat baino gehiago batez besteko, emakumeak gai “bigunetan” edo giza intereseko gaietan agertzen dira gehienbat, hau da artea, hezkuntza, kontsumoan; gizonak, ostera, esparru guztietan agertzen dira, baina batez ere ekonomian, politikan eta nazioartekoetan (van Zoonen 1988, 35–36).

Joera honek ez du hobera egin, eta aurrerago aztertuko dugun GMMP ikerketaren emaitzek baieztatu besterik ez dute egiten jarrera hori: emakumeak bigarren planoan agertzen dira, bai kazetari moduan, baita protagonista, aditu edo

informazio-iturri moduan, askotan aipamenik ez daukate eta gai “gogorrenetan” presentzia oso apala da. Aldiz, biktima-paperean gailentzen dira. Beraz, arazoa ez da bakarrik gutxitan agertzen direla, baizik eta agertzen direnean betetzen duten papera.

1984an Petra Maria Secanella eta Concha Fagoagak “*Umbral de la presencia de mujeres en la prensa española*” publikatu zuten, Emakumearen Institutuaren dirulaguntzarekin, garai hartako prentsan emakumeen agerpena berrietan ehuneko 7 eta 9 tartekoa zen.

Nati Abril irakasleak eduki-analisia aplikatuz emakumeei subjektu periodistiko gisa ematen zaien tratamendua zenbait egunkaritan, EGIN, DEIA, EL CORREO ESPAÑOL/EL PUEBLO VASCO eta LA GACETA DEL NORTE, aztertu zuen bere doktore-tesian (1994), “*Las mujeres en la prensa diaria vasca: protagonistas, temáticas tratamiento periodístico*”. Tesi honetan, egunkari hauen ildo editorialen eragina, emakumeak nagusi direneko mezu periodistikoak hautatze-prosezuan eta geroko tratamenduan ikertu zuen ikertzaileak, eta egunkarien arteko desberdintasunak. Ikerketa horrekin jarraituz, noiz eta zergatik bihurtzen diren emakumeak kazetari aztertu zuen, eta zer-nolako garrantzia ematen zitzaien gai hauei. Abril-ek M8an eta urteko beste egunetan publikatutako mezuen arteko desberdintasunak aztertu zituen baita. Egun horietan feminismoaren presentzia areagotzen da egunkarietan eta baita rol tradizionalak oinarritutako mezuek, «...Emakumearen Nazioarteko Egunean euskal egunkariak feminismoaren gaia interesgarria zela kontsideratu zuten eta bere hiru bider gehiago agertu zen hauen orrialdeetan. Hala ere kuriozoso da mezu tradizionalak ere hirukoiztu ziren egun honetan» (Abril Vargas 1991, 445)⁸⁰.

Bueno Abad-ek (1996) “*estudio longitudinal de la presencia de la mujer en los medios de comunicación de prensa escrita*” tirada handiko hamabost egunkari desberdinen azterketa egin zuen, emaitzetan agertzen da ezen emakumeen presentzia handiagoa dela kulturean eta gizartean, eta baita biolentziarekin zerikusia daukaten gaietan, baina aldiz, gai politiko edota ekonomikoetan, hau da, prestigiozko gaitzat hartzen direnetan, baztertuta daudela.

⁸⁰ «...en el Día Internacional de la Mujer, los periódicos vascos sí consideraron de interés la temática feminista y triplicaron su presencia en las páginas... Así todo no deja de resultar curioso que los mensajes de corte tradicional duplicaran igualmente su aparición».

Nahiz eta XIX. eta XX. mendeetan emakumeen bizi-baldintza soziopolitikoak zeharo aldatu Blanca Muñoz-ek esaten du aldaketa hauek ez dutela hedabideetan islarik izan:

“Neurri handi batean gaur-gaurkoz ere emakumeen errepresentazioa aro preindustrialeko roletan oinarritzen da nolabait, emakumeak sailkatu eta, sarri, ez daukate zerikusirik ez errealtatearekin ez emakumeek beren buruaz daukaten irudiarekin. Estereotipo femeninoaren erabilpenak adieraz dezakeen errealtatearen errepresentazio partzialak oso modu indartsuan lagundu dezake generoen arteko erlazioari buruzko iritzi aprioristikoa sortzen eta, baitik bat, are kezagarriagoa izan daitekeena, harreman horren garapenaz” (Muñoz, 1997, 45. or.).

Inmaculada Jiménez Morell ikertzaileak *“La prensa femenina en España: Desde sus orígenes a 1868”* lanean emakumezkoen prentsaren alde ideologikoa aztertzen du, nolako emakumea islatzen den, zein emakume-ereduri ematen zaion lehentasuna. Konklusioetan aipatzen du emakumeen hezkuntza hobetzea garai hartako prentsan maizenik errepikatzen zen gaia dela (1992, 157). Aldizkari hauek beste gai batzuk ere jorratzen zituzten, gizonen eta emakumeen arteko amodio-harremanak, ezkontzaren papera emakumeen bizitzan, amatasunaren garrantzia edota gizonen lanbideak eta karguak hartzen zituzten emakume gutxi haiek, bideak zabaltzen hasi zirenak. Ikertzaile honek, 1811n hasi eta 1986ra arte estatu espainolean argitaratutako mota honetako aldizkari eta egunkarien errolda egin du.

Ikertzaile-talde batek Hizkuntzaren erabilpena prentsa idatzian eta hizkuntza baztertzailea ekiditeko aholkuak eta proposamenak argitaratu zituen 2000an: *“El sexo de la noticia, reflexiones sobre el género en la información y recomendaciones de estilo”* (Bach et al. 2000) publikatu zuten. Katalanez idatzi eta gero gaztelaniara itzulita, hizkuntzaren erabilpenean jartzen du arreta, eta azterketa sakon bat eginga, berrien produkzioaren fase desberdinetan zein berriaren hautaketa-fasean praktikan jartzeko proposamenak egiten ditu. Batzuk testu aurreko faseari dagozkio, non hedabidearen ildo ideologikoan eta informazio-politikan eragina izango duten (berrien hautaketan genero-oreka mantentzea, informazio-iturrietan bi generoak irudikatzea, eta abar, eta gero, idazteko unean, edo fase testual horretan generiko maskulinoak ekiditea).

Ikerketa gehienak prentsa idatziaren inguruan egin dira, telebista-inguruko ikerketak murrizagoak direlarik. Prentsaren kasuan emakumeekin lotura daukaten gaien azterketa egin da, baita emakumearen agerpenari buruzkoa ere. Telebistaren kasuan, pertsonaien azterketa egin da, zer-nolako rolak betetzen dituzten emakumeek bai magazinetan eta baita fikziozko programetan.

1993an, Martin Serrano irakasleak zuzenduta, emakumeen irudia publizitate-eta telebista-programetan aztertu zuen ikertzaile-talde batek. Helburua telebistek gizonen eta emakumeen errepresentazioa nola jorratzen zuten aztertzea zen, eta zeintzuk ziren erabiltzen zituzten komunikazio-modalitateak genero bakoitza irudikatzen. Bi motatako produktuak aztertu zituzten, emakumeak edota gizonak agertzen ziren publizitate-spotak eta Madrilen ikusten ziren telebista- kateetako publikoak parte hartzen zuen programak. Lagina 225 spot eta 80 programek osatzen zuten (2004).

Telebistarekin jarraituz, Rita Radl Philipp-ek emakumearen presentzia eztabaida-programetan aztertu zuen 90eko hamarkadaren hasieran. Emakumeek presentzia txikia daukate, ez da %15era ailegaten, beraz ordezkaritza murrizta daukate, horrela gizonen protagonismoa handituta dago (gain-protagonismoa). Honek ondorio bat dakar: programa hauek ematen duten emakumeen irudia ez dator bat errealitatean gertatzen denarekin. *“Telebistak, masa-komunikabidea den aldetik, funtzio ideologikoki erregresiboa betetzen du nabarmenki emakumearen genero “identitate berriarekiko”* (Radl Philipp 1995, 94). IORTVren enkarguz Pilar Lopéz Díez-ek birritan ikertu du emakumearen papera Espainiako Telebista nazionalan.

Ikerketa hauek guztiak emaitza komuna lortu zuten, hots, hedabideetan emakumearen irudia estereotipo sinple eta sexistetan finkatzen da, protagonistak askotan biktimak dira, edo bigarren mailako pertsonaiak.

Irratiari buruz ikerketa gutxi egin dira, ziurrenik lehenengoa Pilar López Díaz-en (1996) Doktore Tesia izango da, *“Los magazines de la radio española: modelos, tendencias y representación de género* (argitaratu gabea).

2.6.2.1 GMMP proiektua

GMMP proiektuari aipamen berezia egin behar zaio. Kazetaritza-praktikatik eta elkarte sozialetatik bultzatuta mundu-mailako emakumeen islaren behaketa egin da 1995. urtetik hasita.

Hedabideetako emakumeen eta gizonen irudikapenei buruz orain arte egin den ikerketarik zabalena nazioarteko mailan **GMMP** proiektua da. Ikerketa honetan hedabideen azterketa longitudinala lantzen da, aldagai nagusiena generoa delarik, 70 herrialde baino gehiagora zabaltzen da eta herrialde bakoitzean ikertzaileek eta beste agente sozial desberdinek parte hartzen dute, ikasleek, elkarreentako militanteek, kazetariak...

Proiektua *Women Empowering Communication Kongresuan* (Bangkok 1994) abiatu zen eta WACC (*The World Association for Christian Communication*) eta New Yorkeko *International Women's Tribune Center*rek antolatzen dute. Bost urtean behin egiten da, azkena 2009ko azaroan. 1995ko urtarrilaren 18an antolatu zen lehenengo aldiz, eta bere helburuak hauexek ziren: nazioarteko mailan korrante solidario eta sentikortzaile bat sortzea, hedabideetan kontzientzia hartzea eta monitorizazioak ugaritzea.

Lan-metodologia berdina erabiltzen da mundu osoan, alde batetik egun horretako berrien eduki azterketa aurrera eramaten da, eta bestetik berriemaileen azterketa. Lan-metodologia hori finko mantendu da egin diren txanda guztietan, eta horrek posible egin du eboluzioa irudikatzea. Halere gai berriak gehitu dira, adibidez hedabideek eskaintzen duten emakumeen erretratuen protagonisten bilakaera eta zergatik diren emakume horiek protagonista.

2005eko ikerketan 76 herrialdeetako lan-taldeek 12.893 berri aztertu zituzten, 25.671 iturri desberdin identifikatu ziren, eta 14.273 berriemaileen lana begiratu zen. Gaien azterketak esaten digu emakumezkoen presentzia %21ekoa dela, berrietan agertzen den emakume bakoitzeko bost gizon ateratzen direla. Portzentaje hau baxuagoa izan zen 1995ean, %17koa baitzen. Gaiekin jarraituz, politikaren eta gobernuen inguruko gaietan emakumeen presentzia %14raino jaisten da, eta gai ekonomikoetan %20raino. Genero-biolentziari buruz hitz egiten denean, gizonen ahotsa %64koa da, nahiz eta emakumea biktima-paperetan maiz agertzen den.

Ikerketa honetan ikus dezakegu ere emakume protagonistak emakume ospetsuak (%42) eta errege-erreginen familia eta ahaideak (%33) direla. Oso gutxitan agertzen dira aditu- (%17) edo boteredun-ereduetan (%14). Lan politikoa betetzen dutenen presentzia %12ra murrizten da, bizitza errealean baino kopuru askoz txikiagora (%49) alegia. Etxe barruko biolentzia eta genero-biolentziek

garrantzi gutxi hartzen dute hedabideetako agendan, baina bestalde emakumeak biktima-rolan agertzen dira maiz.

Hurrengo monitoreoan, 2009ko azaroaren 10ean, 108 herrialde desberdineko 1.281 egunkari, irrati eta telebista-kate aztertu ziren; 16.734 berri, 20.769 kazetarien lana eta 35.543 protagonista. Urte hartan, lehen aldiz, Interneteko albiste-orrialdeak aztertu ziren baita, orotara, 16 herrialdetako 76 webgune desberdin eta nazioarteko 8, 1.016 berri, 1.044 kazetari eta 2.710 protagonista arakatu ere.

2009an emakumeen presentzia %24ra iritsi da, hau da, berrien lautik batean bakarrik hitz egiten da emakumeei buruz. Aldaketa nabaria nabarmentzen da 1995arekin konparatuz, (7 puntu), baina hala ere, oraindik gizonen munduaz hitz egiten dute berriek. Berrietan adituak edo bozeramaileak agertzen direnean, nagusiki maskulinoak izan ohi dira, %80 hain zuzen. Emakumeek biktimaren rola betetzen dute berrien %18an, aldiz gizonak biktima-moduan berrien %8an agertzen dira.

Kazetariei erreparatuz, ez dago alde handirik 2005eko datuekin alderatuta, berrien %37 kazetari emakumeen eskuetan geratu ziren, portzentaje hori telebistaren kasuan 52ra igo zen 2009ko laginean. Baina kazetariak lantzen dituzten gaiei erreparatuz gero, politika-gobernua gaiei hain zuzen, gizonak lantzen dituzte, (%67) baita ekonomia (%60) edota zientzia eta medikuntzari buruzko informazioa (%66)⁸¹.

Proiektu honen hurrengo monitoreoa 2015eko martxoaren 25ean izan zen. Egun horretan 114 herrietako ikertzaile-taldeek egun horretako berriak arakatu zituzten. Aurreko urteetako emaitzekin ez zen aldaketa handirik eman, erakusten du azken bost urteetan ia gelditu egin zela komunikabideetan genero-berdintasuna lortzeko bidea.

2015ean, prentsa idatzian, telebistako edo irratiko albistegietan irakurri, ikusi edo entzun zen pertsonen %24 baino ez ziren izan emakumeak. 2010eko zifra bera. Genero-aldea zientziari eta osasunari buruzko informazio-oharretan murriztu da. Albisteetan gai horri buruz agertzen diren pertsonen %35 emakumeak dira, eta politikari buruzko informazio-oharretan, berriz, %16 baino

81

http://www.whomakesthenews.org/images/stories/website/gmmp_reports/2010/global/gmmp_global_report_es.pdf

ez. Izan ere, 215ean emakumeak duela bost urte baino gutxiago ikusten ziren politikako albistetan. Ohiko informazio-hedabideetan emakumeen ikusezintasun erlatiboa informazio-plataforma digitaletan ere ikusi zen: Interneteko informazio-oharretan agertzen diren pertsonen %26 baino ez ziren emakumeak (Macharia eta Lee 2017).

GMMPEk detektatu zuen mundu osoan emakume-kazetarietzat kristalezko sabaia badagoela. Telebistako eta irratiko egunkarietako eta albistegietako oharretatik %37a bakarrik ematen dute informazioa emakumeek. Zifra hori ez zen aldatu hamar urtetan. 2000n hasi eta 15 urtera, aldea murriztu egin zen gehiago Latinoamerikan (+% 14), eta, ondoren, Afrikan (+% 11). Gainerako guztiek digitu bakarreko aldaketak izan zituzten, Asian izan ezik, non egoerak ez baitzuen aldaketarik izan.

Monitoreo honen azken zita 2020ko apirilaren 2a zen, baina Covid19aren pandemia zela-eta, irailera atzeratu zen, irailaren 29an egin zen hain zuzen. Nahiz eta emaitzak oraindik publikoak ez izan, datu batzuk aurreratu ditzakegu, adibidez, kristalezko sabaia oraindik existitzen bada ere, telebistan kazetarien %48 emakumeak izan direla aurreratu daiteke, baina emakumeen presentzia aditu-edo protagonista-roletan %30ean gelditu da. Pandemiarekin zerikusia daukaten informazioetan gizon adituen presentzia bi herenekoa da.

2.6.3 Framing edo enkoadrea eta feminismoa

Framingaren inguruko teoria Metodologia-atalean garatzen bada ere, egoki da hemen honetaz zerbait esatea, feminismoarekin zerikusia duen neurrian.

Kazetariak gizartearen errepresentazio sinbolikoak eraikitzen dituzte, eta publikoak errepresentazio horietaz baliatzen dira errealitateari zentzua emateko, hori da hain zuzen interpretazio-markoaren logika Tuchman-en arabera (Tuchman 1978, 194)

Frameak edo enkoadreak edo interpretazio-markoak egitea, ("*to frame*") Entman-entzat (Entman 1993, 52) errealitatearen zati batzuk hautatzea eta komunikazio-testuinguruan nabarmentzea da, horrela arazoaren definizio berezi bat osatzen du, zergatien interpretazio propioa ematen du, ebaluazio moral bat, eta azkenik gaia lantzeko gomendioa eskaintzen du. Entman-ek esaten du *framing* egitea hautatzea eta nabarmentzea dela.

Debra Baker-ek 1998an *The “F” word: how the media frame the Feminism* artikuluan dioenez, AEBko hedabideek ez zioten jaramonik egin Emakumeen Askapen-mugimenduari, eta egunkarietako azaletan agertu zirenean Miss Amerika 1968ko⁸² ospakizunean istiluak egon zirelako izan zen, hala ere feministek ez zuten lortu nahi zuten estaldura:

«Hemen aipatutako iturri gehienek uste dute gaur egungo emakumeen mugimendua, 1960ko hamarkadan abiatu zena, hedabideek batik bat enoratua izan zela, soslai altuko salbuespenezko intzidente batzuk izan ezik, adibidez Miss Amerikako protesta bat 1968an. Prentsak izan zuen estaldura kitzikagarria eta aldi berean etsigarria izango zen emakume goiztiarraren mugimendurako. Alde batetik, gertaera feminista batek albiste-estaldura dezentea izan zuen lehen aldiz izateko. Bestetik, aldiz, estaldura bihurritua eta sentsazionalismoz jantzia izan zen» (1998)⁸³.

“*Braburns*” bakarrik ez, garai horretako feministak (60ko hamarkadan), irudikatzen zuten “*deviant sexually*”, “*man-hater*” edota familiak desegiten zituztela esan ohi zen. Askotan feministaren antonimotzat familia edota familia-emakumea erabiltzen zuten. Beste batzuetan *bubbleheaded* (ganorabako), *amazon* (amazonak), *angries* (haserrekor), *erradikal* edota *hairy* (iletsu) hitzak erabiltzen zituzten. (Credon 1993, Debra Bakerrek aipatua).

Ikertzaile honek mugimendu feministari hedabideek jarritako zenbait etiketa aztertzen ditu, adibidez, emakumeen arteko liskarrak edo *catfights*, showetan eta sari famatuetan ematen den irudia: «*Gai gara baita ere telebistako familiako ama indartsuak identifikatzeko, hobeto baitakite aitari atxikitzea (hurbil dagoela suposatuz) batik bat eta oro har amek hobeto dakitelako, Roseanne, Family Matters (Familia Gora-Beherak)*»⁸⁴.

⁸² Lehiaketa-egunean zenbait feministek bularretakoak kendu eta zaramara bota zituzten protesta gisa. Hori dela eta, “braburner” edo “bularretako erretzaile” etiketa jarri zioten feminismoari (Baker, 1998).

⁸³ Most of the sources cited here believe that the contemporary women's movement, which began in the 1960s, was basically ignored by the mainstream media with the exception of a few high-profile incidents such as a protest of the 1968 Miss America pageant. The coverage that protest received must have been both encouraging and frustrating for early women's movement organizers. On the one hand, a feminist event received major news coverage for the first time. On the other hand, though, that coverage was distorted and sensationalized.

⁸⁴ «*We also are able to identify television families with strong moms who know better than to simply defer to dad (assuming he's around) -- especially since mom usually knows best. Roseanne, Family Matters*»

Alternatiba bat eraiki behar dela uste du Baker-ek, eta horretarako uste du emakumeak ez direla bakarrik komunikazio-tresnez jabetu behar, baizik eta komunikazio-prozesuan parte-hartzaile izan behar direla: «*komunikazio feministak esan nahi du emakumeek komunikazioko lanabesetara irisbidea edukitzea ez ezik komunikazio-prozesuan aktiboki parte hartzea*»⁸⁵. Eta Paula Kamen-en aipu batekin amaitzen du: «*Emakumeak adinarekin erradikalagoak bihurtzeak, izan ere hainbat diskriminazio-motaren kontra borrokatu behar baitira, pentsaraziko luke hedabideetan giro bat sortuko lukeela ikuspuntu eta ezaugarritze-ugaritasunak, feminismoa barne, onartze aldera* (Baker Beck 1998, 111–112)»⁸⁶.

Baker-ek “*F-Word*” erabiltzen du, “*feminismo*” hitz zikina edo bekatuzkoa bihurtu dela adierazteko eta honen arrazoia da, bere ustez, hedabideek emakume aktibo eta asertiboak gorrotatzen dituztela, boterea kolokan jartzen duten emakumeak, hain zuzen. Hamar urte beranduago beste lan baten izenburuan erabilia izan zen “*F-Word*” hori, hitz ezkutua edo bekatuzkoa, “*Reyectiong the F-Word: how feminism and feminists are understood in the newsroom*”. Kasu honetan Luise North-ek Australiako medioetan finkatzen du bere lana, kazetariak nola ulertzen dituzten “*feminismoa*” eta “*feminista*” hitzak aztertzen du. Orokorrean kazetariak feminismoaren kontrako jarrera dutela azaltzen du. Emakume kazetariak adierazi zioten zaila dela jarrera feminista bat izan eta kazetari izatea aldi berean, ez zaiela gustatzen bere kazetari-jarduera feminismoarekin nahastea. Gizonezkoen jarrera ezkorragoa izan zen, batzuen ustez arazo psikologikoa zen feminista izatea: «*Elkarrizketatuek uste dute, modu batera edo bestera, feministek arazo psikologikoak dituztela, emozionalgiak direla, intsegruak, haserrekorrak eta muturrekoak beren ekintzetan eta, maiz, beren politikak “urrutiegia” eramaten dituztela*» (North 2009, 755)⁸⁷.

Schaffer-ek ere antzeko errelatoa eskaintzen digu feminismoaren estigmatizazioaz, esaten duenez medioek etengabe zigortzen dute feminismoa, eta horrek politika feministen eraginkortasuna murrizten du. Bere hitzetan:

⁸⁵ «*feminist communication requires that women not only gain access to the communication tools, but that they actively participate in the communication process*».

⁸⁶ «*that women become more radical with age as they run up against various kinds of discrimination (pp. 111-112), one would hope that they would create a media atmosphere that welcomes greater diversity of viewpoints and characterizations -- including feminism*».

⁸⁷ «*Interviewees variously consider that feminists have psychological problems, are overly emotional, insecure, angry and extreme in their actions and often pushed their politics ‘too far’*»

«Hitz hori 1970eko hamarkadako estereotipo bat, bularretako-erreketak, adierazteko erabili izan da (ezein hiztegitan agertuko ez den arren), gizona gorrotatzen duten galdaragilez jantzitako lesbianak osatutako brigada, eta orain, hitz hori, lerratu da 1990etan feminazi-belaunaldi berri, errebindikatzaille, puritano eta zigortzailea adieraztera» (Schaffer, 1998: 322)⁸⁸.

Terkildsen eta Schnell ikerlariak “How media frames move public opinion: An Analysis of the women’s movement” (1997) ikerketan 1950-1990 tartean AEBko hiru astekarik mugimendu feministari egiten dioten estaldura periodistikoa aztertu zuten. Lan horretan 5 *frame* nagusi identifikatzen dituzte, eta hamarkada bakoitzean zein *frame* nagusitu zen nabarmentzen dute.

Bost *frame* horiek: rol sexualak (Sex roles) feminismoaren markoa (feminism frame) eta antifeminismoaren *framea* (antifeminism frame), batez ere 60ko hamarkadatik aurrera ematen dena, eskubide politikoen markoa (Political rights frame) ekonomiarekin lotutakoa (economic frame) eta genero-rol tradizionalekin lotzen dena (traditional gender roles) dira. *Frame* horiek identifikatu ostean kontrastatu zituzten 141 pertsona helduen talde batean oinarriturik. Hauei lau irakurgai desberdin eman ostean (zeinak aurretik identifikatutako *frame* baten adierazle ziren) galdetegi bat erantzutea galdetzen zieten. Emaitza esperimentalek adierazten dute feminismoaren aurkako eskubide ekonomikoek eta markoek ondorio ekonomiko larriki negatiboak izan zituztela genero-berdintasunarekiko, emakumearen eskubide eta genero-rol ez tradizionalakiko jarrera subjektiboetan, eta “Emakumeei dagozkien gaiak” AEBko gai garrantzitsu gisa aurkezten zituztenen artean. Gainera feminismo-markoak ere efektu negatiboak eragiten ditu, eta aldiz eskubide politikoen markoak, eragin positiboa izan zuen antzeko jarrerari dagokionez. Emaitzak apalagoak izan ziren, generoari dagokionez, markoak erabiltzeko emakumeak baino sentiberatasun gehiago daukaten gizonezkoen artean.

Asley eta Olson-ek *framing*-teknikak erabiltzen dituzte, 1966 eta 1986 urtearte horretan AEBko egunkariak feminismoa nola irudikatu duten aztertzeko. Bere esanetan, mugimendu feministari ez zaio garrantzirik ematen, bigarren mailako mugimendua balitz bezala irudikatua izan zen garai horretan. Legitimazioa ere

⁸⁸ «A word that has been used to invoke (although no dictionary would say so) the 1970s stereotype of bra burning, man hating lesbians who made up the boilermaker suit brigade, and now in the 1990s is aligned with the vindictive, puritanical and punishing new generation of ‘feminazis’»

kendu zieten, eta talde biolento eta desorekatu bezala aditzera eman zuten. Hedabide hauek (NEW YORK TIMES, TIME eta NEWSWEEK aldizkariak) *framing*-teknikak erabili zituzten Mugimendua deslegitimatzeke (emakumeen itxura azpimarratzen, mugimenduaren helburuak eta kontzeptuak azaldu beharrean ekintzetan jartzen zuten begirada, hitz “negatiboak” erabiliz, komatxoak erabiltzen zituzten, ez adierazpenak azaltzeko baizik eta hizkuntza markatzeko...) (Ashley eta Olson 1998).

Bi irakasle hauek Mugimendu Feministaren inguruko berriak non agertzen ziren aztertu zuten. NEW YORK TIMESen, adibidez, berrien %11 bakarrik agertzen ziren azalean, eta gehienak giza eskubideen inguruko berriak ziren. Artikulu gehienak garrantzi gabeko ataletan (Life section, other) argitaratzen ziren. Kazetarien generoari zegokionez, artikuluetako %53k ez zeukan sinadurarik, eta sinatuta agertzen zirenen artean erdiak baino gehiagok emakumeen sinadura zeramaten. Honek bi inplikazio zekarren, alde batetik gizonaen ardura beti gai “pisutsuak” izan direla kontuan hartuta, feminismoari garrantzia kentzen ziola, bestetik emakumeek ez zuten idazgelen %50a osatzen, beraz, oso bideratuta zegoela gaien gaineko ardura.

Feminismoa deslegitimatzeke komatxoan erabilera aipagarria egiten da. “Womens’s movement” eta “liberation” hitzak komatxoan artean jartzen dira. Honek denotatzen du hitz horiek ez daukatela seriotasunik eta istorioak edota pasadizoak direla, ez benetako gertakizun garrantzitsuak. Erabiltzen duten beste teknika bat emakumeen itxurak dira (itsusiak, gizenak, orrazkera, jantziak, feminitaterik gabekoak..., adibide gehiegi).

Parte-hartzaileen kopuruak gutxituta agertzen dira, eta askotan beraien arteko iritzi kontrajarriak nabarmentzen dira, disentsioa azpimarratuz. Bortizkeria eta biolentzia ere nabarmenduta agertuko dira (eta bularretakoak erretzeari garrantzi berezia ematen zaio).

Albiste-kantitateari begiratuta ere, urteekin gero eta artikulu gutxiago agertzen dira egunkari hauetan.

Metodologia bera erabili zuten Ann Lind eta Collen Salo-k 2002an AEBko lau telebista-kate garrantzitsuetako albistegiek egiten zuten feminismoaren eta emakume feministen estalduraren azterketa egiteko. 1993 eta 1995eko albistegietan erabilitako 135 milioi hitz aztertu zituzten, 35.000 ordu inguru, software programa batek lagunduta. “Emakume”, “emakumeek”, “feminismo”,

“feminista” eta “feministak” hitzak eta hauekin lotuta 7 hitzetako kateak aztertu zituzten. Lehenengo aurkikuntza tamalgarria izan zen, “emakume” edota “emakumeek” hitzak zeuzkaten berriek soilik laginaren %0,85a betetzen zuten (135 miloi hitzetatik %1,15) eta Feminismoarekin lotutakoak %0,02 ziren (23.139 hitz). Bigarren aurkikuntza izan zen Feminismoaz hitz egiterakoan telebista-kate hauek sei *frame* desberdin erabiltzen zituztela. Hauexek:

Deabrutzearen markoa (Demonization Frame): Hitz hauekin lotzen direnean: crazy, amuck (ero, zoro), ill-tempered (petral, zipotz, hisikor, umore txarreko, gogo txarreko) ugly (itsusi), man-hating (gizonezkoei gorrotoa), Family wrecking (familia apurtzailea), hairy-legged (hanka iletsuak), bra-burning (bularretakoak erre), radical lesbians (lesbiana erradikalak), raging (haserre, amorratu).

- Deabrutzearen markoa (Demonization Frame): Hitz hauekin lotzen direnean: crazy, amuck (ero, zoro), ill-tempered (petral, zipotz, hisikor, umore txarreko, gogo txarreko) ugly (itsusi), man-hating (gizonezkoei gorrotoa), Family wrecking (familia apurtzailea), hairy-legged (hanka iletsuak), bra-burning (bularretakoak erre), radical lesbians (lesbiana erradikalak), raging (haserre, amorratu).
- Tribializazioa edo ahultzearena, norbanakoaren atributuak agertzen zirenean (itxurarekin lotutakoak, senitartekotasunarekin, estilo pertsonalaren ingurukoak, nolakotasun pertsonalen inguruan).
- Eskubideen aldarrikapenarekin lotutako *frameak*, eskubide zibil, ekonomiko, ugalketa eskubideak, biolentziaren kontrako aldarrikapenak. Erabilitako hitzak: rights (eskubideak), work (lana), Employ (enplegua), sexism (sexismoa), equality (berdintasuna), violence (biolentzia), discrimination (diskriminazioa), reproduction (ugalketa)...
- Laugarrena biktimizazioaren *framea* deitu zuten, non emakumeak, feministak barne, zaugarri eta ahulak bailiren irudikatzen diren. Kasu honetan erabilitako hitzak weakness (ahultasuna), crime (krimena), vulnerability (bulnerableak), mental illness (gaixotasun mentala) fear (izua)... dira .
- *Agency frame* edo erakunde *framea*: Kasu honetan elkarte, botere gune, instituzio eta abarrez ari direnean agertzen da Aktibitate politiko instituzionala. Honi lotzen zaizkien hitzak halakoak dira: power (boterea), strong (gogorra), Respect (errespetua), leader (liderra), advocate (abokatua), activis (aktibista, militantea), voice (ahotsa), victory, won (irabazlea).
- Azken *frame*-gaia kokapena da: non kokatzen dira emakumeak eta feminismoaren ekintzak eta ideiak? Bi ikertzaile hauek 10 gune identifikatu zituzten:
 - Etxea (altzariak, ezkontzak, gonbidatuak, sukaldea...)
 - Toki geografikoak: hiri zein herri edo estatu-izenak
 - Osasuna

- Hedabideak, artea, kultura
- Lan-eremua
- Legeak, justizia
- Hezkuntza
- Politika
- Kirolak eta aisia
- Erlijioa

Rhode-k bost *frame* identifikatzen ditu mugimendu feministaren inguruko albisteetan, marginalizazioaren markoa (estaldura gutxiegi medioetan), pertsonalizazioa eta trivializazioa (berrietan emakumeen itxura fisikoaz hitz egiten da, baina ez emakumeen mezuez ez eta ideia politikoez), Feminismoaren polarizazioaz (bakarrik muturreko jarrerari buruz hitz egiten da), Feminismoa eta feministak deabruak balirien agertuz eta azkena, eta positiboena dena, mugimenduaren auto-transformazioaz hitz egiten duena (Rhode 1995).

Carolyn Bronstein (Bronstein 2005) ikerlariak feminismoaren bigarren eta hirugarren uhinen arteko desberdintasunak bilatu zituen *framearen* aldetik, hau da, ia *frame*-aldaketarik zegoen bi olatuei buruz berri ematerakoan. Bost *frame* klasikoz gain, deabruarena, pertsonalizazioarena eta trivializazioarena, eskubideena, biktimena eta erakundetzearena⁸⁹ seigarren *frame* bat ere erabili zuen "Feminismo txikia" deitu zuena (*feminisme lite*) non gazte eta fribolotzat, umekeria gisa irudikatzen den hirugarren olatua.

2.6.4 Emakumeak enpresa periodistikoan: lanbidea, profesionalizazioa

Beste urrats bat emanda, berrien ekoizpen-prozesuak ikertuak izan dira, Joana Gallego-ren zuzendaritzapean, "*La prensa por dentro. Producción Informativa y transmisión de estereotipos de género*" liburuan. Ikerlariak erredakzio-geletan sartu eta eguneroko berrien hautaketa, aurreikusitako gaien hautaketa

⁸⁹ The five frames were the demonization frame, describing femi-nists with pejorative labels, or as social deviants; the personalization and trivialization frame, focusing attention on personal appearance and style as a means of diminishing a woman's credibility and her message; the goals and rights frame, focusing attention on desired outcomes, such as wage equity, abortion rights, or legislation such as the Equal Rights Amendment; the victimization frame, presenting feminists as weak or helpless, or as victims of violence; and the agency frame, presenting fem-inists as powerful and self-actualized. Dubbed "Femi-nism Lite," it portrayed third wave feminists and feminism as conven-tionally feminine and girlish in appearance and behavior, and movement activity as frivolous or juvenile

generoaren aldagaiaren arabera aztertu zituzten. Eduki-analisi eta zuzeneko behaketan oinarritu ziren genero-estereotipoak nola transmititzen diren ikusteko. 1998ko ekainetik 1999ko maiatzera bitartean 4 ikertzaile LA VANGUARDIA, EL PAÍS, EL PERIÓDICO DE CATALUNYA eta Bartzelonako EFE AGENTZIAREN idazgeletan egon ziren, bertan eguneroko lana behatzeko. Erredakzio Kontseiluaren erabakiak aztertu zituzten, eta bigarrenik ohiko kazetaritza-lanak edozein gaien aurrean eta generoarekin zerikusia zeukaten gaien aurrean. Osotara, 124 lan-egun behatu zituzten egunkarien idazgeletan. Gallego-k ondorioztatzen du genero-gaiak kazetaritza-diskurtsoetik kanpo gelditzen direla: *“genero-arazoari dagokionez kazetaritza-diskurtsoan ageri den desubikazio globala, ezjakintasun informatiboaren, indiferentziaren edota generoen existentziari buruzko diferentzien ukazioa”*, hau da, ezjakintasunagatik, indiferentziagatik edo zuzenago, ukatuztik datorrela desberdintasun horien desagerpena. Bestalde, profesionalen ideologiak ere, gizartean dagoen kosmobisio maskulino eta androzentrikoa delarik, genero-ikuspegia bazterrean uzten du. Beste maila batean, enpresen helburu edo planteamendu konkretuek eta existitzen den kultura periodistikoak eta lan-prozedurek ez dituzte kontuan hartzen gizon-emakumeen arteko diferentziak (Gallego-2002, 414).

Gallego-k uste du genero-ikuspegia kazetaritza-lanean integratu beharrezko gaia dela, generoen arteko desberdintasunak eta hauek sortzen dituzten kontradikzioak ekiditeko.

Ikertzaile desberdinek ikertu dute emakume zuzendarien egoera hedabideetan, eta emaitza guztiek adierazten digute emakume gutxi daudela, hedabideetako zuzendaritza-taldeetan gizonak izan dira nagusi orain arte, eta aitzakia hori erabili izan da hauen begirada androzentrista azaltzeko. Emakumeak botere-gunetik kanpo egoteak beraien errealitatearen isla baztertu du, beste hainbat gutxiengoetakoak aparte utzi duten bezala. Emakumeek zuzendaritza-postuetan egoteak, eta batez ere erredakzio-kontseiluetan, ildo informatzailearen inguruko erabakiak hartzen diren gunean, ekar dezake (edo ez) berriak emateko modu ezberdin bat, edo hizkuntzaren erabilpen berri bat, baita ere gaien hautaketan eta hauen barne-antolaketan.

Emakume asko ailegatu dira azken urteotan lan-merkatu baina, aldiz, ez dira erantzukizun-postuetara heldu portzentaje berdinean. Gai honi buruz egin diren ikerketek bi bide nagusi hartu dituzte, alde batetik sozializazio-faktoreei

dagozkienak eta bestetik antolakuntza-faktoreak. Gaur egun psikologiaren ikuspegitik begiratuta ez da desberdintasun handirik ikusten gizonen eta emakumeen artean zuzendari-postuaren ardurak betetzeko, baina amatasunaren rola eta familia-ardurak alde batetik eta erakundeen antolaketa-kulturak bestetik baldintzatu egiten dute emakumearen parte-hartzea ardura-karguetan. Honi aurre egiteko neurri desberdinak hartu behar dira, autore batzuen ustez. Etxeko lanak eta lan profesionala bateragarri egin eta emakumeak zuzendaritzaren kompetentzietan trebatzea eta lan-merkatua malgutzea, adibidez (Chambers et al. 2004, 83)-

Ana Jorge Alonso-k emakumeen egoera komunikabideetan aztertu zuen CANAL SUR TV eredia aitzakiatzat hartuta (Jorge Alonso 2004). Feminismoaren ikuspegitik emakumearen irudia eta presentzia telebista publikoetan aztertzen du. Azterketa bi planotan dago eginda, alde batetik CANAL SUR TVren langilegoa, zenbat gizon eta zenbat emakume dauden lanpostu bakoitzeko, botere-maila, bakoitzaren kokapena telebista-kanalaren organigraman, eta bestetik programazioa aztertzen du, programazioa oinarritzat hartuta.

Beirazko sabaia edo *“the glass ceiling”* emakumeek aurkitzen duten muga ikusezina da, zeinak oztopatzen dien ardurazko postuetara heltzea. Muga honen arrazoiak ugariak dira, kulturalak, ideologikoak edo barne-antolakuntzakoak, eta gaindiezinak dira emakumeentzat, oso zaila egiten zaie maila ertaineko postuetatik zuzendaritza-taldeetara urratsa ematea.

Kontzeptu hau 1986an agertu zen WALL STREET JOURNAL egunkariko iritzi- zutabe batean (Rush et al. 2005). AEBko Lan Departamentuak esaten du emakumeek eta gutxiengo adituek beraien lanpostuetan aurrera egiten uzten ez diena muga artifizio bat dela, zeinak oztopatzen dien ezaguera eta aditu bihurtzea, eta hortaz, kredibilitatea eta fama edo irudi ona izatea zein karrera profesionalean aurrera egitea.

1980an Estatu Batuetako ikertzaile batzuek R3 hipotesia edo *“Ratio of Recurrent and Reinforced Residuum”* hipotesia formulatu zuten. Hipotesi honen arabera, emakumeen presentzia hedabide-enpresetan eta unibertsitatean $\frac{1}{4}$ eta $\frac{1}{3}$ artekoa zen; gizonezkoena, berriz, $\frac{2}{3}$ edo $\frac{3}{4}$ ekoa. 30 urte beranduago ratio hau mantendu egiten da bi esparru haietan (Rush et al. 2004). Rush-ek 1960ko hamarkadan emakumeen estatusa eta rolak Estatu Batuetako kazetaritzan aztertu zuen lehendabizi, eta honek aukera ematen du egoeraren azterketa egitea

denboran zehar. 20 urte beranduago egoeraren berrikuspen bat egin zuenean konturatu zen emakumezkoen presentzia ratio jakin batzuetatik harago ez zela mugitzen, kazetaritza fakultateetan %25-33 emakumeak ziren, eta gizonezkoak %66-75. Emakumeen presentzia bizitza akademikoan zein enpresan arau ez idatzi baten pean zegoen, eta arau honen aitzakiaz emakumeek lanpostuen hierarkian beheko postuetara mugatuta daude, soldata eskasekoak eta gizonezkoek nahi ez dituztenak dira. Rush-ek emakumearen egoera aztertzen duten zenbait lanen emaitzen konparazioa egiten du, bere hipotesia, R3 hipotesia alegia, sustatzeko.

1970ren inguruan, Estatu Batuetako telebista-kateetako buruen %25 emakumeak ziren, eta prentsa idatzietako langileagoaren %36 (Gallagher eta Euler 1995). Antzeko ikerketak munduko beste lurraldeetan ere egin dira, emaitza berberekin. Margaret Gallagher-ek 1995ean azterketa sakon bat burutu zuen mundu-mailan, *An unfinished Story*, UNESCOk eskatuta (Rush et al. 2005, 242). 43 herrialdetako 239 hedabide-enpresetan azterketa sakona egin eta 1990-95 urtealdiko ikerketan R3 hipotesia berresten zela ikusi zen. Aldaketak Baltikoko herrietan, Herrialde Nordikoetan eta Ekialdeko Europan ikusten ziren, hau da. ikertzaile hauentzat balizko faktore bat demokrazia kapitalista izan daiteke emakumezkoen berdintasuna lortzeko oztopo bat.

Margaret Gallagher-ek (2001) esaten du AEBko emakumeen zuzendaritza-taldeetako parte-hartzea 1977tik handituz joan dela, baina oso portzentaje txikietan, %1 urtean hain zuzen. Nahiz eta eskoletan eta unibertsitateetan emakumeak nagusi izan, presentzia hori ez da gero botere-piramidearen goiko ataletan islatzen. Egoera berdina ematen da Europako zenbait herrialdetan ikerketa honen arabera. Emakumeei egokitzen zaizkien gaiak (gizartea, egunerokotasuna, kultura, "giza intereseko" gaiak...) bigarren mailakoak dira, eta horrek beraien promozioetan eragin handia dauka. Emakume kazetariak bigarren mailako gai horiek jorratzean ez daukate pertsona ospetsuekin harremanak sortzeko betarik, eta horren ondorioz beraien kazetaritza-lanen protagonistak pertsona anonimoak eta distira gabekoak izaten dira, eta beraz haien lan-ibilbidean gora egitea zailagoa izaten da. Askotan kazetari-lan hori ez da emakumeek hautatua, baizik eta enpresa periodistikoak horretara behartzen duelako.

Gallagher-ek (Weaver eta Wilhoit 1996) gizonezkoen jarreretan ere oztopo handi bat ikusten du. Gizonen arteko anaitasunezko harreman (ingelesez *old boys*

network) horietan erabaki asko hartzen dira, eta hauetan emakumeen isla txikia izan ohi da.

Munduko kazetarien egoera aztertzeke asmotan *The Global Journalist: News People Around the World* argitaratu zuen Indiana Unibertsitateko irakaslea den David H. Weaver-ek (1998, 457–458). Kazetarien ezaugarriak, profilak, lan-baldintzak eta rolak aztertu ziren lan zabal eta sakon batean, eta 20.000 kazetarien erantzunak jaso ziren egindako inkesta honetan. Inkesta mundu-mailakoa izan zen, Europa, Australia, Amerika eta Afrikako zenbait herrialdetako kazetariak parte hartu zuten, osotara 21 desberdinetakoak. 1986 eta 1996 bitartean egin ziren ikerketa hauek. Weaver-ek uste zuen kazetarien ideiak eta aurrekariak harreman zuzena daukatela kazetarien lanarekin. Galdetegiaren atal batean kazetarien generoa lantzen da, eta honekin batera adina, ikasketak, egoera zibila, lanaldia...

Ikerketa honen arabera, R3 hipotesia baieztatzen da mundu osoan. Australian, Txinan, Hong Kongen, edota Hungarian emakumezkoen portzentajea idazgeletan %33koa zen. Are gehiago, Estatu Espainiarrean, Britainia Handian edo Algerian portzentajea 25ekoa zen, Kanadan 28koa eta Korean %14koa bakarrik. Taularen goiko partean Pazifikoko irlak (%36) Alemania (%41) zeuden, baita Brasil eta Txile 42 eta 40ko portzentajearekin (Arnold eta Nesbitt 2006, 52).

Emakumea egunkarietako zuzendari-paperean aztertzen duen “*Media Management Center*” Northwestern Unibertsitateko Institutukoak⁹⁰ hiru ikerketa nagusi burutu zituen 2000. eta 2003. urteen tartean. Ikerketa hauen ardatzak bi ziren: zergatik emakumeak ez diren zuzendaritza-postuetara ailegatzen eta egoera hau ekiditeko proposamenak. 2006an egindako kongresuetako konklusioetako batean esaten dute egunkarien etorkizuna liderren pentsamenduaren aldaketan oinarritzen dela, gozotasun-txokotik atera behar direla eta aldaketak sartu, batzuetan porrotak onartu, eta gauza berriak egiten saiatu behar dela. Hauen artean, emakumeei erantzukizunak eta boterea ematea, begi berriekin begiratuko dutelakoan (Weaver eta Wu 1998, 195).

Europara etorrita, kazetari frantziarren kasuan emakume kazetarien proportzioa %20koa zen, aldizkari eta kable bidezko komunikabideetakoak altuagoa bazen ere (%29koa inguruan) egunkarietan %16raino jaisten zen. Telebistetan, lau langiletatik bat emakumea zen (Weaver eta Wu 1998, 302).

⁹⁰ <http://www.mediamanagementcenter.org/>

Adinari erreparatuz gizonezkoak baino lau urte gazteagoak ziren (41-37 urte) emakumezkoak.

Estatu espainolean 600 inkesta banatu ziren 1991n. irrati, prentsa idatzi, eta telebistako langileen artean. Kasu honetan emakumeen presentzia hedabideetan %25ekoa zen, eta hauen artean 20 eta 30 urte zituztenak ziren nagusi (%47); hau da, lanean Franco hil ondoren hasi zirenak. 50 eta 60 urteartean ez zegoen emakume kazetaririk inkesta honen arabera.

Ikasketei dagokionez, emakume kazetari hauek guztiak ikasketa unibertsitarioak zeuzkaten, aldiz gizonezkoen artean % 13k ez zituen ikasketak burutu (1984).

Fagoaga eta Sacanella-ren (Fagoaga eta Secanella Lizano 1984) konklusioetako bat izan zen prentsa idatzian emakume gutxi zeudela lanean, eta zuzendaritza-taldeetan apenas zeudela, baina garai haietan ere kazetaritzan emakume gutxik egiten zuten lan. Joana Gallego-k 1994an *“El sostre de vidre. Situació socioprofesional de les dones periodistes a Catalunya”* publikatu zuen. Bertan argitzen zuen, 1992an, emakume kazetarien presentzia hedabide katalanetan %29,9 koa zela (López Díez 2002).

Díez-ek generoen errepresentazioaren inguruan beste ikerketa batzuk burutu ditu, eta 1999an estatu espainoleko egunkari nagusietako zuzendaritza-taldeetan %14 emakume zeuden, baina zuzendariak eta zuzendariordeak kontuan hartuta, bakarrik bi emakume (%4) ikusten ditu (López Díez 2002). Aldizkarietan ere emakumeen presentzia, nahiz eta eguneroko prentsan baino handiagoa izan, oraindik txikia dela, eta batez ere aldizkari espezializatuetan daudela emakumeak. Irratian eta telebistan ere pautak berdinak mantentzen zirela, lehiaketetan izan ezik. Aldiz, urte horretako kazetaritza-ikasleen artean emakumeak nagusi ziren (%67, 2), eta horietatik %70ek 7 baino nota altuagoa lortu zuten. Baina unibertsitateko emakume ikasleen lan-tasa %62koa zen momentu horretan, eta gizonena %72koa, hamar puntu gehiagokoa, alegia (Humanes 1998).

1995eko apirilaren eta maiatzaren bitartean Madrileko komunitatean prentsa idatzi, irrati, telebista eta agentzietako 401 kazetariri beste inkesta bat pasa zitzaien. Galdetegian kazetariei kazetaritzari buruzko iritzia eskatzen zitzaien, baita eginkizun periodistikoaren definizioa eta nola eramaten zuten aurrera beren lana. Etika profesionalari buruzko galderak ere egin zitzaizkien. Baina lan honetan ez da kontuan hartzen generoaren aldagaia, egunkarietako idazgelen plantilak aztertzen

dituzte, kazetarien soslaiak gazteak (40 urte baino gutxiak %79,3 dira), unibertsitarioak, eta batez ere Informazio-zientzietako lizentziatuak (% 85), baina deigarria da emakumeen eta gizonen arteko proportzioak ez aztertzea (de Pablos eta Tarifa 2003).

Estatu espainoleko kazetarien profil soziodemografikoa egin zuen García de Gortazar-ek (2000), 660 kazetari kargudunei inkesta bat pasatuz. Emaitzetan ikus daiteke gizon helduen mundua zela kazetaritza garai hartan: %81,3 gizonak ziren, eta hauen artean 35-54 urte artekoak %75,8.

Pablos eta Tapias-ek (2003) emakume kazetarien familiaren eta lanaren kontziliazioa zailtzen dituzten arrazoiak aztertzen dituzte, eta emakumeek amatasuna eta lan-karrera adosteko zailtasun handiak ikusten dutela frogatzen dute.

2004an estatu espainolean 113 emakume zeuden hedabide desberdinetan zuzendari: 17 egunkariak zuzentzen, 88 aldizkariko zuzendariak ziren, 13 irrati-zuzendariak eta 5 telebista kateen zuzendariak, Mónica Antequera ikertzaileak (2005) tesian jasotzen duenez.

Isabel Menéndez Menéndez-ek (2009), estatu espainoleko hedabide-entresatan dauden emakumeen egoera aztertu zuen. Bertan 129 egunkari ezberdinen zuzendaritza-taldeak aztertu ziren eta erabakitze-postuetako emakume-kopurua %14koa zen, eta hori sailburuak kontuan hartu zirelako.

Andaluziako hedabideetan ardura-postuak dituzten emakumeen egoerari buruzko azterketa egin zen "*Andalucía en e-Igualdad*" proiektuaren barruan (Nuñez Dominguez eta Loscertales Abril 2009). Ikerketa honen arabera Andaluziako hedabideetako zuzendari-taldeetan emakumeak %14,6 dira, eta aldiz gizonezkoak %85,3. Canal Sur telebistan gizonen portzentajea %88koa da. Ikerketan "*Beirazko Sabaia*" apurtu duten emakume horiekin azterketa kualitatiboa egiten da, elkarrizketen bitartez. Egileek uste dute beirazko sabaiaren arrazoi nagusietako bat dela, pertsonalaren hautaketaz arduratzen diren lagunek orain arte ondo atera dena errepikatzen jo ohi dutela, hau da, orain arte, gizonezkoak kontratatu dituzte ardura-postuetarako eta ondo atera zaie, beraz ez dute hori aldatzeko arrazoirik ikusten. Beste kontzeptu bat aipatzen dute halere: "*Porlenezko Sabaia*"; emakumeek jartzen dituzten aitzakia/arrazoiak «aginte postuei uko egiteko, hala nola exigentzia-maila handia, familia eta lana kontziliatzeko beharra, denbora-falta, etab. Bigarren "sabai" hau estereotipo

baten emaitza da: «*emakumeak mundu publikora irten daitezke (ordainpeko lana eduki dezakete) harik eta mundu pribatua, hau da euren dena, naturalki dagokiena, baztertzen ez duten bitartean*» esaten dute egileek. Emakume batzuek beraien burua babesteko ez dituzte erantzukizun handiko lanpostuetara promozionatzen, ez beldurraren edo inkompetentziaren aitzakiaz baizik eta larregizko arduraren eraginez: beraien lana ondo egin nahi dute (ugaltze- eta ekoizle-lanak) eta biak batera ondo egitea oso konplikatua izango delakoan, lan profesionaleko asmoak alde batetara uzten dituzte. Nuria Chinchilla-k “*Centro Internacional Trabajo y Familia*” (IESE)ko zuzendariak El País egunkarian⁹¹ esaten zuen joera hau gizon gazteengan ere ematen ari dela:

«Enpresek ordainduko dute emakumeek ipintzen duten porlanezko sabai hori, gaur egun gizona gazte batzuek ere ipintzen dutena, izan ere ordutegi haiek nahi ez dituztelako, azken finean lan egiteko makina hutsak diren direktiboak izango baitira, enplegatua pertsona gisa ikusi ordez lan egiteko beste makinatzat hartuko baitituzte. Zer lortzen dute? Jende desmotibatua, errea eta gutxiago konprometitua. Horregatik dago Espainia produktibitatearen azken tokian, lanordu asko egin arren» (2007).

Lan-ibilbideak markatzen duten beste faktore batzuk egoera zibila, adina eta ugaltze-egoerak dira ikerlari hauen ustetan, zuzendari direnen artean emakume dibortziatu edo ezkongabeak gehiengoa dira, aldiz gizonen artean datu hauek ez daude erlazionaturik. Berriz ere esfera pribatua eta publikoan egin beharreko lanen kontziliazio konplexua ikusten da.

Diana Rivero-k EAEko emakume kazetarien egoera profesionala aztertu zuen 2012an defendatutako tesian. Azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa oinarritu zen ikerketa hau aurrera eramateko. Ikerlari honen zenbakien arabera, hedabideetako zuzendaritza-karguetan daudenen artean %76,9 gizonak dira, estatu-mailako hedabideen lurralde-zuzendaritzak eta maila ertaineko zuzendaritza-

⁹¹ El País, 2007-05-22,
http://elpais.com/diario/2007/05/22/sociedad/1179784806_850215.html

postutakoak zenbatuta. Maila ertaineko zuzendaritza-taldeei dagokionez ere gizonak nagusi dira, %67,4ko portzentajearekin, eta idazgeletan emakumeak %37,3 dira; beraz, oso zaila egingo zaie hierarkiaren goiko postuetara heltzea, beheko postuetan hain gutxi izanda.

Hedabide-tipoari erreparatuta, ikertzaile honek baieztatzen du prentsa dela botere-maila guztietan hedabiderik maskulinizatuena, ikertutako egunkari guztiek gizon batek gidatzen baitu, eta maila ertaineko postuetan heren bat baino gutxiago dira emakumeak (%29). Idazgeletan ere emakumeak gutxienak dira %36,5. Aldiz, irrati eta telebista orekatuagoak dira alde honetan 40/60ko portzentajeak ikusten baitira. Irratiaren kasuan, adibidez, goi-kargudunak emakumeak dira (%60) eta idazgelan %51 ere (hedabide txikiak izanda, ez dago maila ertaineko kargudunik). Hala ere datu hauek tentuz begiratu behar ditugu, jakinda aztertutako irrati eta telebista gehien kasuan lurralde-ordezkaritza aztertu dela, eta hedabide hauen organigrama nagusia estatu-mailan %100 gizonezkoek betetzen dutela.

Datu hauek errealitate akademikoa kontrastatzen dute, UPV/EHUko kazetaritza lizentziaturako ikasleen artean 1999-2009 hamarkadan emakumeak nagusi izan ziren (%67) eta ikasturteko noten altuen rankinean emakumeak nagusi dira (%87) (Rivero Santamarina 2012, 204–207).

3. IKER GALDERAK ETA

HIPOTESIAK

Martxoaren 8aren inguruan Euskal Herriko egunkariak egiten duten betedura edo estaldura periodistikoa hainbat alorretatik iker liteke eta, ondorioz, hainbat hipotesi eta ikergaldera mota ezarri.

Ikerketa honetan, bi helburu nagusi ezarri dira: batetik, Hego Euskal Herriko prentsak feminismoari, M8ko gertakizunaren esparruan, emandako trataera aztertzea; eta, bestetik, hedabideen artean, gai honetan, dauden desberdintasunak azaleratzea. Horretarako hainbat hipotesi eta ikergaldera planteatu dira.

3.1 Hipotesiak

1. Hipotesia.- Egunkariaren ildo ideologiko propioak feminismoaren interpretazio desberdina sorrarazten du eta martxoaren 8aren betedura periodistikoan eragin zuzena du. Honen harira, hipotetizatzen dugu prentsa kontserbadoreak arreta periodistiko txikiagoa eta emakumeen irudi tradizionalagoa ematen duela, prentsa progresistak baino.

2. Hipotesia: Emakunde, Emakumearen Euskal Institutua, sortu zenetik (1988) "Berdintasunaren" konzeptuaren instituzionalizazioak eragina izan du prentsak eraiki duen diskurtsoan eta interpretazio-markoan edo *framing*-ean.

3. Hipotesia: Nahiz eta "martxoaren 8a" gertakizuna feminismoaren magaletik jaio eta hazi, Hego Euskal Herriko egunkariak ez diote zentraltasun hori ematen feminismoari.

3.2 Martxoaren 8a: interpretazio-markoak eta diskurtsoak

Feminismoa eta kazetaritza binomioaren baitan, Martxoaren 8a egun berezia da. Data honetan emakumeen presentzia hedabideetako informazioetan nabarmen handitzen da eta honek aukera ematen du agenda-ezarpenean izan

dezakeen eragina aztertzeko. Martxoaren 8an emakumeek protagonismoa hartzen dute eta ia mundu guztiko hedabideek espazio bat dedikatzen diete. Beraz gure lehenengo ikergalderak ardatz honetan kokatzen ditugu.

- Zein izan da agenda-ezarpenaren edo agenda-settingaren eragina martxoaren 8aren inguruan Euskal Herriko prentsan? Urtez urte zeintzuk izan dira egunkariak jorratu dituzten gai nagusiak aste horretan? Nola txertatu da martxoaren 8a agenda horretan?
- Zeintzuk izan dira feminismoaren interpretazio-marko nagusiak euskal prentsan modu orokorrean?
- Interpretazio-marko edo enkoadre horiek modu episodiko edo gertaera periodistikoan ala modu tematiko eta analitikoan koka daitezke?
- Zer-nolako enkoadreak erabili dira emakumez eta feminismoaz hitz egiteko?

3.3 Eduki, protagonista eta autoreen azterketa M8an

Egun hauetan, hedabideetako orrialdeetan betedura edo estaldura periodistiko nabarmena dauka M8ak. Ondorioz, bai edukien, bai edukien protagonisten eta bai eduki horien autoreen ikerketa burutu da.

4. METODOLOGIA

4.1 Metodoari sarrera

Doktore-tesi honetan erabiliko diren metodoak hiru dira nagusiki: eduki-analisia, *agenda setting*-aren azterketa kualitatiboa eta interpretazio-markoak edo enkoadreak eraikitzea (*framing* ere deitua ingelesez).

- **Agenda-ezarpenaren metodoa:** ikertutako urte bakoitzean modu nabarmen edo esanguratsuan agertu diren auziak, aferak edo gaiak bakandu eta deduzituko dira, modu kualitatiboan. Honen bitartez, ikertutako urte guztien arteko kronika, errelato edo sintesi kualitatiboa egingo da.
- **Eduki-analisiaren metodoa erabiliz,** ikertutako egunkariak martxoaren 8an argitaratutako informazioaren eta iritzien azterketa egingo da (idatzi nahiz irudizkoa). Horretarako, hainbat ataletan banatu da lana:
 1. *Identifikazioa:* informazioa identifikatzeko modulua.
 2. *Egilea:* informazio-egilearen atala.
 3. *Gaia:* informazio idatziaren gaia zertaz den generoaren ikuspegitik. Hiru kategoria-sistema erabili dira (kokapena eta gaia bi mailatan)
 4. *Irudiak:* Nolako irudiak erabili diren, direla argazkiak, grafikoak, zein infografiak edota binetak. Hauen azterketan zenbait aldagai erabili dira, tamaina, irudien protagonistak, irudien dinamika eta gorputzaren tratamendua irudi horietan.
 5. *Protagonistak:* nor diren informazioan agertzen diren protagonistak eta parte-hartzaileak. Horien inguruan hainbat aldagai erabili dira: identifikazioa, generoa, adina, familiako loturak, lanbidea, protagonistaren papera informazioan (bi mailatan aztertua), deskribapen fisiko edo/eta psikologikoa, eta ikasketak.
- **Interpretazio-markoen edo enkoadreen bidez (*framing*),** hiru esparru ikertuko dira:
 1. **Tematikoa edo episodikoa:** Enkoadre-mota edukien orokortasunaren arabera, kazetaritzaren ikuspegitik ikusita: tematikoa edo episodikoa.
 2. **Generoaren interpretazio-markoa:** hemen ikertuko da zein den emakumeen kontzeptualizazioa martxoaren 8an argitaratutako egunkarietan, sei kategoriaren arabera: deabruarena, tribalizazioa,

eskubide aldarrikapena, rol tradizionala⁹², politikan esku-hartzea eta agenda.

3. **Feminismoaren interpretazio-markoa:** hemen aztertuko da martxoaren 8ari buruzko edukietan zer kontzeptu edo teoria nagusitzen den. Honetarako, lau kategoria aplikatu dira, nazioarteko bibliografian aurretik erabiliak: feminismoa, antifeminismoa, parekidetasunaren markoa eta genero-rol tradizionalen mantentzea.

4.2 Agenda-ezarpena (agenda setting)

«Audientziarentzako agenda-ezarpenak» duen oinarria hau da, alegia, medioek errealitateko arazo batzuei garrantzia emateko eta aukeratzeko duten gaitasuna eta, ondorioz, audientziak ere garrantzitsutzat hartzea. Azken finean, funtzio honen arabera medioek adierazten diote audientziari zer den garrantzitsua errealitatean. Bereizi beharrekoak dira, beraz audientziaren agenda edo *audience agenda setting* delakoa, eta medioen agenda finkatzea, hau da, *media's agenda setting* izenekoa.

Modu sistematikoan audientziaren agenda finkatzearen teoria aurkezteko meritua Maxwell McCombs eta Donald L. Shaw (1972) autoreena izan da, zeintzuek AEBko presidentziarako hauteskundeak aztertu zituzten 1968an Chapel Hill-en (North Carolina, AEB); kanpaina hartan medioek landu zituzten gaiak eta jendeak garrantzizkotzat jotzen zituenak konparatu zituzten.

Agendaren finkapenari buruzko ikerketa askotan komunikabideei buruz gauzatutako Cohen-ek idatzitako aipamen klasikoa aipatzen da (1963, 13):

«Gehienetan medioek ez dute arrakastarik lortzen jendeari zer pentsatu behar duten azaltzeko, baina izugarri arrakastatsiak izan ohi dira zeri buruz pentsatu behar duten azaltzeko».

Audientziaren agenda-ezartzeari buruzko teoria aurkeztu zenetik eztabaida zabala ireki da akademikoen artean: hau da, medioek audientziaren agenda finkatzean bakarrik ote duten efektua, «audientziak zertan pentsatzen duen», edo

⁹² Biktimizazioa erabili zuten Lind eta salok, baina guk pizka bat zabaldu dugu kontzeptua, eta emakumeek gizartean ohiko rol tradizionalak sailkatu ditugu honetan, emakumeen egoera ezbaikan jartzen ez duen mezua

agendari buruzko gaietan nola pentsatu behar ote duten seinalatzean ere bai, «nola pentsatzen duen audientziak agendako gaiez». Autore batzuek urrutiago jo, eta esan dute, *audience agenda-setting* delakoa lausoegia dela kontzeptualizazio eskasa duelako. Noam Chomsky-k horrela definitu zuen *agenda setting* kontzeptua:

«Edozein herrialdeko gobernu eta komunikabideen artean dauden aliantza eta akordioak dira, komunikabide horiek publikoari interesatzen zaiona bakarrik transmititzeko eta beraien herriarentzat egokia dela uste duten baretasuna arriskuan jarri edo aldatu ahal ditzaketan informazioak ezkutatzeko». (Chomsky 1997)

Chomsky-k uste du informazioa boterearen esku dagoela, eta botereak informazio hori gizartea *bide egokian* jartzeko erabiltzen duela.

Agenda setting honetan aukeraketa oinarria da, agerian geratzen dena omen da, edo esaera zaharrak esaten duen lez, “izena duen guztia omen da”. Hedabideek lehenengo urratsa egiten dute errealitatearen aukeraketa egiten dutenean, gai bat landu edo baztertzea erabakitzen dutenean. Honek irakurlearen atentzioa bideratzen du, gai bati garrantzia eman edo kenduta. Beraz, garrantzitsua da jakitea zeintzuk gai lantzen dituen hedabide bakoitzak epe jakin horretan.

Oinarrizko hiru eredu daude kazetaritza-informazioak audientzian dituen efektu kognitiboek buruz ikuspegi soziopolitikotik begiratu eta bestelako efektu pertsonal zein psikologikoak alboratuz:

- **“Audience agenda-setting” izeneko eredu** edo Maxwell McCombs-ek eta Donald Shaw-ek (1972) audientziaren agenda finkatzeari buruz garatutako teoria, esan dugun modura.
- **“Priming” izeneko eredu** edo audientziak medioek eskainitako gaietatik bakar batzuk aukeratzen dituela dioten eredu, eragile edo pertsonaia publikoren bat ebaluatzeko garrantzitsutzat jotzen dituelako. Eredu hau eta izen hau Shanto Iyengar eta Donal Kinder-ek (1994a) proposatu zuten.
- **“Framing” izeneko eredu** edo audientziaren interpretazio-maparen finkapena. Eredu honen arabera, agenda ez ezik, ustez informazioaren konplexutasuna murrizteko xedez, medioek interpretazio-mapak ere eskaintzen dizkio audientziari, mezuaren hartzea eta deskodetzea errazteko. Izan ere, medio bakoitzak bere interpretazio-mapa eskaintzen badu, medio bakoitzeko audientziak interpretazio korrelatiboak izan ditzake.

Framing-eredua “*bigarren mailako agenda setting*” modura definitu dute batzuek (McCombs, et al. 1997), edo “*atributuen agenda setting*” modura. Beste ikertzaile batzuk, ordea, ez daude ados batze edo fusio horrekin, uste dutelako *framing* eredua zabalegia dela, eta literatura zientifikoan erabilpen eta definizio ugariegi dituela (Scheufele 1999).

Agian, efektu kognitiboen hiru ereduen inguruko eztabaida teorikoa argitzeko (*agenda setting*, *priming* eta *framing*), probetxugarria suerta liteke bi kontzeptuak bereiztea:

- “**Aplikabilitatea**”, zeinetatik interpretazio-mapa eta *framing*-ereduak datozen. Jendeak etengabe erabiltzen ditu interpretazio-baliabide eta eskemak errealitateko gertakariak ordenatu eta esanahia bilatzeko. Pertsona batek komunikabide batetik informazio bat jaso ondoren izan ohi duen erreakzioaren zati bat aldeztatik duen interpretazio-eskemaren araberakoa izan ohi da.
- “**Aksesibilitatea**” edo irisgarritasuna, zeinetatik *agenda setting* eta *priming* izeneko teoriak barne hartzen diren. Gai bati buruz erabakia hartzean pertsona baten memorian dauden elementuen kopurua eta gradua esan nahi du. Beraz, «*irisgarritasunak, funtsean, esan nahi du pertsona bat gai batzuekin zer gradutaraino eta zein berriki jarri den kontaktuan*» (Kim, Scheufele, eta Shanahan 2002, 9). Kontzeptu hau informazioari aplikatuz, irisgarritasunean oinarrituta dauden *agenda setting* eta *priming* izeneko ereduak audientziak gogoratzeko duen gaitasunaren araberakoak dira.

4.3 Eduki-analisia

Eduki-analisia, metodologia kuantitatiboaren metodo modura ulertuta, *komunikazioak aztertzeke teknika-sorta bat da*; beraz, edozein komunikazio eduki azter daiteke (Zabaleta Urkiola 1997). Eduki-analisia irudi edo testuaren irakurketan oinarritzen da informazioa jasotzeko, irakurketa hori metodo zientifiko jarraituz egin behar da, objektibo, sistematiko eta kuantitatiboa izan behar du. Baina eduki-analisiaren bitartez jauzi kualitatiboa egin daiteke interpretazioan ere. Beraz, testu edo irudi batean antzeman daiteke eduki zuzena,

begien aurrean dagoena eta baita ezkutuan dagoen mezua, autoreak zeharka transmititu nahi duen sentsua idazki edo irudi horretaz baliatuz.

Bai agerian dauden datuak, (autoreak esaten duena) eta baita ezkutuan daudenak (esan nahi duena) zentzua hartzen dute eta testuinguru batean aditu daitezke. Testua eta testuingurua oinarrizko elementuak dira eduki azterketan.

Eduki analisiaren metodologian aitzindarietako bat Berelson izan zen. Berelson-ek (1952, 18) esaten zuen eduki analisia «komunikazioaren ageriko edukiaren deskribapen objektibo, sistematiko eta kuantitatiboa egiteko ikerketa teknika dela»⁹³. Definizio hau erreferentzia izan zen urteetan, nahiz eta nahiko murriztailea izan. Sakonean aztertzen dugunean zenbait kontzeptu agertzen zaizkigu. Hasteko *komunikazioaz* hitz egiten digu, eduki-analisia edozein komunikazio-mota aztertzeko erabil dezakegu, prentsa, irratia, telebista, zinea, sare sozialak, edota komunikazio pertsonala. *Ageriko edukiak* aztertzen dituela esaten du, ageriko mezuan dauden edukiak. Honen bidez ikerketaren bidez presentzia adierazten da, eta horrek eduki horretan dauden ausentziak markatzen du. Berelson-ek *objektibotasuna* eskatzen du, hau da, ikerketa egitean ikertzailearen subjektibotasunak ez du eraginik izan behar, beste edozein ikertzailek, prozedura bera erabiliz ondorio berdinetara heldu behar du. Jakin, jakinda dago ikerlearen subjektibitatea ezin dela osotara ekidin, gradu batean edo bestean presente dagoela, eta ikerketaren prozedurak eta definizioak erabiltzean, hauen interpretazioa egiten duela kasu bakoitzean, eta askotan zalantzak sortzen direla. Baina, horiek guztiak jakinda, kategorien lanerako definizioak ongi adierazita badaude, hauen interpretazio eta erabilpenerako arauak ongi zehaztuta, ikerle eta kodelariak uniformeki erabiltzen entrenatuta, ikerketak objektibitate-gradu garaia lortuko du, koherentzia kontzeptuarekin erlazionatutako objektibitatea, eta ikerlearen subjektibitatea kontrolatuta egongo da. Sistematizazioari dagokionez, eduki-analisan ikertu behar den edukia arau batzuen bidez ikertu behar da. Arau hauek zehazki, zuzentasun eta osotasunez, kasu guztietan berdin erabilita eta esplizituki, aldez aurretik garbi adierazita, egon behar dira. Azkenik *kuantitatiboa* izan behar dela, hau da, eduki-analisiaren metodoak ageriko mezuen kuantifikazio, neurketa eta sailkapena egin behar ditu. Maiztasunaren kontzeptua oso garrantzitsua da metodoa honetan. Kodifikazioa

⁹³ Content analysis is a research technique for the objective, systematic, and quantitative description of the manifest content of communication.

egin behar da kuantifikazioa egin ahal izateko. Ondoren, emaitza kuantitatiboak lortu ahal dira eta tresna estatistikoak erabili, interpretazio zehatz eta esanguratsuak lortzeko.

Holsti-ren (1969, 5) definizioan elementu berri batzuk ikusten ditugu: «Eduki-analisia testu baten ezaugarri espezifikoak era sistematiko eta objektibo batean inferentziak egiteko ikerketa-teknika bat da⁹⁴». Hemen, batetik, *kuantitatiboa* eta *agerikoa* desagertzen dira, eta, bestetik, *inferentzia* agertzen da, hau da, komunikazio sinbolikoa edo datuen mezu ezkutuak, latenteak, aztertzeke aukera ematen du.

Bere aldetik Krippendorff-entzat (1990, 28) eduki analisiaren definizioa hauxe da: «Eduki-analisia testu edo mezuen inferentzia baliozkoak eta errepikakorrek bilatzen dituen ikerketa teknika bat da⁹⁵». Egile honek testuingurua gehitzen dio definizioari, edukiak eta mezuak garatzen diren markoa. Beraz, edozein eduki analisiak datuen testuingurua hartu behar du kontuan eta horren arabera justifikatu. Testuan aurretik antolatu eta kategorietan sailkatutako hainbat aldagai aurkitu behar dira. Kreppendorff-en arabera, hauek neurgarriak izan behar dira, kontrastatu eta alderatuz ondorioetara ailegatzeko (1990, 28).

Definizio osatuago ematen digu Laurence Bardin-ek (1996, p32), «komunikazioen analisi-tekniken multzoa, mezuen edukiei buruzko prozedura sistematiko eta objektiboen bidez indikadoreak (kuantitaboak zein ez) lortze aldera, mezu horiek ekoizteko eta hartzeko (testuinguru soziala) baldintzei dagozkien ezagutzen inferentzia ahalbidetuz⁹⁶». Beraz, eduki-analisiaren baitan testu, soinu eta irudietako mezu komunikatiboen edukia azaltzen eta sistematizatzen dituzten tekniketako multzo osoa batzen da. Bardinek eduki analisia egiteko bost irizpide finkatzen ditu, 1) sailkapenerako kategoriak homogeneoak izan behar dira, 2) indize bakoitza kategoria bakarrean sailkatu behar da, 3) ikerketaren helburuarekin egokitasuna behar du, 4) objektiboa eta

⁹⁴ «El análisis de contenido es una técnica de investigación para formular inferencias identificando de manera sistemática y objetiva ciertas características específicas dentro de un texto»

⁹⁵ «Una técnica de investigación destinada a formular, a partir de ciertos datos, inferencias reproducibles y válidas que puedan aplicarse a su contexto.»

⁹⁶ «El conjunto de técnicas de análisis de las comunicaciones tendentes a obtener indicadores (cuantitativos o no) por procedimientos sistemáticos y objetivos de descripción del contenido de los mensajes permitiendo la inferencia de conocimientos relativos a las condiciones de producción/recepción (contexto social) de estos mensajes.»

leiala izan behar da, eta azkenik, 5) produktibitatea kontutan izan behar du, kategoriak erabilgarriak izan behar dira.

Analisi kuantitatibo honi kualitatiboa ere gehitu behar zaio, ideiak eta kontzeptuen presentziak eta baita absentsiak antzemateko. Horretarako testuingurua kontuan hartzea beharrezkoa da.

4.4 Framing edo interpretazio-markoa

Morris ingeles-euskara hiztegiaren arabera, «*frame*» izena, armazoi, marko, edo moldura itzul dezakegu, aditza berriz markoan jarri edo enkoadratu. Euskaltermek aldiz, trama, langa, eskema, txasis, koadro, marko, uztai, bastidore erabiltzen du itzulpen desberdinetan.

The Oxford English Dictionary-ren arabera, *frame* gaztelaniaz, *marco*, *límite*, *sistema* da. Aditza bezala, “to frame” beste gauzen artean “forma eman” edo “zerbait erabiltzeko atondu” esan nahi du.

Framing-teorikoen arabera, medioek interpretazio-mapak eskaintzen dizkie audientziari mezuaren dekodetzea errazteko. Izan ere, medio bakoitzak bere interpretazio mapa propioa eskaintzen du.

Goffman-ek 1974.ean zera zioen (1986, 10):

“Frameak markoek eta eskemek osatzen dute, markoak errealitatearen testuingurua markatzen du eta eskema egitura mental bat da, kanpoko datu objektiboak batzen dituena. Bi mailatan ematen da, indibiduala eta soziala, errealitateak esanahi desberdinak ematen dio maila bakoitzari, baina aldi berean esanahi komun bat dago”.

Tuchman-ek berria errealitatea ikusteko erabiltzen dugun leihoa dela esaten du, baina leiho horiek desberdinak izaten direla, neurriak, kristalaren kolorea, kalera edo patio batera ematen duen eta beste zenbait faktoreen arabera (Tuchman 1978, 2). Kazetariaren jarrera profesionalek eta bere erakundearen ildo editorialek sortzen dute informazio produktua, baita hedabide horrek dituen baliabide tekniko eta pertsonalak, edota kazetarien iturriak, estiloa, lengoaia, eta ideologia. Enkoadre horrek errealitatea ikusteko modu desberdinak eratzen ditu Tuchman-en arabera.

Frameak edo *enkoadreak* egitea, ("to frame") Entman-entzat (1993, p. 52) errealitatearen zati batzuk hautatzea eta komunikazio kontestuan nabarmentzea da, arazoaren definizio berezi bat egiten du, zergatien interpretazio propioa ematen du, ebaluazio moral bat ematen du eta azkenik gaia lantzeko gomendioa eskaintzen du. Azken finean *enkoadratzea* hautatzea eta nabarmentzea da.

Reese ikertzailea ados dago ideia horrekin: informazio bat *enkoadratzeak* gaiaren zati batzuk nabarmentzea dakar, beraz gaia fokatzeko hautaketa bat egin behar da. Fokatzeko horrek perspektiba zehatz bat ematen dio subjektuari eta gai edo ekitaldi bati perspektiba konkretu batetik begiratzera gonbidatzen dio. Autoreak horrela definitzen du: «Sozialki partekatutako oinarri antolatzaileak dira, denboran iraunkorrak eta sinbolikoki lan egiten dute mundu soziala modu adierazgarrian antolatzeko⁹⁷» (Reese 2001, 11).

Izan ere, Rees-ek esaten du *enkoadreaz* ari garenean azken finean hedabideek eta batez ere kazetariak eta horien audientziak gertaerei eta ekitaldiei nola ematen dieten zentzuaz ari gara (Reese, 2001, p. 7). Hau da, kontutan hartzen du bai hedabideak, bai hedabide horien profesionalak eta baita audientziak.

Lakoff-entzat «mundua ikusten laguntzen gaituzten egitura mentalak dira markoak⁹⁸», horrela «hizkuntzak eraikitzen ditu markoak, hitz guztiak marko kontzeptualen bidez definitzen baitira⁹⁹». (Lakoff 2007, 17). Beraz, garrantzitsua da hitz gakoak edo sintagma adierazkorak identifikatzea eta aztertzea markoaren ikerketa egitean.

Enkoadre hau hedabideek informazio-gaia hautatzerakoan eta aurkezterakoan atzematen da, objektibotasunaren mitoarekin apurtuz. Kazetarien lanean oinarritutako ikerketek esaten dute enkoadre hori gaien hautaketetan hasten dela, eta erabilitako iturrietan, hizkuntzan, hautatutako argazki edo irudiekin jarraitzen duela. *Framinga* denboran irauten du eta gizarte harremanak definitzen eta egituratzen dituzte (Ghanem 1997).

Bere aldetik Igartua, Muñiz eta Cheng-entzat (2005, 158) informazio-gaiaren enkoadrea zera da: «aukeratzean agertzen den informazioaren angelua, ikuspegia, perspektiba edo tratamendua, elementu desberdinei emandako enfasia edo

⁹⁷ Son principios organizadores socialmente compartidos y persistentes en el tiempo, que trabajan simbólicamente para estructurar el mundo social de modo significativo

⁹⁸ «Los marcos son estructuras mentales que conforman nuestro modo de ver el mundo»

⁹⁹ «Los marcos se construyen a través de lenguaje, todas las palabras se definen en relación a marcos conceptuales.»

garrantzia, eta, bereziki, elementu horiek testu batean gutxi gorabehera nabarmenduta nola aldatzen diren»¹⁰⁰».

Nahiz eta testuen azterketa izan ohiko enkoadre-prozesuen azterketagia, aipaturiko autoreek esaten dute informazioak laguntzen dituzten irudi edo ikusizko informazioek ikus-enkoadre (*visual frames*) berriak sortzen dituztela (Igartua, Muñiz, eta Cheng 2005). Horrela testu-informazioei laguntzen dieten irudiek zenbait enfoketako edo enkoadre osatzen dute. Irudi bat hautatzeak, edota enkoadre edo ikuspuntu bat, elementu garrantzitsuak gehitzen dizkiote mezuari, datuak gehituz.

Entman-ek (1991) lau neurri bereizi zituen interpretazio-markoetan:

1. **Garrantzia:** gai bakoitzari ematen zaion garrantzi edo nabarmentzea.
2. **Agentzia (agency),** hau da, nor egiten duen.
3. **Kategorizazioa** edo epaiketa morala.
4. **Orokortzea (generalizazioa)** edo nola lotzen den beste gai orokorrekin.

Beranduago Entman-ek (2003) esan zuen enkoadratzearen zeregina arazoa definitzea dela, horren arrazoiak nabarmentzea, inplikatuak kategorizatu edo balorazio moralak eman eta konponbideak iradokitzea.

Iyengar eta Simon-ek (1993) Tematiko/episodiko dikotomia proposatzen dute. *Gertaerakoak edo episodikoak* gertaera kasu partikularretan edo ebentuetan konkretuetan oinarritzen dira (langabetu bat, abioi baten istripua, hilketa bat). Hauetan informazio-gaiak ez dauka testuingururik. Enkoadre honetan erantzukizuna indibiduala da. Enkoadre *tematiko edo gaikoetan* informazio-gai nagusiak tendentzia orokorrak dira, abstrakzio maila altuagoa daukate, inbertsonalak dira eta politika publikoetan oinarritutako gaiak jorratzen dituzte, betedura analitikoagoa da.

Semetko eta Valkenburg-ek (2000) askotan aplikatu diren 5 marko proposatu zituzten: Gatazka-markoa, pertsonetikiko interesaren markoa, ekonomiaren markoa, moralitasunaren markoa eta erantzukizuna egoztearen markoa.

Tesi honetan hiru interpretazio-marko mota aztertu dira:

- **Tematiko-episodikoa:** Tematikoak, esan dugunez, informazio-gai nagusiak eta tendentzia orokorrak hartzen ditu bere baitan, analisisa egiten da. Aldiz,

¹⁰⁰ ángulo, enfoque, perspectiva o tratamiento de una información que se manifiesta en la elección, énfasis o importancia atribuida a los diferentes elementos y, en particular, la forma cómo varían dichos elementos más o menos enfatizados en un texto

enkode episodioan edo gertaerazkoan, kasu partikularretan edo gertakizun konkretuetan oinarritutako informazioak jasotzen ditu.

- **Generoaren araberako fokatzea:** generoarekin lotutako fokatzearen azterketa bi zatitan banatu zuten egile hauek, batetik emakumeen irudia markatzen dituzten bost marko, eta bestetik emakumeen ekintzaren espazioa, hau da, non irudikatzen da emakumearen jarduera. Gure kasuan emakumeen irudiari lotutako bost marko horiek hartuko ditugu ardatz, eta berri bat gehitu diogu: *deabruaren markoa, genero rol tradizionalak, tribializazioa edo hutsaltzearena, eskubideen aldarrikapena, politikan esku-hartzea, eta agenda*, hau da ekitaldien iragarpen hutsak direnak (Lind eta Salo 2002).
- **Feminismoaren fokatzea:** fokatze hau emakumeen borroken aurrean identifikatu ditugun bost jarrerarekin elkartu dugu, feminismoaren aldarrikapena, antifeminismoaren aldarrikapena, berdintasuna, rol tradizionalen mantentzea eta neutroa edo fokatze eza.

4.5 Unibertsoak

Tesi honetan Euskal Herriko egunkariak (gaztelaniaz eta euskaraz) martxoaren 8ari buruz 35 urteko epean argitaratu dutena aztertzen da, alegia, 1978-2013 urtealdian, bost urtetako kadentziarekin.

Zehazkiago, ikertutako egunkariak hamaika dira: Berria, Deia, El Correo, El Diario Vasco, Gara, Navarra Hoy, Diario de Navarra, Diario de Gipuzkoa, Diario de Noticias, Egin eta Eguner¹⁰¹.

Tesia amaitzen ari ginela 2018ko Greba partziala edo orokorrerako deialdia egin zuen Munduko Mugimendu Feministak, greba horren arrakasta ikusita, eta kontutan hartuz gure serieko hurrengo urtea izango zela, urte horretako jarraipena egitea ere erabaki genuen.

¹⁰¹ La Gaceta del Norte, La Voz de Guipuzcoa, Gaur Express, eta desagertu diren beste batzuk ez ditugu kontutan hartu jarraipenik ez dutelako izan. Aldiz Egin, Eguner eta Euskaldunen Egunkariaren kasuan jarraipena izan dute Gara eta Berriarekin, hau da gure unibertsoan agertzeko arrazoa

4.5.1 Denbora-unibertsoa

Hasiera data 1978. urteko martxoaren 8a hartu dugu bi arrazoi nagusirengatik. Alde batetik Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 1975a *Emakumeen Nazioarteko Urtea* izendatu zuen, eta 1977an bere Biltzar Orokorrak Emakumearen Nazioarteko aldarrikapen egun bat egotea proposatu zuen, estatuen eskuetan utziz eguna aukeratzea¹⁰². Gure herrian egun hori martxoaren 8a da eta 1977an ospatu zen lehenengo aldiz Bilbon.

Bigarren arrazoia Hego Euskal Herrian une horretan aldaketa garaia hasi zela da. Diktadurak bere menpe izan zituen hedabideak, frankismoak komunikabideei ezartzen zien kontrola erabatekoa baitzen (prentsaren legea, edo Fraga-ren legea, 1966). Franco hil aurreko eta osteko hilabeteak istiluz betetako egunak izan ziren. Trantsizio politikoa deitutakoa garai istilutsua izan zen gure herrian. Euskal gizartearen gehiengoa ez zegoen konforme erreforma politikoak ekarriko zituen aldaketekin, eta manifestazioak eta protestak nonahi gertatzen ziren. Giro honetan egunkari berriak sortu ziren, Egin eta Deia gure kasuan.

4.5.2 Komunikabide-unibertsoa

Hego Euskal Herrian argitaratu diren egunkariak osatzen dute gure unibertsoa.

Komunikabideen unibertsoa aukeratzekoan eguneroko prentsan zentratu gara arrazoi desberdinengatik. Euskal Herrian prentsa irakurle indizea altua izan da beti, estatuko beste probintziekin alderatuz. Adibidez, 2014. urteko EGMren arabera, egunkarien penetrazio portzentajea EAEn %43,6 zen eta Nafarroan %49,5; aldiz, estatuko batez bestekoa %29,8koa zen.

Bigarren irizpide bat prentsa aukeraketa honetan jarraikortasuna eta ikuspegi-zabaltasuna izan da, 1978tik hasita eta 35 urte hauetan, ildo ideologiko guztiak asetzen dituzten egunkariak argitaratu dira gure artean.

Hirugarrenik baliabide hauen erabilgarritasuna ere aitzakia izan da unibertso hau eratzeko orduan. Prentsaren bilketa ohiko zeregina da gure Hemeroteketan, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Liburutegiko fondoa oso baliagarria izan da lan hau aurrera eramateko. Ez ditugu denak bertan topatu, baina bai laginaren zati handi bat.

¹⁰² Hala ere, badakigu Martxoaren 8 nazioartean XX. mendearen hasieratik ospatu dela, 1911an lehenengo aldiz egin ziren manifestazioak egun honetan

4.5.3 Eduki-unibertsoa

Edukiaren unibertsoa martxoaren 8ko eguna eta Euskal Herriko mugimendu feministaren inguruko berriek eta iritzi artikuluek osatzen dute, baita emakumeen askatze mugimendua edota emakumeen eskubideen aldeko aldarrien inguruko notiziak, iritzi-artikuluak, editorialak, erreportajeak, kronikak edota binetak

4.6 Egunkarien ezaugarriak: lerro periodistiko eta ideologia

Franco hil ostean, 70eko hamarkadako azken urteetan eta 1980ko hamarkadan Hego Euskal Herriko prentsak aldaketa ugari izan zituen. “Prensa del Movimiento” izeneko prentsa-kateak azken aleak argitaratu zituen, egunkari guztiak desagertu egin ziren, baita horietan errentagarriena zena ere, hots, Donostiako *LA VOZ DE ESPAÑA*. Azken hau, ondoren, *LA VOZ DE EUSKADI* bihurtu zen, eta epe laburrera desagertu zen.

Testuinguru horretan, *LA GACETA DEL NORTE* ere desagertu egin zen eskuin-muturreko joera hartu baitzuen eta hiru egunkari nagusitu ziren: *EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO* (gaur egun *EL CORREO*) Bizkaian eta Araban, *EL DIARIO VASCO* Gipuzkoan eta *DIARIO DE NAVARRA* Nafarroan. 1977an euskal abertzaletasuna ordezkatzeko zuten bi egunkari agertu ziren, DEIA, EAJren inguruan eta EGIN ezkertiarra eta abertzalea.

1982an Iruñean NAVARRA HOY kaleratzen da, ikuspegi aurrerakoi eta euskaltzale batekin¹⁰³. Lehenengo zuzendaria Alfonso Ventura Vazquez izan zen, DEIAtik zetorrena. NAVARRA HOY 1994an desagertu zen, baina jarraipena izan zuen DIARIO DE NOTICIAS egunkarian, 1994an bertan jaioa.

EUSKALDUNON EGUNKARIA 1990ean jaio zen, euskara hutsez argitaratzen zen egunkari bakarra, ekintza pribatutik sortutakoa (garai hartan Eusko Jaurlaritzak proiektu bat zeukan egunkari publiko bat egiteko, baina egitasmoak porrot egin zuen jaio baino lehen). Hamarkada horretan Madrilén argitaratzen ziren beste

¹⁰³ 1981era arte karlismoari loturiko EL PENSAMIENTO NAVARRO kaleratzen zen Iruñean.

hedabide batzuetako tokian tokiko edizioak agertu ziren (*EL MUNDO, EL PAÍS, MARCA* eta *EL MUNDO DEPORTIVO*, azken biak kirol-prentsari lotuak).

1998an eta 2003an Audientzia Nazionalak, Baltasar Garzon eta Juan del Olmo epaileen aginduetan finkatuz, EGIN eta EUSKALDUNON EGUNKARIA itxi zituen hurrenez hurren. Biek lortu zuten hurrengo bihamunean beste argitalpen bat kaleratzea, EUSKADI INFORMACIÓN lehenengo kasuan eta EGUNERO Euskaldun Egunkariarenean. Eta bi egitasmo berri jaio ziren aurrerago, GARA eta BERRIA.

Ikusten denez, prentsa-sistema konplexua da. Aniztasun ideologiko eta gizartea konplexu baten isla da gure sistema mediatikoa. Hego Euskal Herriko lau probintzian gaur egun eguneroko prentsari dagokionez bost talde komunikatibo desberdin aurkitzen ditugu, zeinek zabalkunde orokorreko bederatzi egunkari argiratzen dituztenak:

- Vocento: El Correo eta Diario Vasco.
- Noticias Taldea: Deia, Diario de Noticias de Gipuzkoa, Diario de Noticias de Álava, Diario de Noticias de Navarra
- Berria Taldea (Euskarazko Komunikazio Taldea, EKT): BERRIA.
- Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkartea (EKHE): GARA.
- Grupo la Información: DIARIO DE NAVARRA.

Ideologiari erreparatzen badiogu, banaketa nabaria da, alde batetik abertzaleen multzoa dago, EUSKALDUNON EGUNKARIA, BERRIA, EGIN, GARA, DEIA ETA HEIN BATEAN NAFARROAKO NAVARRA HOY eta DIARIO DE NOTICIAS. Ramirez de la Piscina eta Idoyagak (2002, 32. or.) ez *nazionalistak* edo *konstituzionalistak* deitzen dituztenak ditugu beste multzo batean, EL CORREO, DIARIO DE NAVARRA eta DIARIO VASCO, hauei gehitu beharko genieke EL PAIS eta EL MUNDO egunkarien tokiko edizioak.

Hirugarren multzo bat tokiko hedabideek osatzen dute. Tokiko prentsari dagokionez aldizkariak nagusi badira ere badaude astebete baino gutxiagoko maiztasuna daukatenak; batzuk euskara hutsez argitaratzen dira, adibidez, GOIENKARIA eta HERNANIKO KRONIKA, Gipuzkoan, edota EKT taldeko HITZAK, Bizkaian eta Gipuzkoan batez ere; beste batzuk, ordea, gaztelaniaz, Bilbon argitaratzen den EL NERVIÓN adibidez.

Prentsa sistema poliedrikoa dela esaten dugu eta horren isla lan honetan aztertuko ditugun kazetak dira. Hamaika egunkari¹⁰⁴ hautatu ditugu, lagin zabal bat lortzeko asmoz, zabala bai ideologian eta baita kazetaritza-jardueretan. Hego Euskal Herrian argitaratu diren egunkari garrantzitsuenek eratzen dute lagin hori. Guztiak ez dira batera argitaratu, batzuk beste batzuen jarraipena izan direlarik (EGIN/GARA, EUSKALDUNEN EGUNKARIA/EGUNERO/BERRIA, NAVARRA HOY/DIARIO DE NOTICIAS)¹⁰⁵.

4.6.1 Diario de Navarra (1903)

1903ko otsailaren 25ean argitaratu zen lehenengo aldiz Iruñean, eta Hego Euskal Herriko egunkaririk zaharrena da. Hasiera hartan independentetzat jotzen zuen bere buruak, horrela agertzen baita bere estatutuetan:

"Se inspirará, no obstante, sin alardes innecesarios, en los verdaderos sentimientos religiosos del país; no se convertirá, directa ni indirectamente, en órgano de ningún partido político; sabrá recoger y mantener las enseñanzas del orden social de la familia y de la propiedad, defenderá resueltamente nuestro régimen privativo y procurará orientar a la opinión con un criterio recto y elevado independientemente de toda agrupación política. Habrá de distinguirse también la nueva publicación por su parquedad en tributar alabanzas y por su templanza e imparcialidad para examinar la gestión de las autoridades locales, formulando respetuosa censura, o tributando el debido aplauso, sean cuales fueren las personas que adopten los acuerdos" (M.A.R, 2003).

Hala ere, eskuin- eta kontserbadore-ildo ideologikoak markatu du bere ibilbidea beti. Primo de Riveraren eta Francisco Francoren estatu kolpeak lagundu zituen eta gaur egun ere Nafarroako eskuinaren inguruan koka dezakegu.

DIARIO DE NAVARRA se constituyó en el portavoz oficial del golpismo antes, durante y después de la guerra. Tanto que podría hablarse de la guerra civil que nunca fue, contada por el Diario. Fue el primero en llamar a la depuración del adversario (26-VIII-1936); el primero en pedir la depuración de los maestros nacionalistas (26-IX-1936); el primero en pedir la depuración de

¹⁰⁴ Egunerok Euskaldunon Egunkaria eta Berria arteko zubi lana egin zuen, eta hilabete gutxi iraun zuen. 2003ko martxoko aleak azertu ditugu lan honetan

¹⁰⁵ Hurrenkera kronologikoa hautatu dugu aurkezteko, uste baitugu horrela errezago ulertuko dela bakoitzaren kokapen historikoa eta jarraikortasuna.

los trabajadores con ideología republicana (27-IX-1936); el primero en rendir homenaje público a los muertos en el frente del mal llamado bando nacional, y que serán los mártires de la Cruzada (2-VII-1937), mientras que calificará como ratas a los otros muertos (20-IX-1936) o de masones siniestros (8-X-1937).(Moreno, 2011).

1976an 40.688 ale saltzen zituen Nafarroa osoan eta 10 urte beranduago 63.541 inguru (%50 gehiago). Landeta eta Soengas-en arabera 1996an 117,49ko difusioa lortu zuen, eta nafarren %70ek erreferentzia moduan zeukaten egunkari hau (2000, 41.or.).

Hizkuntzei dagokienez, egunkari hau gaztelaniaz idazten da bere osotasunean, euskarak ez dauka inolako presentziarik.

Azken hiru hamarkada hauetan DIARIO DE NAVARRAK 3 zuzendari izan ditu, Jose Javier Uranga Santesteban 1962tik 1990era, Julio Martinez Torres 1990etik 2005era, eta 2006tik gaur arte Ines Artajo Aiesa daukagu, gaur egun egunkari bat gidatzen duen emakume bakarra Euskal Herrian.

4.6.2 El Correo (1910)

1910ko maiatzaren 1ean EL PUEBLO VASCO egunkaria argitaratzen dute Bilboko Ybarra familiaren inizatibaz. Egunkari honek independentetzat jotzen du bere burua nahiz eta alderdi kontserbadorearen babesarekin jai. Lehenengo editorialean egunkari monarkiko, kristau, *espainiar* eta euskal erkidegoaren aldekoa, eta liberala bezala definitzen da (Ybarra, de 1985, 32).

1937ko uztailaren 6an, EL CORREO ESPAÑOL DIARIO DE FALANGE ESPAÑOLA Y DE LAS JONS izenpean argitaratu zen lehenengo aldiz. Egunkaria inprimatzeko EAJri desjabetutako EUZKADiren inprimategia erabili zuten. 1938an, agintaritzak frankistak EL PUEBLO VASCO egunkariarekin batu zuen, EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO¹⁰⁶ egunkaria sortuz (Ybarra, 1985, 75. or.). Honen azpilema *Diario de Falange Española y de las JONS* izan zen urte luzez. 1947an EL DIARIO VASCO erosi ostean Bilbao Editorial S.A. enpresa sortzen dute, gero Vocento Taldea izango denaren hazia.

¹⁰⁶ Izena denborarekin aldatuz joan da, azken urteetan EL CORREO nabarmendu da, nahiz eta oraindik mantxetan EL CORREO ESPAÑOL- EL PUEBLO VASCO agertzen den

1975etik aurrera egunkariaren ildo ideologikoa pixka bat zabaltzen da baina batez ere aldaketa 1977tik aurrera dator, DEIAREN eta EGINEN agerpenarekin (Camino Marcet, 1997, 60. or.). Garai honetan aldaketa teknologikoa ere hasten da, errotatiba aldatzen dute, idazgelan ordenagailuak sartu eta tokiko edizioen garapena bultzatu. Bizkaian gehien saltzen den egunkaria da, OJDren arabera¹⁰⁷.

Hizkuntzei dagokienez gaztelania hutsez argitaratzen da, euskararen presentzia anekdota bezala kontsidera dezakegu.

4.6.3 Diario Vasco (1934)

1934ko azaroan ikusi zuen argia, 27an hain zuzen, Donostian, *Sociedad Vascongada de Publicaciones*-en eskutik. Hau ere eskuinekoa, kristaua, kontserbadorea eta espainiar estatuaren batasunaren aldekoa, nahiz eta kontzertu ekonomikoa eta eskubide foralak aldarrikatu euskal probintzietan Frankismo garaian Gipuzkoan. LA VOZ DE ESPAÑA (Mugimenduaren Prentsa) erreferentziazko egunkaria izan zen, eta DIARIO VASCO bigarrena, 1980an La Voz de España itxi zen arte. Hurrengo urteetan ale-salmenta ia bikoiztu zuen (28.999 1979an, 52.545 1980an), Gipuzkoako egunkari hegemonikoa bihurtuz (Camino, 1994, 61-62. orr.).

Bilbao Editorialaren esku gelditzen da 1947an, EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO editatzen duen enpresarekin hain zuzen, geroago Grupo Correo bihurtu zen. Grupo Correo taldea eta Prensa Española Taldea batu ziren Vocento taldea sortuz 2001ean.

DIARIO VASCO gaztelaniaz argitaratzen da, hala ere, batzuetan, zenbait orrialde euskaraz (oso gutxi eta euskal gaiekin lotuta beti) irakur daitezke.

4.6.4 DEIA (1977)

Trantsizio politikoan sortu zen lehenengo egunkaria izan zen. 1977ko ekainaren 8an jaio zen, Editorial Iparraguirre S.A. enpresaren eskutik, ekainaren 15ean egiteko ziren lehenengo hauteskunde bezperetan hauteskunde deialdira heltzeko asmoz, presaka ibili ziren argitaratzaileak, bigarren zenbakian

¹⁰⁷ 2015ean tiradaren batez bestekoa 89.228 alekoa zen, eta zabalkundea 72.956koa, OJDren arabera

zuzendaritzak aitortu zuenez, «*Irakurleak mintzo*» irakurleagoaren iritzia jasotzeko sailaren aurkezpenean¹⁰⁸.

Argitaratzaileen asmoa egun batzuk lehenago kaleratzea izan bazen ere, arazo burokratikoak medio, DEIA berandu heldu zen bere lehenengo zitara. Horrela justifikatu zuen atzerapen hori bere irakurleen aurrean:

*«Gure irakurleei: Irakurleei azalpen bat zor diegu. Adierazi genien, joan den larunbatean DEIA kalean egongo zela. Egunkaria hitxita*¹⁰⁹ eta makinan zegoela, Madrid-etik Información y Turismo deritzaion Ministraritzako sinapena falta zela esan ziguten, egunkaria kaleratzeko behar zen azken betebeharra. Ahalegin guztiak eginagatik, ez genduen oztopo hau gainditzeko ahalmenik izan. Ziur aski, ez dute irakurleak ulertuko, guk ulertzen ez dugun bezala, nola ezkon diteken Administralgoaren jatorri demokratikoa erakusteko nahi hori eta honelako jarrera. Gure egunkariak jomuga nagusirik badu, gure herriko itzaropenen bozgailu eta ibilgailu izatea da. Batez ere baztertuak egon diren edo komunikabide hitxi* eta bereizketak jota bide gabe utzi dituen ametsak. Gure irakurleekin igaro nahi genituen egun garrantzitsu batzuk galdu ditugu (. ..)» (DEIA, 1977).*

Bere lehenengo asmoa euskal abertzaletasunaren sektore moderatuei zuzendua izatea zen, baina Eusko Alderdi Jeltzalearekin identifikazio zuzenik izan nahi gabe. 25 bazkide fundatzaileek eta 600 akziodunek orokorrean emandako 90 milioi pezetei, herri-ekimenaz lorturiko beste 1.000 pezetako harpidetzak ere gehitu zitzaizkien.

Herritartasuna sendotzeko asmoz, elkartearen lehenengo agirietan debekaturik zegoen pertsona batek 150 akzio baino gehiago izatea. Beranduago, neurri hori bertan behera geratu zen proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko.

Deiaren sortzaileen artean Eusko Alderdi Jeltzaleko pertsona ezagunak zeuden: Jesus Duñabeitia, Mixel Unzeta, Eli Galdos, Luzio Aginagalde, Jose Maria Retolaza, Carmelo Renobales... Lehenengo zuzendaria Iñaki Iriarte Areso izan zen.

¹⁰⁸ *Deia*, 1.977ko ekainaren 8a. Hauteskunde-kanpainan agertzeko asmoa egunkariak berak azaldu zien Irakurleei bere lehenengo zenbakian. "Cuarenta años después" izenburuko artikuluan: (...) Hemos luchado contra reloj para poder estar presentes en los grandes acontecimientos políticos que se nos avecinan».

¹⁰⁹ * Jatorrizko testuan horrela agertzen da.

DEIA gaztelaniaz argitaratzen da, eta euskarak paper xumea dauka bere orrialdeetan, gehienetan euskara eta euskal kulturarekin lotutako berriak argitaratzen dira hizkuntz honetan.

Frankismo-garaian egunkariak ez ziren astelehenetan argitaratzen, eta hauen ordeztu HOJA DEL LUNES delakoa argitaratzen zen. DEIAk 1982ko irailean ekin zion asteleheneko alea kaleratzeari eta handik gutxira beste egunkari guztiek atera zuten, honek HOJA DEL LUNESen, –Bilbokoa eta baita Donostiakoa–, desagerpena ekarri zuen handik hilabete batzuetara (Camino Marcet, 1997, 39. or.).

1978an 50.283 ale saltzen zituen OJDren arabera, horietatik %94 EAEn eta %5,20 Nafarroan (Landeta eta Soengas 2000, 39). Hala ere ez zuen salmentakopuru hori mantendu eta 1998an 30.000 ale-inguru saltzen zituela kalkulatu zuten Armentia eta Camino-ek, (98:52). 2012an 20.820 ale saltzen dituzte OJDren arabera.

2008tik aurrera Noticias Taldeko Bizkaiko egunkaria da eta probintzia honetan finkatzen du bere lana, baina aurreko urteetako egitasmoak Euskal Herria bere osotasunean hartzen zuen sortu zenean, Zuberogoitiaren arabera, «Euskal Herria erreferentzia-esparrutzat hartzen zuen egunkaria zela esan daiteke, EAEko berriez gain Nafarroa zein Ipar Euskal Herrikoak ere ageri baitziren bere orrialdeetan» (Zuberogoitia Espilla, 2004, 260.or.)¹¹⁰.

4.6.5 EGIN (1977 -1998)

Ezker abertzalearen ikuspuntuak adieraziko lituzkeen euskal egunkari gazte eta irekiaren beharra azaltzeko eta proiektu horrentzako dirua lortzeko herriz herri egindako kanpaina baten ondoren, EGIN egunkaria 1.977ko irailaren 29an eman zen argitara lehenengo aldiz, 1.976ko azaroaren 27an sorturiko ORAIN S.A. enpresaren eskutik. Hasierako kapitala 11 milioi pezetakoa izan zen, 11 bazkide fundatzaileek jarritakoa.

Finantza bidea lortzeko asmoz AVUI kazeta kataluniarrak aurretik erabilitako formula bera erabili zuen, gizarte-sektore askoren arteko kontu-partehartzaileen bidezko finantza bidea hain zuzen. «*Laster barru egunkari gurea eta egiazalea egingo dugu*» lelopean, EGINen bultzatzaileek parte-hartzaileak bilatu zituzten

¹¹⁰ Zuberogoitiak: hala ere eguraldiaren mapa Euskal Herri osokoa zen arren, telebista-programazioari gagozkiola Espainiako kateen berri baino ez zuen ematen (260).

Euskal Herrian zehar. Bakoitzari 2.000tik 100.000ra pezetako ordainketa eskatu zitzaion, bi urteko epe batean.

Finantzabide ezberdinen bitartez, EGINEK bazkideek emandako 120 milioi pezeta (kapitala eta kreditu pertsonalak), kreditutan hartutako 120 milioi, eta herri-finantzabidearen bidezko 100 milioi zituen kapital soziala lortu zuen. Esan beharra dago, lehenengo momentuan 20.000 pertsonak partizipazioak zituzten arren, ondorengo kanpainen ondorioz, kopurua 30.000ra heldu zela. Esan bezala, 1977ko irailaren 29an bere lehenengo zenbakia argitara eman zuen, 12 pezetako salneurriaz. Lehenengo orrialdean, proiektua posible egin zuten guztiak agurtu zituen EGINEK:

«A todos los que habéis esperado este periódico. A todos los que habéis hecho posible que la espera termine hoy. Al grupo de fundadores que arriesgó primero. Al millar de colaboradores del primero al último día. A los ventitantos mil cuenta-partícipes que han dado sin exigir a cambio. A los casi 150 trabajadores que, de cuanto poseemos, venimos volcando en Egin todo lo transformable en ilusión y fuerza de trabajo. A los que piensan que Euskal Herria, nuestro País Vasco -Alava, Baja Navarra, Guipúzcoa, Laburdi, Navarra, Vizcaya y Zuberoa- no solamente tienen un presente que aclarar y un futuro que hacer conjuntamente, para bien de todos. Nuestro saludo también a cuantos piensan que Egin debe y puede ser un instrumento para trabajar en Euskadi abriendo caminos a la nueva sociedad; a cuantos trabajadores han levantado casa y familia para vivir y trabajar entre nosotros, han enviado aportaciones económicas -de Castilla, Cataluña, Galicia, Aragón, Andalucía, Extremadura- apoyo moral y otras colaboraciones. Egin debe ser tan suyo como de todo el pueblo vasco.

Los trabajadores de Producción, Administración y Redacción estamos comprometidos en la tarea de hacer Egin todos los días. La empresa periodística es compleja y apenas si hemos conseguido nuestro primer objetivo: salir en septiembre. Ahora nos queda justificar que merecía la pena el esfuerzo que os hemos pedido para poder salir»¹¹¹.

EGINEK hasieratik ezker abertzalekotzat jo zuen bere burua, baina alderdi politikoekin loturarik gabekoa. Lehenengo garaian, Euskadiko Ezkerraren eta Herri Batasunaren oinarrian zegoen Altsasuko Mahaiaren inguruan bildutako sektoreak elkarrekin bizi ziren komunikabide horretan. Honako oinarri fundatzaileak finkatu

¹¹¹ EGIN, 29-09-1997; 1.or.

zituzten: a) Euskadiko egunkaria izatea eta, beraz, ikuspegi nazional batuarekin; b) Euskadiko errealitate nazionala eta honen aitorten publikoaren bultzapena; c) euskararen, hizkuntza nazionalaren, defentsa eta irakurleei zerbitzu elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz) emateko konpromisoa eta, azkenik, d) zapalketaren edo esplotakuntzaren aurreko oposizioa, eta indar ekonomiko-finantziarekiko zein politikoekiko independentzia.

Lehenengo garai honek 1978ko irailera arte iraun zuen, Mariano Ferrer zuzendaria izanik. Urte horretako abenduan, Mirentxu Purroy zuzendari izateko hautatua izan ondoren, EGIN Herri Batasunatik hurbilago ziren joeretara lerratu zen, eta Euskadiko Ezkerrarekin loturiko sektoreak egunkaria utzi zuen. Baina, aldaketa hori ez zen baketsua izan, gatazkatsua baizik; greba baten ondoren gertatu zen-eta.

Francisco Letamendiak, *Ortzik*, esaten duenaren arabera, bi sektore hauen arteko lehia Estatutuaren inguruko eztabaidarekin loturik egon zen, ETAtik trantsizioan jaiotako bi alderdiek jarrera ezberdinak mantendu baitzituzten erreferendumaren aurrean: Euskadiko Ezkerrak, Estatutuaren aldekoa, eta, Herri Batasunak, berriz, abstentzioaren aldekoa.

«La disyuntiva entre la aprobación del Estatuto de Autonomía enfrenta no sólo las actitudes tácticas, sino la estrategia global de las dos esferas socio-políticas nacidas de ETA en los años de la transición; esta oposición tiene un reflejo directo en la lucha por el control del principal medio informativo de la izquierda abertzale, Egin».(1990,. 1V. tomoa 93-101. orr.)

1.978ko udaberriaren azkenalditik aurrera, Herri Batasunaren inguruko sektorea nagusi izan zen kontseiluan, kapital gehiena kontrolatu ondoren.

EGINEK zenbait boikot instituzional pairatu zituen, ETAREN aurrean izandako jarreragatik. EGINEN orrialdeetan ETAREN komunikatu gehienak eman ziren argitara. Egunkarian aritutako bi kazetarik hil zituzten talde parapolizialek, Xabier Galdeano eta Josu Muguruza hain zuen.

1998ko uztailaren 15ean Entzutegi Nazionaleko epailea zen Baltasar Garzonek EGIN itxi zuen, eta hango zuzendaria zen Jabier Salutregi eta Administrazio Kontseiluko hainbat kide espetxeratu zituen. Hurrengo egunean EGINEKO langileek EUSKADI INFORMACIÓN egunkaria argitaratu zuten, 1999ko urtarrilaren 30ean GARAREN jaiotzarekin desagertu zena. Urte horretan, urrian, Audientzia

Nazionalako epaiak, Baltasar Garzonek, egoitzari kautela-neurriak kendu zizkion, baina horrek ez zuen ondoriorik izan eta EGIN itxita jarraitu zuen. 2001ean 16 kideen prosezamendua erabaki zuen eta 2005ean 18/98 makroprosezua erabaki zuen. Epaiaketa hasi zen. Epaiaketa luzea izan zen, hamasei hilabete eta 204 sesio burutu ziren, 2007ko martxoan amaitu zelarik. Handik bederatzi hilabetera sententzia argitaratu zen, non 13 kidek kartzela-zigorra jaso zituzten. 2009an Auzitegi Gorenak EGIN egunkariaren itxiera legearen aurkakoa izan zela ebatzi zuen, baina akusatuei kartzela-zigorra berretsi zien.

4.6.6 NAVARRA HOY (1982-1994)

NAVARRA HOY egunkariak Iruñean ikusi zuen argia 1982ko maiatzaren 23an EL PENSAMIENTO NAVARRO itxi ostean. Irakurle aurrerakoi eta euskaltzaleak bilatzen zituen, baina beti ere Konstituzioari men eginez eta alderdi politikoetatik at, horrela jasotzen baitu Caminos irakasleak «*se definía asimismo como ajeno a cualquier ideología política, regido por la Constitución y cercano a la moderación, el entendimiento y el pluralismo*» (1994, 43). Lehen zuzendaria Alfonso Ventura Vázquez izan zen, aurretik DEIA egunkariko zuzendaria izan zelarik. Bere momenturik onenean, 1984an 14.556 ale saltzen zituen, baina arazo ekonomiko latzak izan zituen bere bizitza osoan eta 1994an argitaratzeari utzi zion, testigua DIARIO DE NOTICIASi emanaz.

NAVARRA HOY egunkaria gaztelaniaz idazten zen, euskarari lekurik eman gabe.

4.6.7 Euskaldunon Egunkaria (1990-2003)

Euskara hutsez argitaratutako kazeta izan zen. 1990eko abenduaren 6an, argitaratu zen lehenengo aldiz, herri-ekimen bati ezker (Zalakain, 1992) Euskalgintzako eta kulturgintzako erakunde, alderdi politiko, erakunde sindikal, sozial eta herrikoiekin batu ziren euskarazko egunkaria kalera ateratzeko. Guztira 90.000 lagun inguru inplikatu zen egitasmoan, eta 50 bat milioi pezeta (300.000 € gutxi gorabehera) jaso ziren.

Egunkariaren ezaugarriak *Egunkaria Sortzen* batzordeak jarritakoak ziren: euskaltzalea, nazionala, baterakoia, zabala, independentea alderdiekiko eta erdarazko beste medioetatik, ez instituzionala, diru-laguntzaren beharrekoa, militantea, profesionala eta berria (Zalakain, 1992, 451. or. eta hurrengoak).

Hasierako egitasmo horrek ez zuen Eusko Jaurlaritzaren laguntzarik jaso, aldiz, aldiz, oztopo ugari jarri zioten, beste euskarazko egunkari alternatibo baten proiektua garatuz. Hala ere, EUSKALDUNON EGUNKARIAK hasieratik merkatu-zati bat bereganatu zuen eta oztopoz oztopo (asteen 6 ale, errotatibarik gabe, lan-talde txikia, soldata baxuak, publizitate eza...) bere lekua egin zuen. Hasi zenekoan 32 orrialde biltzen zituen; itxi zutenean 60 inguru ziren, aparteko eranskinak kontuan hartu barik. Gainerako egunkarien moduko egituraketa zuen: Iritzi-saila, Euskal Herriko politika eta gizartea, Nazioartekoa, Ekonomia, Kirolak, Kultura.

2003ko otsailaren 20an, goizean goiz, 300 Guardia Zibilek EUSKALDUNON EGUNKARIAK Andoainen Martin Ugalde kultur parkean zuen egoitza hartu zuten, eta baita Bilboko, Iruñeko eta Gasteizko ordezkariak ere. Bulego hauetan guztietan Espainiako erakunde militarrek dokumentazio ugari konfiskatu zuen, eta hamar lagun atxilotu (Otamendi, Uria, Torrealdei, Auzmendi, Zubiria, Oleaga, Lazkano, Gomila, Goya eta Alegria), Juan del Olmo epailearen aginduz (Agirre, 2004, 181. or. eta hurrengoak).

Otsailaren 21ean EGUNERO argitaratu zuten Egunkariako langileek, aurretik EGINEkoek egin zuten bezalaxe, sei hilabete beranduago, 2003ko ekainaren 21ean *Berría* martxan jarri arte.

2010ean plazaratutako epaiarekin jakingo zen EUSKALDUNON EGUNKARIA ixteko eta hamar lagun horiek atxilotzeko neurriak inolako oinarririk gabekoak zirela.

4.6.8 Diario de Noticias (1994)

NAVARRA HOY kazeta itxi ondoren jaio zen egunkari hau, 1994ko apirilaren 8an. Iruñean argitaratzen da eta Nafarroako bigarren egunkari salduena da gaur egun. Noticias Taldeko kidea da, DEIA, NOTICIAS DE GIPUZKOA eta NOTICIAS DE ALAVAREKIN batera. Hasiera batean NAVARRA HOYko langileak hartu zituen Fernando Mugicaren zuzendaritzapean. Gaur egun zuzendaria Joseba Santamaria da. Egunkari honen hizkuntza nagusia gaztelania da.

4.6.9 Gara (1999)

GARA 1999ko urtarrilaren 30ean argitaratu zen, Garzón epaileak EGIN egunkaria itxi eta 6 hilabetera. Lehenengo alea argitaratu zenetik, egunkari honek berea egin zuen "*Euskal Herriko gatazka historikoa gainditzeko helburua, printzipio demokratikoen eta euskal errealitate nazionalaren errespetutik*". Hori izan da bere

sormenetik GARAREN ildo editorialaren ezaugarri nagusia. Bere burua ezkertiarra, abertzalea eta aurrerakoia definitu du, beste gauza batzuen artean.

GARA sortzeko kanpaina herritar handi bat jarri zen martxan EGIN itxi ostean. 10.000 euskal herritar akzionista bilakatu ziren kanpaina horren bitartez. 1.000 milioi pezetako kapitalarekin jaio zen GARA. Lehenengo zuzendaria Mertxe Aizpurua kazetaria izan zen. Gaur egun Iñaki Soto da zuzendaria, Josu Juaristiri erreleboa hartu ondoren.

4.6.10 Berria (2003)

EUSKALDUNON EGUNKARIA itxi ostean, enpresa hartako langile-talde batek Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT) sortu zuten egunkari nazional berria sortzeko asmoz. Euskarazko egunkariaren proiektu berriari ekiteko, 2003ko maiatzaren 6an kapitala biltzeko kanpaina publikoa jarri zen abian, BERRIA berri lelopean. Herriz herri antolatutako batzordeen bidez, Euskal Herri osoan egin zen kanpaina. Gizarte-eragile, erakunde publiko eta norbanakoek egindako ekarriari esker, kanpaina arrakastatsua izan zen. Guztira 24.404 akziodun eta 4.595.900 €ko kapitala lortu zen euskarazko egunkaria sustatzeko.

Egunkari berria 2003ko ekainaren 21ean irten zen, EUSKALDUNON EGUNKARIA itxi eta lau hilabetetara. BERRIAK zuzendari bakarra izan du urte hauetan, EGUNKARIAren azken zuzendaria izan zena, hain zuzen, Martxelo Otamendi.

4.7 Laginak

Lagina aukeratzeko hiru faktore hartu dira kontuan, denbora, hedabideak eta edukiak.

4.7.1 Lagina denboraren arabera

1978. urtean hasi eta bost urtetako epea kontsideratu dugu kronologikoki lagina egiteko, beraz 1978, 1983, 1988... Hasiera urtea 1978koa hartu dugu

martxoaren 8rean lehenengo manifestazioak eta aldarrikapenak modu antolatu batetan urte horretan izan zirelako Hego Euskal Herrian.

Gure analisia martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, zentratu dugu. Beraz martxoaren 5ean hasi eta aste osoko egunkariak arakatuko ditugu, martxoaren 5etik 11ra.

4.7.2 Komunikabideen lagina

Hego Euskal Herrian argitaratu diren 11 egunkari garrantzitsuenek osatzen dute gure lagina: Berria, Deia, Diario de Navarra, Diario de Noticias, Diario Vasco, Egin, El Correo, Euskaldunon Egunkaria, Egunero, Gara eta Navarra Hoy.

Aukeraketa honetan erabili dugun irizpidea jarraikortasuna eta ikuspegi zabaltasuna izan da, 1978tik hasita eta 35 urte hauetan, nahiz eta batzuk izenburu desberdinak izan (kasu batzuetan ekonomiak behartuta, beste batzuk epaiketa judizialen eraginez), ildo ideologiko guztiak asetzen dituzten egunkariak hautatu ditugu.

Hasieran 354 egunkarik osatzen zuten lagin hau, kontutan izanda zenbait egunkari astean 6 egunetan argitaratzen direla. Kronologikoki hautatu ditugun egunkari-aleak ikus ditzakegu.

1. Taula: Egunkari-kopurua urtez urte 1978-2013

Egunkari kopuruak urtez urte									
	1978	1983	1988	1993	1998	2003	2008	2013	Ale- kopuru osoa
Diario de Navarra	6	7	7	7	7	7	7	7	55
Diario Vasco	6	7	7	7	7	7	7	7	55
El Correo Español	6	7	7	7	7	7	7	7	55
Deia	6	7	7	7	7	7	7	7	55
Navarra Hoy		7	7	7					21
Diario de Noticias					7	7	7	7	28
Egin	6	6	7	7	7				33
Gara						7	7	7	21
Euskaldunon Egunkaria				6	6				12
Egunero						6			6
Berría							7	6	13
Guztira									354

Iturria: autorea

Baina honi gehitu behar dizkiegu 2018an aztertutako 48 ale, zazpi egunkari aztertu genituen (EL CORREO, DIARIO VASCO, DIARIO DE NAVARRA, DIARIO DE NOTICIAS, DEIA, GARA eta BERRIA, azken hau astelehenetan ez da argitaratzen).

4.7.3 Edukiaren araberako lagina

Lehenengo eta behin lagina osatzen duten egunkarien irakurketa egin zen, urtez urte egunkari horietan landu ziren gai nagusien hustuketa eginez. Egunkari bakoitza osorik irakurri ostean, martxoaren 8arekin harreman zuzena daukaten artikuluak hartu dira, baita feminismo, feminista, emakumeen mugimendua, emakumeen taldeen inguruko albisteak, emakumeen eskubideez hitz egiten dituztenak, emakumeen egoeraz munduko edozein herrialdeetan, emakumeek jasotako indarkeriaz edo menpekotasuna, emakumeen historia, emakumeen lana, edota kultur produkzioa. Ez dira kontutan hartuko jardueragatik (politiko edo lanbide) emakume bat protagonista dituzten artikuluak, ez badaude aurreko gaiekin lotuta (adibidez, Mertxe Aizpuruari egindako elkarrizketa Udalbiltzako

lehendakaria izateagatik Berrian¹¹²). Gure laginaren corpusa egunkarietan argitaratutako testuak, bai informatiboak, bai interpretatzaileak edota iritzikoak beteko dute; binetak eta argazkiak edo grafikoak ere aztertuak izan dira, baina ez publizitatea. Aztertutako item kopuruak hurrengo bi tauletan (2. Taula eta

3. Taula) ikusi ditzakegu:

2. Taula: Item-kopurua 1978-2013

Egunkariak	Item-kopurua
EUSKALDUNON EGUNKARIA	66
EGUNERO	17
BERRIA	131
DEIA	355
NAVARRA HOY	61
DIARIO DE NOTICIAS	210
EGIN	286
GARA	164
EL CORREO	199
DIARIO VASCO	211
DIARIO DE NAVARRA	155
Guztira	1855

Iturria: autorea

¹¹² Berria, 2013-03-06

3. Taula: Item-kopurua 2018

Egunkariak	Item-kopurua
EL CORREO	529
DIARIO VASCO	270
DIARIO DE NAVARRA	198
DEIA	301
DIARIO DE NOTICIAS	278
GARA	131
BERRIA	147
Guztira	1854

Iturria: autorea

Informazio-artikuluetan (berriak, erreportajeak, elkarrizketak, laburrak...) identifikatuta agertzen ziren pertsonen profilen azterketa ere egin zen, protagonista-rola zein adituena betetzen zutelarik, osotara 573 pertsona identifikatu genituen NOR atalean ondoko taulan ikusten denez:

4. Taula: Item-kopurua Nor Atalean 1978-2013

Egunkariak	Item-kopurua
Berrria	39
Deia	108
Diario de Navarra	61
Diario de Noticias	54
Diario Vasco	84
Egin	73
Egunero	10
El Correo	80
Euskaldunon Egunkaria	22
Gara	31
Navarra Hoy	11
Guztira	573

Iturria: autorea

4.8 Egunkarien bilaketa eta eskuratzea

Gure lagina 354 egunkariz osatua zegoen, eta ale guztiak topatzea lan neketsua izan da. Hala ere azken urteotako digitalizazio-lanei esker eginbehar hau nahiko erraztu da.

Gure lan gehiena Euskal Herriko Unibertsitatearen Hemerrotekan egin dugu. Hemerrotekak egunkari- eta aldizkari-bilduma oparoa dauka, bai prentsa historikoari buruzkoa eta baita gaur eguneko prentsari dagokiona. Koldo Mitxelenan eta Nafarroako Unibertsitatean gure bildumaren zenbait ale topatu ditugu baita ere.

Egoera eta euskarri desberdinak topatu ditugu bilduma arakatu dugunean, hemen egunkari bakoitzaren kokapena laburtu dugu

- **Deia:** 1978-1993 urtearteko aleak paperan gordetzen dira UPV/EHUko Hemerrotekan. Kasu hauetan interesatzen zitzaizkigun orrialdeen argazkiak atera ditugu, egunkari alea irakurri ondoren, baita egun bakoitzeko azala. 1998tik aurrera, ale guztiak digitalizatuta daude eta CDtan eskuragarri. Ale hauek osotasunean kopiatu ditugu gure disko gogorrean.
- **El Correo:** 1978tik 1998ra arte mikrofitxetan daude gordeta ale guztiak, 1993ko martxokoak izan ezik, galdu baitziren. Honetan ere interesatzen zitzaizkigun orrialdeen kopiak gorde ditugu soilik, baita aste osoko azalak ere. 2003tik aurrera CDtatik kopiatu ditugu ale osoak.
- **Diario de Navarra:** Egunkari honek bere bilduma osoa digitalizatuta dauka eta online eskuragarri, ordainean. Gure kasuan Nafarroako Unibertsitateko Bibliotekan eskuratu genituen 1978-1993 urtearteko orrialdeak. 1998tik aurrera Hemerrotekan daude CD euskarrietan.
- **Navarra Hoy:** 1983 eta 1988 urtearteko aleak paperan gordetzen dira Nafarroako Unibertsitatean. 1993. urtekoa aldiz Hemerrotekan dago, CD euskarrian.
- **Diario de Noticias:** Lagin osoa CDtan gordetzen da Leioako Hemerrotekan.
- **Diario Vasco.** 1978ko aleak online aurkitu ditugu, Koldo Mitxelena Liburutegi Digitalaren Hemerrotekan¹¹³. 1983-1993 urtearteko aleak aldiz, paperan gordetzen dira Liburutegi horretan, eta 1998tik aurrera Leioan aurkitzen ditugu, aurrekoak bezala CDtan.
- **Egin:** Bilduma osoa CDtan dago digitalizatuta, eta Leioan eskuragarri.

113

- **Gara:** Ale guztiak CDtan digitalizatuta, Leioan bertan.
- **Egunkaria:** 1993 urteko lagina paperan dago Leioan eta 1998koa CDan.
- **Egunero:** 2003ko ale guztiak CDtan dago, Leioan.
- **Berria:** lagin osoa CDtan dago Leioan bertan.
Bestalde, 2018ko lagina toptzeko, beriz ere Hemerotekara jo genuen, bertan baitzeuden ale guztiak CDtan digitalizatuta

4.9 Unitateak

4.9.1 Analisi-unitatea

Gure azterketa martxoaren 8ren inguruan argitaratu diren kazetaritza-unitateak dira, hau da, izenburu independentea duten testuak alde batetik eta item grafikoak bestetik, tartean binetak, infografiak eta argazkiak. Labur esanda, item periodistikoa da analisi-unitatea.

4.9.2 Neurketa-unitatea

Martxoaren 8ko betedura edo estaldura periodistikoa aztertzean, hau da, eduki-analisia egitean, item periodistiko bakoitza (albiste bat, iritzi artikulua bat, editorial bat..) hartuko da neurketa-unitate modura.

Pertsonaiaren neurketa-unitateari dagokionez, item periodistiko bakoitzean aipu zuzenak edo zeharkakoak dituzten pertsonak izango dira neurketa-unitateak.

4.10 Kodifikazio-kategorien sistema

Gure ikerketan bi kodifikazio-fitxa prestatu ditugu: edukiaren kodetzeko fitxa (**Zer Fitxa**) eta protagonistak kodetzeko fitxa (**Nor fitxa**).

4.10.1 Edukia kodetzeko fitxa

Edukia kodetzeko fitxa honen bitartez, albiste bakoitzaren ezaugarriak ikertuko dira. Gogoan izan behar da, fitxa hau hainbat modulutan banatu dugula, kodetzea argitzearen. Hauek dira modulu edo bloke nagusiak kodetze-fitxan eta bakoitzari emandako lanerako definizioa, kodetzea zuzen egin ahal izateko.

- **ID Modulus:** hemen albistearen hainbat datu emango dira (zbk, egunkaria, lerroburua, hizkuntza, etab.).
- **Egiletza:** Modulu honetan egile edo kazetariaren ezaugarriak kodetuko dira.
- **Gaia:** Zein den eduki periodistikoa.
- **Enkoadrea:** Zein den enkoadre nagusia.
- **Irudia:** Ea irudirik dagoen eta zein diren horren ezaugarriak.
- **Oharrak:** Edozein ohar edo argibide kodetze lanerako.

4.10.1.1 ID Modulus

1. **ID zenbakia:** Item bakoitzak bere id zenbakia dauka, bakarra eta errepika ezina.
2. **Data:** Artikuluaren argitaratze-data (eguna, hilabetea, urtea).
3. **Egunkaria:** Egunkariaren izena.
4. **Orrialdea:** Egunkariaren orrialdea idazten dugu.
5. **Lerro-burua:** Artikulu bakoitzaren lerroburu nagusiaren transkripzioa.
6. **Hizkuntza:** Artikuluaren hizkuntza nagusia.
7. **Artikuluaren tamaina:** Artikuluaren tamainaren arabera kodetuko ditugu:
 - 7.1. Oso handia: Orrialde bat baino gehiago betetzen duten artikuluak, edo bi orrialdetan zabaltzen dena.
 - 7.2. Handia: Orrialdearen %75 edo gehiago betetzen duen albisteak edo artikuluak. 50 modulutako *planilla* batean (5 zutabe eta 10 modulu altueran) 38-50 modulu betetzen dituzten artikuluak.
 - 7.3. Ertaina: orrialdearen %25 eta %75 tartean dauden itemak (13-37 modulu artekoak).
 - 7.4. Txikia: %25 eta %10 tartean dauden unitateak (12-2 modulu).
 - 7.5. Oso txikia: 2 modulukoak edo txikiagoak, laburrak.
8. **Orrialde-mota**
 - 8.1. Azala.
 - 8.2. Orrialde arrunta.
 - 8.3. Gehigarri arrunta: Ohikoa, astero edo epe jakin batean argitaratzen dena, adibidez Gararen larunbatetako GAUR8.
 - 8.4. Gehigarri berezia: Data jakin batzuetan argitaratzen direnak, zehazki martxoaren 8aren inguruan argitaratzen direnak.

9. **Egunkariaren Saila:** Egunkari bakoitzak erabiltzen dituen sailen izenak kopiautuko ditugu.

10. **Orrialde-mota:** Orrialdearen gai nagusia, Politika, Tokikoa, Kultura, Gizartea, Kirola, Hedabideak

4.10.1.2 Egiletzaren modulua

11. Egilearen izena

11.1. Egilearen izena: Item bakoitzean agertzen den izena kopiautuko da.

11.2. Sinatu gabe: hala kodifikatuko da sinadura gabeko itemak.

12. Egile-mota

12.1. Idazgela: egunkariak berak sinatutako albistekak.

12.2. Agentzia: informazio-agentziek sinatutakoak.

12.3. Kazetaria: egunkari bakoitzeko kazetariak.

12.4. Agintari Instituzionala: Pertsonaia bere kargu instituzional edo politikoagatik agertzen da.

12.5. Aditu: pertsonaia gaiaren inguruan aditua delako agertzen da.

12.6. Pertsonaia nabarmenak: kategoria honetan pertsonaia ezagunak sartuko dira, kirolari, bertsolari, idazle, aktore.

12.7. Taldeetako partaideak: talde baten izenean sinatzen denean, taldeko partaideak direla adierazten denean edo taldeak sinatzen duenean.

12.8. Zutabegilea: egunkarietako zutabe-egileak

12.9. Ezezaguna: kalekoa, anonimoa ...

12.10. Beste: sinaduraren identifikazioa ezinezkoa denean.

13. Egilearen generoa

13.1. Emakumea.

13.2. Gizona.

13.3. Hirugarren generoa.

13.4. Ezezaguna: Adibidez, talde anitzen sinadurak, sinatu gabekoak, hizki larriz sinatutakoak eta ezin direnak identifikatu...

4.10.1.3 Gaiaren modulua

14. Ekintzaren kokapen geografikoa

14.1. Euskal Herria.

14.2. Estatuak (estatu frantsesa eta espainola).

14.3. Nazioartea.

14.4. Beste.

15. Edukia generoaren ikuspegitik-1

Honetan item bakoitzaren gaia zein den zehaztu da, kontuan izanik M8an gai nagusia emakumeak eta hauen egoera delarik. Horrela emakumeen egoera edota hauen aldarrikapenekin lotura zuzena dituzten gai-zerrenda bat eratu da:

- 15.1. Kultura: Musika, literatura, arte, historia, zinea, Internet eta hedabideak eta orohar kultura arloko gaiak.
- 15.2. Emakumeen kontrako indarkeria: Emakumearen gaineko indarkeria, bortxaketak, hildakoak, genero-bortizkeria.
- 15.3. Gizarte gaiak: Heziketa, erlijioa, laguntza psikosoziala, osasuna jorratzen dutenak, LGTB ingurukoak.
- 15.4. Parte-hartze politikoa: Emakumeek politikan jorratzen dituzten rolak, politikan aritzen diren emakumeen ingurukoak.
- 15.5. Eskubide soziopolitikoak: emakumearen aldeko aldarrikapenak, berdintasuna, askatasun sexuala, beste eskubideen aldarrikapenak.
- 15.6. Ekonomia gaiak: Lana, soldaten desberdintasuna, etxeko lanak, pobreziaren feminizazioa, ekonomia
- 15.7. Ugaltzeko eskubideak antisorgailuak, jaiotze-kontrola, abortua.
- 15.8. Kirola
- 15.9. Beste: Aurreko gaietatik kanpo daudenak.

4.10.1.4 Interpretazio-markoen modulua

16. *Framea* edo interpretazio-markoen orokortasuna.

- 16.1. **Marko tematiko edo gaikakoa:** kategoria honetan emakumeen emantzipazioaren alde historiko, politiko, ideologiko edota kulturalak jorratzen dituzten itemak sailkatuko ditugu, baita iritzi-artikuluak, edota adituei egindako elkarrizketak, eta hauen analisiak.
- 16.2. **Marko episodiko/gertaerazkoa:** kategoria honetan kasu partikular edo ebentu baten kontaketa egiten dituzten artikuluak kodifikatuko ditugu, testuinguru gabekoak edota pertsona konkretuetan finkatzen direnak.

17. Generoaren araberako fokatzek: Salo eta Linds (2002) ikertzaileek generoarekin lotutako *framearen* azterketan bost *frame* identifikatu zituzten. Gure kasuan emakumeen irudiari lotutako 5 marko horiek hartuko ditugu ardatz. Seigarren *frame* bat identifikatu dugu, agenda deitu duguna, bertan M8ko ekitaldiekin zerikusia daukaten itemak sailkatu ditugu.

- 17.1. **Deabruaren markoa**¹¹⁴: Emakumeak sorgin edo deabru bezala irudikatuak dauden –itemak (anti-emakumeak). Hitz gakoak: “ero”, “itsusia”, “iletsuak”, “famiaren kontrakoak”, “gizonen kontrakoak”.
- 17.2. **Tribializazioa edo hutsaltzearena:** emakumearen irudia estereotipoei lotzen denean, eta antza fisikoari edo estatusari garrantzia

¹¹⁴ Gaztelaniaz editatzen diren egunkarietan kategoria hauetan agertzen diren sinonimoak erabiliko ditugu.

ematen zaionean: ilea, gorputza, edertasuna, egoera zibila, estiloa, familia loturak.

17.3. **Eskubideen aldarrikapena:** informazio-gaia emakumeen eskubideen aldarrikapena da, abortu, dibortzioaren alde edo indarkeriaren kontrako diskurtsoak. Hitz gakoak “eskubideak” “sexismoa”, “berdintasuna”, “ lana”, “enplegua” “ugalketa-eskubideak”, “laguntza”...

17.4. **Rol tradizionala:** emakume ahula, biktima, laguntza behar duena, berdintasun eza markatzen dituztenak, subordinazio plano batean kokatzen dituztenak. Hitz gakoak krimena, bortxakeria, ahultasuna, arazo mentala, berdintasun eza, emakumeak gizonak baino gehiago/gutxiago...

17.5. **Politikan esku-hartzea, (agency frame)** Instituzio eta politikan parte-hartzearen inguruko informazio edo iritziak. Aktibitate publiko politikoa. Hitz gakoak: liderra, aktibista, boterea, irabazi...

17.6. **Agenda:** M8aren inguruan egingo diren ekitaldien zerrenda hutsa albiste bihurtzen dutenean, zerrenda hutsa.

17.7. Beste:

18. Feminismoaren enkoadrea: Lan honetan lau marko nagusi aurreikusten ditugu, feminismoa, antifeminismoa, parekidetasunaren markoa eta genero rol tradizionalen mantentzea. Gure kasuan bostgarren fokatzea, fokatze eza da, hau da gaian sartu barik bakarrik datu zehatzak ematen dituzten artikuluak, adibidez konbokatoria baten berri.

18.1. Feminismoa

18.1.1. Emakumeen menpeko/zapalkuntza-egoera.

18.1.2. Emakumeen eskubide-urraketa.

18.1.3. Patriarkatuaren errua (estatua, gizartea, gizonak, arduradunak, agintariak...).

18.1.4. Botere-harremanen desoreka.

18.1.5. Emakumeen jabekuntza-prozesuak/ emakumeek boterea bereganatzea.

18.1.6. Emakumeen eskubideen defentsa.

18.2. Antifeminismoa

18.2.1. Emakumeen jarrera historikoak/erridikuluak.

18.2.2. Emakumeek eskaera absurdoak edo zentzugabekoak.

18.2.3. Emakumeen arteko zatiketak, batzuek besteen kontra.

18.2.4. Inposaketaren eta bortxaketaren bidez egoera aldatu nahi duten emakumeek (feminaziak).

18.2.5. Berdintasun-politikak atzera bota /zentzugabekoak dira...

18.3. **Genero-rol tradizionalak**

- 18.3.1. Emakumeek jada bere lekua betetzen dute.
- 18.3.2. Martxoak 8a aisialdi- eta jai-eguna bezala agertzen denean.
- 18.3.3. Familia, amatasuna eta rol tradizionalen defentsa.
- 18.3.4. Genero-desberdintasunak normalizat hartzen direnean.
- 18.3.5. Ez naiz feminista, baina... , moduko emakumeak, emakume eredu klasikoa, *superwoman* (etxean eta lanean perfektua den emakumea).
- 18.3.6. Gauzak bere egoera naturalean utzi behar dira.

18.4. **Parekidetasuna/berdintasuna**

- 18.4.1. Parekidetasunaren diskurtsoa nabarmentzen da.
- 18.4.2. Mezu instituzionala zabaltzen da.
- 18.4.3. Berdintasun formala bermatuta/beharrezkoa da
- 18.4.4. Institutzioetako bozeramaileek eta politikoak.
- 18.4.5. Institutzioek berdintasuna bermatzen dute.

- 18.5. **Neutroak:** Gaiarekiko jarrera neutrala mantentzen dutenak, adibidez, konbokatoria bat, edo ikuskizun baten ordutegia

4.10.1.5 Irudiaren analisia

19. Irudiaren tipologia.

- 19.1. Argazkia.
- 19.2. Infografia: ordenadorez egindako grafikoa non informazioa eta irudia txertatzen diren.
- 19.3. Grafikoa: Irudi soila, informazio gabekoa.
- 19.4. Komiki-zinta: Iritzia eta irudia txertatzen duen artikulua modukoa.

20. Elementu Grafikoaren protagonista.

- 20.1. Emakume bat.
- 20.2. Emakume bat baino gehiago.
- 20.3. Gizon bat.
- 20.4. Gizon bat baino gehiago.
- 20.5. Talde anitza gizon eta emakumez osatutakoa.
- 20.6. Beste.

21. Irudiaren dinamika.

- 21.1. Pasiboa, posatuak, argazkilaritari "begira". Irudiak ez digu protagonistaren inguruan ezer gehiago esaten.
- 21.2. Aktiboa (zerbait egiten), lanean, hitz egiten, pankarta bat eskuetan zerbait aldarrikatzen...
- 21.3. Beste: irudian ez dago pertsonarik.

22. Gorputzaren tratamendua.

- 22.1. Osoa: burua eta gorputza osoa edo atal orokor bat.
- 22.2. Objektua: Protagonista/en burua agertzen ez denean, gorputza objektu bezala ikusten denean (ad, botila edo kotxe baten forman).
- 22.3. Beste: argazkian ez dago pertsonarik.

23. Irudiaren espazioa.

- 23.1. Eremu pribatuak: irudia etxe barruko guneak erakusten digu, edo etxeke ataria.
- 23.2. Lan-eremuak: irudian protagonista(r)en lan eremuak agertzen direnean: bulego, osasun zentroa, eskola, eraikina, denda, kale-langileak,...
- 23.3. Aisialdi-eremua: Irudian aisialdirako eremuak irudikatzen direnean: jaia, taberna (bezero moduan), parkea...
- 23.4. Errebindikazio-gunea: martxoaren 8a gure gai nagusia izanda, errebindikazioaren garrantzia aurreikusten da, beraz aldarrikapen horien errepresentazioa aztertu beharra ikusten dugu.
- 23.5. Eremu publikoa: eremu pribatua eta aurreko beste kategorietan sartzen ez diren eremuak, adibidez kalean, prentsaurreko bateko gela...
- 23.6. Beste. Ezin da sailkatu aurreko kategorietan.

4.10.2 Protagonistak kodetzeko fitxa

Nabaria da emakumeak eta gizonak ez direla modu berean deskribatzen hedabideetan. Askotan emakumeak izendatzeko erabiltzen diren irizpideak oso desberdinak dira, izen-abizenak gutxiagotan erabiltzen dira, familiarekiko lotura agertzen da, lanbidea ez da aipatzen edota anonimo moduan erretratatzeko dira (auzokoa, adibidez) (Bach et al. 2000, 39). Honek emakumeei garrantzia kentzea dakar, protagonismoa kentzea eta azken finean emakumeak inbisibilizatzea. Beste batzuetan hedabideek estereotipoak¹¹⁵ erabiltzen dituzte, edertasunaren erreginak, itsas-andereak, eta abar luzea.

Artikulu bakoitzean, gehienez, 4 pertsona edota iturri aztertuko dira; 5 edo pertsona gehiago egotekotan, artikuluan agertzen diren lehenengo laurak hartuko dira kontutan, kazetaritzan ohikoa den alderantzizko piramideari kasu egiten.

4.10.2.1 NOR Fitxa honen garapena:

11. Izena: Pertsonaren izena, informazioan lehenengo agerpena kopiatzen da.

¹¹⁵ Gizarte-zientzietan, estereotipoa talde edo beste gizarte-kategoria batean sailkatu ondoren, talde horretako pertsonen eta horien jokabideei buruz osatzen den aurreiritzi eta irudi sinplifikatua da, kulturalki nahiz orokortze-prozesu baten ondorioz eratua eta pertsonen zuzenean aplikatzeaz gainera ekoizpen kulturean ere maiz baliatzen dena. Gehienetan, estereotipoak ez datoz bat errealitatearekin eta horien aplikazioa *secundum quid* edo gehiegizko orokortze izeneko falaziaren ondorioa da

12. Izendapenaren eredua

- 12.1. Izen-abizenak: Pertsona bakoitzaren izen-abizena osorik agertzen denean, edo izen-abizenen lehenengo hizkiak agertzen direnean.
- 12.2. Izena soilik: Pertsonaren izena agertzen denean, abizenik gabe.
- 12.3. Izengoitia: Pertsona izengoitiaz identifikatzen da, baita etxeko ezizenez, txikigarriak...
- 12.4. Izenik ez: pertsona ez da identifikatzen artikuluan.

13. Pertsonaiaren generoa

- 13.1. Emakumezkoa: pertsona horrek emakume-generoa duenean.
- 13.2. Gizona: pertsona horrek gizon gisa identifikatzen denean.
- 13.3. Beste: transexual..., esplizituki horrela agertzen denean.

14. Adina: Pertsonaren adinak aztertzeko kategoriak:

- 14.1. Adingabeak: 18 urtetik beherakoa denean eta horrela adierazita agertzen denean artikuluen testuan.
- 14.2. Helduak: adina 18-65 urte artean dagoenean eta horrela adierazita agertzen denean artikuluen testuan.
- 14.3. Adina: adina 65 urtetik gorakoa da, eta horrela agertzen da adierazita artikuluen testuan.
- 14.4. Ezezaguna: pertsonaren adina ez da agertzen testuan adierazita.

15. Familia loturak

- 15.1. Bai: bere familiako norbaitekin loturik agertzen da, ama, alaba, senarra, emaztea...
- 15.2. Ez: ez dira familiako loturarik agertzen.

16. Lanbidea: pertsonaiaren lanbidea.

- 16.1. Ez: ez da aipatzen pertsonaren lanbidea.
- 16.2. Bai, testuan pertsonaren lanbidea agertzen da, kasu honetan zein den ere idatziko dugu.

17. Pertsonaiaren papera artikuluan

- 17.1. Protagonista: informazio honetan pertsona honek protagonistaren papera jokatzen du. Informazio-gaia da.
- 17.2. Bozeramaile: talde, erakunde, partidu politiko edo enpresa bateko bozeramaile lanak egiten dituen pertsona.
- 17.3. Aditu: Pertsona horrek esperientzia eta ezagutza dauka lantze ari den gai konkretu batetan.
- 17.4. Iritzia: pertsonak bere iritzia gehitzen dio informazioari, testuingurua.
- 17.5. Beste.

18. Pertsonaren rola, informazioan betetzen duen rola

- 18.1. Agintari Instituzionala: Pertsona hori bere kargu Instituzional edo Politikoagatik agertzen da.
- 18.2. Politikariak: partidu politiko edo sindikatuetakoko partaideak.
- 18.3. Aditua: pertsona hori gaiaren inguruan aditua delako agertzen da.
- 18.4. Pertsonaia nabarmenak: Kategoria honetan pertsonaia ezagunak sartuko dira, kirolari, bertsolari, idazle, aktore.
- 18.5. Ezezaguna: kalekoa, anonimoa...

19. Pertsonaren aipuak

- 19.1. Aipu zuzenak agertzen dira.
- 19.2. Zeharkako aipuak agertzen dira.
- 19.3. Ez dago aipurik.

20. Pertsonaren deskribapen fisikoa egiten da

- 20.1. Bai.
- 20.2. Ez.
- 20.3. Hitz gakoak, traolak.

21. Pertsonaren deskribapen psikologikoa egiten da

- 21.1. Bai.
- 21.2. Ez.
- 21.3. Hitz gakoak, traolak.

22. Pertsonaren ikasketak edo ikasketa maila aipatzen da

- 22.1. Bai.
- 22.2. Ez.
- 22.3. Zein?

4.11 Kodelarien arteko fidagarritasun-maila eta kodetzea

Fidagarritasuna eduki-analisiaren gako-kontzeptua da. Ikerketa bera zenbait aldiz errepikatuko balitz emaitza berdinak lortuko liratekeela esan nahi du fidagarritasunak. Beste era batera esanda, metodo hori fidagarria dela. Ikerketa errepikatuz emaitza berdinak, edo berdintsuak, lortuko ez balira, zerbait gaizki egin da ikerketan.

Holsti-ren fidagarritasun-formula.

Holsti-k, kodelarien arteko adostasuna neurtzeko, hurrengo formula proposatu zuen maila nominaleko datuetarako:

$$\text{Fidagarritasuna} = \frac{2M}{N1+N2}$$

Non:

M = Bi kodelariak ados daudeneko kodifikazio-erabakien kopurua.

N1 = Lehen kodelariak —K1— egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua.

N2 = Bigarren kodelariak —K2— egin dituen kodifikazio-erabakien kopurua.

Adituen arabera, kodelarien artean gutxienez %90eko fidagarritasun portzentajea lortzea kontsideratzen dute egokia (Zabaleta Urkiola 1997, 226).

Gure kasuan bi kodelarik¹¹⁶ parte hartu zuten 2014ko maiatza aldean egin zen pre-test honetan. Lagina hautatzeko eskuragarri zeuden kopia digitalen artean, zoriz, 2008ko martxoaren 8ko egunkariak hautatu genituen. Azpi-lagin hau 152 itemez osatuta zegoen, 88 testu eta 64 irudi. Emaitzak ondokoak izan ziren.

Zer eta nor fitxak:

- ID moduluari dagokionez, fidegarritasuna % 99,6koa izan zen (2M=1060, eta N1 + N2= 1064).
- Egiletza eta kokapen geografikoa aztertzerakoan. Holstiren ekuazioaren emaitza %98,3 izan zen (2M=598 eta N1+N2=608).
- Gaia eta Fokatze moduluan 88 item aztertu zituzten (irudien azterketa desberdina da). Kasu honetan ekuazioak % 94,3 eman zuen (2M=1660 eta N1 + N2=1760).
- Irudien moduluan, fidegarritasuna %96,8koa izan zen (2M=310 eta N1 +N2 = 320).
- Protagonisten frogari dagokionez 39 item aztertu ziren, eta fidegarritasun-maila %95,4 izan zen (2M= 1340 eta N1 +N2= 1404).

Beraz, ikerketa honetako metodoari Holsti-ren formula aplikatuz, fidegarritasun-maila altua erakusten du, atal guztietan % 94 baino gehiago.

Fidagarritasunaren pilotu froga hau eginda, ikertzaileak edukien lagin osoa kodetu zuen eta ondoren datu-basean sartu azterketa egiteko.

¹¹⁶ 2013/2014ko bi ikasle izan ziren, bi lauhilekoetan nirekin ikasten ibilitakoak, N. Sarasola eta A. Bilbao, biak Publizitate eta Harreman Publikoetako ikasleak hain zuzen

5. M8AREN AZTERKETA HEGO

EUSKAL HERRIKO

EGUNKARIETAN

1978-2013 ETA 2018

Kapitulu honetan 1978tik 2018ra bitartean Euskal Herriko hegoaldean argitaratutako egunkarietan M8ari buruz egindako kazetaritza-estaldura aztertu da. Gure lehenengo helburua 1978-2013 epealdia aztertzea bazen ere, lan hau ia amaitzear zegoela Mugimendu feministak mundu-mailako greba orokorrerako deia egin zuen 2018ko martxoaren 8rako. Greba horren arrakastak, urtea gure hasierako seriearekin bat etortzearekin batera, egunkariek eskainitako estaldura ere aztertzeraz bultzatu gintuen.

Kapitulu hau bi atal nagusitan banatu dugu, lehenengoan 1978-2013 epealdia aztertzen da eta bigarrean 2018ari dedikatuta egongo da. Bi arrazoi nagusi daude horrela egiteko, batetik lehenengo epealdia ia amaituta zegoela, baina arrazoi nagusia 2018rako lortu diren datuetan dago. Urte horretako lagina bat dator, zehazki, aurreko 35 urteetan lortutako laginarekin, eta, beraz, ezinezkoa zen haien arteko alderaketa egitea, desoreka nabarmena baitzen.

Lehenengo atalean 1978-2013 urteetan M8aren inguruan argitaratu den kazetaritza-estaldura aztertu da, Euskal Herriko hegoaldean publikatu ziren 10 egunkarietan. Serie bat aukeratu zen, 1978an hasi eta bost urtetik behin aztertzen dena, 1978, 1983, 1989... 2013 arte.

Lehenik eta behin, aztertutako urte bakoitzean gertatutakoaren laburpena egiten da. Laburpen horrek M8 bakoitzaren ospakizunarekin batera zegoen errealitate soziala ulertzeko behar den testuingurua ematen digu.

Ondoren M8aren kazetaritza estaldura aztertu dugu, metodologian azaldutako lau ardatzetan zentratuz: egunkariek egindako estaldura periodistikoa eta honen eboluzioa, edukien kazetaritza-generoak, gaitegia eta kokapena, irudien tratamendua, M8a enkoardatzeko erabilitako ereduak eta azkenik egileen generoa eta rola.

Bigarren atalean antzeko eskema bera erabili dugu 2018ko estaldura aztertzeko.

5.1 M8a Euskal Herriko hegoaldeko egunkarietan 1978-2013

5.1.1 Martxoaren 8a EHko prentsan: gai nagusien errelatoa

Azpiatal honetan, Euskal Herriko egunkariak martxoaren 8ari buruz egindako estaldura informatiboaren gai nagusienak laburtu eta interpretazio historiko eta kualitatiboa egingo dugu. Azpiatal honetan errelatoa egiten da, urte bakoitzean nabarmendu zen agenda-gai nagusienak bakandu eta horien gainean errelatoa josi.

5.1.1.1 1978: Lehenengo ospakizunak eta manifestazioak

Martxoaren 8ari dagokion aste honetan bi gai nabarmentzen dira egunkari guztietan: Madrilen konstituzioa idazten ari zirela, batetik, eta udalen papera aurrerantzean zein izango zen finkatzea, bestetik. PSOEek ez zituen argi ikusten eztabaidak, eta alde egiteko mehatxua mahi gainean jarri zuen. Gurean, berriz, esne-ekoizleek aurrera zeramaten «esne greba» pil-pilean zegoen.

Garai horretako ohiturei jarraituz, larunbatean Igandeko Ebanjelioa argitaratzen zen. Horrela, 1978ko martxoaren 11n DIARIO VASCOKO 8. orrialdean ebanjelioari eskainitako orrialde oso bat aurkitzen dugu, bi hizkuntzatan, gaztelaniaz eta euskaraz.

Martxoaren 8ari begira, egunkari guztiek manifestazioak nabarmentzen dituzte.

DIARIO DE NAVARRAK manifestazioaren albistea birritan ematen du, batetik gertatu ziren istiluez aritzen da, «*Manifestación y algunos incidentes en el 'Día de la mujer Trabajadora'*»¹¹⁷ izenburupean, eta 16. orrialdean hitzez hitz errepikatzen du konbokatzaileen komunikatua, «*Ayer tuvo lugar en Pamplona una manifestación feminista*»¹¹⁸.

¹¹⁷ DIARIO DE NAVARRA, 1978-03-9, 6. or.

¹¹⁸ DIARIO DE NAVARRA, 1978-03-9, 16. or.

«Manifestaciones feministas en San Sebastian y Eibar» lerroburuaren azpian horrela mintzatzen da:

«El más importante fue la movilización de mujeres que hacía las ocho de la tarde partió del Boulevard y en la que iban unas tres mil mujeres. A la cabeza de la manifestación cuatro filas de mujeres radicales, que armadas de escobas y con disfraz cantaban y hacían el gesto del lesbianismo. El resto de las filas iban en orden y gritaban unitariamente las consignas que se habían señalado para la manifestación»¹²¹.

DIARIO VASCON eta EL CORREON irakur dezakegu Mosku eta Sobiet Batasuneko emakumeen egoera tamalgarria; EGINen aldiz, AEBkoak: «La mujer en la URSS lo mismo que en los países capitalistas»¹²²; «Moscú: La policía disuelve una manifestación de mujeres judías»¹²³; «Washington: las esposas deberán trabajar fuera de casa si quieren equilibrar la economía»¹²⁴.

EGINEk lau iritzi-artikulu argitaratzen ditu aste horretan, Herald Tribune-tik ekarritako «Andre gerreroaren mitoa»¹²⁵, emakumeen papera armadetan jorratzen duena, eta beste hiru bertako errealitatean finkatuta, batez ere emakumeen kontrako indarkeria salatzen: «Las violaciones: violencia contra la mayoría»¹²⁶, «Lucha unitaria contra la marginación y las agresiones»¹²⁷, «Mujeres sin complejos ni intermediarios»¹²⁸.

Bitan agertzen dira EGINEko azalean M8ko mobilizazioak, lehena martxoaren 8an bertan, bigarren mailako gai moduan, hurrengo egunean azaleko bi argazkiak eta titularra manifestazioari ematen dizkio, «Se celebró con éxito el Día de la Mujer»¹²⁹.

Beraz, urte honetako egunkari gehienetan, emakumeek egindako kale-manifestazioetan zentratzen da nagusiki informazioa, eta EGINEk emakumeen aurkako indarkeria ere salatzen du.

¹²¹ DIARIO VASCO, 1978-03-09, 6. or.

¹²² DIARIO VASCO 1978-03-11, 18.or.

¹²³ EL CORREO 1978-03-09, 16. or.

¹²⁴ EGIN 1978-03-9, 28. or.

¹²⁵ EGIN 1978-03-05, 14. or.

¹²⁶ EGIN 1978-03-05, 15. or.

¹²⁷ EGIN 1978-03-07, 10. or.

¹²⁸ EGIN 1978-03-09, 14. or.

¹²⁹ EGIN 1978-03-09, 1. or.

5.1.1.2 1983: abortuaren inguruko eztabaida pil-pilean

Bi gai nahasten dira M8ko astean, emakumeen eguna eta abortu-delituengatik Bilbon egiten ari zen epaiketa, non lau emakume epaitzen zituzten. Aldi berean, Madrilen, abortuaren kontrako manifestazio handia egin zuten, DEIAREN arabera berrehun mila pertsonak parte hartu zuten bertan; azalean argazki-informazio batean «*Doscientas mil personas*» lerroburupean, azaldu zuen: «*Se leyeron unas palabras de Teresa de Calcuta: hoy algunas madres no sólo se olvidan de sus hijos, sino que asesinan al no nacido dentro de su ser. El aborto hoy es el mayor destructor de la paz*»¹³⁰.

Manifestazioaren inguruko informazio gehiago 27 orrialdean irakurri dezakegu, argazki batez lagunduta. Argazkian Down sindromea duen ume bat ikusten da, kartel batekin: «*Por favor no nos maten, también tenemos derecho a vivir*»¹³¹; argazki bera DIARIO DE NAVARRAN¹³² aurkitu dugu eta baita DIARIO VASCON, argazki-oin honekin: «*La niña mongólica y su madre en la concentración*»¹³³ (albistearen lerro-burua: «*El aborto es un asesinato como otro cualquiera*»).

DIARIO DE NAVARRAN ere abortuaren gaia nagusia da, eta AEBko mediku baten hitzak dakartza abortuaren kontra egiteko, «*La batalla del aborto la ha ganado la biología*» izenburupean: «*Yo diría que lo que si hay es bastante ignorancia, y en el fondo, en algunos sectores, un desprecio manifiesto hacia la vida humana, a la que se considera como simple mercancía*»¹³⁴.

NAVARRA HOY egunkarian asteko bi gaiak lantzen dituzte, alde batetik abortuaren kontrako manifestazioaz hitz egiten dute, «*Miles de personas se concentraron en Madrid en contra del aborto*»,¹³⁵ edota «*Un grito por la vida*»¹³⁶ iritzi artikuluan, YA egunkariaren editorialaren kopia dena, abortuaren kontrakoa, eta bestetik martxoaren 8ko Mugimendu Feministaren deialdia argitaratzen da, ia hitzez hitz. Bestetik atentzioa deitu digu Tere Saez feministari buruz artikuluan egiten duten aipua::

¹³⁰ DEIA 1983-03-06, 1. or.

¹³¹ DEIA, 1983-03-06, 26. or.

¹³² DIARIO DE NAVARRA, 1983-03-06, 17. or.

¹³³ DIARIO VASCO 1983-03-06, 19. or.

¹³⁴ DIARIO DE NAVARRA 1983-03-9, 14. or.

¹³⁵ NAVARRA HOY 1983-03-06, 16. or.

¹³⁶ NAVARRA HOY 1983-03-7, 11. or.

«Tere Saez es miembro de la coordinadora Feminista de Navarra. Parece una chica normal, no un 'coco' ante el que los hombres no sabemos como comportarnos. 'Sacame guapa -le dice a Fermín- para que no crean que las feministas somos gordas y feas'»¹³⁷.

2. Irudia: NAVARRA HOY, 1983-03-09, elkarrizketa



DEIAK aste honetan abortuan zentratzen du begirada eta martxoaren 8ko albistea bigarren plano batean gelditzen da. Erreportaje batean gizonei galdetzen die iritzia: «Los 'hombres' opinan sobre el día de la mujer»¹³⁸. Iritzi-orrialdeetan lau artikulu aurkitzen ditugu, bata Txinako bi emakumeen historiaren inguruan, beste bat emakume eta gizonen eskubide berdintasunari buruz, eta beste bi abortuarekin lotuta, alde zein kontra.

DIARIO VASCOrentzat ere gai nagusia abortua da, eta ez martxoaren 8a, azken gai hau ez baita agertzen, honako hau esateko ez bada: «Detenidos 10 ultraderechistas por atacar a manifestantes feministas en Zaragoza»¹³⁹. Madrileko manifestazioaren partaidetza miloi batera igotzen du, «Entre 600.000 y un millón

¹³⁷ DIARIO DE NAVARRA 1983-03-09, 05. or.

¹³⁸ DEIA, 1983-03-08, 03. or.

¹³⁹ DIARIO VASCO 1983-03-11, 32. or.

de personas se concentraron en Madrid a favor de la vida y en contra de la legalización del aborto»¹⁴⁰.

EL CORREOK Bilboko manifestazio feministaz hitz egiten du, «*Cientos de mujeres se manifiestan ayer en Bilbao*» lerroburuarekin, baina sei modulutako albistean beste bi gai desberdin ere tartekatzen ditu, NBEko idazkariaren hitzak eta Valentzian sortuko duten emakumeei zuzendutako zerbitzua. Kasu honetan argazkian manifestazioaren irudia ikusten da, honako argazki-oinarekin: «*Las manifestantes profirieron diversos gritos de carácter feminista*»¹⁴¹.

Egunkari honetan Bartolomé Beltrán doktorea protagonista den erreportajea, «*El ama de casa, oficio peligroso*», horrela mintzo da:

«La mujer que tiempo atrás tuvo su DNI con la anotación ‘sus labores’ padece hoy el llamado síndrome del ama de casa. Los mensajes que esas mujeres reciben del exterior le indican que la realidad sociocultural es otra bien distinta. La insatisfacción las neurotiza. La soledad que padecen las aísla psicológicamente y la depresión les provocan sentimientos de inutilidad, vacío interior, jaquecas, tendencia a engordar o adelgazar e incluso ideas de suicidio. Hace tiempo se veían afectadas de ciertas dermatitis alérgicas por los detergentes y de higromas (inflamación crónica de las bolsas serosas de la rodilla) pero actualmente se ha librado gracias a los guantes y la fregona»¹⁴².

EGIN egunkariaren kasuan ikuspuntua oso desberdina da. Abortuaren aldeko iritzi-artikulu ugari daude, ikuspuntu feminista batetik aztertuta, adibidez «*Aborto, un problema político*»¹⁴³ artikulua, *Comisión pro derecho al aborto de la coordinadora feminista de Navarra* sinatuta; «*Abortatzeko eta lanerako eskubidea*»¹⁴⁴, Gipuzkoako Diputazioko LAB-ek sinatuta, edo «*Borroka eguna, Eguneroko borroka*»¹⁴⁵, *Aizanen*¹⁴⁶ eskutik. Informazioari dagokionez, abortuaren aldeko mobilizazioak nagusi dira aste osoan, eta Bilbon egiten ari den abortuaren kontrako epaiketaz, eguneroko jarraipena egiten du.

¹⁴⁰ DIARIO VASCO 1983-03-06, 19. or.

¹⁴¹ EL CORREO 1983-03-09, 34. or.

¹⁴² EL CORREO, 1983-03-10, 45. or.

¹⁴³ EGIN 1983-03-09, 17. or.

¹⁴⁴ EGIN 1983-03-09, 20. or.

¹⁴⁵ EGIN 1983-03-08, 18. or.

¹⁴⁶ Aizan: 1981 sortua, hiru ardatzetan lan egingo zuen taldea zen: nazio-zapalkuntza, esplotazio soziala eta menderatze patriarkala (Epelde Pagola et al. 2015, 157).

Abortuaren legearen kontra egin ziren ebentuen informazioa da nagusi egunkari gehienetan, baita-iritzi artikuluetan ere. M8ko ekitaldiek, aldiz, garrantzi gutxiago dute urte honetan. Salbuespena, aurreko urtean bezala, EGIN da, non abortuaren aldeko iritziak irakur daitezke.

5.1.1.3 1988: M8a agendatik kanpo

Urte honetan, otsailaren 5ean Eusko Legebiltzarrak Emakumearen Euskal Institutuaren sorkuntzarako legea onartu zuen, Institutuak Emakunde izena hartu zuen. Lehenengo zuzendaria Txaro Arteaga izan zen eta Itziar Fernández Mendizabal Idazkari Nagusia. Hala ere, Emakundek ez zuen inolako presentziarik izan urte horretako martxoaren 8ko asteko artikuluetan.

Martxoaren 8aren aldarrikapenek garrantzi gutxi izan zuten urte honetako egunkarietan. Horrela EL CORREOK etxeko langileen egoeraz hitz egiten du, «*De la margen izquierda a la derecha para 'servir'*»¹⁴⁷, edota emakumeen depresioaren inguruan, «*El diagnóstico de depresión se le aplica a la mujer muy fácilmente y con poco rigor*»¹⁴⁸. Aipamen berezia egiten dio emakumeen zentro baten sorreraz mintzatzen da, «*Gorordo promete estudiar la creación de un local para mujeres en la Alhondiga*». Artikulu honen azken partean, momentu horretan Bilboko Alkatea zen Gorordoren txantxa-edo irakur dezakegu:

*«Gorordo: es cierto que a vosotras se os exige el doble que a los hombres a la hora de ostentar un cargo de importancia, pero también es cierto que yo mismo he sufrido la discriminación sexista, pues hubo una época en la que quise trabajar como au-pair y no me dejaron por ser hombre»*¹⁴⁹.

Martxoaren 8ari aipamen bakarra aurkitzen dugu, «*Santa Pluralidad, patrona del feminismo*»¹⁵⁰ artikulua, feministen zatiketan oinarritutako artikulua. Artikuluak zentzu ezkor bat dauka, izenburutik hasita.

¹⁴⁷ EL CORREO, 1988-03-07, 17. or.

¹⁴⁸ EL CORREO, 1988-03-07, 9. or.

¹⁴⁹ EL CORREO, 1988-03-09, 9. or.

¹⁵⁰ EL CORREO, 1988-03-08, 3. or.

3. Irudia: EL Correo, 1988-03-08



EL CORREON ez dago iritzi-artikularik M8aren inguruan, *El DIARIO VASCO* egunkarian iritzi-artikulu bakarra aurkitzen dugu, euskaraz idatzita, «*Martxoaren 8a oraindik 'besteak' garelako*»¹⁵¹, lerroburupean eta Foro María de Maeztuk¹⁵² sinatuta. Egunkari honetan gaiari ematen zaion tratamendua oso eskasa da, apenas zortzi albiste, gehienak agendakoak eta tartean Chaves ministroak aurkeztuko zituen neurri berriak amatasun-bajaren inguruan: «*Chaves anunció medidas laborales en favor de la mujer: 4 meses por maternidad*»¹⁵³.

DIARIO DE NAVARRAK bost artikulu argitaratzen ditu aste honetan, emakumeak ardatz dituztenak, tartean Shere Hite ikertzaile feministaren liburuari egindako iruzkina:

*«Shere Hite, feminista molesta para feministas
La reciente aparición de la ambiciosa obra da Shere Hite,
"Mujeres y amor" fue saludada con una tormenta de críticas, la
mayoría de ellas justificadas, pero que sortean el tema principal,
la experiencia emocional y sexual de millones de mujeres. Shere*

¹⁵¹ DIARIO VASCO, 1988-03-9, Zabalik gehigarriaren VI. Orrialdea.

¹⁵² Forum Feminista Maria de Meztu taldea 1988 urtean eratu zen, emakumeen parte-hartze politikoa haztea zuen helburuetako bat (Epelde Pagola et al. 2015, 195).

¹⁵³ DIARIO VASCO, 1988-03-9, azala eta 22. or.

es un personaje muy complejo, irritante, que espanta incluso a la mayoría de las feministas norteamericanas»¹⁵⁴.

DEIAk ere oso garrantzi gutxi ematen dio martxoaren 8ari. Martxoaren 6an «*Vidas duras de mujer*»¹⁵⁵ erreportaje luzea argitaratzen du, non lau emakumeen bizi-baldintza gogorrez hitz egiten du, baina ez dago salaketarik, etsipena baizik, «*Mujeres duras como la piedra, que más que vivir su vida, la sufren*», dio kazetariak.

Lanbroa¹⁵⁶ kolektiboaren «*Mujer, alégrate*»¹⁵⁷ iritzi-artikuluak argitaratzen du DEIAK: «*Mujer alegrate! Porque la fuerza de tu subversión individual y la rebelión colectiva de todas te hará libre*». Martxoaren 8 egunari buruz, «*Día de la mujer trabajadora*» iritzi-artikuluak aurkitu dugu, non lan eta bizitza pribatuaren arteko kontziliazioaz aztertzerakoan ardura politikoak dituzten emakumeen bizitzaz aritzen den:

«No es casualidad que una gran parte de las mujeres que ocupan cargos públicos o que militan activamente son solteras, divorciadas o no tienen grandes responsabilidades familiares, mientras que un hombre puede comprometerse independientemente de ello»¹⁵⁸.

Martxoaren 8an «*Las mujeres celebran el 8 de marzo con actos culturales y reivindicativos*»¹⁵⁹ orrialde erdiko albistea argitaratzen du DEIAK, eta hor amaitzen dira erreferentzia guztiak, hurrengo egunetan ez baita deus argitaratzen. Abortuaren kontrako iritzi bat zuzendariari zuzendutako gutun batean irakur dezakegu «*Izquierda y aborto*»¹⁶⁰ izenburupean.

NAVARRA HOY egunkarian hiru iritzi-artikulu irakur ditzakegu aste honetan, batean eliza katolikoak emakumeei egiten dien diskriminazioagatik kritikak gogorrak jasotzen ditu:

¹⁵⁴ DIARIO DE NAVARRA, 1988-03-09, 19. or.

¹⁵⁵ DEIA, 1988-03-06, 26. or.

¹⁵⁶ Lanbroa: 1976 urtean sortu zuten Bilbon, diferentziaren feminismoan errotuta (Siglen esanahia: Lucha Antipatriarcal Mujeres Bizkainas Radikales-Revolucionarias Organizadas) (Epelde Pagola et al. 2015, 142)

¹⁵⁷ DEIA, 1988-03-07, 08. or.

¹⁵⁸ DEIA, 1988-03-08, 08. or.

¹⁵⁹ DEIA, 1988-03-08, 21. or.

¹⁶⁰ Deia, 1988-03-09, 18. or.

«También la iglesia institucional, al igual que la sociedad en general, ha mantenido y sigue perpetuando una postura restrictiva y discriminatoria que deja malparada a la mujer... Al impedirle el acceso al sacerdocio ministerial, no le reconoce la dignidad y capacidad suficiente como persona al igual que el hombre, para desempeñar un servicio a la sociedad.... La mujer continúa sojuzgada todavía en el hogar y el matrimonio...»¹⁶¹.

Albiste gehienak agenda-ingurukoak dira egunkari honetan.

EGINek prisma askotarikotik begiratzten dio gaiari, teknologiatik adibidez, «*La mujer en la era tecnológica*»¹⁶² iritzi-artikuluan edota «*Intentan frenar la lucha contra la ingeniería genética*»¹⁶³ erreportajea. Kultura sailean «*Feminismo y rock*»¹⁶⁴ eta «*El Festival de Cine de Mujeres de Creteil comienza mañana*»¹⁶⁵ topatu ditugu, baita autore feministak biltzen duen liburu baten erreseina ere, «*La mitad y pico del cielo*»¹⁶⁶.

Hainbat informazio daude aste horretan egingo diren mobilizazioei buruz; deigarria da, salbuespena delako, nazioarteko orrialdeetan ere, mundu-mailan emakumeen mobilizazioak nolakoak diren kontatzen digula «*Debate y reivindicación, constantes en la celebración del 8 de marzo en el mundo*»¹⁶⁷ eta «*El escandaloso acoso policial de militantes feministas en la República Federal Alemana*»¹⁶⁸ artikuluetan. Martxoaren 6an bost emakume feministei egiten diete elkarrizketa, feminista izatea zer den azal dezaten, «*La opresion de las mujeres es un problema político de envergadura*»¹⁶⁹ izenburupean, emakume horien izenak agertzen dira bakarrik, abizenik gabe. Egun bertan, agendaren berri ematerakoan, hauxe irakur dezakegu:

«Por la noche tuvieron una cena en la zona liberada del Casco Viejo... Hoy por la mañana, a expensas de lo que tenga a bien decidir la autoridad competente, una representación de la AMB

¹⁶¹ Diario de Navarra, 1988-03-08, 12. or.

¹⁶² Egin, 1988-03-05, 3. or.

¹⁶³ Egin, 1988-03-08.16. or.

¹⁶⁴ Egin, 1988-03-10, Bat, Bi, Hiru gehigarrian

¹⁶⁵ Egin, 1988-03-11, 15. or.

¹⁶⁶ EGIN, 1988-0308, 21. or.

¹⁶⁷ EGIN, 1988-03-09, 15. or.

¹⁶⁸ EGIN, 1988-03-08, 15. or.

¹⁶⁹ EGIN, 1988-03-06, 22. or.

hará una visita solidaria a las mujeres presas de la cárcel de Basauri»¹⁷⁰.

Ikusi dugun bezala, egunkariak garrantzi gutxi eman zioten urte honetan M8 gaiari, eta honetaz hitz egiten dutenean kontrako iritziak nagusitzen dira. Salbuespena, berriz ere, EGIN egunkarian aurkitzen dugu, non feminismoaren aldeko ahotsak irakurri daitezkeen aste osoan zehar.

5.1.1.4 1993: Emakumeak bai, feminismoa ez

Aldaketa nabarmena ikusten da aste honetan, bikoiztu egiten baita berrien kopurua aurreko urteekin konparatuz. 180 artikuluk osatzen dute urte honetako lagina.

DEIAK adibidez, politikan aritzen ziren sei emakumez¹⁷¹ erreportaje luzea egin zuen martxoaren 6an. Erreportaje horretan alderdi politiko guztietako emakumeek hartzen dute parte, ezker abertzalekoak izan ezik. Egun berean, Rosa Chacel idazlea Bilbora etorri zela aprobetxatuz, elkarrizketa egin zion F.J.E. sinatzen duen kazetaria, haren aspektu fisikoaz aritzen da artikuluan:

«Tiene los cabellos totalmente blancos y unas gruesas gafas. Reparte varios anillos entre los dedos índice y corazón de su mano izquierda y las uñas las lleva pintadas de un color rojizo. Viste un jersey malva y sobre sus hombros se extiende un pañuelo blanco en el que aparecen estampadas varias flores de tonos rosas. De su garganta cuelga un collar con eslabones bastante gruesos. A sus 95 años sigue cultivando con cuidado su coquetería»¹⁷².

Hurrengo egunean, igandeko gehigarrian Txaro Arteagari egiten diote elkarrizketa. Arteaga momentu horretan EMAKUNDEKO lehendakaria zen. Bi orrialdetako elkarrizketa argitaratu zuten, egindako galderen artean hau nabarmendu dezakegu:

«Galdera; ¿La etiqueta feminista no está ya pasada de moda? Erantzuna: no debería, aunque casi siempre se ha considerado de forma peyorativa. Yo la reivindico como el derecho de las mujeres a ejercer su autonomía y no creo que sea peyorativo ni esté pasado de moda.

¹⁷⁰ EGIN, 1988-03-06, 19. or.

¹⁷¹ DEIA, 1993-03-06, 19. or.

¹⁷² DEIA, 1993-03-06, 12.or.

Hurrengo galdera: ¿Practica usted con el ejemplo?»¹⁷³.

Urte honetan Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz emakumeei zuzendutako bazkari herrikoi bat antolatu zen Bilboko Erakustazokan, mugimendu feministak nahiko kritikatu zuen ekitaldi hura, eta DEIAN honela kontatzen da:

«Unirse en una comida festiva y nada reivindicativa, porque ya luchamos/reivindicamos durante todo el año»¹⁷⁴.

Iritzien artean, Joxe Agustin Arrietarena nabarmendu behar dugu, zeina «Emakumearen bide luzea» izenburua zeukan iritzi-zutabearen horrela mintzatu baitzen:

«Gizonezko eta emakumezkoen arteko arazoak, ezberdintasunak eta elkar menperatzeak ez dira bien arteko borrokaz konponduko. Batak bestea desegitea besterik ez dakar eskubide-borrokak, gaur moda-modako gauza miraritsua balitz bezala eskaintzen duten arren "feminista" deituriko taldekideek. Batak bestea hobeto ezagutzea, elkar osotu nahia, eta bakoitzak bere grina eta berekoikeriak neurriraturik, elkarri on egitea; bestearen onerako, nork bere burua sakrifikatzea eta batak bestea zorioneko egitea. Hemendik ikusten dut egiazko berdintasun bidea eta hauxe zorion-bide bakarra»¹⁷⁵.

DIARIO DE NAVARRAN zortzi informazio eta bi iritzi argitaratu zituzten aste honetan. «Seis ejemplos de mujer trabajadora» erreportajearen elkarrizketatuko emakumeek lana halabeharrez egiten zutela nabarmentzen zuten, ez independente izateko edo mugimendu feministak eskatzen duen eskubide bat delako:

«Cuando me separé tuve que volver al trabajo. No busco con ello ni realizarme ni tener independencia. Trabajo por necesidad»¹⁷⁶.

Iritzi-artikuluen atalean feministen kontrako gutuna aurkitzen dugu:

«Va para vosotras feministas que os llamáis defensoras de la mujer, son varios los aspectos en el campo de los derechos y las

¹⁷³ DEIA, 1993-03-07, 2-3 Suplemento Dominical.

¹⁷⁴ DEIA, 1993-03-06, 22. or.

¹⁷⁵ DEIA 1993-03-09, 12. or.

¹⁷⁶ DIARIO DE NAVARRA, 1993-03-07, 31. or.

libertades de la mujer que los defendéis mal; yo diría que justamente entorpecéis el avance»¹⁷⁷.

Moskun egindako manifestazioaren lekukoa ere ematen digu egunkari honek, «*Moscú: Cacerolada femenina pidiendo la vuelta al pasado comunista*» lerroburupean, honela kontatzen dira manifestazioaren nondik-norakoak:

«Protegidas por un frente de marcha compuesto únicamente por hombres, las mujeres fueron detrás con cacerolas, pancartas y banderas de la URSS ...'Nuestros hombres solo beben vodka y especulan'»¹⁷⁸.

NAVARRA HOY ere kezkatuta agertzen da Moskun gertatzen denaz, «*Cinco mil mujeres reclaman el regreso al comunismo en Rusia*» izenburua jarri zion berri horri eta honelaxe kontatzen digu bertan gertatutakoa:

«Más de 5000 mujeres "soviéticas" marcharon ayer por las calles de Moscú, cacerola en mano, haciéndola sonar junto a proclamas de vuelta al pasado comunista y apenas unas pocas reivindicaciones femeninas en el Día Internacional de la Mujer. Protegidas por un frente de marcha, compuesto únicamente por hombres, las mujeres fueron detrás con cacerolas, pancartas y banderas de la URSS»¹⁷⁹.

Emakume tunisiarren egoeraz ere informatzen du, «*Las mujeres con carrera tienen problemas para casarse en Túnez*» izeneko erreportajea:

«Cuando acceden a carreras y cargos superiores, las mujeres tunecinas ven reducidas sus posibilidades de contraer matrimonio, dando así razón al adagio popular que, en ese país, aconseja: la mujer casadera preferible que sea guapa y tonta»¹⁸⁰.

UGTk feminismoaren lerrotik urrundu zen garai horretan «*UGT celebrará el Día de la Mujer con un acto cultural sin tintes feministas*», eta NAVARRA HOYren arabera, behartuta sentitu zen Martxoaren 8an zerbait egitera:

«...alejado de ideas feministas e, incluso, sindicalistas. Ha optado por celebrar un acto de estas características porque era irremediable organizar alguna actividad y porque salir a la calle

¹⁷⁷ DIARIO DE NAVARRA, 1993-03-10, 41. or.

¹⁷⁸ DIARIO DE NAVARRA, 1993-03-09, 11. or.

¹⁷⁹ NAVARRA HOY, 1993-03-09, 26. or.

¹⁸⁰ NAVARRA HOY, 1993-03-09, 52. or.

con pancartas no va a proporcionar a la mujer más derechos de los que ya tenga»¹⁸¹.

Egunkari honetan iritzi-artikulu bakarria aurkitzen dugu, «*Compromiso por la igualdad*»¹⁸², martxoaren 9ko editoriala hain zuzen, eta emakumeen lan-egoeraz hitz egiten dute, beti ere ikuspuntu tradizional batetik abiatuta.

DIARIO VASCON irakurri genuen Jose María Mendiolak sinatutako iritzi zutabearen, «*Mujeres*»:

«Ahora ellas conducen buses -y muy bien-, las ordenan sacerdotisas -por el momento a las inglesas-, llevan uniformes de la OTA o son fieras ejecutivas. Lo que han cambiado los tiempos. Cualquiera se atreve hoy 'a sacarlas'. Incluso no nos extrañaría nada que en un futuro, ellas dijeran a sus amigas: 'voy a sacar a mi marido, que el pobre no ha salido desde ayer'. En fin, dedicamos este comentario a las damas, en Víspera del Día Internacional de la mujer»¹⁸³.

Begoña Amestoy kazetariak zutabe bat sinatu zuen aste horretan DIARIO VASCON «*Solo para mujeres*» izenburupean, eta honela dio:

«Por eso, como ya les hemos demostrado lo que vale un peine, creo que podemos ir bajando la guardia, que tampoco hay que pasarse. Y además, ejercer de féminas tiene sus ventajas: aquí, entre nosotras, hay que reconocer que son muy apañaditos con su cajita de bricolaje. Definitivamente el próximo año por estas fechas deberíamos celebrar el armisticio de la 'guerra de los sexos'. Porque nosotras las mujeres, no necesitamos que nadie nos reivindique. Estamos ya en otra historia»¹⁸⁴.

Feminismoaren kontrako jarrera hau ez da bakarrik iritzieta somatzen, informazio atalean ere ikusten da, adibidez, Begoña Muruagari egindako elkarrizketan, «*Begoña Muruaga: En realidad, eso del matriarcado vasco no ha existido jamás*». Nahiz eta elkarrizketatuak feminismoaren ikuspegitik erantzun, kazetariak egiten dituen dituen galderetan feminismoaren kontrako jarrera nabaritzen dugu:

¹⁸¹ NAVARRA HOY, 1993-03-05, 10. or.

¹⁸² NAVARRA HOY, 1993-03-09, 21. or.

¹⁸³ DIARIO VASCO 1993-03-07, 6. or.

¹⁸⁴ DIARIO VASCO, 1993-03-08, 03. or.

«Cuando Simone de Beauvoir escribió el segundo sexo ¿conocía ya el Matriarcado vasco? ¿No fue un hombre, Carlos Garaikoetxea, el precursor de la Ley de Divorcio, al romper sus vínculos sagrados con Xabier Arzalluz? ¿No hay quien piensa que el feminismo es un camino de santidad?»¹⁸⁵.

Eusko Legebiltzarrean aritzen ziren emakumeek adierazpen instituzional bat aditzera eman zuten M8an. Honek ez zuen islarik izan adibidez DIARIO VASCOko azalean, bai ordea, honako albiste honek: *«El Duque de Feria, en la enfermería para que no intente suicidarse»¹⁸⁶.*

EL CORREO Bilboko erakustazokan egindako bazkariak mintzo da:

«Un jubilado: para mí el 8 es el día que va antes del 9, el camarero: sácame la última foto de mi vida, consciente de lo que se le viene encima, una docena de voluntarios se mantuvo alerta durante la fiesta por si a alguna le daba un ataque de libertad»¹⁸⁷.

Igandeko gehigarrian Ertzaintzan ari zen emakume baten inguruko erreportajearen honako hau agertzen da:

«Y yo con estas pintas! Bromea Mari Carmen Emparan Sánchez, subjefa de la comisaria de la ertzaintza en Tolosa cuando el flash de la cámara estampa sobre su rostro. El gesto de coquetería de esta mujer es tan natural como su fisonomía de poli a medio vestir: característico jersey rojo acanalado con galones de inspector, pantalón sport color marrón y zapatos de tacón bajo. O sea (sic) un coctel explosivo pero combinado»¹⁸⁸.

EL CORREON feminismoaren ikuspegitik idatzitako iritzi artikulua bat irakurri ahal izan zen martxoaren 5ean, *«Una familia nuclear»¹⁸⁹* izenburupean, eta baita Celia Amorós filosofoari egindako elkarrizketa ere¹⁹⁰, non bere diskurtso feminista islatzen den. Argazki-inkesta¹⁹¹ batean talde feministen ordezkariak galdetzen zaie egunaren garrantziaz.

¹⁸⁵ DIARIO VASCO, 1993-03-08, 16. or.

¹⁸⁶ DIARIO VASCO, 1993-03-09, 1. or.

¹⁸⁷ EL CORREO, 1993-03-09, 7. or.

¹⁸⁸ EL CORREO, 1993-03-10, 8. or.

¹⁸⁹ EL CORREO, 1993-03-05, 28. or.

¹⁹⁰ EL CORREO, 1993-03-11, 41. or.

¹⁹¹ EL CORREO, 1993-03-08, 23. or.

EUSKALDUNON EGUNKARIAN ahots feministak ugariagoak dira orain arte ikusi ditugun komunikabideetan baino. Adibidez, martxoaren 7an Idurre Eskisabel kazetariak lau orrialde bete zituen emakumeen egoera aztertuz, bai lan munduaren ikuspegitik, «*Lan munduan kolokan*»¹⁹² izenburuarekin, bai eskubide zibilen defentsatik, «*Emakumeak aurrera jo behar du*»¹⁹³ eta «*Emakumeak batuta*»¹⁹⁴, eta baita genero-indarkeriaren inguruan «*Legeekin borrokan*»¹⁹⁵ lerroburuak zeukan laugarren erreportajearekin. Hauek guztiak egunkariaren azalean agertzen dira.

EGIN azkenerako utzi dugu aste honetan esfortzu berezia egin zuelako gaiaren inguruan. Osotara 76 artikulutan jorratu zuten emakumeen egoera, horietatik bi komikilarien binetak. Iritzi-saileko orrialdeetan editoriala aurkitzen dugu martxoaren 7an, «*Mañana es 8 de Marzo*», eta emakumeen eskubideen aldarrikapenez mintzatzen da:

*«El 8 de marzo puede aparecer, en este contexto, como una celebración contradictoria. Pero todavía sigue siendo necesaria porque hay que dejar constancia, al menos un día, de que la sociedad no es igualitaria y de que hay que esforzarse en que llegue a serlo»*¹⁹⁶.

Bestalde, hamabi iritzi-artikulu irakur daitezke eta bost irakurleen gutunak. Egileen artean alderdi politikoen partaideak daude, hala nola Amaia Montorio eta Idoia Saralegi, sindikalistak, Miren Esnaola ESK-CUIS sindikatukoa edota Itxaro Martinez eta Esther Vinagre LAB sindikatukoak, talde feministetako kideak, adibidez, Juana Aranguren, ETako Carabanchelgo emakume preso politikoak...

Iritzi-orrialdeetako Ez-Baika atalean hainbat artikulu argitaratu zituzten astean zehar, zinta berezi baten pean, «*Feminismo hoy y aquí*». Ohiko gehigarrietako gairikoko artikuluek ere feminismoaren bidea hartzen dute, adibidez, sexuaren inguruko asteko artikulua, Luis Alberdin sexologoak sinatuta, «*8 de marzo, mal síntoma*»¹⁹⁷ lerroburupean.

¹⁹² EUSKALDUNON EGUNKARIA, 1993-03-07, 11. or.

¹⁹³ EUSKALDUNON EGUNKARIA, 1993-03-07, 12. or.

¹⁹⁴ EUSKALDUNON EGUNKARIA, 1993-03-07, 13. or.

¹⁹⁵ EUSKALDUNON EGUNKARIA, 1993-03-07, 14. or.

¹⁹⁶ EGIN, 1983-03-07, 7. or.

¹⁹⁷ EGIN, 1993-03-05, Gaztegin 13. or.

Informazio-atalean gaiak askotarikoak dira. Kultur eta agenda-informazio ugaria ematen da herrietan antolatu ziren ekitaldien inguruan. Bizkaiko Emakumeen Asanbladak antolatu zuen kanpainaren nondik norakoak argitaratzen dira, «*Proponemos la insumisión al servicio militar obligatorio*»¹⁹⁸.

EGINEN ere Gasteizko Parlamentuan egindako ekitaldiari buruzko informazioa aurkitzen dugu, «*El parlamento vascongado fue el escenario del acto oficial*», ironiaz beteriko sarreratxo batekin:

*«Unas ochenta parlamentarias, junteras, concejalas, alcaldesas y mujeres con responsabilidades en el Gobierno de Vascongadas llenaron ayer el salón de plenos del parlamento de Gasteiz. La Cámara aparecía repleta, como sólo lo está en las visitas de los escolares, con una función decisoria parecida a la de esos casos. Las mujeres entraron, se sentaron, oyeron a la presidenta de EMAKUNDE y ratificaron un par de acuerdos pre-adoptados. Solo cinco hombres estuvieron presentes en el acto simbólico de ratificación del acuerdo "Mujeres al Poder" de la Cumbre de Mujeres Europeas. Presidente, vicepresidentes y secretarios de la mesa del Parlamento, cinco varones, fueron los encargados de presidir y dirigir la sesión, saludando a la entrada y aplaudiendo al final»*¹⁹⁹.

Egunkari honetan M8an Erakustazokan antolatutako bazkariaren inguruan Clara Campoamor elkartearen buruak talde feministen kontra botatako adierazpenak irakur daitezke:

*«La representante del grupo Clara Campoamor tuvo duras palabras para un colectivo de feministas que al comienzo de la presentación repartió un manifiesto abogando por la unidad de acción, que calificaba el acto como "atractivo para una institución en periodo electoral. Blanca Estrella Ruiz calificó a la Asamblea de Mujeres Feministas, a las que responsabilizó de la entrega del manifiesto, como seis pobrecitas asociaciones de mujeres, mientras nosotras somos veintiocho»*²⁰⁰.

Gazteen ikuspuntutik feminismoa nahiko landuta agertzen da GAZTEGIN gehigarria. Emakume gazteen bizipen eta sentazioez hiru orrialdeko erreportajea

¹⁹⁸ EGIN, 1993-03-05, Bizkaia 6. or.

¹⁹⁹ EGIN, 1993-03-09, 3. or.

²⁰⁰ EGIN, 1993-03-06, B1 or.

prestatu zuten adibidez, «*La costilla de Adán no deja de estar asada*»²⁰¹, edota hizkuntza sexistaren inguruko artikulua, «*El lenguaje también tiene pilila*»²⁰².

Igandeko gehigarrian Nere Larrañagak sinatutako erreportaje luze bat dator «*Entre la cuadro y la cocina*», hiru orrialdekoa, non Euskal Herriko hegoaldeko emakume baserritarren egoeraz mintzatzen den, ez gizonekin alderatuz, baizik eta zeramaten bizitza nabarmenduz²⁰³. Ipar Euskal Herriko emakume baserritarren egoeraz beste artikulua bat dator, «*Mujeres baserritarras, minoría marginadas*»²⁰⁴ izenburupean.

EAEEn argitaratzen ziren bost egunkarietan Txaro Arteagaren iritzi-artikulua argitaratu zuten, EGIN eta EUSKALDUNON EGUNKARIAN euskaraz, «*Aukera berdintasuna, demokraziaren oinarri*», eta beste hiruretan gaztelaniaz. EL CORREOK izenburua aldatu zion, «*La necesaria igualdad de oportunidades*». EMAKUNDEKO zuzendariak gai bat baino gehiago lantzen du artikuluan, lana, genero-indarkeria eta politikan parte-hartzea. EGIN egunkariaren kasuan iritzi- orrialdetan kokatzen den Ez-Baika azpiatalean argitaratzen da, aurretik komentatu dugun *Feminismo aquí y hoy* zintapean.

Beraz, urte honetan artikuluen kopuruak igo baziren ere, feminismoaren kontrako iritziak ugaritu ziren, feminismoaren beharra zalantzan jartzen zuten artikulua ugari agertzen baitira. Bi salbuespen: EUSKALDUNON EGUNKARIAREN ikuspuntua eta tratamendua bestelakoa da, eta EGINEK bere aldetik, esfortzu berezia egiten du, informazio eta iritzi-kopururik altuenak publikatu baitzuen, beste egunkarien kopuruak hirukoiztu eta feminismoa hainbat gaitan txertatuz.

5.1.1.5 1998: Kabulgo emakumeen protagonismoa

Artikulu-kopurua handitu zen urte honetan, 207 artikulua topatu ditugu guztira, horietatik 48 iritzi-artikuluak.

Afganistango gerra zela eta, urte honetako martxoaren 8an Kabulgo emakumeak gogora ekartzeko kanpaina bat errepikatzen da egunkari askotan, «Lore bat Kabulgo emakumeentzat» izenburupean. DEIAK adibidez hiru iritzi artikulua publikatzen ditu gai horren inguruan, Nekane Lauzirika kazetariak

²⁰¹ EGIN 1993-03-05 Gaztegin 6-8. or.

²⁰² EGIN 1993-03-05 Gaztegin 22. or.

²⁰³ EGIN, 1993-03-7, Igandegin 2-4. or.

²⁰⁴ EGIN 1993-03-11, 19. or.

idatzitako zutabe bat, «*Una flor para las mujeres de Kabul*»²⁰⁵, Txaro Arteagak, EMAKUNDEKO lehendakariak sinatutako «*¿Por qué una flor a las mujeres de Kabul?*»²⁰⁶ eta Martxoaren 8ko editoriala, «*Mirar a Afganistan sin olvidar Europa*»²⁰⁷. Martxoaren 9an ere editorialaren zati txiki bat eskaini zion martxoaren 8ra, apenas 80 hitz, «*Crónica de un 8 de marzo*»²⁰⁸. Amatiño, «*Mujeres*»²⁰⁹ izeneko artikulu batean, feministen kontra agertzen da, PNV/EAJko emakumeek parte-hartze kuotak eskatu zituztelako. Martxoaren 8ko ospakizunaren kontra dabil Jose Luis Iturrieta kazetaria ere egunkari honetan, «*De mujeres cocineras y sirgueras*» zutabearen horrela esaten baitu: «*Soy de los que no creen en el día de [...], sin que nadie nos marque la pauta del guión para 24 simples horas anuales*»²¹⁰. Martxoaren 10ean aldiz, Julia Navarro idazleak sinatzen duen zutabe batean, «*La otra violencia*», oso bortizki aritzen da emakumeen kontrako zenbait iritzien aurrean: «*hay un machismo agresor no solo a través del lenguaje, también del paternalismo que oculta un profundo desprecio*»²¹¹.

Lanaren inguruan DEIAk asteburuan argitaratzen duen gehigarriak hiru orrialde ematen dizkio gaiari, «*El desempleo golpea con más intensidad da la mujer*»²¹², «*El sueldo medio anual de los hombres supera casi en un 50% el de las mujeres*»²¹³ eta «*Discriminación de las mujeres embarazadas*»²¹⁴.

DIARIO DE NAVARRAN, aldiz, enpresa-emakumeengan jartzen dute begirada, «*Ya empieza a ser habitual ver mujeres en puestos directivos*»²¹⁵, «*Rosa Aldaz: no podía tirar por la borda una empresa*»²¹⁶ edo «*Un puesto directivo exige igual a todos*»²¹⁷.

²⁰⁵ DEIA, 1998-03-06, 80. or.

²⁰⁶ DEIA, 1998-03-8, 18. or.

²⁰⁷ DEIA, 1998-03-8, 17. or.

²⁰⁸ DEIA, 1998-03-09, 7. or.

²⁰⁹ DEIA, 1998-03-09, 8. Or.

²¹⁰ DEIA, 1998-03-11, 11. or.

²¹¹ DEIA, 1998-03-10, 31. or.

²¹² DEIA, 1998-03-08, G8 gehigarria

²¹³ DEIA, 1998-03-08, G9 gehigarria

²¹⁴ DEIA, 1998-03-08, G9 gehigarria

²¹⁵ DIARIO DE NAVARRA, 1998-03-11, 30. or.

²¹⁶ DIARIO DE NAVARRA, 1998-03-11, 30. or.

²¹⁷ DIARIO DE NAVARRA, 1998-03-11, 30. or.

Txaro Arteagaren iritzi-artikulua EUSKALDUNON EGUNKARIAN²¹⁸ eta DIARIO VASCON²¹⁹ agertzen da. Afganistango gerra beste hainbat iritzi-artikulutan agertzen da, Arantza Urretabizkaiak DIARIO VASCON sinatzen duen artikulua «*Okerrago Afganistanen*»²²⁰ esaterako.

Andoni Aizpuruk DIARIO VASCON «*Zuri, emakumea!*»²²¹ izenburupean idatzitako «*emakumearen aldeko borroka horretan...*» busti egin nahi duela esaten du, baina feminismoaren aldeko argudioak eman beharrean, emakumeei egozten die matxismoaren ardura eta beraien gain botatzen du aldaketaren premia:

«Gaurko egunak, martxoaren 8ak, badu gizonezkoontzat zeozer arriskutsua. Emakumezkoek berdintasuna lortzearen aldeko azaltzen bagara itxura hutsa dela esango digute [...] Zuek emakumeok ere baduzue, orde, aldatu beharra, gizonezko matxista askoren babesle amorratuena emakumezko matxista baitira. Animo, beraz, segi jaia ospatzen eta berdintasuna lortzen!».

DIARIO DE NOTICIASen honakoak irakurtzen ditugu zuzendariari bidalitako gutun batean «*Sobre el día de la mujer trabajadora*:

«Todos los humanos hemos nacido de madre. A casi todos nos gustan con delirio la mujer, la hermana, la novia... ¿Qué endechas de amor solemos recitarles al oído! Si tan felices nos hacen, ¿Por qué queremos que sean nuestras esclavas? Solo soy un viejete de la residencia El Vergel. No soy feminista. Eso sería equipararme al machismo, pero en femenino.»*²²².

EL CORREO egunkarian feminisмотik idatzitako hiru iritzi artikulu aurkitzen ditugu aste honetan, lehena Mercedes Agundez Arartekoaren ondokoa idatzitakoa, «*Derechos Humanos de las mujeres*», non gizartean aldaketak eskatzen dituen emakumeen eskubideak eskatuz: «*... estos cambios exigen no solo progresos legislativos sino también una transformación cultural, además de una firme acción política basada en la movilización social tan amplia como sea posible*»²²³; bigarreanean, aldiz, Miren Llona irakasleak emakumeen kontrako

²¹⁸ EUSKALDUNON EGUNKARIA, 1998-03-08, 4. or.

²¹⁹ DIARIO VASCO, 1998-03-8, 32. or.

²²⁰ DIARIO VASCO, 1998-03-09, 21. or.

²²¹ DIARIO VASCO, 1998-03-08, 33. or.

²²² DIARIO DE NOTICIAS, 1998-03-06, 17. or.

*Horrela idatzita originalean.

²²³ EL CORREO, 1998-03-07, 34. or.

bortizkeriaz hitz egiten du «*Agresiones, solidaridad entre las mujeres*»²²⁴ artikuluan. Azkenik, egunkari honetan editorial bat argitaratzen dute, «*Déficit social*» izenburupean, non nazioartean, batez ere mundu musulmanean emakumeen kontrako gertatzen diren bortizkeriak salatzen diren:

*«Es necesario que la voluntad internacional se vuelque en la presión sobre aquellos estados que reprimen o mutilan a la mujer por mandamiento de un fundamentalismo religioso, que castigan el nacimiento de niñas en aras del control de la natalidad...»*²²⁵.

EGIN egunkariak hamahiru iritzi artikulua argitaratu zituen aste honetan emakumeen egunaren inguruan. *Ez-baika* iritzi orrialdeetan *Martxoak 8* deituriko zinta erabili zuen gaiari jarraikortasuna emateko. Artikulu gehienak feminismoaren ikuspuntutik daude idatzita, esaterako Mila Idiakezek ezker abertzaleko *Egizan*²²⁶ taldearen izenean sinatzen duena:

*«A través del espejo
Esta es la esencia, la razón de ser y de luchar por el feminismo.
Y a todas luces hay motivos más que sobrados para pelear por
ello. Para demostrar que no nos creemos realidades virtuales
que enmascaran situaciones ficticias y porque tenemos
suficiente capacidad, fuerza y firmeza para asestar un golpe a la
realidad que nos circunda.»*²²⁷.

Egunkari honetan ere LAB sindikatuaren ordezkariak idazten duen artikuluan lan-eskubideak eta abertzaletasunaren arteko loturaz honako hau irakur dezakegu:

*«Garrantzitsuena, ziur aski, egunean bizi garen zapalkuntzari erantzuteko beharra: bere aurka borrokatzeko indarrak batu behar ditugu, euskal emakume langileen antolaketa ezinbesteko tresna dugu zapalkuntzari aurre egiteko...»*²²⁸.

²²⁴ EL CORREO, 1998-03-09, 32. or.

²²⁵ EL CORREO, 1998-03-08, 45. or.

²²⁶ 1988an sortutako taldea. Bere oinarri ideologikoak KASen txertatzen ziren (Epelde Pagola et al. 2015, 233).

²²⁷ EGIN, 1998-03-08, 13. or.

²²⁸ EGIN, 1998-03-07, 9. or.

Aste honetan informazioaren atalean gai ugari landu ziren, lana, egoera ekonomikoa, emakumeen kontrako indarkeria, kultur gaiak edota ugaltze eskubideak.

GAZTEGIN gehigarrian ere bi artikulutan lantzen da feminismoaren ikuspuntua, batean Luis Elberdin sexologoak emakumeen kontrako indarkeria salatuz horrela mintzo da azken paragrafoetan:

«Pero aún quedan varones que no han entendido nada, y que viven esta revolución de las mujeres como una agresión contra la que han de defenderse, como una pérdida de sus seculares privilegios. Craso error que se paga muy caro. Porque lo que ahora se trata es de, en lugar de tratar de aferrarnos los varones con uñas y dientes a la vieja prepotencia patriarcal, en lugar de medirnos obsesivamente una y mil veces nuestro colgajo, en lugar de pegar a quien tememos perder, seamos capaces de despertar del largo letargo, espabilar, reciclarnos, reprogramarnos, construir juntos un nuevo modelo basado en el cariño, en el sexo, en la complementariedad, en la cooperación y en la equivalencia. Vamos, de sumarnos -también nosotros- a esta preciosa revolución ya en marcha»²²⁹.

Emakumeen kontrako indarkeria ere aipatzen da sarritan aste honetan, batez ere nazioarteko berrietan. Kabulgo emakumeen egoeraz gain, DIARIO DE NOTICIAS²³⁰ eta DIARIO VASCON²³¹ irakurri dezakegu Errusian “modan” zegoela neskatoak erostea esklabo moduan. Beste hedabide guztietan emakumeen kontrako indarkeria aste horretako agendan nabarmen agertzen da.

Amaitzeko EL CORREOK Kultura sailean egindako erreportajea nabarmendu nahi dugu, «Veteranas» lerroburupean, emakume artista helduei eskainitakoa, horrela amaitzen dena:

«Y allí Sol Panera siguió siendo fémina, además de galerista: ella misma preparó los bocaditos del cóctel, barrió y enceró la galería e hizo de recepcionista sin cobrar»²³².

²²⁹ EGIN, 1998-03-06, Gaztegin.

²³⁰ DIARIO DE NOTICIAS, 1998-03-8, R18

²³¹ DIARIO VASCO, 1998-03-05, 72. or.

²³² EL CORREO, 1998-03-09, 11. or.

Kabulgo emakumeen egoera aitzakia bihurtzen da aste honetan egunkari askotan martxoaren 8ko diskurtsoak ardatz horren inguruan eratzeke. Emakumeen kontrako indarkeriak presentzia nabaria dauka egun hauetan.

5.1.1.6 2003: Feminismoaren kontrako iritziak

2003ko otsailaren 20an Espainiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epaileak EUSKALDUNON EGUNKARIAREN itxiera agindu zuen. Hurrengo egunean Egunkariako langileek *Egunero* egunkaria argitaratu zuten. Egunkari berri hura ekainaren 20 desagertu zen, BERRIA egunkaria jaio zen egunean. EGUNERO Tolosan argitaratzen zen tokiko egunkaria zen garai hartan. Gure kasuan EGUNERO hartu dugu urte honetako ikerketa-lana egiteko. Aztertu ditugun aleetan EUSKALDUNON EGUNKARIAREN itxieraren inguruko berriak eta EUSKALDUNON EGUNKARIAREN aldeko atxikimendu, iritzi eta ekitaldien inguruko albisteak dira nagusi. EGUNEROK 20-24 orrialdeko agerkaria zen; beraz, berrien kopurua eskasa izan zen aste honetan, baita iritzi-artikuluak ere. Hala ere martxoaren 8aren inguruko albisteek bere lekua hartzen dute, bai azaletan (martxoaren 8 eta 9koan hain zuzen), bai barruko orrialdeetan, baita iritzi-sailean. Adibidez, iritzi-saileko orrialdeetan bi gai bakarrik jorratzen dira aste honetan: Egunkariaren itxieraren kontrako artikuluak eta M8 ingurukoak.

Martxoaren 8a agendaren elementu indartsua zen jada, eta zeharka agertzen da egunkarietako ataletan aste honetan. Hala ere tratamendua ez da feminismoaren ikuspuntutik lantzen baizik eta emakumeen rol tradizionala islatzen dute egunkari gehienek.

DEIAN urte honetan ere Jose Luis Iturrietaren zutabea irakurtzen dugu, «*La cocina sabe a mujer y se conjuga en femenino*» izenburupean, non berriz aipatzen digun emakumeek ez dutela martxoaren 8a ospatu beharrik:

«Pero la última entrega, el abecedario gastronómico, paseo por la literatura y el arte del buen comer de Lydia Vázquez es la demostración más palpable de que la mujer no necesita celebrar el día de la madre ni el de la fémica trabajadora»²³³.

DEIAN, igandeko gehigarrian, 2 orrialde betetzen dute futbol femeninoz hitz egiteko M8 aitzakia hartuta, non iritzi-zutabe batean irakurtzen dugun: «*El caso es*

²³³ DEIA, 2003-03-09, 22. or.

conseguir hacer realidad que vía futbol, vía deporte, la igualdad también sea un hecho real-tangible, tanto como los goles de nuestro Athletic femenino»²³⁴.

DIARIO DE NAVARRAN, aldiz, Antonio Papellen zutabea irakurri daiteke, feminismotik idatzitako zutabea hain zuzen:

«Hoy es día de la mujer, apropiado por tanto para hacer balance de su situación en esta sociedad que sigue siendo machista, mantiene incomprensiblemente unas pautas sociales y morales que engendran violencia contra la mujer hasta extremos inaceptables y posterga la condición femenina en el mercado laboral»²³⁵.

DIARIO VASCON M8aren kontrako zenbait artikulu topatzen ditugu, *Gente* atalean adibidez. Alicia Centera-k umorezko gakoan idatzitako artikulua horrela hasten da:

«Se me pasó el día de la Mujer Trabajadora, o sea, todas. Y eso que es un día muy agradecido para comentar y sacarle punta. Ni siquiera miré a mis compañeros de trabajo con mi Mirada Especial Ocho de Marzo Os Vais a Enterar. Ni al Hombre Casado (Conmigo) con mi Mirada Despectiva a lo Bestia que reservo únicamente para esta fecha. Despistadísima estuve»²³⁶.

Artikuluak tonu horretan jarraitzen du eta ondoan agertzen den zatiki batean, «*Primeros auxilios en caso de ser mujer*» izenburupean horrela mintzatzen da:

«Ser mujer en los tiempos que corren puede producir ansiedad, sofocos, fuertes dosis de estrés y, en casos extremos, dar mucha risa. Antes de recurrir al cambio de sexo, resulta útil realizar cada mañana unos simples ejercicios de memoria repitiendo: [...] Siempre sabemos dónde están los calcetines y cuándo es el cumpleaños del marido. La revisión ginecológica es más agradable que el examen de próstata»²³⁷.

Arantxa Urretabizkaia ere egunkari honetan M8az mintzatzen da, lantoki batzuetan nagusiek arrosak oparitzen dietelako emakume-langileei aitzakia hartuz, ironia erabiltzen du feministen errebindikazioen alde jartzeko:

«Munduan beste arazo larriagorik ez balego bezala. Izan ere, hain dira larriak munduak dituen arazoak, hain modernoa da gure bizitza... egia esan, ondo gaude gauden bezalaxe.

²³⁴ DEIA, 2003-03-09, D2-3. or.

²³⁵ DIARIO DE NAVARRA, 2003-03-08, 21. or.

²³⁶ DIARIO VASCO, 2013-03-10, 86. or.

²³⁷ DIARIO VASCO, 2013-03-10, 86. or.

Martxoaren zortzian larrosa gorri bat jaso eta eskainitako irribarreari ordezkua eskaini eta kitto»²³⁸.

Egun berean eta azken orrialdean Begoña Ameztok sinatzen duen zutabearen politikan aritzen diren emakumeei buruz kontrako iritzia ematen da: «*Que no se engañen las feministas profesionales y que no nos engañen. La mujer al poder ¡Si! Pero no cualquier mujer ni a cualquier precio*»²³⁹.

Kasu honetan GARA egunkarian modu zabalean lantzen da M8ko gaia, eta feminismoaren ikuspuntua maizago ikusten da, bai iritzi-artikuluetan eta baita informazioaren atalean. Hala ere, artikulu-kopuruak ez dira EGINEK argitaratzen zituen kopuruetara hurbiltzen, M8aren presentzia askoz txikiagoa baita egunkari berrian. Iritzi-atalean bi editorial daude aste honetan gaiari eskainiak, bata emakume migranteen kontrako sarekada baten salaketa egiten²⁴⁰, eta bestea Afganistango emakumeek pairatzen dituzten gerraren ondorioak salatzen²⁴¹. Egunkari honetan astelehenero feminismoa lantzen duen artikulua kaleratzen da, aste honetan «*Matrias*»²⁴² lerro-buruarekin.

DEIAK eta EGUNEROK Txaro Arteaga Emakundeko Lehendakariak idatzitako artikulua argitaratu zuten, «*Denak nigan daude*»²⁴³, non feminismoaren historian garrantzitsuak izan diren emakumeen errepaso egiten du.

5.1.1.7 2008: Hauteskunde-kanpaina eta ETaren ekintza

Urte oparoena izan da 2008a, 220 item aztertu baitugu aste honetan, iritzi- eta informazio-artikuluak kontuan hartuz. Iritzi-artikuluak 39 izan ziren, eta 181 informaziozkoak.

Aste konplikatu izan zen hura. Martxoaren 9an Espainiar parlamentua osatzeko hauteskunde deialdia zela eta hauteskunde kanpaina pil-pilean zegoen. M8a hausnarketa-eguna izanik hainbat ekitaldi debekatu ziren, Iruñekoa adibidez. Bestalde, martxoaren 7an ETAK Isaías Carrasko PSOEko militantea hil zuen eta honek eragin zuzena izan zuen egunkarien ildo informatiboan.

²³⁸ DIARIO VASCO, 2013-03-10, 85. or.

²³⁹ DIARIO VASCO, 2013-03-10, 96. or.

²⁴⁰ GARA, 2003-03-08, 7. or.

²⁴¹ GARA, 2003-03-09, 7. or.

²⁴² GARA, 2003-03-10, 6. or.

²⁴³ EGUNERO, 2003-03-08, 8. or. eta DEIA, 2013-03-08, 27. or.

Hauteskundeek zeharo markatu zuten aste honetako agenda, eta martxoaren 8a emakume eta politika inguruko eztabaida zabaltzeko baliogarria izan zen, horrela baieztatzen da adibidez DEIAN, «*Paridad si, igualdad no*» artikuluan: «*Muchos partidos sitúan a hombres en los tres primeros puestos de las listas, lo que podría dar un parlamento con sólo el 31% de mujeres*»²⁴⁴. Ildo beretik egunkari horretan «*Sólo el 20% de las alcaldías vascas está en manos de mujeres*»²⁴⁵ irakur dezakegu, nahiz eta hurrengo egunean aipatu «*la política local, en clave femenina*»²⁴⁶. Espainiako parlamentuan ere emakumeen parte-hartze txikia azaltzeko argudioa aurkitzen dugu, «*Una diputada menos*» albistean:

*«La obligatoriedad afecta a las listas de manera que en cada tramo de cinco puestos los candidatos de uno y otro sexo no podrán estar representado en menos de un 40%. Precisamente estos tramos de cinco puestos son los que han impedido que grupos como PNV, ERC o IU vayan a contar con ninguna mujer en sus filas, ya que las candidatas figuraban en lugares que no han resultado elegidas por los electores»*²⁴⁷.

Egunkari honetan beste albiste hau topatzen dugu:

*«Estación espacial: los tripulantes homenajean a la única mujer. Los tripulantes de la Estación Espacial Internacional (EEI) celebraron ayer la Fiesta del 8 de Marzo con una limpieza de su casa orbital, que los astronautas ruso y francés dedican a la única mujer, la estadounidense Peggy Whitson. El día Internacional de la Mujer es festivo en la EEI pero hay que tener la casa en orden, por lo que Yuri Malenchenco y Leopold Eyharts se dedicarán a limpiar el polvo con servilletas húmedas, informó el Centro de control de Vuelos Espaciales de Rusia (CCVE)»*²⁴⁸.

Eta martxoaren 8an «*Haberlos haylos*» lerro-buruean gizonak dira erreportajearen protagonistak:

«En la familia de Ángela es aita quien limpia el polvo, cocina y hace las camas. Hasta le prepara el tupper a ama, que trabaja todo el día fuera de casa. Por si fuera poco José Miguel López hace la compra sin necesidad de que le dicten la lista y cuando sale y comienza a llover de lo primero que se acuerda es de la

²⁴⁴ DEIA, 2008, 03-07, 39. or.

²⁴⁵ DEIA, 2008-03-07, 21. or.

²⁴⁶ DEIA, 2008-03-08, 14. or.

²⁴⁷ DEIA, 2008-03-11, 41. or.

²⁴⁸ DEIA, 2008-03-09, 28. or.

colada. "En el colegio de mi hija las madres me dicen que soy un chollo, pero yo lo veo normal" dice, restándose importancia»²⁴⁹.

DIARIO DE NOTICIAS en aldiz, Iruñean M8ko manifestazioaren debekua mintzagai daukate, albistetan, «EL TSNJ prohíbe las movilizaciones del día de la mujer»²⁵⁰ edo «La policía carga contra la concentración del Día Internacional de la Mujer»²⁵¹, baita iritzi-sailean ere «Mujer, iglesia y reflexión» iritzi-artikulu, non hurrengo galdera botatzen den: «Por ello me pregunto ¿pidió la Iglesia permiso para la concentración por la Javierada?»²⁵².

DIARIO VASCO asteburuko gehigarrian «*Porque era mía*» iritzi artikulu batean emakumeengan jartzen du egoeraren ardura:

«No voy a negar que gran parte de lo que viene ocurriendo lo podemos achacar a las consecuencias horribles de una educación deficitaria en valores de igualdad y respeto entre los sexos. Pero tampoco puedo obviar que el cincuenta por cien de la responsabilidad recae sobre las propias mujeres, co-encargadas de socializar y educar a su prole»²⁵³.

Feminismoaren aurkako iritziak ere irakurtzen ditugu egunkari honetan, emakumeen ahoetan hain zuzen. «*Cinco historias en femenino*»²⁵⁴ artikulu adibidez, bost emakumeei egiten diete elkarrizketa, denek emakumeen egoera penagarria dela aitortzen dute, baina ez dute feminismoaren beharra ikusten.

Vocentoko bi egunkarietan, DIARIO VASCO eta EL CORREOK, «*Los jueces piden más medios para combatir la violencia doméstica y proteger a las víctimas*»²⁵⁵ violencia de generoren ordeztuak violencia doméstica kontzeptua erabiltzen dute, nahiz eta testuan eta oinarrian dagoen txostenean violencia de genero agertu. EL CORREON, orrialde bereko beste albiste batean, indarkeriaren arazoa bakarrik emakumeei axola zaiela irakur dezakegu:

«Para muchas mujeres resulta paradójico que conducir embriagado se considere una circunstancia agravante en materia de accidentes de tráfico, mientras que, cuando se trata

²⁴⁹ DEIA, 2008-03-08, 24-25. orr.

²⁵⁰ DIARIO DE NOTICIAS, 2008-03-07, 11. or.

²⁵¹ DIARIO DE NOTICIAS, 2008-03-09, 7. or.

²⁵² DIARIO DE NOTICIAS, 2008-03-11, 04. or.

²⁵³ DIARIO VASCO, 2008-03-07, SDV 13. or.

²⁵⁴ DIARIO VASCO, 2008-03-08, 12. or.

²⁵⁵ DIARIO VASCO, 2008-03-10, 6. or., EL CORREO, 2008-003-10, 88. or.

de violencia machista, el acusado pueda invocar el alcohol y las drogas para tratar de reducir su sanción penal»²⁵⁶.

BERRIA egunkarian M8 deituriko gehigarri berezia argitaratu zen, zortzi orrialdetakoa. Honetan politika- eta ekonomia-gaiak landu zituzten, adibidez 6. orrialdean «*Zenbait indar politikok ez dute emakumeon zapalkuntza bukatzeko borondaterik*»²⁵⁷. Egunkari honetan astean zehar talde eta emakume feministen adierazpenak irakur daitezke, adibidez, Bilgune Feministaren iritzi-artikulua: «*Emakumeon askatasun bidean*»²⁵⁸, edota Natalia Quiroga ekonomista feministari egiten dioten elkarrizketa, «*Ekonomiak bizitzaren eta gizon-emakumeen bizibaldintzak duinetan oinarritu behar du*»²⁵⁹. Igandeko gehigarrian ere feminismoaren gaia landu zuten Rosa Andrieu militante feministari bi orrialdetako elkarrizketa eginez, «*Rosa Andrieu Sanz: emakumeek buru-belarri hasi behar dugu gure proposamenak egiten*»²⁶⁰.

Kultura orrialdeetan ere emakume idazle feminista bat elkarrizketatzen dute, Itxaro Borda hain zuzen; «*Inoiz baino gehiago, baina onespén eske*»; elkarrizketan horrela mintzatzen da: «*Argitaletxeek edukia azken muturreraino feminizatzen dute, eta horrek idazlea estaltzen ahal du. Horregatik emazte idazleek, literaturaren izenean, emazte adjektiboa ezaba dakien aldarrikatzen dute*»²⁶¹ eta egoeraren analisia egiten du ondoko zatikian:

*«Arazoa daukanak hitz egiten du:
Feministek egindako aldarrikapenak maiz deabrutuak izan dira.
Errealitatea desitxuratzea eta gatazka faltsuak sortzea leporatu
izan diete. Baina begi bistakoa da emakumeen presentziaren
aldeko oihuak emakumeek bota dituztela nagusiki. Arazoa
pairatzen duenak bere arazoaz hitz egiten du dio Itxaro
Bordak»²⁶².*

GARAREN kasuan aste honetan argitaratzen diren 46 artikuluetatik 31n feminismoaren ikuspuntua islatzen da. Martxoaren 6an adibidez, gazteei zuzendutako XIRIKA gehigarrian hiru artikulua irakur daitezke, «*M-VIII=365*

²⁵⁶ EL CORREO, 2008-003-10, 88. or

²⁵⁷ BERRIA, 2008-03-08, M8, 6. or.

²⁵⁸ BERRIA, 2008-03-07, 5. or.

²⁵⁹ BERRIA, 2008-03-07, 3. or.

²⁶⁰ BERRIA, 2008-03-09, IG10-11. orr.

²⁶¹ BERRIA,, 2008-03-08, 45. or.

²⁶² BERRIA, 2008-03-08, 45. or.

*martxoaren 8a urteko egun guztietan*²⁶³, «*Egunero da Martxoak 8*»²⁶⁴ eta sexualitateari eskainitako atalean «*Klitoria: emakumeen eskubideen isla*»²⁶⁵. Egun berean beste bost informazio agertzen dira ekonomia eta politika orrialdeetan (Euskal Herria atalean). Martxoaren 8ko alean, aldiz, hamazazpi orrialde dedikatzen dizkio ospakizunari, alde batetik eguneroko gaia atalean hamalau orrialde, non ekonomia, kirola, nazioarteko edo kultura gaiak lantzen dituen, baina batez ere politika-gaiak dira nagusi egun honetan. GAUR 8 gehigarrian azala eta beste bi orrialde eskaintzen dizkiote. Honi guztiari egun horretako Editoriala eta Tasio komikigilearen eguneroko bineta gehitu behar zaizkio.

Iritzi-sailari dagokionez aurkitu ditugun hamahiru artikuluetatik bi nabarmenduko ditugu, bata Bilgune Feminista eta Elkartzeneko kideek sinatzen dutena:

*«... debemos de fijar las bases de un nuevo sistema que tenga como eje central la integridad de las mujeres como personas y como colectivo social. Ofrecer alternativas reales, esa es la apuesta de las personas que conforman el movimiento popular, donde el movimiento feminista debe de aportar sin perder sus objetivos ni su identidad»*²⁶⁶.

Bestean, Iñaki Soto, momentu horretan Iritzia ataleko arduraduna, «*Matxismoaren aurka usai-kengarririk ez*» horrela amaitzen zen:

*«Maskulinitate-feminitate eztabaidak feminismoaren eta matxismoaren arteko dikotomia estaltzen duela iruditzen zait. Eta, nire ustez, ikuspuntu politiko iraultzaile eta integral batetik gutxienez, gure gizarteak diskurtso eta pentsamendu feministan sakondu behar du, lehenik eta behin. Tamalez, matxismoa ez da usain-kengarriekin joaten, ez batekin eta ez besteekin ere. Matxismoaren aurkako txerto bakarra feminismoa da»*²⁶⁷.

Hauteskundeek agenda markatzen dute aste honetan, eta emakumeen politikan parte-hartzea nagusitzen da gaietan. Egunkari kontserbadoreetan eredu tradizionala nagusitzen da berriz, eta GARA eta BERRIAN aldiz ikuspegi feministagoa lantzen da. Gaien aniztasuna nabarmenduko genuke bi egunkari hauetan.

²⁶³ GARA, 2008-03-06, X2 or.

²⁶⁴ GARA, 2008-03-06, X5 or.

²⁶⁵ GARA, 2008-03-08, X14 or.

²⁶⁶ GARA, 2008-03-08, 25. or.

²⁶⁷ GARA, 2008-03-08, G3. or.

5.1.1.8 2013: Hugo Chavez-en heriotza

Aste honetako berri nagusia Venezuelako presidentea zena, Hugo Chavez, martxoaren 5ean hil zela izan zen. Egunkari guztiek berebiziko garrantzia eman zioten berri horri, orrialde asko eta baita editorial eta iritzi-artikulu ugari bete baitzituzten gai honekin.

EL CORREOK «*Urkullu recurre a la banca al fracasar el plan de apoyo de las EPSVs a las Pymes*»²⁶⁸ titularrarekin zabaldu zuen martxoaren 9ko alea, eta azal horretan ez dago M8ko mobilizazio edo ekitaldien inguruko berririk. Baina bai irakur dezakegu tenore honetako titularra azal horretan «*Un mendigo hereda 30.000 euros. La policía de Sestao tuvo que buscarle porque duerme en cajeros*»²⁶⁹, eta baita beste hau ere: «*Pagola no es un hereje. El Vaticano concluye que su libro sobre Jesús no es contrario a la fe*»²⁷⁰. Hurrengo egunean, martxoaren 10eko azalaren erdia baino gehiago «*La Abuela de 111 años*»²⁷¹ izenburua txertatua duen argazki batek betetzen du, non amona eta neskatila bikotea agertzen diren. Azpillerro buru moduan «*la azarosa vida de Paca, la mujer con más edad de España, que reside en Navarra*» agertzen da, eta bakarrik argazki-oinean agertzen dira emakume honen izen abizenak: «*Francisca García acaricia a su bisnieta Ainara, de 5 años, que la visita todas las semanas en su residencia de Burlada*».

²⁶⁸ EL CORREO, 2013-03-09; 1. or.

²⁶⁹ EL CORREO, 2013-03-09; 1. or.

²⁷⁰ EL CORREO, 2013-03-09; 1. or.

²⁷¹ EL CORREO, 2013-03-10; 1. or.

4. Irudia, EL CORREO , 2013-03-09, X

EL CORREO
EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO, DESDE 1910 www.elcorreo.com

FALETE ES LA BOMBA
No controla los agujeros hasta que bucean en la zona con buques de guerra. ¿Habrán un capot de lo que vino? **118**

CASI 10.000 BILBAINOS PIDEN UNA WERKETA MUSICAL AL AGUZARSE LA CRISIS **112**

Urkullu recurre a la banca al fracasar el plan de apoyo de las EPSV a las pymes

El Gobierno vasco negocia con las entidades para aprobar este mes un programa de financiación

El Gobierno vasco ha girado el capítulo de su política de pymes, las EPSV. Hasta ahora se apoyaban a través de un programa de financiación que se agotó y por parte de la banca, cuando la banca la concesión de créditos se agotó. El plan de apoyo de las EPSV a las pymes, que se aprobó en febrero, no se ha podido poner en marcha. El Gobierno vasco negocia con las entidades para aprobar este mes un programa de financiación.

«CHÁVEZ VIVE, LA LUCHA SIGUE», GRITA MADURO **126**

La región Euzkadi de TRBS que se celebró el pasado 2 de marzo

Un mes de herida 20.000 euros
El Ayuntamiento de San Sebastián ha acordado un convenio con el Gobierno vasco para que participe en el pago de los costes de la obra.

Los vascos piden a ETA las armas
El Gobierno vasco ha pedido a ETA que entregue las armas que le quedan en mano.

Pago no es un beneficio
El Gobierno vasco ha pedido a los empresarios que no pidan un beneficio por el pago de los impuestos.

EN GÁURSA PNEUMAS DE CRUCHI

RENAULT OCASIÓN

5. Irudia, EL CORREO, 2013-03-10;

EL CORREO
EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO, DESDE 1910 www.elcorreo.com

LA ABUELA DE LOS 111 AÑOS
La azarosa vida de Paca, la mujer con más edad de España, que reside en Navarra **102**

GOIKO, UN LEÓN EN LA SELVA DEL FÚTBOL AFRICANO
El seleccionador de fútbol de Euzkadi ha fichado a Goiko, un jugador de fútbol africano.

EL GOBIERNO VASCO NECESITA MÁS ESTABILIDAD **112**

LA ABUELA PACA DE NAVARRA EL DESENCANTO DE BASAGOITI **114**

UN CONCLAVE DIVIDIDO ENTRE LIMPIAR O CALLAR **116**

Una avalancha de empresas europeas visita Euskadi para fichar a universitarios

Alrededor de 600 licenciados vascos salen al extranjero cada año a trabajar

Empresas y servicios de este país de modo que se han ido a trabajar a otros países. El Gobierno vasco ha pedido a las empresas que no pidan un beneficio por el pago de los impuestos.

nomina + k
Sorteamos 200 mini tablets*

Emakumeen kontrako biolentziaz hitz egiterakoan, biktimizazioa azpimarratzen du. «El Ararteko cree que Policía y justicia deben cooperar más para evitar muertes machistas» Ierroburua duen artikulua honetan: «*Todos sabían en Hernani que Charo Román era una mujer maltratada. Muchos habían sido testigos de las palizas que había soportado a manos de las diferentes parejas que tuvo. Muchos*

*pensaron que un día acabaría asesinada. Y así fue...»²⁷². Gizonek protagonismoa hartzen duten eskutitzak ere argitaratzen dira aste honetan, adibidez, C.H.H. deituriko emakumeak idazten duena, «*Si eres hombre*» lerroburupean: «*Más bien corresponde también a los hombres pronunciarlo. Porque si eres hombre y te han obligado a aguantar tus lágrimas, si te han dicho que es más efectiva una bofetada que una caricia...*»²⁷³.*

DIARIO VASCON bitan agertzen da M8a azalean aste honetan; lehenengoan protagonismoa gizon batena da, Arartekoarena hain zuzen. Martxoaren 6an azalean aipamen bat eta barruan bi orrialde betetzen duen elkarrizketa egiten diote Arartekoari, «*El Ararteko propone que se proteja a las maltratadas aun cuando se retiren las denuncias*»²⁷⁴ eta martxoaren 9an aurreko eguneko manifestazioaren informazioa zabaltzen duen berria, «*Miles de manifestantes exigen igualdad para las mujeres*»²⁷⁵. Bestalde, iritzi-sailean artikulu desberdinak irakur ditzakegu egunkari honetan, adibidez Arantza Urretabizkaiaren zutabea, matxismoa eta feminismoa parez pare jartzen duena: «*Guztiok ezagutzen ditugu gizon feministak eta emakume matxistak*»²⁷⁶; eta beste muturrean Jasone Osorok azken orrialdean eta euskaraz sinatzen duen zutabea, «*Harro*», non «*Emakumea naiz, harro nago eta ez dut etsiko*»²⁷⁷ aldarrikatzen duen.

DIARIO DE NAVARRAN apenas 8 artikulu irakur daitezke aste honetan, aipatzekoa iruditu zaigu bakarrik UGT eta CCOO-k antolatutako ekitaldien erreferentzia egiten dela «*Las mujeres reivindican la calle*»²⁷⁸ artikuluan, beste eragileak aipatu gabe.

Martxoaren 8ak ez dauka lekurik DEIAko azaletan aste honetan, baina bai herri eta eskualdeetako emakumeen proiektuen eta ekitaldien informazioa, esaterako Zallan, «*Mujeres con nombre propio*»²⁷⁹, Zallako emakumeen historia aztertzen duen liburua, «*La mirada femenina de Arrigorriaga*»²⁸⁰, Arrigorriagako emakumeei buruzko liburua, Ugaoko baserritarren feria, «*Agro femenino en la feria de Ugao*»²⁸¹, edo Ondarroako emakumeen topaleku berria, «*Emakumeen topaleku*

²⁷² EL CORREO, 2013-03-06; 13. or.

²⁷³ EL CORREO, 2013-03-06; 30. or.

²⁷⁴ DIARIO VASCO, 2013-03-06; 2-3. orr.

²⁷⁵ DIARIO VASCO, 2013-03-09; 7. or.

²⁷⁶ DIARIO VASCO; 2013-03-11; 15. or.

²⁷⁷ DIARIO VASCO, 2013-03-06; 80. or.

²⁷⁸ DIARIO DE NAVARRA, 2013-03-08; 17. or.

²⁷⁹ DEIA, 2013-03-10; 8. or.

²⁸⁰ DEIA, 2013-03-09, 8. or.

²⁸¹ DEIA, 2013-03-11. H1. or.

berria zabalduko dute gaur Ondarroan»²⁸². Egunkari honetan ere gizonen parte-hartzea azpimarratzen da emakumeen inguruan antolatutako ekitaldi batean. «La cultura más femenina» artikuluan horrela adierazten da: «A la cita también acudieron dos hombres en representación de la Diputación: ... Y como curiosidad, todos los periodistas que asistieron al acto también eran hombres»²⁸³.

GARAN M8 gaiarekin lotutako artikulua gutxiago argitaratzen dira aste honetan aurreko astearekin konparatuz. M8a bitan agertzen da azalean, 8an argazki nagusia da, testu labur batekin barruko orrialdeetara egiten du deia, bertan bi orrialdeetako erreportaje luzea irakur dezakegu, «*Cuidar a otras personas también es trabajo*»²⁸⁴. Bigarrena, martxoaren 9an, aipamen txiki bat egiten zaio azalean iritzi-sailean argitaratzen den Editorialari. Aurretik esan dugunez, aste honetan Venezuelako mandataria zena, Hugo Chavez, hil zen eta egunkari honek espazio luzea ematen dio gai honi, bai azalean, bai barruko orrialdeetan. Editorial horretan adierazten da feminismoak, nahiz eta mundu-mailako mugimendua izan, oraindik ez duela lortu inflexio-puntua izatea injustiziaren kontrako borrokan:

«El 8 de marzo es un día marcado en rojo en el calendario internacional, en el que miles de personas se manifiestan para denunciar una realidad tan objetiva como sostenida en el tiempo: la prevalencia de un modelo patriarcal y machista en la estructuración de la sociedad. Es asimismo una ocasión para que agentes sociales e institucionales hagan alarde de imaginación con lemas y soportes publicitarios que invitan a pensar que su compromiso con los derechos de las mujeres es firme y decidido. Y, sin embargo, pese a esas campañas y movilizaciones, se ha convertido también en una jornada que no consigue marcar un punto de inflexión en la lucha contra la principal injusticia en la historia del ser humano»²⁸⁵.

Azkenik BERRIA egunkarian ohikoa denez lau orriko gehigarri berezia argitaratu zen urte honetan ere, martxoaren 8an bertan. Egunkari honetan bitan aipatzen da azalean M8, lehenengoa martxoaren 9an, azaleko gai nagusia M8ko aldarrikapenari ematen baitzaio, eta hurrengoan, martxoaren 10ean, Empar Pineda aktibista feministari egiten diote elkarrizketa: «*Empar Pineda. Emakumea*

²⁸² DEIA, 2013-03-07; 4. or.

²⁸³ DEIA, 2013-03-08; 8. or.

²⁸⁴ GARA, 2013-03-08, 1-2-3. orr.

²⁸⁵ GARA, 2013-03-09; 1-13. or.

*izatea ederra dela sinistu behar dugu, eta besteei sinestarazi»²⁸⁶. BERRIAK bi orrialdeetako erreportajea eskaintzen dizkie mendian ibiltzen diren emakumeei, «*Berdintasuna eskalatzen*»²⁸⁷, non mendiko kirolen eta emakumeen arteko harreman historikoen errepasoa egiten den.*

5.1.2 Martxoaren 8a informazio- eta iritzi-artikuluetan 1978-2013

Azpiatal honetan, hainbat alderdi ikertzen dira: 1) egunkariak egindako estaldura periodistikoa eta honen eboluzioa; 2) edukien genero periodistikoak, kokapena eta tamaina, besteak beste; 3) egileen generoa eta rolak.

5.1.2.1 Estaldura periodistikoa 1978-2013

Lan hau aurrera eramateko, osotara, 11 egunkariak osatzen duten lagina erabili da: EL CORREO, DIARIO VASCO, DIARIO DE NAVARRA, DEIA, NAVARRA HOY, DIARIO DE NOTICIAS, EGIN, GARA, EUSKALDUNON EGUNKARIA, EGUNERO eta BERRIA. Esan dugunez, 1978tik hasi eta 2013ra arte bosturteko bakoitzeko martxoaren 8ko astea aztertu dugu (martxoaren 5ean hasi eta martxoaren 11rarte). Egunkari hauen guztien 354 ale aztertu dira eta hauen irakurketa egin ostean Martxoaren 8arekin zerikusia daukaten 1855 item kodetu ditugu. Item hauek guztiak honela banatu dira egunkari bakoitzeko (5. Taula):

5. Taula: Item-kopurua, testu eta irudiak barne

Egunkariak	Item kopurua	(%)
EL CORREO	199	10,7
DIARIO VASCO	211	11,4
DIARIO DE NAVARRA	155	8,4
DEIA	355	19,1
NAVARRA HOY	61	3,3
DIARIO DE NOTICIAS	210	11,3
EGIN	286	15,2
GARA	164	8,4
EUSKALDUNON EGUNKARIA	66	3,6
EGUNERO	17	0,9
BERRIA	131	7,0
Guztira	1855	100,0

²⁸⁶ BERRIA, 2013-03-10; 1 eta IG9. or.

²⁸⁷ BERRIA, 2013-03-08; 42-43. or.

Iturria: autorea. N=1855


Lau egunkari epealdi osoan plazaratu dira, EL CORREO, DIARIO VASCO, DIARIO DE NAVARRA eta DEIA. Horietatik DEIA izan da M8az hitz egiten duten artikulua eta irudi gehien publikatu dituen egunkaria, 355 item (lagina osoaren %19,1), beste hiruretan, ordea, nahiz eta urte hauetan guztietan argitaratu, item-kopuru nabarmenki txikiagoa da, DIARIO VASCO egunkarian 211 item (%11,4), EL CORREON 199 item (%10,7) eta DIARIO DE NAVARRA 155 item, (%8,4). EGIN eta GARA bikoteak epealdi osoko jardura izan du, EGINEK 1998 urte arte 286 item, hau da, laginaren %15,4 produzitu ditu eta bere aldetik 164 item, laginaren %8,8. Bien artean laginaren %24,3 osatzen dute, 450 item.

NAVARRA HOY (61 item eta %3,3) eta DIARIO DE NOTICIAS (210 item eta %11,3) bikotea 1983tik 2013ra kaleratu da, bien artean laginaren %14,6 publikatu dute.

Euskarazko egunkarien kasuan 1993/2013 epealdia neurtu dugu, guztira 214 item, laginaren %11,5. Hauetatik 66 item EUSKALDUNON EGUNKARIAKOAK (%3,6) dira eta 131 BERRIAKOAK (%7,1). EGUNEROK 17 item (%0,9) publikatu zituen.

Hurrengo grafikoan ikusi daiteke martxoaren 8 gaiaren inguruan aztertutako egunkariak egin duten estalduraren eboluzioa urtez urte, hau da, zenbat item (informazioa, iritzi-artikuluak eta argazkiak kontutan hartuz) publikatu dituzten aztertutako hedabideek epe horretan (1. Grafikoa).

1. Grafikoa: 1978 -2013 publikatutako item-kopuruak urtez urte



N: 1855 item. Iturria: autorea.

Item-kopuruak gorantz egin du etengabe 1998 urte arte, baina XXI. mendearen hasieran joera hori gelditu egin da. Hala ere, gorakada hori ez da uniforme izan, eta 1983. eta 1988. urteen artean uniforme mantendu ziren item-kopuruak. Nabarmentzekoa da 1993an ematen den gorakada, item-kopuruak hirukoiztu egiten baitira. Honen atzean zenbait arrazoi egon daitezke. Alde batetik EAEn EMAKUNDE, EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA, sortu zuen Eusko Jaurlaritzak 1988ko otsailean, eta honi jarraituz udalerrri askotan emakumearen arloak eratu eta berdintasun-politikak martxan jarri zituzten hurrengo urteetan. Emakumeen mugimenduaren aldarrikapenen instituzionalizazio honek isla izan du hedabideetan, horrela, 1993an EMAKUNDEKO zuzendaria zela, Txaro Arteagari hainbat elkarrizketa eta iritzi-artikulu argitaratu zizkieten hedabide gehienetan, esaterako DEIAN²⁸⁸ bi orrialdeko elkarrizketa eskaini zioten. Bestetik, emakumeen parte-hartzeak politika, lan edota kulturaren esparruan igoera nabarmena izan zuen eta hedabideak horren lekuko dira. Igoera hau egunkari guztietan ematen da, *El DIARIO VASCO*k adibidez bikoiztu egiten du item-kopurua, 9 item argitaratzen ditu 1988an eta 23 item 1993an. DEIAN ere kopurua bikoiztu egiteen da, 9 artikulu 1988an eta 20 item 1993ean. EGINEN kasuan hasierako kopurua handiagoa izanik, hirukoiztu egiten da (22 eta 75 item) tarte horretan.

Afganistango emakumei solidaritatea erakusteko kanpaina, «*Arrosa bat Kabulentzat*» lemapean, martxoaren 8an gauzatu zen 1998 urtean. Kanpaina horren baitan hainbat informazio eta iritzi-artikulu argitaratu ziren gai hau ardatz hartuta.


Azkenik, 2008ko emaitzak aztertzerakoan kontuan izan behar dugu Espainiar Estatuan Hauteskunde Orokorrak egin zirela 2008ko martxoaren 9an, beraz hauteskunde kanpaina bete-betean ospatu zen M8a. Alderdi politikoek, kanpainaren azken zatian, emakumeen egoera mezu politikoaren ardatz bihurtu zuten, eta horrek isla izan zuen egunkarietan.

Urte bakoitzeko astebete aztertu dugu, martxoaren 5etik 11ra, eta horri esker ikusi ahal izan dugu nola sartzan den gai hau egunkarietako *agenda settineang* agendan. Martxoaren bostean oraindik gaia maila baxuetan mantentzen bada ere, mailarik altuena Martxoak zortzi eta bederatzian ematen da, eta martxoaren hamaikan emakumeen egoerak eta aldarrikapenek interesa galtzen dute. Grafikoan ikusten denez (2. Grafikoa), martxoaren 8an publikatu diren item

²⁸⁸ DEIA, 1993-03-07, 2-3 Suplemento Dominical

guztien %31 aurkitu ditugu eta 9an %22, bien artean laginaren erdia baino gehiago betetzen dute (%53).

2. Grafikoa: Egunez egun publikatutako item-kopuruak (1978-2013)



N: 1855 item. Iturria: autorea.

Hemendik aurrera informazio eta iritzi-artikuluetan jarriko dugu begirada, argazkiak eta irudiak momentuz alde batera jarritz.

5.1.2.2 Informazioaren eta iritziaren arteko erlazioa M8aren estalduran

Informazio eta iritziaren arteko banaketa nahiko uniforme izan da egunkari guztiak kontutan hartuta, %75,1 informazio-itemak izan dira eta beste %24,9 iritzi artikuluak. Eredu periodistiko uniforme baten aurrean aurkitzen gara, ez baitago desberdintasun handirik M8ari buruzko estaldura-ereduan egunkarien ildo ideologikoari erreparatzen badiogu (6. Taula: Estaldura orokorra 1978-2013).

Banaka aztertuta ere, antzeko korrelazioa ematen da egunkarien artean, hala ere EGIN eta GARA egunkarietan desbideraketa txiki bat dago, bi hauek iritzien presentzia %30tik gora baitaude. EGUNERO egunkarian ere desbideraketa bera ikusten dugu, baina, aurretik esan dugunez, egunkari honen egoera berezia izan zen.

6. Taula: Estaldura orokorra 1978-2013

	Informazioa		Iritzia		Guztira	
	%	Kopurua	%	kopurua	%	Kopurua
EL Correo	73,7	84	26,3	30	100,0	114
Diario Vasco	80,6	108	19,4	26	100,0	134
Diario de Navarra	77,4	72	22,6	21	100,0	93
Deia	75,1	145	24,9	48	100,0	193
Navarra Hoy	81,0	124	19,0	56	100,0	180
Diario de Noticias	79,8	67	20,2	33	100,0	100
Egin	68,9	34	31,1	8	100,0	42
Gara	67,0	99	33,0	25	100,0	124
Euskaldunon Egunkaria	81,4	35	18,6	8	100,0	43
Egunero	66,7	8	33,3	4	100,0	12
Berria	77,5	55	22,5	16	100,0	71
Guztira	75,1	831	24,9	275	100,0	1106


N = 1.106 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

5.1.2.3 M8ko estalduran erabilitako genero periodistikoak

Kazetaritza-generoei begirada bat botako diegu orain, nola erabili den genero bakoitza martxoaren 8ko estaldura periodistikoa egiterakoan. Informazio-generoak eta iritzi-generoak desberdindu ditugu, batetik informazio-generoak hiru kategorietan sailkatuz, albistea, erreportajeak eta elkarrizketak, eta bestetik iritzi- sailean beste lau kategoria prestatuz, Editorialak, zutabeak, artikuluak, hau da, kanpoko eragileek egunkarietara bidaltzen dituzten iritziak, eta zuzendaritzari bidalitako eskutitzak.

Orokorrean gehien erabiltzen den kazetaritza-generoa albistea izan da (%59,3), bigarrena erreportajeak dira (%10,5) eta elkarrizketak gutxien landu den generoa da (%4,6). Iritzi-sailean gehien erabiltzen diren formatuak, iritzi-artikuluak (%12,8) eta zutabeak (%5,2) dira (3. Grafikoa: erabilitako kazetaritza-generoak)

3. Grafikoa: erabilitako kazetaritza-generoak



N = 1.106 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea

Albistea formatu zatitua eta sinplifikatua da, errealitateari konplexuenak testuingurutik kentzen dituenak, horrela diskurtsoaren osotasuna galduz. Egunkariek formatu hau erabili dute nagusiki, eta, beraz, errealitatearen irudi zatikatu eta sakontasunik gabekoa eskaintzen dute. EGIN/GARAN eta batez ere EUSKALDUNON EGUNKARIAN/BERRIAN beste formatu batzuk nabarmendu dira, elkarrizketak eta erreportajeak. Formatu hauetan gaiak sakonago lantzen dira eta iturri gehiago erabili dituzte M8ko informazioa lantzeko. Adibide bat ekarriko dugu, BERRIA egunkariak 2008ko martxoaren 9an bi orrialdetako erreportaje bat argitaratzen du, «*Bizia eman nahi..., eta hil*»²⁸⁹ lerroburupean. Erreportaje honetan Eider Goenaga kazetariak lau iturri erabiltzen ditu gaia lantzeko, Kabwe Banaya, BBCko foro bateko iritzi-emailea, Paul Hunt, Nazio Batuen osasun fisiko eta psikorako eskubideen gaineko kontalaria, Natalia Cobo, Mugarik Gabeko Medikuek (MSF) elkarteko medikua eta Munduko Osasun Erakundearen amak, jaio berrien eta umeen osasunaren datu-basea, alegia.

Egunkari bateko ildo ideologikoa Editorialetan finkatu ohi da, egunero agendaren gai garrantzitsuena hautatzen dira Editorialaren ardatza osatzeko. Aztertutako 35 urte hauetan esan dezakegu M8a gutxitan landu dela egunkari gehienetan, argitaratu diren artikuluen guztien %1,5 besterik ez baitira –kontutan

²⁸⁹ BERRIA, 2008-03-09; Igandea 13.

izan behar dugu bai EGINEK zenbait urteetan, baita EUSKALDUNON EGUNKARIAK edota BERRIAK ez dituztela Editorialik argitaratzen— guztira hamazazpi Editorial irakurri baititugu. Horietatik sei, hau da, heren bat, EGINEK²⁹⁰ eta GARAK argitaratu dituzte.

Oro har, Editorial horietan gehien aipatu diren gaiak emakumeen kontrako indarkeria eta emakumeen eskubide soziopolitikoaren aldarrikapena izan dira.

Editorial gehien publikatu ziren urtea 1998a izan zen, Kabulgo emakumeen aldeko kanpaina puri-purian zegoen urtean. Gai hau DIARIO DE NOTICIAS, EL CORREO eta DEIAKO editorialetan agertu zen, azken honetan bitan, martxoaren 8an «*Mirar a Afganistan sin olvidar Europa*»²⁹¹, eta martxoaren 9an «*Crónica del 8 de marzo*»²⁹² minieditorialean, apenas 80 hitzekoa.

GARAK bost urte beranduago, eta Irakeko gerra hasi baino egun batzuk lehenago, gogora ekarri zituen ostera Afganistaneko emakumeak:

*«Las mujeres suelen ser las primeras víctimas de las guerras, incluso cuando, como en Afganistán, una parte de la batalla se inicia en su nombre. Forzadas al exilio, maltratadas, violadas... Conviene recordarlo en estos días de reivindicación de los derechos de la mujer, cuando nos han situado ya a las puertas de un nuevo genocidio que se perpetrará en nombre de la libertad y de los valores occidentales. Miles de mujeres morirán en Irak como murieron en Afganistán en guerras que, se diga lo que se diga, no hay derecho de comenzar en su nombre»*²⁹³.

Iritzi-artikuluen portzentaje osoa %12,7 bada ere, kantitate hori ez da uniformeki banatzen aztertutako egunkariaren artean. Egoera oso desberdina da egunkariak banan-banan aztertzen ditugunean, DIARIO VASCO, DIARIO DE NAVARRA, NAVARRA HOY eta DIARIO DE NOTICIAS egunkarietan portzentaje hori ez da %10era iristen, honek esan nahi du egunkari hauetan gutxitan argitaratzen direla kanpo eragilek, talde edo norbanakok egunkarietara gai honen inguruan bidalitako artikulua. EGIN eta gero GARA aldiz, iritzi-artikuluek garrantzi handiagoa daukate, izan ere tarte honetan publikatu diren iritzi-artikuluen heren bat argitaratu baitituzte bien artean (7. Taula).

Artikulu hauen egiletza aztertuta ere desberdintasun nabarmena dago, talde, sindikatu edota elkartek sinatutako artikuluen erdiak baino gehiago EGINEN eta

²⁹⁰ EGIN egunkariak 1993tik aurrera publikatuko ditu Editoriak.

²⁹¹ DEIA, 1998-03-08; 17. or.

²⁹² DEIA, 1998-03-09; 17. or.

²⁹³ DEIA 2003-03-09; 7. or.

GARAN publikatu dira, horien artean talde feminista ugari agertzen dira (Ilaski taldea, Egizan, Bilgune Feminista, Bizkaiko Emakumeen Asanblada, Matarraska, Andrea...), baita sindikatuak (LAB, ELA, ESK...).

Zutabeei dagokienez, zutabe gehien argitaratu duen egunkaria DEIA izan da, laginaren %28,8, eta DIARIO VASCO %20. la egunkari guztietan emakumeen sinadurak nagusi dira zutabegileen artean, DIARIO DE NAVARRAN izan ezik, non gizonek sinatzen dituzten zutabe guztiak.

Gai anitzak lantzen dira zutabe hauetan, baina nabarmendu nahi dugu DIARIO DE NAVARRA egunkarian Antonio Papell kazetariak sinatutako zutabeak, non oso bortitz idazten du emakumeek pairatzen duten diskriminazioaren kontra:

«Si casi un centenar de mujeres murieron asesinadas en 1997 por sus compañeros, en lo que no es sino la espuma de una situación intolerable de dominación e indefensión, tampoco es desdeñable el dato de que el paro femenino es exactamente el doble del masculino, lo que demuestra una relegación social clara. Bajo estas dos evidencias subyace una cultura claramente machista que todavía, al margen de retóricas declaraciones, no ha permitido la equiparación en la práctica de la mujer con el hombre. En estas circunstancias es necesario mantener e impulsar acciones de discriminación positiva, pero, sobre todo, es preciso influir desde el sistema educativo en un cambio de mentalidad colectiva, que ha de ser previo a la igualdad que se requiere»²⁹⁴.

Bost urte beranduago ere berriz idazten du antzeko tonua eta gaia erabiliz:

«Hoy es día de la mujer, apropiado por tanto para hacer balance de su situación en esta sociedad que sigue siendo machista, mantiene incomprensiblemente una pautas sociales y morales que engendran violencia contra la mujer hasta extremos inaceptables y posterga la condición femenina en el mercado laboral»²⁹⁵.

EGUNERO egunkaria berezia da atal honetan ere, albiste eta iritzi-artikuluez osaturiko egunkari xumea zen hasierako egun horietan eta horrela islatzen da portzentajeetan, baina item-kopuruak txikiak dira.

²⁹⁴ DIARIO DE NAVARRA, 1998-03-08; 12. or.

²⁹⁵ DIARIO DE NAVARRA, 2003-03-08; 21. or.

7. Taula: Egunkariak erabilitako kazetaritza-generoak

	(%)	Albistea	Errep.	Elkar.	Edit.	Zutabea	Artik.	Eskut.	Beste	Guztira
Diario Vasco	65,7	11,9	3,0	2,2	8,2	6,7	1,5	0,7	100	
EL Correo	61,4	9,6	2,6	2,6	2,6	11,4	7,0	2,6	100	
D. de Navarra	69,9	5,4	2,2	0,0	6,5	8,6	7,5	0,0	100	
Deia	58,5	11,4	4,1	1,6	8,8	13,0	1,6	1,0	100	
Navarra Hoy	73,8	4,8	2,4	2,4	4,8	9,5	2,4	0,0	100	
D. de Noticias	68,5	8,9	2,4	0,8	3,2	7,3	8,9	0,0	100	
Egin	56,7	8,3	2,8	1,1	2,2	20,6	2,8	5,6	100	
Gara	45,0	12,0	9,0	4,0	5,0	17,0	7,0	1,0	100	
Euskald. Egunkaria	55,8	20,9	2,3	0,0	2,3	11,6	4,7	2,3	100	
Egunero	58,3	0,0	0,0	0,0	0,0	33,3	0,0	8,3	100	
Berria	36,6	18,3	21,1	0,0	7,0	14,1	1,4	1,4	100	
Guztira	59,3	10,5	4,6	1,5	5,2	12,7	4,2	1,8	100	


N = 1.106 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea. Oharrak: Errep: erreportajea; Elkar: elkarrizketa; Edit: editoriala; Artik: artikulua; Eskut: eskutitza.

5.1.2.4 M8aren estaldura egunkarietako ataletan

Egunkarien barneko egiturari atal desberdinak aurkituko ditugu, politika, ekonomia, kirola, gizartea, tokiko informazioa, iritzia... eta guztietan M8az hitz egin da urte hauetan. Halaber, kazetaritzaren eredu klasikoan atal horien garrantzia eta pisua ez da bera; politika, ekonomia eta nazioarteko atalek garrantzi gehiago dute gizartea, tokiko informazioa edota kultura-orrialdeek baino.

M8aren inguruko albiste eta informazioak sarritan bigarren mailakotzat hartzen diren orrialde horietan agertzen dira aztertutako laginean, batez ere Tokiko informazioa lantzen duten orrialdeetan (%27) eta Gizarte-gaietakoetan, (%17), grafikoan (4. Grafikoa) ikusten den moduan. Nolanahi ere, orrialde pisutsuetan agertzen denean, azpimarratu behar dugu Politika-gaiei zuzendutako orrialdeen erabilera beste guztien gaineratik (%19); Ekonomia orrialdeetan (%3), edota Nazioartean (%1) gaiaren agerpena ia anekdotikoa izan da. M8a gutxitan agertu da egunkarietako azaletan (%2) edota azken orrialdeetan (%2).

4. Grafikoa: Martxoaren 8 gaia egunkarien atalen arabera



N = 1.106 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

Tokiko orrialdeak maizago erabili duen egunkaria NAVARRA HOY da, egunkari honek publikatutako artikuluen bi herenak (%61,9) herrietako informazioa lantzen duten orrialdeetan kokatu du. Beste bi egunkarik erabili dute tokiko orrialde hauek oso maiz, EL CORREOK (%44,7) eta DIARIO DE NAVARRAK (%48,4) hurrengo taulan ikusten denez (8. Taula).

8. Taula: M8aren kokapena egunkarien sailei begira

(%)	Azala	Azkena	Ekonomia	Nazio.	Politika	Iritzia	Gizartea	Kultura	Tokiko	Kirola	G.berezia	Gehi.	Guztira
Diario Vasco	1,5	3,0	0,8	0,8	26,1	13,4	23,9	3,0	25,4	0,0	0,0	2,2	100,0
EL Correo	0,9	1,8	7,0	0,9	2,6	24,6	14,0	2,6	44,7	0,0	0,0	0,9	100,0
Diario de Navarra	0,0	1,1	4,3	1,1	16,1	15,1	1,1	2,2	48,4	0,0	0,0	10,8	100,0
Deia	1,0	1,0	0,5	0,0	10,9	20,2	28,0	3,6	28,0	0,0	0,0	6,7	100,0
Navarra Hoy	2,4	2,4	4,8	4,8	9,5	14,3	0,0	0,0	61,9	0,0	0,0	0,0	100,0
Diario de Noticias	0,8	1,6	8,1	1,6	11,3	14,5	21,0	4,0	30,7	0,0	0,0	6,5	100,0
Egin	3,9	2,8	2,2	2,2	20,6	26,1	8,3	4,4	22,2	1,1	0,0	6,1	100,0
Gara	4,0	1,0	6,0	6,0	47,0	20,0	0,0	5,0	3,0	0,0	0,0	8,0	100,0
Euskaldunon Egunkaria	4,7	0,0	0,0	0,0	4,7	18,6	62,8	4,7	0,0	0,0	0,0	4,7	100,0
Egunero	8,3	0,0	0,0	0,0	50,0	33,3	8,3	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Berria	4,2	0,0	0,0	0,0	29,6	21,1	16,9	0,0	8,5	0,0	12,7	7,0	100,0
Guztira	2,2	1,6	3,3	1,5	18,5	19,6	16,6	3,3	26,9	0,2	0,8	5,5	100,0

N = 1.106 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea. Oharrak: Nazio: nazioartea; G: gehigarria

Oro har, egunkari gehienek erabili dituzte orrialde hauek zenbait elkarteek antolatutako ekitaldien inguruko albisteak, hau da, garrantzi gutxiko informazioak, gutxi landutakoak eta askotan, erdiak baino gehiago, tamaina txikikoak edota oso txikikoak (%56) argitaratzeko, honen erakusgarri DIARIO VASCON topatutako bi adibide, «*Actos para hoy, Día Internacional de la Mujer*»²⁹⁶ edo «*Teatro en la semana de la mujer*»²⁹⁷; bietan ebentuen informazio soila eta landu gabekoa ageri da.

6. Irudia; DIARIO VASCO, 1998-03-08; 26. or.

Actos para hoy, Día Internacional de la Mujer

□ El Ayuntamiento organiza hoy varios actos para celebrar el Día Internacional de la Mujer. A las 12 habrá una concentración en los relojes de la Concha para protestar por la situación de las mujeres en Afganistán y se soltarán globos como gesto solidario. Por la tarde, a las 18 horas, se representará la obra *Pekín, 36.002* en el Victoria Eugenia. Tras el teatro, a las 19.45 horas, tendrá lugar otra concentración en la plaza de Oquendo para denunciar la violencia contra las mujeres./DV

7. Irudia: Diario Vasco, 2013-03-07; 18. or.

Teatro en la Semana de la Mujer

INTXAURRONDO

:: **YOLANDA SÁNCHEZ.** El centro cultural Intxaurreondo acoge hoy, a las 19, la obra de teatro *Tres* dentro de los actos de celebración de la XXV Semana de las Mujeres. La obra será interpretada por el grupo Emakume Ausartak y dirigida por Josema Lángara. La entrada es gratuita.

EUSKALDUNON EGUNKARIAK Gizarte-saileko orrialdeak erabili ditu gehien bat (%62,8) M8aren inguruan hitz egiteko, baina kontuan izan behar dugu egunkari honetan tokiko informazioak ez zuela berezko orrialde propioirik. BERRIAK joera hau

²⁹⁶ DIARIO VASCO, 1998-03-08; 26. or.

²⁹⁷ DIARIO VASCO, 2013-03-07; 18. or.

aldatu zuen, M8a orrialde indartsuetara mugituz, adibidez Politika sailera, non egunkari horretan argitaratu diren artikuluen ia heren bat topatu dugun.

BERRIA da, hain zuzen, M8ari gehigarri bereziak dedikatu dizkion egunkari bakarra. Hauetan, gaia sakonki aztertzeaz gain, ikuspegi desberdinak landu dituzte, adibidez, 2013ko Martxoaren 8an lau orrialdeko gehigarria publikatu zuen non Rosa Cobo-ri egindako elkarrizketa bat irakur dezakegun, «*Murrizketek desberdintasuna eragiten dute*»²⁹⁸ lerroburupean, honetan feminismoa eta ekonomiaren arteko harremanaz eta loturaz luze aritzen dira, «*Oztopoak berdintasunari*» artikuluan lan-munduan emakume eta gizonen arteko desberdintasunez, sistema patriarkala eta neoliberala aldatzeko eskaria islatuz:

*«Lan eredu hori gaitzetsi dute koordinakunde feministek, gaurko mobilizazioetara deitzean. Desberdintasuna pizten duela eta emakumearen esplotazioan oinarritzen dela nabarmendu dute. Sistema Patriarkala eta neoliberala aldatzea exijitu dute. Hainbat sindikatuk enplegu proposamenak aurkeztu dituzte azken egunotan...»*²⁹⁹.

EGINen oreka bat topatzen dugu hiru sailen artean, tokiko-orrialdeak (%22,2), Politika-saila (%20,6) eta Iritzia-saila (%26,1). Aipagarria da ere kasu honetan astero argitaratzen diren gehigarrietan M8ak duen presentzia, batez ere gazteei zuzendutako gehigarrian, GAZTEGIN izenez argitaratzen zena. Honetan, hiru orrialdetako erreportajea topatu dugu, Ruben Nieto kazetariak sinatuta, non emakume gazteen bizipenak eta sententzioak hitz egiten duen, fokatzeko feminista batetik: «*La costilla de Adán no deja de estar asada*»³⁰⁰. Gehigarri berean, gaztetxeetan gertatzen diren mikromatxismoak hitz egiten du Ainhoa Labeaga adituak «*Emakumeak libre...salbuespenak salbu*» iritzi-artikuluan:

*«Gauza bera, Gaztetxean zuk bokatak hobeto egiten dituzu eta sukaldean sartzeko esaten dizutenean. Aske izateko oztopoak besterik ez dira, aurrerapen guzti horien atzetik gizarteak oinarri berberak mantentzen baititu, berberak eta gainera hobeto estaliak»*³⁰¹.

GAZTEGIN ez da EGINEK duen gehigarri bakarra garai horretan, BAT BI HIRU musika-gehigarria ere plazaratzen zuen, eta M8aren harira Matrarraskak sinatutako

²⁹⁸ BERRIA, 2013-03-08 gehigarri berezia.

²⁹⁹ BERRIA, 2013-03-08 gehigarri berezia.

³⁰⁰ EGIN, 1993-03-05; GAZTEGIN 6-8. orr.

³⁰¹ EGIN, 1993-03-05; GAZTEGIN 5. orr.

artikuluaren munduaren matxismoaz aritzen dira, «*Feminismo y rock*»³⁰² artikuluaren.

GARAK ez ditu tokiko informazioari dedikaturiko orrialderik eta M8a politika sailean gailentzen da, beste guztien gaineratik, ia artikuluen erdiak orrialde hauetan kokatzen baitira, (%47,0). Orrialde hauetan publikatutako artikuluen %40 tamaina handiko edo oso handikoak izan dira.

Egunkari honetan ere astero argitaratzen diren gehigarrietan topatu dugu M8ari dedikatutako erreportaje eta artikulua, adibidez larunbatetan banatzen den GAUR8n, 2008an sei orrialde, azala eta barruko beste bost betetzen dituzten hiru elkarrizketa idatzi zituen Xole Aramendik, non hiru emakume etorkinen bizipenak aditzera ematen diren «*Emakume etorkina berdinatsunaren mugan*»³⁰³ lerroburupean.

DIARIO DE NAVARRA izan ezik, beste egunkari guztiek M8ari lekua eman diete azaletan, hala ere espazio hau oso eskasa izan da. Urte hauetan 41 aldiz agertu da gaia egunkarietako azaletan eta espazio hauek, gehienetan, txikiak (%56) izan dira. M8a azalaren gai nagusia izan da GARAN, BERRIAN eta EUSKALDUNON EGUNKARIAN soilik, adibidez EGINEK 1978an martxoaren 9an azalaren gai nagusia dedikatu zion M8ari³⁰⁴:

8. Irudia: Egin, 1978-03-09; 1- or.



³⁰² EGIN, 1998-03-10; BAT, Bi, HIRU 2. or.

³⁰³ GARA, 2003-03-08- GAUR8 1,12-16. orr.

³⁰⁴ EGIN, 1978-03-09; 1- or.

5.1.2.5 M8a egunkariak landu dituzten gaien arabera

Ikusi dugu non kokatzen diren M8aren inguruko artikuluak, orain aztertuko dugu zertaz hitz egin duten artikulu horiek. Horretarako bederatzi kategoria sortu ditugu, bost orokorrak, 1) ekonomia, 2) politika, 3) gizartea, 4) kultura eta 5) kirola, beste hiru emakumeekin lotutako gai bereziak, 1) emakumeen kontrako indarkeria, 2) emakumeen eskubide soziopolitikoaren aldarrikapena eta 3) ugaltze-eskubideak, azken kategoria bat beste kontuez aritzen direnentzako sortu dugu. Ondorengo taulan (9. Taula) ikusiko dugu nola banatzen diren gai hauek gure egunkarietan.

9. Taula: M8a gaien ikuspegitik

	(%)	Eskubi de soziop .	Emakum een kontrako indarkeri a	Ugaltze- eskubid eak	Ekono mia	Kultu ra	Politi ka	Gizart ea	Kiro la	Bes te	Guzti ra
DIARIO VASCO	29,1	8,2	9,7	14,9	14,9	6,7	4,5	0,8	11,2	100	
EL CORREO	22,8	15,8	3,5	27,2	11,4	6,1	5,3	0,9	7,0	100	
DIARIO DE NAVARRA	18,3	10,8	3,2	32,3	7,5	8,6	9,7	0,0	9,7	100	
DEIA	22,3	13,0	8,3	12,4	17,1	12,4	4,7	1,6	8,3	100	
NAVARRA HOY	38,1	0,0	23,8	9,5	7,1	9,5	2,4	0,0	9,5	100	
DIARIO DE NOTICIAS	14,5	12,1	0,8	32,3	21,8	9,7	5,7	0,0	3,2	100	
EGIN	30,6	10,0	6,1	19,4	15,6	5,6	5,6	1,1	6,1	100	
GARA	49,0	8,0	3,0	17,0	8,0	7,0	5,0	1,0	2,0	100	
EUSKALDUNON EGUNKARIA	37,2	23,3	2,3	9,3	4,7	18,6	0,0	0,0	4,7	100	
EGUNERO	41,7	0,0	8,3	33,3	0,0	0,0	8,3	0,0	8,3	100	
BERRIA	26,8	5,6	8,5	19,7	15,5	12,7	5,6	4,2	1,4	100	
GUZTIRA	27,4	10,8	6,2	20,2	13,7	8,9	5,2	1,0	6,6	100	

N = 1.106 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

M8a aldarrikapen eguna den heinean, emakumeen eskubide soziopolitikoaren aldarrikapena eta defentsa gai nagusia izan da, argitaratutakoaren %27,4a betetzen baitu.

Bigarren postuan ekonomia gaiak (%20,2) agertzen dira, kategoria honetan emakumeen lan-eskubideak eta pobrezia feminizazioa lantzen duten artikuluak aurkitu ditugu, beraz M8arekin oso lotuta dauden gaiak dira. Baina

azpimarratu behar dugu artikulu ia gehienak lan-munduari lotutako gaiak aztertu dituztela, emakumeen pobrezia edo ekonomia gaiak %5ean gelditu baitira.

Kulturarekin lotutako albisteak %13,7 dira, nahiz eta aurreko taulan ikusi dugunez, kultura-orrialdeen presentzia askoz txikiagoa izan, %3,3. Kultur albiste hauek tokiko orrialdeetan agertzen dira sarritan, M8aren inguruan udalek eta elkarteek antolatzen dituzten ekitaldi kulturalen albisteak dira, antzerki- edota zine- emanaldiak, kontzertuak, argazki-erakusketak, agenda-gaiak azken finean, edizio- lan gutxi duten informazioak eta garrantzi gutxikoak.

Emakumeen eskubide soziopolitikoak orokorrean gai nagusia izan bada ere, EL CORREO, DIARIO DE NAVARRA eta DIARIO DE NOTICIASen ekonomia-informazioak dira gehien landu direnak, EL CORREON ekonomia-gaiek %27,2 osatzen dute, DIARIO DE NAVARRAN %32,3, eta DIARIO DE NOTICIAS egunkarian %32,2; hauetan batez ere emakumeen lanarekin zerikusia duten artikuluak izan dira. Baina artikulu askotan ez dago egoera ekonomiko edo lan-gatazkei buruzko informazioa, baizik eta ikuspegi arin eta tribial bat; argi ikus dezakegu esate baterako, EL CORREOK egindako bi erreportajetan, bata 1988an «*De la margen izquierda a la derecha para "servir"*» non emakumeen lanari buruz hau esaten den:

«A cambio recibirán la cantidad legalmente estipulada que les permitirá apoyar la débil economía familiar, disponer de una cantidad para comprar la ropa preferida o disfrutar de unas vacaciones con la amiga o la cuadrilla de amigos. La mayoría son jóvenes, casi adolescentes, no más de veintidós. Chicas casi en su totalidad que dejaron muy pronto la escuela, algunas en el instituto porque no querían estudiar»³⁰⁵.

Eta bost urte beranduago «*Una de los nuestros*» lerroburupean, gizonek tradizionalki bete dituzten lanetan emakumeen presentzia aztertzen duen piezan, horrela esaten dute:

«¿Y yo con estas pintas! Bromea Mari Carmen Emparan Sánchez, subjefa de la comisaria de la Ertzaintza en Tolosa cuando el flash de la cámara estampa sobre su rostro. El gesto de coquetería de esta mujer es tan natural como su fisonomía de poli (sic) a medio vestir: característico jersey rojo acanalado con galones de inspector, pantalón sport color marrón y zapatos

³⁰⁵ EL CORREO, 1988-03-07; 5. or.

de tacón bajo. O sea (sic) un coctel explosivo pero combinado»³⁰⁶.

NAVARRA HOY egunkarian eskubide soziopolitikoak (%38,1) eta ugaltze-eskubideak (%23,8) dira gai nagusiak.

EGINEN eta GARAN gaien tratamendua antzekoa izan da, eskubide soziopolitikoaren gaia izan ezik. EGINEK gai honi artikuluen %30,6 dedikatzen dio eta GARAK publikatutako artikuluen ia erdia (%49,0). GARAREN kasuan, eskubide soziopolitikoek idatzi diren artikuluen ia erdiak iritzi-artikuluak izan dira (%49,3), bai bertako kazetarien zutabeak, bai kanpotik bidalitako iritzi-artikuluak, baita bi editorial. Horren adibide 2013an argitaratuakoaren hasierako paragrafoa ekarriko dugu orrialde hauetara, feminismoaren markotik idatzitakoa:

«El 8 de marzo es un día marcado en rojo en el calendario internacional, en el que miles de personas se manifiestan para denunciar una realidad tan objetiva como sostenida en el tiempo: la prevalencia de un modelo patriarcal y machista en la estructuración de la sociedad. Es asimismo una ocasión para que agentes sociales e institucionales hagan alarde de imaginación con lemas y soportes publicitarios que invitan a pensar que su compromiso con los derechos de las mujeres es firme y decidido. Y, sin embargo, pese a esas campañas y movilizaciones, se ha convertido también en una jornada que no consigue marcar un punto de inflexión en la lucha contra la principal injusticia en la historia del ser humano»³⁰⁷.

Ekonomiak garrantzi berezia dauka GARAN eta EGINEN, honetan ere gai nagusia lana izan da, batez ere emakumeen lan-eskubideei buruz hitz egin duten artikuluak idatzi dituzte. Bi aspektu azpimarratu ditzakegu artikulu hauetan, batetik iritzi-sailean argitaratu diren artikuluetan irakurri dugun aldarrikapenen intentsitatea, eta bestetik nekazal-arloko emakumeek daukaten presentzia, beste egunkarietan ikusi ez duguna. Azken honen adibidea da EGINEN aurkitu dugun artikulua, «*Mujeres baserritarras, minoria marginada*»³⁰⁸.

Hiru egunkari euskaldunetan gaien tratamendua zeharo desberdina izan da, EUSKALDUNON EGUNKARIAN eskubide soziopolitikoaren aldarrikapena gai nagusia izan bazen, (%37,2) BERRIAN, ordea garrantzia galtzen du (%26). EUSKALDUNON

³⁰⁶ EL CORREO, 1993-03-07; ED 7-8. orr.

³⁰⁷ GARA, 2013-03-09; 12. or.

³⁰⁸ EGIN, 1993-03-11; 19. or.

EGUNKARIAN gehien lantzen den bigarren gaia ugaltze-eskubideak dira, baina BERRIAN gai hau desagertu egiten da. Ekonomiak, aldiz, leku nabarmena hartzen du azken egunkari honetan (%19,7).

5.1.2.6 M8ko kazetarien eta iritzi-egileen generoa

Egunkariak publikatutako artikuluen egileen generoari buruzko azterketak adierazten digu emakumeek M8ko informazio zein iritziaren %40,5 sinatzen dutela; gizonezkoek %17,0; eta “beste” izeneko kategoriak %42,5 hartzen du, alegia, argitzerik ez dagoenean egilea gizona edo emakumea ote den. Hurrengo taulan (10. Taula) ikusi dezakegu sinadura horien banaketa.

10. Taula: Egileen generoa, eduki guztiak barne (info+iritzi)

	(%)	Emakumea	Gizona	Ezezaguna	Guztira
EL Correo	36,0	26,3	37,7	100,0	
Diario Vasco	25,4	20,2	54,5	100,0	
Diario de Navarra	36,6	12,9	50,5	100,0	
Deia	45,6	17,6	36,8	100,0	
Navarra Hoy	19,1	9,5	71,4	100,0	
Diario de Noticias	36,3	19,4	44,4	100,0	
Egin	43,3	12,2	44,4	100,0	
Gara	51,0	14,0	35,0	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	60,5	4,7	34,9	100,0	
Egunero	33,3	0,0	66,7	100,0	
Berria	54,9	25,4	19,7	100,0	
Guztira	40,5	16,9	42,6	100,00	

N = 1.106 item periodistiko; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

Egunkariak bakarka aztertuz, ez dago alde handirik beraien artean, salbuespen gisa GARA, EUSKALDUNON EGUNKARIA eta BERRIA aipatu daitezke, non sinaduren erdia baino gehiago emakumeenak dira, EUSKALDUNON EGUNKARIAN hamarretik seira igotzen da portzentaje hori.

Baina datu orokorretatik harago gaiak azterketa sakonagoa eskatzen du, horregatik iritzi eta informazioen egileen generoa modu berezitan aztertuko ditugu.

Hurrengo taulan (11. Taula) informazio-artikuluen sinadurak ikus ditzakegu:

11. Taula: informazio-egileen generoa

	(%)	Emakume	Gizon	Ezezaguna	Guztira
EL Correo	28,6	28,6	42,9	100,0	
Diario Vasco	16,7	19,4	63,9	100,0	
Diario de Navarra	27,8	6,9	65,3	100,0	
Deia	40,7	12,4	46,9	100,0	
Navarra Hoy	14,7	5,9	79,4	100,0	
Diario de Noticias	26,3	20,2	53,5	100,0	
Egin	25,8	15,3	58,9	100,0	
Gara	35,8	17,9	46,3	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	51,4	5,7	42,9	100,0	
Egunero	0,0	0,0	100,0	100,0	
Berria	45,5	29,1	25,5	100,0	
Guztira	30,2	16,7	53,1	100,0	

N = 831 item periodistiko; bakarrik informazioa. Iturria: autorea.

M8aren inguruko informazio gehienetan (%53,1) ez da agertzen kazetariaren generoa, sinatu gabekoak edota letra larriz sinatutako informazioak dira. Sinatutakoen artean emakumeek ia heren bat (%30,2) sinatzen dute, gizonezkoen ia bikoitza (%16,3).

Hala ere, egunkari bakoitzaren jarrera ez da berdina izan atal honetan. EL CORREOK (28%) eta DIARIO VASCOK (18% inguru) oreka mantentzen dute gizon eta emakumeen sinaduren kopuruetan. DIARIO DE NAVARRAN gauzak zeharo aldatzen dira, non emakumeen sinadurak (%27,8) gizonezkoenak (%6,9) baino lau aldiz gehiago diren.

EGINEN informazioen %25,8 emakumeek sinatzen dute eta %15,3 gizonak, GARAN, ordea, emakumeak %35,8 izan dira baina gizonak %17,9an mantendu dira.

EUSKALDUNON EGUNKARIAN argitaratutako informazioen erdia baino gehiago (%51,4) emakumeek sinatu dute, gizonek berriz bakarrik %5,7. Joera hori BERRIAN aldatzen da, gizonek %29,1 sinatu baitute. EGUNERO egunkarian informazioak ez ziren sinatu egun horietan.

Iritzi-artikuluen sinadurak azterketak joera hau areagotzen dela erakusten digu. Emakumeen sinadurak nagusi dira iritzi-artikuluetan (%71,6) eta gizonen parte-hartzea esparru honetan %17,6an gelditzen da. Sinatu gabeko iritzi-artikuluak (Editorialak) edota talde mistoek sinatutakoak %10,6 dira, (12. Taula) EUSKALDUNON EGUNKARIAN, eta baita EGUNERON, iritzi-artikulu guztiak emakumeek idatzitakoak dira, bai iritzi-zutabeak eta baita kolaborazioak. Emakumeen parte-hartzea atal honetan nabarmena da bai BERRIAN (%87,5), EGINEN (%82,1) eta GARAN (%81,8). EGINEN eta GARAN gizonen sinadurak iritzi artikuluetan %7an gelditzen dira.

12. Taula: : iritzi-artikuluen egileen generoa

	(%)	Emakume	Gizon	Ezezaguna	Guztira
EL Correo		56,7	20,0	23,3	100,0
Diario Vasco		61,5	23,9	15,4	100,0
Diario de Navarra		66,7	33,3	0,0	100,0
Deia		60,4	33,3	6,3	100,0
Navarra Hoy		37,5	25,0	37,5	100,0
Diario de Noticias		76,0	16,0	8,0	100,0
Egin		82,1	7,1	10,8	100,0
Gara		81,8	6,1	12,1	100,0
Euskaldunon Egunkaria		100,0	0,0	0,0	100,0
Egunero		100,0	0,0	0,0	100,0
Berria		87,5	12,5	0,0	100,0
Guztira		71,6	17,8	10,6	100,0

N = 275 item; bakarrik iritzia. Iturria: autorea.

5.1.2.7 M8ko egileen rolak

Batetik informazio-egileek betetzen dituzten rol profesionalak eta bestetik iritzi-egileek noren izenean hitz egiten duten aztertuko dugu atal honetan. Informazio-artikuluak dagokionez, kazetariak (identifikatuta agertzen direnak)

edota idazgelak (sinadurarik gabeko informazioak) informazioen %88,8 idatzi dituzte, informazio agentziak, berriz, oso gutxitan erabili izan dira M8az informatzeko, bakarrik %10,8an agertu baitira. Aurretik azaldu dugunez, tokiko informazioa anitz argitaratzen da eta informazio-mota hau tokiko kazetariak landu ohi dute, ez agentziek (13. Taula).

13. Taula: Informazio-egileen rolak

	(%)	Kazetariaa	Idazgela	Agentzia	Aditu	Guztira
EL Correo	59,5	26,2	11,9	2,38	100,0	
Diario Vasco	40,7	36,1	23,2	0,0	100,0	
Diario de Navarra	44,4	33,4	22,2	0,0	100,0	
Deia	60,0	26,0	13,0	0,0	100,0	
Navarra Hoy	67,7	23,5	8,8	0,0	100,0	
Diario de Noticias	54,6	34,3	11,1	0,0	100,0	
Egin	56,4	41,1	2,5	0,0	100,0	
Gara	52,2	44,8	1,5	1,5	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	60,0	34,3	5,7	0,0	100,0	
Egunero	37,5	62,5	0,0	0,0	100,0	
Berria	74,5	25,5	0,0	0,0	100,0	
Guztira	55,4	33,4	10,8	0,4	100,0	

N = 831 item; bakarrik informazioa. Iturria: autorea.

Agentzietako informazioa gehien erabiltzen duten egunkariak DIARIO VASCO (%23,2) eta DIARIO DE NOTICIAS (%22,2) dira. EGIN/GARA binomioan eta baita EUSKALDUNON EGUNKARIA/EGUNERO/BERRIAN aldiz idazgela zein kazetarien parte-hartzea %90etik gora dago.

Gutxitan eskatzen zaie gai honetan aditu direnei azalpenak edota gaiari testuingurua ematea, hauen presentzia ia anekdotikoa baita, (%0,4).

Egunkariak banaka hartuta ere, desberdintasun gutxi daude atal honetan, salbuespena BERRIA egunkaria da, honetan kazetariak informazioaren %75,5 sinatu dituzte, media baino hogeita puntu gehiago. Mediatik behera DIARIO DE NAVARRA nabarmentzen da, informazioen %40,7 kazetariak produzitutakoa baita.

Iritzi-egileen artean talde moduan sinatutako artikulak nagusi dira, (%31,3) hau da, mugimendu sozial, politiko edo sindikalak baita elkarte edo GKEek sinatutako artikulak, bigarren taldea zutabegileek osatzen dute (%20,0), eta hirugarrena pertsona anonimoena da (%14,6), hau da, egunkarietara gutunak edo artikulak bidali duten hiritarrak (14. Taula).

Baina joera desberdinak aurkitu ditugu egunkarien artean. Batetik, taldeek sinatutako artikuluek presentzia txikia daukate bai EL CORREON (%20), DIARIO DE NAVARRAN (%14,3), DEIAN (%12,5) edo DIARIO VASCON (%11,5). Honek EGINEK (%50,6) eta GARAK (%48,5) egindako lanarekin kontrastatzen du, non taldeek lekua izan duten beren iritziak plazaratzeko. Bi egunkari hauetan ohikoa izan da sindikatu desberdinen ahotsak irakurtzea (LAB, ESK, ELA) edota herrietan lanean ibili diren taldeak adibidez, Ilaski Taldea, Tolosako emakumeak, Ondarruko Boga-Boga elkarte³⁰⁹,... Partidu politikoen presentzia ere nabaria izan da (HB, IU-EB, Gazte Abertzaleak...), eta talde feministak ere bai, (Bizkaiko Emakume Asanblada³¹⁰, Bilgune Feminista³¹¹, Andrea, Aizan, Egizan, Lanbroa).

Talde hauek presentzia nabarmena izan dute ere euskaraz argitaraturiko egunkarietan, EUSKALDUNON EGUNKARIAN (%37,5), EGUNERON (%50) eta BERRIAN (43,75). EUSKALDUNON EGUNKARIAN agintari instituzionalek sinatutako iritzi artikulak %37,50 dira, zutabegileek berriz %31,25 sinatzen dute.

Pertsona ezezagunak sinatutako artikuluek presentzia nabarmena daukate DIARIO DE NAVARRA egunkarian, iritzi-artikuluen heren bat baitira, baita DIARIO DE NOTICIAS egunkarian, non %28 diren. Hauen artean zuzendariari gutunak epigrafean argitaratutakoak daude, baina baita zenbait iritzi-artikulu ere.

Ohiko kolaboratzaileen iritzi-zutabeen azterketa emaitza dispartsoa ematen digu. DIARIO VASCON gaia lantzen duten iritzi-artikuluen bi herenak ohiko zutabegileek idatzi dituzte, eta BERRIAN %31,3. Beste muturrean EL CORREO (%10,0) eta EGIN (%7,1) topatzen ditugu

³⁰⁹ Boga-Boga elkarte 1995 urtean sortu zen Ondarrun (Riveras Irusta et al. 2012, 44)

³¹⁰ Bizkaiko Emakume Asanblada (BEA) 1976. urtean sortu zen (Epelde Pagola et al. 2015, 90)

³¹¹ Euskal Herriko Bilgune Feminista 2002 abenduan egindako Emakume Abertzaleon I topaketetan aurkeztu zen (Epelde Pagola et al. 2015, 413)

14. Taula: Iritzi-egileen rolak

	(%)	Aditu	Agintari instituzionala	Pertsona Anonimoa	Idazgela	Kazetariak	Pertsonai nabarmena	Taldea	Zutabegilea	Guztira
EL Correo	16,7	6,7	13,3	20,0	0,0	13,3	20,0	10,0	100,0	
Diario Vasco	7,7	7,7	7,7	15,4	0,0	3,9	11,5	46,2	100,0	
Diario de Navarra	4,8	14,3	33,3	0,0	0,0	4,8	14,3	28,6	100,0	
Deia	2,1	14,6	16,7	6,3	4,1	14,6	12,5	29,2	100,0	
Navarra Hoy	12,5	0,0	0,0	25,0	0,0	0,0	37,5	25,0	100,0	
Diario de Noticias	4,0	8,0	28,0	4,0	0,0	8,0	32,0	16,0	100,0	
Egin	9,0	1,8	17,9	3,6	3,6	5,4	51,8	7,1	100,0	
Gara	6,1	9,1	3,0	12,1	6,1	0,0	48,5	15,2	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	0,0	37,5	12,5	0,0	0,0	0,0	37,5	12,5	100,0	
Egunero	0,0	50,0	0,0	0,0	0,0	0,0	50,0	0,0	100,0	
Berria	0,0	12,5	0,0	0,0	0,0	12,5	43,8	31,3	100,0	
Guztira	6,6	9,9	14,6	8,0	2,6	7,3	31,3	20,0	100,0	

N = 275 item; bakarrik iritzia. Iturria: autorea

5.1.2.8 M8ko artikuluen tamaina

Gai bati ematen zaion garrantzia neurtzeko aldagai bat tamaina izan ohi da, eta orokorrean esan dezakegu M8aren inguruan idatzitako artikulua txikiak (laginaren %38,3) edo oso txikiak (%7,3) izan direla (44. Taula). Laginaren heren bat tamaina erdiko diren artikuluek osatzen dute, hau da, orrialdearen %25 eta %75 betetzen dituzten artikulua (%37).

Orrialde baten 3/4ak baino gehiago betetzen dituzten artikulua %12,8 dira eta orrialde bat baino gehiago betetzen dutenak %4,3 (15. Taula).

15. Taula: Artikuluen tamaina

	(%)	Oso Handia	Handia	Ertaina	Txikia	Oso txikia	Guztira
Diario Vasco	5,2	9,0	29,1	44,0	12,7	100,0	
EL Correo	2,6	11,4	41,2	39,5	5,3	100,0	
Diario de Navarra	2,2	5,4	35,5	52,7	4,3	100,0	
Deia	5,9	10,9	41,0	32,6	10,3	100,0	
Navarra Hoy	2,4	9,5	31,0	50,0	7,1	100,0	
Diario de Noticias	2,4	12,9	38,7	37,9	8,1	100,0	
Egin	1,1	14,4	36,7	39,4	8,3	100,0	
Gara	11,0	18,0	38,0	33,0	0,0	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	4,7	18,6	30,2	37,2	9,3	100,0	
Egunero	0,0	0,0	91,7	8,3	0,0	100,0	
Berria	9,9	26,8	35,2	25,6	2,8	100,0	
Guztira	4,3	12,8	37,3	38,3	7,3	100,0	

N = 1.106 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

DIARIO DE NAVARRA egunkariak publikatuta dituen item guztien erdia baino gehiago tamaina txikikoak (%52,7) edota oso txikikoak (%4,3) izan dira. Gogoratu behar dugu ere, egunkari hau izan dela batez beste artikulua gutxien publikatu duen egunkaria (%11,1) urteko batz bestekoa, lagina osoaren %8,36. Beraz, esan dezakegu hau dela M8a gaiari espazio gutxien eman dion egunkaria urte hauetan guztietan.

NAVARRA HOY egunkariak ere argitaratutako itemen erdia baino gehiago tamaina txikikoak (%50,0) edo oso txikikoak (%7,1) izan dira.

EGINEN gehien erabiltzen diren tamainak txikia (%39,4) eta ertaina (%36,7) dira, ostera GARAN tamaina handiko artikulua (%18,0) eta oso handiak (%11,0) maiz erabiltzen dira. BERRIAN tamaina handiko artikuluen portzentajeak (%26,8) eta oso handikoek (%9,9) beste egunkarien media bikoizten dute, eta argitaratutako artikuluen heren bat baino gehiago dira.


5.1.3 Egunkariak 1978-2013 epealdian argitaratu dituzten irudien azterketa

Azpiatal honetan, hainbat alderdi ikertzen dira: 1) zenbat irudi eta zer motakoak argitaratu dira 2) irudi-egileen generoa eta 3) irudien edukia, protagonistak, kokapenak eta irudien dinamikak.

5.1.3.1 Irudi-kopuruak

Gure lanaren hasieran esan genuen bezala, 1855 elementu aztertu ditugu lan honetan, eta horietatik %40 irudiak izan dira, hain zuzen ere 749 irudi. Argitaraturako irudi-kopurua ez da uniforme izan urte hauetan zehar, hasierako urteetan oso irudi gutxi argitaratu baziren ere, 1993tik aurrera igoera eman zen (testuekin gertatu zen bezala) eta geroztik kopurua nahiko orekatuta mantendu da, ondoko grafikoan ikus dezakegun bezala. Esan dugunez, inflexio-urtea 1993a izan zen, EMAKUNDEAREN sorreraren osteko aztertu dugun lehenengo urtean (5. Grafikoa).

5. Grafikoa: Argitaratutako irudi-kopuruak urtez urte 1978-2013



N=749 item. Iturria. Autorea

Batez beste 14,9 irudi agertu dira urte bakoitzeko, hurrengo taulan ikusten den banaketaren arabera (16. Taula: irudi-kopurua):

16. Taula: irudi-kopurua eta urteko batz bestekoa

	1978	1983	1988	1993	1998	2003	2008	2013	GUZTIR A	%	BATAZ BESTE O URTEAN
Diario Vasco		4	5	18	11	19	11	9	77	10,3	9,6
EL Correo	1	3	7	25	20	15	9	5	85	11,3	10,6
Diario de Navarra	1	2	2	5	17	14	12	9	62	8,3	7,7
Deia	1	10	4	17	29	15	32	54	162	21,6	20,2
Navarra Hoy		5	7	7					19	2,5	6,3
Diario de Noticias					25	28	19	14	86	11,5	21,5
Egin	7	11	16	46	26				106	14,2	21,2
Gara						14	27	23	64	8,5	21,3
Euskaldunon Egunkaria				8	15				23	3,1	11,5
Egunero						5			5	0,7	5,0
Berria							35	25	60	8,0	30,0
GUZTIRA	10	35	41	126	143	110	145	139	749	100	14,9

N= 749 item. Iturria: autorea.

Diferentzia handiak ikusten dira egunkari batetik bestera. El DIARIO VASCO (9,6), EL CORREO (10,6) eta DIARIO DE NAVARRA (7,7) argazki-kopuru mediatik urrun geratu dira, hala ere NAVARRA HOY egunkaria da irudi kopururik txikiena eta media txikiena ere argitaratu duena, EGUNERO alde batera utzita.

DEIA (20,2) eta DIARIO DE NOTICIAS (21,5) mediaren gaintik daude, baita EGIN (21,2) eta GARA (21,3). Nabarmendu behar dugu BERRIA egunkariak publikatu dituen irudi kopurua, batez besteko 30 irudi urtean.

Lagina osotasunean aztertuta, argi ikusten dugu DEIAN agertu direla irudi gehien (%21,6), baina EGIN eta GARA binomioaren batura gaintik ipintzen da (%22,7). Beste muturrean DIARIO DE NAVARRA topatzen dugu, lagin osoaren %8,3 argitaratu ditu, nahiz eta denboraldi osoan publikatu.

5.1.3.2 Irudi-motak

Irudien sailkapena egiteko bost kategoria erabili ditugu, argazkiak, binetak, grafikoak, infografiak eta marrazkiak. Argazkiak gehien erabili diren irudiak dira, argitaratutako irudien %89,3 argazkiak izan baitira. Marrazkiak (%5,9) bigarren modalitatea da, umorezko binetak (%3,6) atzetik, eta oso anekdotikoak infografiak (%0,9) eta grafikoak (%0,3), (17. Taula: Irudi-mota).

17. Taula: Irudi-mota

	(%)	Argazkia	Bineta	Grafikoa	Infografia	Marrazkia	Guztira
Diario Vasco		79,2	5,2	1,3	0,0	14,3	100,0
EL Correo		84,7	5,9	1,2	1,2	7,0	100,0
Diario de Navarra		90,3	1,6	0,0	4,8	3,2	100,0
Deia		96,3	1,2	0,0	0,0	2,5	100,0
Navarra Hoy		100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Diario de Noticias		90,7	2,3	0,0	0,0	7,0	100,0
Egin		84,9	7,5	0,0	0,0	7,5	100,0
Gara		92,2	4,6	0,0	1,6	1,6	100,0
Euskaldunon Egunkaria		73,9	4,4	0,0	4,3	17,4	100,0
Egunero		100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Berria		93,3	1,7	0,0	1,7	3,3	100,0
Guztira		89,3	3,6	0,3	0,9	5,9	100,0

N = 749 irudi. Iturria: autorea.

EL CORREO egunkariak irudi-aniztasun handiena erabiltzen du, modalitate guztietako irudiak erabiltzen bakarra baita urte hauetan. Argazkien kopurua handia da (%84,7), bigarren postuan irudiak agertzen dira, hauek iritzi-orrialdeetan agertzen dira batik bat, iritzi-artikuluen euskarri gisa. Egunkari honek marrazkiak erabiltzen ditu ere iritzi-orrialdeetan, artikuluen iritzi-artikuluen euskarri gisa. DIARIO VASCOK marrazki ugari erabiltzen ditu, (%14,3), bakarrik EUSKALDUNON EGUNKARIAK (%17,4) gailentzen du portzentaje hori. DEIAK indar guztiak argazkietan jartzen du, (%96,3), baita NAVARRA HOYK ere (%100).

EUSKALDUNON EGUNKARIAK argitaratutako irudien %17,4 marrazkiak izan dira, eta bineten eta infografiaren erabilera parekoa da, %4,3. BERRIAK ez du joera hori mantenduko, eta argazkiei garrantzi gehiago emango die, irudien %93,3 argazkiak baitira.

Tira komiko edo bineten portzentajeak altuak dira DIARIO VASCON (%5,2) eta (%5,9) EL CORREON, mediatik gora, aldiz DIARIO DE NAVARRAN portzentaje hau oso txikia da (%1,6).

EGINEN garrantzi berezia ematen zaie binetei, argitaratutako irudien (%7,5) baitira. Egunkari honetan Olariaga komikilariak sinatutako bi komiki-tira aurkitzen ditugu, *Marizikin*³¹² eta *Zakilixut*³¹³ protagonista direlarik. *Marizikin* da komiki-tira baten rol nagusia bete duen pertsonai femenino bakarria aztertutako epe honetan. EGINEN azken urteetan eta gero *GARAN Tasio* marrazkilariak urtero dedikatu dio bineta bat M8ari, eta ia urtero sinbolo feministak agertu dira bineta horietan. Egunkari honetan marrazkiek garrantzi berezia daukate, (%7,5) osatzen baitute.


9. Irudia: Egin, 1978-03-7. 10. or. Marizikin M8aren aurrean



³¹² EGIN 1978-03-7. 10. or.

³¹³ EGIN 1978-03-8, 31. or.

10. Irudia: EGIN, 2008-03-08, 22. or. Tasioren Bineta



5.1.3.3 Irudi-egileen generoa

Argazkilari emakumezko gutxi daude gure egunkarietan, eta binetagle bat ere ez, ezta irudi- edo infografia-egilerik ere. Publikatutako irudi-egileen generoa aztertu dugu hurrengo taulan, non ikus dezakegun publikatutako irudien %8,7 emakume batek sinatu duela urte hauetan, aldiz gizonen sinadurarekin publikatu direnak %43,0 dira. Hala ere, irudien gehiengoa (%48,3) sinadura barik argitaratu dituzte (18. Taula Irudi-egileen generoa).

18. Taula Irudi-egileen generoa

	(%)	Gizona	Emakumea	Ezezaguna	Guztira
Diario Vasco	42,9	1,3	55,8	100,0	
EL Correo	42,4	17,6	40,0	100,0	
Diario de Navarra	43,6	1,6	54,8	100,0	
Deia	38,8	6,2	55,0	100,0	
Navarra Hoy	15,8	0,0	84,2	100,0	
Diario de Noticias	36,0	19,8	44,2	100,0	
Egin	39,6	2,8	57,9	100,0	
Gara	67,2	12,5	20,3	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	39,0	0,0	61,	100,0	
Egunero	0,0	0,0	100,0	100,0	
Berria	58,3	16,7	25,0	100,0	
Guztira	43,0	8,7	48,3	100,0	

N = 749 irudi. Iturria: autorea.

Bi egunkaritan emakumezko argazkilari profesionalak topatu ditugu, batetik EL CORREON urteetan tokiko arloan lan EGIN zuen Maite Bartolomé eta DIARIO DE NOTICIAS egunkariko Merche Galindo. Hain zuzen ere, Maite Bartolomé-k EL CORREON agertu diren argazki guztiak sinatzen ditu, bat izan ezik. Beste zenbait egunkarietan, DIARIO VASCON, DIARIO DE NOTICIASEN, DEIAN edota EGINEN, emakumezko kazetariak argazkiak ere sinatzen dituzte, hau da, testua eta argazkia egile berak egiten ditu.

NAVARRA HOYN sinatu gabeko argazkiak %84,2 dira, eta sinatutakoen artean ez dago emakumerik. Ez da gauza bera gertatzen DIARIO DE NOTICIASEN, non emakumeek irudien %19,8 sinatzen dute. Honetan Merche Galindo argazkilariak sinatzen ditu argazki pare bat 1998 urtean; beste guztiak, aldiz, kazetari erredaktoreek egindako argazkiak dira.

EGINEN ez dago argazkilari emakumezkorik, eta emakumeek sinatzen dituzten argazkiak (%2,9) kazetariak beraiek EGINDAKOAK dira. EUSKALDUNON EGUNKARIAN ez dago emakume batek sinatutako argazkirik ezta EGUNERON ere, honetan ez baitago sinadurarik, ez informazioan ezta argazkietan ere.

11. Irudia: Egutero, 2003-03-09; 13.or. informazioa eta argazkia sinatu barik



GARAN eta BERRIAN egoera aldatzen da. Huetan Argazki Prest agentziaren bi emakume argazkilariak lan gehienak sinatzen dituzte, Monika del Vallek eta

Marisol Ramirezek hain zuzen. GARA argazkiak eta idatzizkoa emakume berak sinatzen duen erreportaje bakarra agertzen da.

Egunkari guztietan binetagineak gizonetakoak dira, VOCENTO taldeko egunkarietan Anton, (Jesus) Zulet, Ramón eta Martin Morales, DEIAN Ripa (Javier Ripa) sinatzen ditu agertzen diren bi binetak, DIARIO DE NOTICIASEN JJ Aosek (José Javier Aos), EGINEN Lopez&Perez (Jesús Ferrero Fernandez), Tasio (Javier Etayo), Olariaga (Anton Olariaga), Quino (Joaquin Salvador Lavado), eta Martin Morales; GARA Tasiok sinatzen ditu guztiak eta EUSKALDUNON EGUNKARIAN eta BERRIAN Olariaga da sinatzaile bakarra³¹⁴.

5.1.3.4 Irudien protagonistak

M8arekin zerikusia duten irudi gehienetan emakumeak dira protagonista, batzuetan emakume bakarra (%38,0) edota emakume-talde bat (%35,8); talde mistoak gutxiago agertzen dira, (%16,0); gizonak ordea, oso gutxitan agertzen dira, bakarrik (%4,3) edo taldeka (%1,0), hurrengo taulan agertzen denez (19. Taula).

19. Taula: irudien protagonistak

	(%)	Ema. bat	Ema.- talde	Ema. oro	Giz. bat	Giz.- talde	Giz. oro	Talde anitza	Ez/d	Guztia
Diario Vasco	57,1	27,3	84,4	2,6	1,3	3,9	10,4	1,30	100	
EL Correo	44,7	31,8	76,5	4,7	2,4	7,1	14,1	2,3	100	
Diario de Navarra	35,5	22,6	58,1	4,8	1,6	6,5	27,4	8,1	100	
Deia	43,8	32,7	76,6	3,7	0,0	3,7	15,4	4,3	100	
Navarra Hoy	21,1	36,8	57,9	5,3	0,0	5,3	31,6	5,3	100	
Diario de Noticias	17,4	46,5	64,0	3,5	1,2	4,7	24,4	7,0	100	
Egin	31,1	42,5	73,6	8,5	2,8	11,3	11,3	3,7	100	
Gara	26,6	40,6	67,2	4,7	0,0	4,7	21,8	6,2	100	
Euskaldunon Egunkaria	43,5	21,7	65,2	0,0	0,0	0,0	17,5	17,4	100	
Egunero	40,0	60,0	100,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	100	
Berria	48,3	45,0	93,3	1,7	0,0	1,7	1,7	3,3	100	
Guztira	38,1	35,8	73,8	4,3	1,1	5,3	16,0	4,8	100	

N = 749 irudi. Iturria: autorea.

³¹⁴ Binetagineen izen abizenak webgune honetan topatu ditugu: <https://www.tebeosfera.com/1/Seccion/NSST/06/HumorGrafico.htm> [2018/06/29an berreskuratuta]

Egunkari guztietan emakumeen presentzia argazkietan altua da, (%)60tik gora gehienetan. BERRIAREN kasuan ia %95ra ailegutzen da emakumeen protagonismo hori. Beste aldean NAVARRA HOY eta DIARIO DE NAVARRA daude, bi egunkari hauetan talde mistoei berezko garrantzia ematen zaie, mediatik 10 puntu baino gehiago (%31,6 eta %27,4 hurrenez hurren).

5.1.3.5 Irudien kokapena

Argazkien testuingurua aztertu dugu, irudiak, infografiak, grafikoak eta binetak aparte utziz³¹⁵, hau da, argazkietan agertzen den agertokia zein den, eta horretarako sei eremu definitu ditugu metodologian.

Kaleko erreibindikazioen garrantzia azpimarratu behar dugu, ia argazkien laurden batek kaleko manifestazio edo plantoak islatzen baitute. Nabaria da aste honen indarra kalean gertatzen diren ekitaldien indar ikonikoa. Beste laurden bat eremu publikoan ateratako argazkiak dira, hau da kalean edota prentsaurreko baten gelan. Bestalde, lan-eremuetan argazkien %17,5 kokatu dira, adibidez ospitale bateko langileak ateratzen diren argazkiak (nahiko rekurrentea izan da argazki mota hau).

Baina badago argitaratutako irudien beste %17,2 bat non beste kokapen desberdina ikusten den, batzuetan kartelak dira, beste batzuetan lehen planoak, muntaketak, sinboloak, eraikinak, eta abar (20. Taula).

³¹⁵ Huetan askotan ez dago eskenatokirik

20. Taula: irudien kokapena

	(%)	Errebindikazioa	Eremu pribatuak	Lan eremuak	Aisialdia	Eremu publikoa	Beste	Guztira
Diario Vasco	13,1	8,2	9,8	5,0	50,8	13,1	100,0	
EL Correo	12,5	7,0	26,4	15,3	19,4	19,4	100,0	
Diario de Navarra	23,2	0,0	19,6	28,6	17,9	10,7	100,0	
Deia	12,8	7,0	23,1	14,7	19,9	22,4	100,0	
Navarra Hoy	36,8	0,0	26,3	0,0	21,0	15,9	100,0	
Diario de Noticias	17,9	0,0	14,1	5,1	52,6	10,3	100,0	
Egin	38,9	2,2	14,4	5,6	15,6	23,3	100,0	
Gara	39,0	3,4	10,8	1,7	44,1	1,7	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	23,5	5,9	5,9	17,6	17,7	29,4	100,0	
Egunero	60,0	0,0	0,0	0,0	0,0	40,0	100,0	
Berria	33,9	1,8	16,1	17,9	8,9	21,4	100,0	
Guztira	23,8	4,0	17,5	11,4	26,8	17,2	100,0	

N = 669 irudi. Iturria: autorea.

DIARIO VASCON eta EL CORREON errebindikazioek oso leku gutxi betetzen dituzte (%13), aldiz eremu pribatuetan ateratako argazkiek beste egunkarietan baino garrantzi gehiago dute (% 7-8). DIARIO DE NAVARRAK aisialdiari garrantzi berezia ematen dio (%28,6), eta baita errebindikazioei (%23,2). Lan eremuak (%19,6) eta eremu publikoek (%17,9) osatzen dute argazkien kokapen gehienak.

DEIAN lan eremuak (%23,1) eta eremu publikoak (%19,9) nagusiki erabiltzen dute M8ko argazkietan. Errebindikazioak bakarrik agertzen dira argazkien %12,8an eta testuinguru gabeko argazkiak %22,4 dira.

EGINEK eta GARAK argitaratutako argazkien ia %40 manifestazio edo aldarrikapenen argazkiak izan dira, GARAREN bigarren gai nagusia eremu publikoan ateratako argazkiak dira, %44,1. EGINEN kasuan eremu publikoak %15,6 betetzen du eta lan eremua %14,4, baina testuinguru gabeko argazkiak %23,8 dira. Azkenik EUSKALDUNON EGUNKARIAK argazkien %23,5 errebindikazioei ematen die eta %15,6 eremu publikoari, BERRIAK berriz %34,0 errebindikazioei eta %17,6 eremu publikoari. Bi egunkari hauek aisialdiari %17 inguru ematen diote.

5.1.3.6 Irudien dinamika

Irudiekin lotutako azken bi taula aztertuko ditugu, argazkietan agertzen diren protagonista horien jarreretan finkatu dugu begirada, jarrera aktiboan edo pasiboan agertzen diren, hau da, posatuak diren edota zerbait egiten agertzen diren (21. Taula). Bertan ikusiko dugu argazki posatuak edo pasiboak %41,1 direla, eta pertsona aktiboak erakusten dituztenak argazkien %53,7.

21. Taula: argazkien dinamika

	(%)	Aktibo	Pasibo	Ez dagokio	Guztira
Diario Vasco	31,1	64,9	3,9	100,0	
EL Correo	44,7	52,9	2,4	100,0	
Diario de Navarra	41,9	50,0	8,1	100,0	
Deia	48,2	47,5	4,3	100,0	
Navarra Hoy	73,7	21,05	5,26	100,0	
Diario de Noticias	60,5	32,56	6,98	100,0	
Egin	76,4	19,81	3,77	100,0	
Gara	67,2	26,56	6,25	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	39,1	39,1	21,8	100,0	
Egunero	60,0	40,00	0,00	100,0	
Berria	56,7	40,00	3,33	100,0	
Guztira	53,7	41,1	5,2	100,0	

N = 749 irudi. Iturria: autorea.

Argazki posatuak erditik gora agertzen dira DIARIO VASCON (%64,9), EL CORREON (%52,9), eta DIARIO DE NAVARRAN (%50,0). EGIN eta NAVARRA HOYEN argazkietan jarrera aktiboan agertzen diren pertsonak nagusitzen dira, hiru laurden baitira, ildo honetan kokatzen dira ere DIARIO DE NOTICIAS, GARA edo BERRIA, %60 inguruan. EUSKALDUNON EGUNKARIAN (%39) eta DEIAN (%48) oreka mantentzen da jarrera aktibo eta pasiboen artean.

Bigarren azterketa gorputzaren tratamendua izan da. Jakin badakigu emakumeen gorputza askotan zatikatuta agertzen dela. Hau publizitatean askotan ematen den fenomeno izanik, kazetaritzan ere batzuetan ikusten da. Hurrengo taula (22. Taula) horren lekukoa da.

Oro har esan dezakegu egunkariak protagonisten gorputzaren trataera egokia egiten dutela, bakarrik argazkien %2an agertzen da gorputza zatikatuta edo kosifikatuta. Laginaren sei egunkarietan ez da zatikaturiko gorputzik agertzen argazkietan, eta besteetan ez da %4ra ailegatzen inoiz.

22. Taula: Gorputzaren tratamendua

	(%)	Ez dagokio	Osoa	Zatia	Guztira
Diario Vasco	1,3	94,1	3,9	100,0	
EL Correo	2,4	94,1	3,5	100,0	
Diario de Navarra	8,1	91,9	0,0	100,0	
Deia	5,6	91,4	3,0	100,0	
Navarra Hoy	5,3	94,7	0,0	100,0	
Diario de Noticias	7,0	93,0	0,0	100,0	
Egin	4,7	92,5	2,8	100,0	
Gara	6,3	93,7	0,0	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	17,4	82,6	0,0	100,0	
Egunero	0,0	100,0	0,0	100,0	
Berria	3,3	95,0	1,7	100,0	
Guztira	5,2	92,8	2,00	100,0	

N = 749 irudi. Iturria: autorea.

5.1.4 M8an argitaratu diren artikuluen interpretazio- enkoadreen azterketa

Framingaren teorikoen arabera, medioek interpretazio-mapak eskaintzen dituzte audientziak mezua deskodetu dezan. Izan ere, medio bakoitzak bere interpretazio- mapa propioa eskaintzen du. *Framing* hori ez da hasten artikulua idazterakoan, baizik eta askoz lehenago, gaia hautatzerakoan, erabilitako iturrietan, hizkuntzan, hautatutako argazki edo irudietan ere enkuadre bat egiten da, interpretazio bat ematen zaio gaiari.

Tesi honetan edukiaren azterketan egiterakoan hiru enkoadre- edo *frame*-tipologia aztertu dira:

Tematiko-episodikoa edo gai-gertaera Enkoadrea: Iyengar-ek (1994b) proposatzen duen tematiko/episodiko dikotomian oinarrituta. Enkoadre tematikoetan informazio-gai nagusiak tendentzia orokorrak dira, abstrakzio-maila altua daukate, inbertsonalak, politika publikoetan oinarritutako gaiak jorratzen dituztenak dira. Aldiz episodiko/gertaerako enkoadreak kasu partikularretan edo ebentu konkretuetan oinarritutako informazio-itemak, informazio-gaiak ez dauka testuingururik, eta pertsona konkretuetan finkatzen da begirada.

Generoaren araberako enkoadreak (Lind eta Salo, 2002): Generoarekin lotutako enkoadreak azterketa bi zatitan banatu zuten egile hauek, batetik

emakumeen irudia mugatzen dituzten 5 enkoadre, eta bestetik emakumeen ekintzaren espazioa, hau da, non irudikatzen diren emakumeen jarduerak. Gure kasuan emakumeen irudiari lotutako 5 enkoadre horiek hartu ditugu ardatz beste bat gehituz: Deabruaren markoa, Genero-rol tradizionalak, Tribalizazioa edo hutsaltzea, Eskubideen aldarrikapena, Politikan esku-hartzea, eta guk gehitu dugun Agenda, azken hau ekitaldien iragarpen hutsak direnak sailkatzeko baliogarria izango zaigulako.

Feminismoaren fokatzea: eta azkenik hirugarren fokatze bat erabili dugu, emakumeen borroken aurrean identifikatu ditugun bost jarrerak, feminismoaren aldarrikapena, antifeminismoaren aldarrikapena, berdintasunaren mezua, rol tradizionalen defentsa eta neutroa edo fokatze eza, hau da gaian sartu barik bakarrik datu zehatzak ematen dituzten artikuluetan agertzen dena, adibidez ikuskizun-konbokatoria baten berri.

5.1.4.1 Interpretazio enkoadreak “gai-gertaera” binomioan

Aurretik esan dugunez, marko hau dikotomikoa da, batetik tematiko edo gaikakoa eta bestetik enkoadre episodikoa edo gertaerazkoa.

Gaikako enkoadrean informazio-gai nagusiak tendentzia orokorrak dira, analisia eta orokorrean abstrakzio-maila altuagoa dago, interesgarriagoa izan daiteke publiko orokorrarentzat. Gaikako enkoadreek gobernuen ardura politikoa iradoki eta jarrera kritikoa sustatzen dute. Gure azterketan emakumeen emantzipazioaren alde historiko, politiko, ideologiko edota kulturalak jorratzen dituzten itemak sailkatuko ditugu, baita iritzi-artikuluak ere, edota adituei egindako elkarrizketak eta hauen analisiak. M8ari eta emakumeen egoerari buruz ikuspegi sakonagoa ematen dute.

Enkoadre episodiko edo gertaerazkoa, honetan kasu partikularretan edo ebentu konkretuetan oinarritutako informazio-itemak sailkatzen dira, testuinguru gabekoak edota pertsona konkretuetan finkatzen direnak. Banakakoen bizitzan edo egoeretan finkatzen dira, askotan estereotipoak erabiliz. Arazo konplexuak modu anekdotikoan azaltzen dira eta honek ulermen pobrea eta partziala ekartzen du. Gertaerazko enkoadreek indibiduen gainean jartzen dituzte ardurak eta botere politikoei kentzen die. Ikuspegi orokor batetik begiratuta, enkoadre honek oreka mantentzen du, artikuluen %53,2k gaikako enkoadrea erabiltzen du eta

%46,8k gertaerazkoa. Baina egunkariak banan-banan aztertuta desberdintasun nabariak ikusten dira (23. Taula).

23. Taula: Gaikako eta Gertaerak enkoadrea informazioan eta iritzian

	(%)	GAIKAKOA EDO TEMATIKOA	GERTAERAZKOA EDO EPISODIKOA	GUZTIRA
Diario Vasco	45,5		54,5	100,00
EL Correo	59,6		40,4	100,00
Diario de Navarra	53,8		46,2	100,00
Deia	50,8		49,2	100,00
Navarra Hoy	33,3		66,7	100,00
Diario de Noticias	45,2		54,8	100,00
Egin	51,8		48,2	100,00
Gara	67,0		33,0	100,00
Euskaldunon Egunkaria	55,8		44,2	100,00
Egunero	66,7		33,3	100,00
Berría	69,0		31,0	100,00
Guztira	53,2		46,8	100,00

N = 1.106 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

Hiru egunkarik enkoadre episodikoa erabiltzen dute nagusiki; NAVARRA HOY egunkariak argitaratutako itemen bi herenetan erabiltzen du enkuadre hau, eta bere oinordekoa izan den DIARIO DE NOTICIASEK argitalpenen %54,8a betetzen du. Hirugarrena DIARIO VASCO da, informazioen %54,5 enkoadre honetan kokatzen dira.

GARAN eta BERRIAN enkoadre tematikoaren portzentajeak, hau da, analisisa eta abstrakzio-maila altuago erakusten duten artikulua, %67,0 eta %69,0 dira. EUSKALDUNON EGUNKARIAN eta EGUNERON ere enkoadre honek aztertutako artikuluen erdia gaintzen du. EGINEN kasuan, berriz, orekatik oso hurbil geratzen da, 2 puntu baino gutxiagoko diferentzia dago bi enkoadreen artean.

Baina datu hauek ez dute errealitatearen argazki zehatza ematen, iritzia, berez, enkoadre tematikotik lantzen delako beti, horregatik aztertu dugu enkoadre hau informazio-artikuluetan (24. Taula) bereziki.

24. Taula: Gaikako eta Gertaerazko enkoadreak informazioan

	GAIKAKO MARKOA	GERTAERAKO MARKOA	GUZTIRA
Diario Vasco	32,4	67,6	100,0
EL Correo	45,3	54,7	100,0
Diario de Navarra	40,3	59,7	100,0
Deia	34,5	65,5	100,0
Navarra Hoy	17,6	82,4	100,0
Diario de Noticias	31,3	68,7	100,0
Egin	29,8	70,2	100,0
Gara	50,7	49,3	100,0
Euskaldunon Egunkaria	45,7	54,3	100,0
Egunero	50,0	50,0	100,0
Berría	60,0	40,0	100,0
Guztira	37,7	62,3	100,0

N = 831 item; informazioa bakarrik. Iturria: autorea.

Bi joera nabarmentzen dira taula honetan, batetik gertaera-enkoadrea gehiago erabili duten egunkariak, DIARIO VASCO, EL CORREO, DIARIO DE NAVARRA, DEIA, NAVARRA HOY, DIARIO DE NOTICIAS eta EUSKALDUNON EGUNKARIA. Beste aldean gaikako-enkoadrea nagusiki erabili dutenak, GARA, BERRIA eta EGUNERO. Urrats bat gehiago emango dugu, aztertuko dugu nola erabili diren enkoadre hauek gai bakoitzaren tratamenduan (25. Taula).

25. Taula: Gaikako eta Gertaerazko markoak, informazioa gaiekin uztartuz.

	ESK SOZIO-POLITIKOAK		EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA		UGALTZE-ESKUBIDEAK		EKONOMIA GAIK		POLITIKA		GIZARTE GAIK		KIROLA		KULTURA		BESTE		GUZTIRA
	GE	GT	GE	GT	GE	GT	GE	GT	GE	GT	GE	GT	GE	GT	GE	GT	GE	GT	
Diario Vasco	33	67	40	60	17	83	81	19	25	75	40	60			5	95	20	80	100
EL Correo	20	80	75	25	0	100	68	32	50	50	50	50	0	100	9	91	17	83	100
Diario de Navarra	10	90	67	33	33	67	54	46	40	60	44	56			0	100	50	50	100
Deia	22	78	43	57	0	100	85	15	44	56	25	75	100	0	20	80	10	90	100
Navarra Hoy	14	86			33	67	0	100	50	50					0	100	0	100	100
Diario de Noticias	27	73	45	55			40	60	17	83	83	17			7	93	33	67	100
Egin	8	93	80	20	0	100	64	36	33	67	56	44	50	50	16	84	17	83	100
Gara	19	81	80	20	50	50	80	20	80	20	75	25	100	0	50	50	0	100	100
Euskaldunon Egunkaria	8	92	89	11	0	100	75	25	50	50					100	0	0	100	100
Egunero	25	75			100	0	67	33											100
Berria	46	54	100	0	60	40	67	33	80	20	100	0	67	33	45	55	0	100	100
Guztira	20	80	63	37	20	80	63	37	45	55	53	47	67	33	17	83	20	80	100

N = 831 item; informazioa bakarrik. Iturria: autorea. GE: Gaikako edo tematiko enkoadrea, GT: Gertaerazko edo episodiko enkoadrea

Aurretik ikusi dugunez, eskubide soziopolitikoak gehien landu den gaia izan da (%27,4)³¹⁶. Baina taula honetan ikus dezakegunez, informazio horien tratamenduan gertaera-enkoadrea nagusitu da, hau da, M8aren inguruan egin diren manifestazioak edo protesten errelatoa egiten da, askotan analisirik gabe, gertaera soila bailitzan. Informazio hauen tamainari erreparatuta esan behar dugu informazio hauek txikiak (%44) edo oso txikiak (%13) izan direla.

Oso adierazgarria da EGINEN kasuan, non gai honetan muturrera eraman den joera hau, hamar berrietatik bederatzitan erabili baita gertaera-enkoadrea, baina kontuan izan behar dugu kategoria honetan laginaren laurden bat publikatu duela egunkari honek. Beste aldean nabarmendu behar dugu BERRIAREN kasuan orekatik nahiko hurbil geratu direla bi enkoadreak (%46/%54), eta horren adibidea izan zen 2013an «*Zenbait indar politikok ez dute emakumeon zapalkuntza bukatzeko borondaterik*»³¹⁷ argitaratu zuten elkarrizketa, non Miren Aranguren Bilgune Feministako kideak hurrengo jardunaldi feministei buruz hitz egiten duen.

Emakumearen kontrako indarkeria lantzen duten informazioetan gaikako enkoadrea %63an erabiltzen da, honek esan nahi du egoeraren azterketa sakonago bat egiten dela informazio horietan. Baina horrek ez digu egoeraren irudi argia ematen, oso desorekatua izan baita gaiaren tratamendua egunkari bakoitzean. Batetik NAVARRA HOY daukagu, non gaia ez den inoiz landu. DIARIO VASCON (%40), DEIAN (%43) eta DIARIO DE NOTICIASEN (%45) mediatik ia 20 puntu behera gelditzen dira. Beste jarrera bat ikusten da EGINEN (%80), GARAN (%80), EUSKALDUNON EGUNKARIAN (%89) eta BERRIAN (%100), non gehien erabiltzen den *framea* gaikakoa baita, hau da, testuingurua lantzen duen enkoadrea.

Ugaltze-eskubideak lantzen dituzten informazioak, gehienetan, abortuaren eskubidearen alde edo kontra hitz egiteko da. Esparru honetan gertaerako enkoadrea da gehien erabiltzen den eredu, batez ere aldeko eta kontrako manifestazioez informatzeko. GARAN eta BERRIAN joera beste bat da, GARAN oreka mantentzen da bien artean eta BERRIAN enkoadre tematikoa nagusitzen da (%60).

Ekonomia-gaietan gaikako markoa nagusitzen da, NAVARRA HOY eta DIARIO DE NOTICIAS egunkarietan izan ezik. DEIA da enkoadre hau gehien erabiltzen duen egunkaria (%85) aldiz, NAVARRA HOYk ez du inoiz gaikako enkoadrea erabili.

³¹⁶ Ikusi 1.3.5 puntua 57 orrialdetik aurrera.

³¹⁷ BERRIA, 2008-03-08, M8 gehigarria, 3. or.

Politika eta gizartean nahiko orekatuta agertzen dira bi enkoadre hauek, eta kultura-gaietan gertaerazko enkoadrea da nagusia, batez ere M8rako prestatu diren antzerki, kontzertu, hitzaldi edota erakusketen berri ematen dituztelako.

5.1.4.2 Generoaren enkoadrea

Esan dugunez, bai informazioa eta baita iritzi-artikuluak sailkatzeko zazpi marko edo enkoadre erabili ditugu: Deabruaren enkoadrea, Eskubideen aldarrikapenen enkoadrea, Genero-rol tradizionalaren enkoadrea, Politikan esku-hartzerena, Tribalizazioarena, Agendarena eta Beste, hau da, aurrekoetan sartzen ez direnak.

Hurrengo taulan (26. Taula) ikusten den moduan, M8ari buruzko artikuluetan gehien erabiltzen den enkoadrea emakumeen eskubideen aldarrikapena da (%34,9), azken finean, aldarrikapen-egun baten inguruan ari gara. Bigarren enkoadre nagusia genero-rol tradizionala indartzen duena da (%33,4), honetan ez da ezbaian jartzen emakumeek sufritzen duten diskriminazioa, eta M8a ez da lotzen aldarrikapenekin. Agenda hirugarren postuan agertzen da, non M8are inguruan antolatu diren ekintzen berri kokatzen diren, %10,0ko portzentajearekin, eta politikan esku-hartzea, *agency* moduan ulertuta (Lind eta Salo 2002), laugarren postuan agertzen den, %9,8ko portzentajearekin.

Tribializazioa (%3,4) eta Deabruaren enkoadrea (%1,9) gutxitan agertzen dira artikulu hauetan.

26. Taula: Genero-markoak informazio eta iritzietan.

(%)	DEABRUAREN MARKOA	ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENA	GENERO-ROL TRADIZIONALAK	POLITIKA ESKU-HARTZEA	TRIBIALIZAZIOA	AGENDA	BESTE	GUZTIRA
Diario Vasco	8,2	17,2	44,8	5,2	2,2	15,7	6,7	100,0
EL Correo	1,8	26,3	44,7	4,4	8,8	2,6	11,4	100,0
Diario de Navarra	5,4	17,2	52,7	5,4	5,4	5,4	8,6	100,0
Deia	0,5	25,4	37,8	15,0	6,2	6,7	8,3	100,0
Navarra Hoy	0,0	33,3	19,1	4,8	11,9	21,4	9,5	100,0
Diario de Noticias	0,8	23,4	49,2	4,8	2,4	16,9	2,4	100,0
Egin	0,6	51,7	15,6	12,2	0,0	16,7	3,3	100,0
Gara	0,0	66,0	18,0	11,0	0,0	3,0	2,0	100,0
Euskaldunon Egunkaria	0,0	37,2	34,9	11,6	0,0	7,0	9,3	100,0
Egunero	0,0	91,7	0,00	8,3	0,0	0,0	0,0	100,0
Berria	0,0	54,9	9,9	21,1	0,0	2,8	11,3	100,0
Guztira	1,9	34,9	33,5	9,8	3,4	10,0	6,6	100,0

N = 1.106 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

Datu hauek orokorrak dira, baina egunkari bakoitzaren portaera desberdina izan da honetan ere.

Eredu tradizionala lantzen duen enkoadrea nagusi izan da bost egunkarietan, DIARIO DE NAVARRAN (%52,7), DIARIO DE NOTICIASEN (%49,2), DIARIO VASCON (%44,8), EL CORREON (%44,7), eta DEIAN (%37,8). Eredu honetan emakumeek jasaten duten diskriminazioa aipatzen badute ere, mezuetan ez da salaketarik egiten, ez dago egoerari aurre egiten dion mezurik. Adibidez DIARIO VASCOK eta EL CORREOK data hauetan lauzpabost emakumeen historiekin erreportaje luzea egin ohi dute, askotan artikulua horietan protagonista diren emakume horiek ez dute ikusten feminismoaren beharra, nahiz eta onartu emakumeak menpeko egoera batean bizi direla gure gizartean. Eskema honekin topatzen gara 2008ko Martxoaren 8an DIARIO VASCOK argitaratzen duen erreportaje luzean, «*Cinco historias en femenino*»³¹⁸, non Miren Gurrutxaga deitutako emakume baten historia kontatzen diguten, zeinak lana utzi duen semea zaintzeko:

«Miren Gurrutxaga vivía la infancia de su hijo con mala conciencia. No disfrutaba de él. Tenía una persona en casa que le llevaba a la guardería y le cuidaba, Yo no conocía a sus amigos ni a los padres de sus amigos, ni a los profesores. Algo no funcionaba.... Yo llevaba una vida muy estresada, siempre fuera de casa. Lo mejor que nos venía era que yo dejara de trabajar. ...».

Erreportaje berean Patricia Noya-ren adibidea dago, moja gazte bat berau:

«Aquella noche atravesaba la pista de baile de una discoteca, con un cigarro en la mano y una copa de Martini en la otra. La música sonaba a tope y fue en ese ambiente cuando sintió la “certeza absoluta” de que ese le llamaba para otra opción de vida que tomaría después. Pensó que los momentos se escogían “hasta con sentido del humor”. “Era como si algo se apoderara de mí”. Hay que seguir reivindicando el rol femenino, porque parece que sólo puede llegar lejos la mujer agresiva y competitiva, la que renuncia a algo de su ser”».

Egunkari hauetan bigarren enkoadrea eskubideen aldarrikapena izan da, EL CORREON %26,3, DEIAN %25,4, DIARIO DE NOTICIAS %23,4, DIARIO VASCON %17,7koa eta DIARIO DE NAVARRAN %17,2. Baina eskubideen aldarrikapen hori askotan ez dago lotuta feminismoarekin, nahiz eta kontraesana iruditu. Are gehiago, EL CORREON

³¹⁸ DIARIO VASCO, 2008-03-08, 12. or.

«*Santa Pluralidad, patrona del feminismo*»³¹⁹ erreportajea, Arantza Furundarena kazetariak zentzu ezkorrean idazten du mugimendu feministaren zatiketari buruz.

Egunkari hauetako batean aurkitu dugu Deabruaren enkoadrearen portzentajerik altuena, DIARIO VASCO egunkarian hain zuzen (%8,2). Enkoadre honetako artikulua gehienak, 7 artikulua, 1983koak dira, eta abortuaren eskubidearen kontrako mezua zabaltzen dute, adibidez, 1983ko Martxoaren 6an argitaratutako albiste batean. «*Entre 600.000 y un millón de personas se concentraron en Madrid a favor de la vida y en contra de la legalización del aborto*» lerroburupean honako hitzak irakur daitezke: «*los abortos destruyen los valores más sagrados y provocan dramas familiares, incluso a la destrucción del amor y la separación de la pareja*»³²⁰. Urte batzuk beranduago, 2003an, iritzi-atalean «*Mujeres y fechas*»³²¹ artikuluan emakumeen kontra aritzen da Alicia Centenera kolaboratzailea.

EL CORREOK argitaratutako artikuluen %8,8tan erabiltzen du tribializazioaren markoa; 1998ko martxoaren 8an ohikoa den emakumeen soslaiak aztertzen duen erreportajea horrela mintzo dira: «*Por la mañana se ocupa de la limpieza, los recados (siempre va impecable a la plaza) y la comida. Menos mal que tengo una señora que me ayuda. Por la tarde sigue un curso de grafología. Ella está convencida que la situación ha cambiado a mejor. Quizá por eso cree que el 8 de marzo no tiene un significado especial*»³²². Azken urte hauetan ere enkoadre hori erabili dute flashmob³²³ bat edota enpresarien elkarteak antolatutako koketeleij³²⁴ buruz informatzeko.

NAVARRA HOY egunkarian beste eredu bat topatu dugu. Honetan Eskubideen aldarrikapena hiru artikuluetatik bitan agertzen da, beste alde batetik genero-rol tradizionala artikuluen %19an agertzen da, agenda % 21,4an eta tribilizazioa %11,9an. Azken enkoadre honen adibidea hurrengo albistean daukagu: «*UGT celebrará el Día de la Mujer con un acto cultural sin tintes feministas*»³²⁵.

³¹⁹ EL CORREO, 1988-03-8, 3. or.

³²⁰ DIARIO VASCO, 1983-03-06; 19. or.

³²¹ DIARIO VASCO, 2003-03-10; 86. or.

³²² EL CORREO, 1998-03-8; 12 eta 13 orr.

³²³ EL CORREO 2013-03-6; 8. or.

³²⁴ EL CORREO, 2008-03-06; 84. or.

³²⁵ NAVARRA HOY, 1983-03-9; 5. or.

EGINen (%51,7) eta GARA (66,0) artikuluen gehiengoa eskubideen aldarrikapenei dedikatuta daude. EGINen bigarren enkoadrea agenda da, %16,7ko portzentajea eta GARA genero-rol tradizionalen mantentzea (%18,0). EGINen hirugarren postuan agertzen da, %15,6ko portzentajearekin. Bietan emakumeen politikan parte-hartzea artikuluen %11-12ko portzentajea mantentzen da. Tribializazioa enkoadrea ez da agertzen bi egunkari hauetan, eta deabruarena EGINen behin agertzen da (%0,6), EFE agentziaren albiste batean, abortuaren kontrako manifestazio baten inguruan³²⁶.

EUSKALDUNON EGUNKARIAN emakumeen eskubideen aldarrikapenaren enkoadrearen erabilpena %37,2koa da, eta BERRIAN %54,9koa; bietan gehien erabiltzen den *framea* da. EGUNEROK %91,7ko portzentajea erabili zuen. Aldaketa nabarmenena Genero-rol tradizionaletan nabaritzen dugu, EUSKALDUNON EGUNKARIAK publikatutako artikuluen %34,9an erabiltzen du, BERRIAK aldiz, bakarrik %9,9an. BERRIAN erabiltzen den bigarren markoa Politikan esku-hartzea da, %21,1. Hiru egunkari hauetan ez dugu deabruaren enkoadrea aurkitu ezta tribializazioarena ere

Genero-markoaren kronologia

Azpiatal honetan zehaztu nahi dugu noiz agertu diren generoaren inguruan identifikatu ditugun enkoadre desberdin horiek egunkari bakoitzean eta zer-nolako ibilbidea izan duten urte hauetan.


Eskubideen aldarrikapenaren enkoadrea

Aipatu dugun bezala, gehien erabili den enkoadrea **eskubideen aldarrikapenarena** izan da, batez ere martxoaren 8ko aldarrikapen-egunarekin lotuta. Enkoadre hau urte guztietan agertzen da, baina ez indar berarekin egunkari guztietan, hurrengo grafikoan ikusi daitekeenez (6. Grafikoa). Egunkari kontserbadoreek garrantzi gutxi eman diote marko honi urte hauetan guztietan, enkoadrearen indarra EGINEK eta GARAK eman dioten estalduran datza, EUSKALDUNON EGUNKARIA eta batez ere, beranduago, BERRIAREN laguntzarekin. Urtero errepikatu da joera hau, 2013an GARA eta BERRIA parekatzen dira, nahiz eta bietan beharakada bat egon den 2008koarekin konparatuz. Beste aldetik DIARIO DE NAVARRA egunkarian eskubideen aldarrikapenaren enkoadrea oso eskasa izan da

³²⁶ EGIN, 1983-03-06; 36. or.

urte hauetan guztietan. Oro har aztertutako beste egunkarietan fokatze hau nahiko egonkorra mantendu da.

6. Grafikoa: Eskubideen aldarrikapena markoaren kronologia



Iturria: autorea. N=386


Genero-rol tradizionala

Bigarren enkoadrea **Genero-rol tradizionala** lantzen duena da. 7. Grafikoan ikus dezakegu nola egin duen aurrera urte hauetan. Nabarmentzekoa da egunkari kontserbadoreek ematen dioten garrantzia enkoadre honi, bai DEIAK edota NAVARRA HOY eta DIARIO DE NOTICIAS bikoteak, 1993ko salbuespena alde batera utzita. Kabulgo emakumeen aldeko kanpainak azaltzen du enkoadre honen igoera 1998an, Kabulgo emakumeen eskubideen aldeko kanpaina ez zen izan Afganistango emakumeek pairatzen zuten egiturazko indarkeria salatzeke, baizik eta gerrak emakume horien bizitzan izandako ondorioak nabarmentzeko, Talibanen erabakien ondorioz. Horregatik leloa, «*Arrosa bat Kabulgo emakumeentzat*» izan zen, eta ez adibidez, eskubide zibilak Kabulgo emakumeentzat.

Vocentoko bi egunkarien ibilbidea antzekoa izan da marko honetan, gorabehera handirik gabe urte hauetan guztietan.

EUSKALDUNON EGUNKARIA/EGUNERO/BERRIA taldekoak izan dira, orokorrean, enkoadre hau gutxien erabili duten egunkariak. Orokorrean mediatik azpitik mantendu dira urte guztietan, batez ere azken urteetan behera egin du. EGIN/GARA bikotean, aldiz, 1993a nabarmentzen da, gora egiten baitu. Egunkari hauetan enkoadre hau egonkor mantendu da aztertutako azken urteetan.

7. Grafikoa: Genero-rol tradizionala markoaren kronologia




Iturria: autorea. N=370

Politikan parte-hartzearen enkoadrea

Bi epe bereizten dira enkoadre honetan, batetik 1988ra arte, non fokatzeko honen agerpena ia anekdotikoa den, EGIN alde batera uzten badugu. Aldaketa-urtea da 1993a, honetan egunkari guztiek erabiltzen dute enkoadre hau, nahiz eta kopuru txikietan. Baina honek ez du joera finkatzen, eta hurrengo urteetan enkoadre honen erabilpena ez dauka jarraipenik, hau da, emakumeen parte-hartze politikoa ez dauka leku handirik egunkarietan, salbuespenak DEIA eta EUSKALDUNON EGUNKARIA/BERRIA bikoteak direlarik (8. Grafikoa).

8. Grafikoa: Politikan parte-hartzea markoaren kronologia




Iturria: autorea. N=108

Tribializazioaren enkoadrea

Tribializazioa 9. Grafikoan azter dezakegu. Fokatze hau bakarrik agertu da 38 itemetan, horietatik 12, hau da heren bat, DEIA egunkarian agertu dira, eta beste hamar EL CORREON. Bi egunkari hauetan izan ezik, besteetan, 2003tik aurrera, desagertuta dago enkoadre hau aste honetako estaldura periodistikoan.

9. Grafikoa: Tribializazioa markoaren kronologia




Iturria: autorea. N= 38

Deabruaren enkoadrea

Azkenik Deabruaren fokatzearen kronologiaren azterketak aurrekoaren antzeko emaitzak ematen dizkigu, izan ere marko honen erabilpena ia anekdotikoa izan da urte hauetan, 20 kasutan ikusi baitugu, azkeneko aldiz 2003an (10. Grafikoa)

10. Grafikoa: Deabruaren markoa



Iturria: autorea. N= 20

Generoaren enkoadrea iritzi-artikuluetan

Egunkari hauen iritzi-artikuluak soilik aztertzen ditugunean aldatzen dira erabilitako enkoadrearen portzentajeak, batzuetan nabarmenki. Ikuspegi orokor batetik aztertuta, Eskubideen Aldarrikapenaren enkoadrea iritzi-artikuluaren erdian agertzen da (%50,5), bigarren postuan dagoen enkoadrea, baina aurrekoaren erdia baino gutxiagoko portzentajearekin, Genero Rol Tradizionalaren enkoadrea agertzen da (%22,5). Emakumeen Politikan Parte-hartzeaz mintzatzen diren iritzi-artikuluak %15,2 dira; beste aldean, Deabruaren markoa (%3,6) eta Tribalizazioa (%2,9) gutxien agertzen diren enkoadreak dira, (27. Taula)

27. Taula: Genero-enkoadreak iritzietan.

(%)	DEABRUAREN MARKOA	ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENA	GENERO ROL TRADIZIONALAK	POLITIKAN ESKUHARTZEA	TRIBIALIZAZIOA	BESTE	GUZTIRA
Diario Vasco	15,4	26,9	38,5	3,8	7,7	7,7	100,0
EL Correo	6,7	50,0	26,7	6,7	3,3	6,7	100,0
Diario de Navarra	9,5	33,3	47,6	4,8	4,8	0,0	100,0
Deia	2,1	35,4	27,1	20,8	8,3	6,3	100,0
Navarra Hoy	0,0	50,0	37,5	0,0	0,0	12,5	100,0
Diario de Noticias	4,0	44,0	36,0	12,0	0,0	4,0	100,0
Egin	0,0	67,9	10,7	16,1	0,0	5,4	100,0
Gara	0,0	72,7	6,1	18,2	0,0	3,0	100,0
Euskaldunon Egunkaria	0,0	50,0	12,5	37,5	0,0	0,00	100,0
Egunero	0,0	75,0	0,0	25,0	0,0	0,00	100,0
Berria	0,0	56,3	0,0	37,5	0,0	6,3	100,0
Guztira	3,6	50,5	22,5	15,3	2,9	5,1	100,0

N = 275 item; bakarrik iritzia. Iturria: autorea.

Egunkariak urte hauetan erabili dituzten enkoadreak aztertuko ditugu banan-banan. Hasteko nabarmendu behar dugu DIARIO VASCON publikatu diren iritzi-artikuluen %27,0k eskubideen aldarrikapenaz hitz egiten dutela, egunkari guztien mediaren erdia, baina aldiz, deabruaren markoak laginaren portzentajearen handiena betetzen du (%15,4), honen adibide «*Mujeres*» zutabea, non horrela mintzo den Jose Maria Mendiola:

«Ahora ellas conducen buses -y muy bien- las ordenan sacerdotisas -por el momento a las inglesas- llevan uniformes de la OTA o son fieras ejecutivas. Lo que han cambiado los tiempos. Cualquiera se atreve hoy "a sacarlas". Incluso no nos extrañaría nada que, en un futuro, ellas dijeran a sus amigas: "voy a sacar a mi marido, que el pobre no ha salido desde ayer". En fin, dedicamos este comentario a las damas, en Víspera del Día Internacional de la mujer»³²⁷.

Tribializazio-enkoadrea ere mediaren gainetik agertzen da, %7,7tan hain zuzen. Egunkari honetan gehien erabiltzen den markoa genero-rol tradizionalak mantentzen duena da, iritzi-artikuluen %38,5 dira. Artikulu hauetan, batzuetan, emakumeen matxismoaz hitz egiten da, adibidez «*Porque era mía*» iritzi-artikulua, non Elisa G. Palenzuela-k esaten duen:

«No voy a negar que gran parte de lo que viene ocurriendo lo podemos achacar a las consecuencias horribles de una educación deficitaria en valores de igualdad y respeto entre los sexos. Pero tampoco puedo obviar que el cincuenta por cien de la responsabilidad recae sobre las propias mujeres, coencargadas de socializar y educar a su prole»³²⁸.

EL CORREON emakumeen eskubideen defentsaz hitz egiten duten iritzi-artikuluen portzentajea %50ekoa da, gehienak talde edo pertsona ezagunek idatzitako artikulua dira, baita agintari instituzionalek ere, adibidez Txaro Arteaga Emakundeko burua edo Mercedes Agundez, jarduneko Arartekoa.

Egunkari honetan erabili den bigarren markoa emakumeen genero tradizionala mantentzen duena da, %26,7. Marko honetan modaz aritu dira, «*Esperpento en la*

³²⁷ DIARIO VASCO, 1993-03-08, 8. or.

³²⁸ DIARIO VASCO, 2008-03-7; SDV gehigarria, 13. or.

Pasarela Cibeles»³²⁹, Amina Lawalen³³⁰ bizitzeren inguruan, ebanjelioan oinarritutako «*Otro 8 de marzo*»³³¹ zuzendariari bidalitako eskutitzean, edo turismo sexualaz «*Déficit social*»³³² iritzi-artikuluaren. Artikuluetatik %6,7k hitz egiten dute emakumeek politikan aritzeaz, eta portzentaje berdina Deabruaren markoan sailka ditzakegu, kasu honetan beti abortuaren eskubidearen kontra idatzitakoak. Tribalizazioa iritzi-artikuluen %3,3 dira, adibidez Olmo binetagleak sinatzen duen artikuluaren, non esaten duen emakumeek ez garela sexu ahula, urte gehiago bizi garelako³³³.

DIARIO DE NAVARRAN, iritzi-artikuluetan gehien erabili duten markoa genero-rol tradizionalak mantentzen duena da (%47,6) eta bigarrena eskubideen aldarrikapenez hitz egiten duena (%33, 3). Hirugarren markoa Deabruarena da, %9,5eko portzentajearekin.

DEIAN emakumeen eskubideen aldarrikapenaren enkoadrea iritzi-artikuluen %35,4an agertzen da, eta bigarren postuan emakumeen rol tradizionalak agertzen dira, %27,1ean; adibidez, «*Handicap de desigualdad*»³³⁴ zutabearen Nekane Lauzirikak genero-indarkeria, lana, Afrikako emakumeen egoera, prostituzioa eta abar nahasten du, ikuspegi fatalista batetik, baina irtenbiderik eman gabe. DEIAK garrantzi berezia eman dio emakumeek politikan parte-hartzeari (%20.8); adibidez, Maria Gonzalezek bere amamaren soslaia egiten du: «*Errepublikak bitziza publikoan parte hartzeko eskubidea eman zion: botoa eta dibortzioa. Politikan parte hartzeko aukera sinistu zuen. Lantegian beharrean zegoela beharginen eskubideengatik borrokatu zuen. Herri Frontearen papeletak banatu zituen*»³³⁵; edo Koldo Larreak idatzitako artikulu batean, «*La transformación social tiene rostro de mujer*» horrela esaten da:

«Sin dejar de ser muy veraces, esas pinceladas tan repetidas refuerzan un concepto de mujer reducida al papel de víctima, de ser débil, pasivo, sumiso y dependiente que nada puede hacer

³²⁹ EL CORREO, 2013-03-06; 30. or.

³³⁰ Amina Lawal emakume nigeriarra harrika hiltzera kondenatu zuten 2002 urtean eta Amnesty International elkarteak indultoa eskatzeko kanpaina antolatu zuen mundu-mailan, non 10 milioi sinadura lortu zuten interneten bidez.

<http://blog.es.amnesty.org/50aniversario/ciberactivismo-amina-lawal-safiya-husseini/>

³³¹ EL CORREO, 2003-03-08; 31. or.

³³² EL CORREO, 1998-03-08; 24. or.

³³³ EL CORREO, 1988-03-10; 4. or.

³³⁴ DEIA, 2008-03-10, 10. or.

³³⁵ DEIA, 2008-03-09; 12. or.

para salir de su situación. Frente a esa foto interesada de la mujer como animal acorralado y desvalido que se promueve desde el sistema, resulta vital reivindicar a las miles de militantes anónimas que, desde los frentes de sus asambleas, el lugar de trabajo o el hogar, siempre contra corriente, mantienen esta sociedad demencial a flote y, día tras día, ponen al mal tiempo buena cara para empujar otro poquito en la lucha por la justicia y la igualdad»³³⁶.

DEIAk tribializazioaren enkoadrea %8,3an erabiltzen du, adibidez, Jose Luis Arrieta zutabegilea horrela mintzatzen da «*La cocina sabe a mujer y se conjuga en femenino*» zutabearen: «*Pero la última entrega del abecedario gastronómico, paseo por la literatura y el arte del buen comer de Lydia Vázquez es la demostración más palpable de que la mujer no necesita celebrar el día de la madre ni el de la fémina trabajadora*»³³⁷. Eta zutabegile berak bost urte lehenago idazten zuen: «*soy de los que no creen en el día de... sin que nadie nos marque la pauta del guión para 24 simples horas anuales*»³³⁸. Egunkari honetan bertan Joxe Agustin Arrietak zutabe bat idazten du Deabruaren enkoadrearekin, non esaten duen:

«Gizonezko eta emakumezkoen arteko arazoak, ezberdintasunak eta elkar menperatzeak ez dira bien arteko borroka konponduko. Batak bestea desegitea besterik ez dakar eskubide-borrokak, gaur moda-modako gauza miraritsua balitz bezala eskaintzen duten arren "feminista" deituriko taldekideek. Batak bestea hobeto ezagutzea, elkar osotu nahia, eta bakoitzak bere grina eta berekoikeriak neurriraturik, elkarri on egitea; bestearen onerako, nork bere burua sakrifikatzea eta batak bestea zorioneko egitea. Hemendik ikusten dut egiazko berdintasun bidea eta hauxe zorion-bide bakarra»³³⁹.

NAVARRA HOYk Eskubideen aldarrikapena (%50,0) eta Genero-rol tradizionala (%37,5) erabiltzen du, aurretik esan dugunez, iritzi-artikulu gutxi publikatzen ditu, zortzi osotara aztertutako bi urtetan.

DIARIO DE NOTICIAS egunkariak gehien erabiltzen duen *framea* iritzi-artikuluetan emakumeen eskubideen aldarrikapena da, hala ere, mediaren azpitik (%44,0) geratzen da. Bigarren enkoadrea genero-rol tradizionalak mantentzearen aldekoa da (%36,0) eta hirugarrena emakumeen politikan parte-hartzeak beste %12a

³³⁶ DEIA, 2013-03-7; 5. or.

³³⁷ DEIA, 2003-03-09: 22. or.

³³⁸ DEIA, 1998-03-11; 11. or.

³³⁹ DEIA, 1993-03-09; 12. or.

betetzen du. Deabruaren enkoadreak %4a betetzen du egunkari honetan eta ez dago tribalizaziorik.

EGINEN emakumeen eskubideen aldarrikapenaren markoak %67,9a osatzen du, eta GARA %72,7a; laginaren portzentajerik altuenak EGUNEROREN atzetik. Horren adibide, Begoña Zabala zutabegileak sinatutako «*Todas las mujeres del mundo y sus luchas*» zutabearen irakurri daiteke:

«Por ello, mi atlas mundial preferido de las mujeres del mundo no es analizar los diferentes puntos del planeta donde se violan de forma constante y permanente los derechos primordiales de las mujeres, sino mapear las luchas y consignas de cada lugar y de cada parte del mundo en lucha, para ver cómo y porque las mujeres resisten. Somos muchas más que cuando empezamos»³⁴⁰.

Bi egunkari hauetan bigarren enkoadrea emakumeen politikan parte-hartzea da, EGINEN %16,1 eta GARA 18,2. Genero-rol tradizionalen mantentzea EGINEN iritzi-artikuluen %10,7an ikusi dugu, eta GARA %6,1ra jaisten da. Bi egunkari hauetan iritzi-sailean ez dago ez tribalizazioaren enkoadrea ezta deabruarena ere.

Azkenik euskarazko egunkarien enkoadreak aztertuko ditugu. Huetan emakumeen eskubideen aldarrikapenak nagusiak dira, %50 EUSKALDUNEN EGUNKARIAN, %56,3 BERRIAN eta %75 EGUNERON, laginaren portzentajerik altuena, aurretik esan dugunez. Emakumeen politikan esku-hartzearen markoa EUSKALDUNON EGUNKARIAN eta BERRIAN %37,5ean agertzen da, eta EGUNERON %3an. EUSKALDUNON EGUNKARIAN genero-rol tradizionalen mantentzearen aldeko enkuadrea %12,5ean agertzen da, ez horrela BERRIAN, non ez den agertzen enkoadrea hau iritzi-sailean. Huetan ere ez dago ez tribalizazioaren enkoadrea ezta Deabruena ere.

Eskubideen aldarrikapenaren fokatzeko horren adibidea Josebe Iturriotzek sinatzen duen iritzi-artikuluaren izan daiteke, non, «*Abortua*» izenburupean, LGTB kolektiboaren eskubideak defendatzen dituen: «*Ez dute bizitza salbatu nahi, emakumezkoen gorputza kontrolatu nahi dute. Gizarte heteropatriarkaletan izan behar duen tokia bermatu nahi dutelako. Gehienbat ez zaie gure bizitza, emakumeen, bolleraren eta transexualen bizitza inporta*»³⁴¹.

³⁴⁰ GARA, 2013-03-10; 33. or.

³⁴¹ BERRIA, 2013-03-05; 5. or.

5.1.4.3 Feminismoaren enkoadrea

Enkoadre hau emakumeen borroken aurrean identifikatu ditugun bost jarrerekin elkartu dugu, feminismoaren aldarrikapena, antifeminismoaren aldarrikapena, berdintasuna, rol tradizionalen sustapena eta neutroa edo fokatze eza. Bost jarrera horiek nola agertu diren aztertuko dugu (28. Taula).

Orokorrean, enkoadre tradizionala nagusia da argitaratutako artikuluen erdian baino gehiagotan, %58,6an hain zuzen. Enkoadre tradizional honetan generodesberdintasunak normaltzat hartzen dira, ez dira kolokan jartzen. Artikulu hauetan Martxoak 8a aisialdi- eta jai-eguna bezala agertzen da, eta familia, amatasuna eta rol tradizionalak mantentzearen aldeko ideiak zabaltzen dira. Eredu honetan emakumeek ez dute bere burua feministatzat hartzen, ez dute borroka feminista beharrezkotzat jotzen.

Bigarren fokatzea feminismoaren aldekoa da (%29,3). Honetan emakumeen menpeko egoera eta zapalkuntza nabarmentzen da, eta emakumeen eskubideen urraketaz hitz egiten da, botere-harremanen desorekaz ere. Honetan emakumeen ahalduntze-prozesuak eta emakumeen botere-bereganatzea eta emakumeen eskubideen defentsa islatzen da ere.

Berdintasunaren mezua artikuluen %4,0an bakarrik agertzen da, eta antifeminismoa %2,9an. Lehenengoan berdintasun formalaz hitz egiten da: erakundeek zabaltzen duten parekidetasuna, berdintasun formala bultzatzen dituzten politikak eta abar. Bigarrenean, aldiz, emakumeen jarrera historikoak eta irrigarriak agertzen dira, edota emakumeen eskaera "absurdoak" edo zentzugabekoak. Feministen arteko liskarrak eta zatiketak islatzen dira marko honetan ere. Azken fokatzea neutroa da, jarrera neutrala mantentzen duena: deialdiak edo ikuskizun baten ordutegia, adibidez. Fokatze honetan, argitaratutako artikuluen %5,2a kokatzen da.

Bi joera nagusi ikusten dira egunkariak aztertzerakoan. Batetik eredu tradizionala nagusiki erabiltzen duten egunkariak daude, DIARIO DE NOTICIAS (%86,3) DEIA (%77,2), EL CORREO (%69,3), DIARIO VASCO (%67,9), eta baita EUSKALDUNON EGUNKARIA ere (%55,81). Egunkari hauetan emakumeen irudi tradizionala gailentzen da beste interpretazio-enkoadreen gainetik.

Baina egunkari hauek erabili duten bigarren fokatzean desberdintasunak daude, adibidez DIARIO VASCON, antifeminismoa, %9,7eko ehunekoarekin agertzen da; feminismoa EUSKALDUNON EGUNKARIAN %32,8ekoarekin, EL CORREON

%15,8koarekin eta DEIAN %12,0, rekin; aldiz, DIARIO DE NAVARRAK enkoadre neutroari ematen dio garrantzia, hau da deialdi eta kultur eta aisialdia-ekitaldien inguruko informazioei (%10,75). NAVARRA HOYN feminismoa eta neutroa antzeko presentzia daukate (%23,8).

Bestetik, lehenengo enkoadrea feminismoa daukaten egunkariak EGIN (%56,1), GARA (%62,0), EGUNERO (%91,7) eta BERRIA (%70,4) dira. Huetan bigarren fokatzea eredu tradizionala da, BERRIAN izan ezik, non enkoadre neutroarekin parekatzen den (%11,3).

28. Taula: Feminismoaren enkoadreak azterketa

	(%)	TRADIZIONALA	FEMINISMOA	ANTIFEMINISMOA	BERDINTASUNA	NEUTROA	GUZTIRA
Diario Vasco	67,9	9,0	9,7	6,2	8,2	100,0	
EL Correo	68,4	15,8	1,8	8,8	5,3	100,0	
Diario de Navarra	66,7	7,5	5,4	9,7	10,8	100,0	
Deia	76,7	11,9	3,1	5,7	2,6	100,0	
Navarra Hoy	35,7	23,8	9,5	7,1	23,8	100,0	
Diario de Noticias	86,3	12,9	0,8	0,0	0,0	100,0	
Egin	41,7	56,1	0,6	0,0	1,7	100,0	
Gara	36,0	62,0	0,0	2,0	0,0	100,0	
E. Egunkaria	55,8	32,6	0,0	0,0	11,6	100,0	
Egunero	0,0	91,7	0,0	8,3	0,0	100,0	
Berria	11,3	70,4	0,0	7,0	11,3	100,0	
Guztira	58,0	29,3	2,9	4,5	5,2	100,0	

N = 1.106 item periodistikoa; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

Feminismoaren enkoadreak kronologia

Azpiatal honetan zehaztu nahi dugu noiz agertu diren feminismoaren inguruan identifikatu ditugun fokatze desberdin horiek egunkari bakoitzean, eta zer-nolako ibilbidea izan duten urte hauetan.

Enkoadre tradizionala

Hasteko, enkoadre tradizionalari emango diogu begirada bat, urte hauetan gehien erabili den fokatzea izan baita. Grafikoa aztertzerakoan (11. Grafikoa) batetik EGIN/GARAK 1993ko erabilpena nabarmentzen da. Gogoratu behar dugu urte horretan EGINEK M8ari eskainitako informazio-kopurua laginaren altuena izan

zela, izan ere 75 informazio eta iritzi-artikulu zenbatu ditugu aste horretan. Hurrengo urteetan egunkari honek askoz gutxiago landu du fokatze hau.

Nabarmendu behar den beste puntu bat da DEIAK 2008an egindako lana. Urte horretan DEIAK 58 artikulu argitaratu zituen gai honi buruz, horietatik 50 enkoadre tradizionalen kokatuta. Horien adibide hau, «*Estación espacial: los tripulantes homenajean a la única mujer*» lerroburupean, non MIR espazio-ontzian zeuden gizonek garbiketa egin zutela kontatzen diguten:

«Los tripulantes de la Estación Espacial Internacional (EEI) celebran ayer la Fiesta del 8 de Marzo con una limpieza de su casa orbital, que los astronautas ruso y francés dedican a la única mujer, la estadounidense Peggy Whitson- El día Internacional de la Mujer es festivo en la EEI pero hay que tener la casa en orden, por lo que Yuri Malenchenco y Leopold Eyharts se dedicarán a limpiar el polvo con servilletas húmedas, informó el Centro de control de Vuelos Espaciales de Rusia (CCVE)»³⁴².

Egunkari honetan, batzuetan martxoaren 8an gizonek hartzen duten protagonismoa erakusten duen «*Haberlos, haylos*» izenburua daraman erreportaje luzean. Horrela hasten da:

«En la familia de Angela es aita quien limpia el polvo, cocina y hace las camas. Hasta le prepara el tupper a ama, que trabaja todo el día fuera de casa. Por si fuera poco, José Miguel López hace la compra sin necesidad de que le dicten la lista y cuando sale y comienza a llover de lo primero que se acuerda es de la colada. "en el colegio de mi hija las madres me dicen que soy un chollo, pero yo lo veo normal" dice, restándose importancia»³⁴³.

Fokatze tradizional hau BERRIAN oso gutxitan aurkitu dugu, baina EUSKALDUNON EGUNKARIAN maizago agertzen zen, batez ere 1998an, Kabulgo emakumeen eskubideen aldeko kanpainarekin lotuta, baita ablazioaren aurkako erreportaje luze bat, «*Ablazioaren aurkako borroka*»³⁴⁴ Koldo Aldabe kazetariak sinatuta.


Kontrako joera ikusten dugu NAVARRA HOY egunkaritik (1993) DIARIO DE NOTICIASERA (1998) aldatzerakoan, azken honek gehiagotan erabiltzen baitu (baina kontuan izan behar dugu artikulu gehiago ere argitaratzen dituela).

³⁴² DEIA, 09-03-2008, 28. or.

³⁴³ DEIA, 08-03-2008, 24-25. orr.

³⁴⁴ EUSKALDUNON EGUNKARIA, 08-03-1998, K4 or.

11. Grafikoa: Enkoadre tradizionalaren kronologia



Iturria: autorea. N=648.

Feminismoaren enkoadrea

Feminismoaren enkoadrea aztertzen dugunean batetik EGIN/GARAREN lana azpimarratu behar dugu, batez ere 2008ra arte, azken urtean, 2013an gauzak zeharo aldatu baitira. (12. Grafikoa). Hala ere azpimarratu behar dugu feminismoaren fokatze hori gehien erabili duten egunkariak izan direla, ia laginaren erdia (163 item osotara). Hasierako urtean, 1978an Rosa Olivaresek sinatutako iritzi-artikulu batek, «*Las violaciones: violencia contra la mayoría*» hasiera ematen dio bide honi: «*la lucha contra las violaciones conlleva el enfrentamiento con el partido del gobierno (maxime encubridor de la doble moral y firme opositor de las exigencias feministas) y con un buen numero de fuerzas políticas, así como con muchos jueces, policias, militares y jercarcas eclesiasticos*»³⁴⁵. Bigarren iritzi-artikulu batean Emakumeen Asanbladako kide batek, Anak, sinatutako artikuluan honela irakurtzen dugu: «*Lo importante es que todas unidas encontremos nuestros propios métodos de lucha para combatir la explotación y opresión que sufrimos hoy y las causas que la generan*»³⁴⁶. Feminismoaren ikuspuntutik landutako artikulu gehien 1983an eta 2008an topatu ditugu. Lehenengo urte horretan, 1983an, mugimendu feministak abortuaren eskubidea aldarrikatu zuen eta horrek isla izan zuen EGINeko orrialdeetan, baina baita Bilbon abortua egiteagatik epaitutako emakumeen ingurukoak ere.

³⁴⁵ EGIN, 05-03-1978, 15. or.

³⁴⁶ EGIN, 07-03-1978; 10. or.

Bigarreanean, 2008an, GARA egunkariak martxoaren 8an 16 orrialde eskaintzen dizkio egunari, tartean zortzi orrialdeko gehigarri bat, eta honi gehitu behar zaio eguneko Editoriala eta egunerako komiki-tira, Tasiok egiten duena. Egun horretan Feminismoaren ikuspegitik artikulua anitz lantzen dira egunkarian, bai historikoak, «*Olympe de Gouges: emakumearen eskubideen deklarazioaren idazlea*»³⁴⁷, bai politikoak «*Gizarte aginduei desafioa*»³⁴⁸ edota iritzi-artikuluak «*Patriarkatuarekin etorkizunik ez*», zeinean, Segi taldeak sinatuta izanik, hezkuntza-sisteman topatzen diren ezberdintasunei buruz hitz egiten den: «*Ekintzei begiratu, zapalkuntza eta diskriminazioa esparru guztietan pairatzen jarraitzen dugula agerikoa da, izan ere sistema patriarkalak indarrean jarraitzen du. Hezkuntza sistemaren bidez gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak bultzatu eta rol zehatzak inposatzen dira eredu parekideak sortu beharrean...*»³⁴⁹.

Enkoadre honi, Feminismoarenari alegia, tratamendu desberdina eman zioten EUSKALDUNON EGUNKARIAN eta BERRIAN; lehenengoan gutxitan erabiltzen bazen ere, bigarreanean indarrez sartzen da. Kopururik altuena 2013an gertatzen da, urte honetan 28 artikulua argitaratzen baitira feminismoaren ikuspuntutik. Adibide gisa ekarri dugu martxoaren 8an Idurre Eskisabelek «*Izen txarra*» zutabearen amaieran *Gora Borroka feminista!* aldarrikatzen duela³⁵⁰.

Urte horretan, aurretik komentatu dugunez, hauteskunde-deialdia zegoen martxoaren 10ean, eta gai hau askotan islatzen da egun hauetako artikuluetan, batez ere feminismoaren fokatzetik. Nafarroan M8ko manifestazioa debekatu zuten, hausnarketa-egunarekin kointziditu zuelako, eta honen harira BERRIAN horrela idazten du Jakes Goikoetxea kazetariak «*Martxoaren 8ko batzordeak eutsi egingo dio gaurko Iruñean antolatu duen manifestazioari*» lerroburupean:

«*Espainiako Gorteetarako hauteskundeak martxoaren 9an jarri izanak ezin dituela baldintzatu martxoaren 8ko ekitaldia. Maiatzaren 1eko manifestazioa apirilaren 30ean ezarriko al lukete? Maiatzaren 2an hauteskunde orokorrak deitzera ausartuko al lirake? Ez ote dira hirugarren planoan geratu berriz ere emakumeon eskubideak, desioak, interesak? galdetu du batzordeak*»³⁵¹.

³⁴⁷ GARA, 08-03-2008; Gehigarria 8

³⁴⁸ GARA, 08-03-2008; 12. or.


³⁴⁹ GARA, 08-03-2008; 21. or.

³⁵⁰ BERRIA, 08-03-2013; 4. or.

³⁵¹ BERRIA, 08-03-2008; 19. or.

Aztertutako beste egunkarietan enkoadre honen presentzia askoz txikiagoa izan da, gehienetan bost item baino gutxiago argitaratu dituzte urte hauetan.

12. Grafikoa: Feminismoaren enkoadrearen kronologia




Iturria: autorea. N=324

Berdintasunaren enkoadrea

Berdintasunaren aldeko enkoadrearen erabilpena egunkarien diskurtsoan EMAKUNDE sorreraren ostean, hau da, 1993tik aurrera hasten da, baina oso motel eta modu irregularrean urteetan zehar. Aldaketa 2013an heldu zen, urte horretan laginaren ia erdia argitaratu zen, Grafikoan (13. Grafikoa) ikus daitekeenez. Aldaketa hori egunkari guztietan eman zen, DIARIO DE NOTICIASEN izan ezik, non ez den erabiltzen, eta GARA, azken honetan behin bakarrik erabiltzen baita.

Berdintasunaren enkoadrea, beraz, gutxitan erabili da 35 urte hauetan, apenas 50 artikulua kokatu dira ikuspuntu honetan.

13. Grafikoa: Berdintasunaren enkoadrearen kronologia



Iturria: autorea. N=50

Antifeminismoaren fokatzea


Berdintasuna gutxi agertu bada ere, are gutxiago agertu da antifeminismoaren fokatzea gure laginean, 32 artikuluetan hain zuzen. Artikulu horien heren bat baino gehiago, 13 artikulua, DIARIO VASCON argitaratu dira, aldiz, VOCENTOKO taldeko kidea den EL CORREON bitan topatu dugu marko hau (14. Grafikoa).

EUSKALDUNON EGUNKARIAN eta BERRIAN ez dugu marko honetan artikulurik topatu eta EGINEN behin agertu zen, 1983an.

Kronologiari begiratuz, marko honen joeran nahiko uniformeki banatu dira artikulua urteetan zehar 2003ra arte. Aztertutako bi urteetan fokatze hau ia egunkari guztietan desagertzen da, DIARIO VASCON 2008an publikatzen baita azkena, «*Cinco historias en femenino*»³⁵² lerroburupean agertzen den erreportajea hain zuzen, tonu paternalistan idatzia, non elkarriketatzen dituzten emakumeek ez duten feminismoaren premia ikusten.

³⁵² DIARIO VASCO, 2008-03-08, 12. or.

14. Grafikoa: Antifeminismoaren enkoadorearen kronologia



Iturria: autorea. N=32

Feminismoaren enkoadrea iritzi-artikuluetan

Aurreko atalean modu orokorrean aztertu dugu enkoadrea bakoitza, baina orain iritzi-artikuluetan jarriko dugu atentzioa. Hona hemen iritzi-artikuluak bakarrik kontuan hartuz nola gelditzen diren fokatzeko horiek (29. Taula):

29. Taula: Egunkarien enkoadreen azterketa iritzi-artikuluetan

	(%)	TRADIZIONALA	FEMINISMOA	ANTIFEMINISMOA	BERDINTASUNA	GUZTIRA
Diario Vasco	38,5	19,2	23,1	19,2	100,0	
EL Correo	43,3	33,3	0,0	23,3	100,0	
Diario de Navarra	47,6	14,3	9,5	28,6	100,0	
Deia	62,5	20,8	8,3	8,3	100,0	
Navarra Hoy	25,	50,0	12,5	12,5	100,0	
Diario de Noticias	76,0	20,0	4,0	0,0	100,0	
Egin	19,6	80,4	0,0	0,0	100,0	
Gara	21,2	72,7	0,0	6,1	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	37,5	62,5	0,0	0,0	100,0	
Egunero	0,0	75,0	0,0	25,0	100,0	
Berría	0,0	81,2	0,0	18,7	100,0	
Guztira	38,2	46,2	5,1	10,5	100,0	

N = 275 item; bakarrik iritzia. Iturria: autorea.

Feminismoaren enkoadrea besteen gainera gelditzen da iritzietan, 46,2ko ehunekoarekin, tradizionala baino 8 puntu gehiago (%38,2). Parekidetasuna enkoadrea %10era heltzen da justu-justu, eta antifeminismoa %5ean agertzen da.

Feminismoaren enkoadrea iritzi artikuluetan

Duda barik, feminismoa izan da gehien erabili den enkoadrea iritzi-artikuluetan, osotara 127 artikulua idatzi baitira ikuspuntu honen arabera. Hala ere azpimarratu behar dugu kopuru horren erdia baino gehiago –69 artikulua EGINEN eta GARA topatu ditugu, beraz bi egunkari hauek izan dira benetako garrantzia eman dietenak feminismoari-. Beste egunkarietan, ordea, feminismoaren enkoadrea iritzi-sailean ez du garrantzirik izan, adibidez, DIARIO DE NAVARRAN hirutan topatu dugu bakarrik, DIARIO DE NAVARRAN lautan edota DIARIO VASCON bost artikulua besterik ez. Beraz, fokatzeko honen azterketa aipatutako bi egunkari horietan gertatzen da, eta beraz, horietan zentratuko gara batez ere, EUSKALDUNON EGUNKARIA, EGUNERO eta BERRIA ahaztu gabe, artikuluen %16,5 argitaratu baitira bietan.

EGINEN eta GARA gehien erabili den artikulua-mota iritziakoa izan da, 46 publikatu baitziren enkoadre honen baitan 1978tik 2013ra. Gai anitz landu ziren, baina eskubide soziopolitikoak besteen gainera nabarmendu ditzakegu. Borrokarako beharra oso presente dago artikulua hauetan, «*lo importante es que todas unidas encontremos nuestros propios métodos de lucha para combatir la explotación y opresión que sufrimos hoy y las causas que la generan*»³⁵³ esaten digu Bizkaiko Emakumeen Asanbladako bozeramaileak, Anak (abizenik gabe sinatzen du) 1978an; Mila Idiakezek, 1998an Egizanen izenean sinatzen duen artikuluan: «*A través de espejo: Esta es la esencia, la razón de ser y de luchar por el feminismo. Y a todas luces hay motivos más que sobrados para pelear por ello. Para demostrar que no nos creemos realidades virtuales que enmascaran situaciones ficticias y porque tenemos suficiente capacidad, fuerza y firmeza para asestar un golpe a la realidad que nos circunda*»³⁵⁴; «*Pairatzen dugun zapalkuntza salatzeke, gure eskubideen aldeko aldarria kaleratzeko eta emakumeon independentziaren aldeko hautua egiteko hitzordua dugu*»³⁵⁵ Begoña Zabalak eta Miren Arangurenrek, Mugimendu Feministako kideek 2008an, eta «*Feminist*

³⁵³ EGIN, 1978-03-07; 10. or.

³⁵⁴ EGIN, 1998-03-08; 13. or.

³⁵⁵ GARA, 2008-03-08; 25 .or.

sokari eutsi, sistema hau eraitsi»³⁵⁶ izenburua jarri zioten 2013an argitaratutako artikuluari Saioa Iraola eta Miren Aranguren Bilgune Feministaren bozeramaileek.

Feminismoaren fokatzeko hau ez da gelditzen bakarrik iritzi-saileko orrialdeetan, ohiko gehigarrietan ere islatzen baita. Horrela gazteei zuzendutako GAZTEGIN gehigarrian, Ainhoa Labeaga 1993an «*Emakumeak libre,... salbuespenak salbu*» artikuluan gaztetxeetan gertatzen zenari buruz mintzo zen: «*...gaztetxean zuk bokatak hobeto egiten dituzu eta sukaldean sartzeko esaten dizutenean. Aske izateko oztopoak besterik ez dira, aurrerapen guzti horien atzetik gizarteak oinarri berberak mantentzen baititu, berberak eta gainera hobeto estaliak»³⁵⁷ edota 1998an Luis Elberdin sexologoak esandakoak:*

«Pero el proceso es irreversible. El patriarcado es una especie en rápida extinción. Las mujeres —laboriosas y tenaces— están siendo capaces de darle la vuelta a una situación tan adversa. Están revolucionando la historia. Su independencia económica ha sido la llave que les ha permitido desarrollar otras áreas de su autonomía: la independencia social, afectiva y hasta sexual. Algo a celebrar en este 8 de marzo. Pero aún quedan varones que no han entendido nada, y que viven esta revolución de las mujeres como una agresión contra la que han de defenderse, como una pérdida de sus seculares privilegios. Craso error que se paga muy caro. Porque lo que ahora se trata es de, en lugar de tratar de aferrarnos los varones con uñas y dientes a la vieja prepotencia patriarcal, en lugar de medirnos obsesivamente una y mil veces nuestro colgajo, en lugar de pegar a quien tememos perder, seamos capaces de despertar del largo letargo, espabilar, reciclarlos, reprogramarnos, construir juntos un nuevo modelo basado en el cariño, en el sexo, en la complementariedad, en la cooperación y en la equivalencia. Vamos, de sumarnos —también nosotros— a esta preciosa revolución ya en marcha»³⁵⁸.

GARAKO gehigarrietan ere aurkitu ditugu iritzi-artikuluak fokatzeko honetan; GAUR8n adibidez Iñaki Sotoren artikulua 2008an «*Matxismoaren aurka usai-kengarririk ez»³⁵⁹ edo Zientziari dedikatutako atalean Gotzon Zozaiak idazten duen*

³⁵⁶ GARA, 2013-03-07; 15. or.

³⁵⁷ EGIN 1993-03-05; GE8 or.

³⁵⁸ EGIN, 1998-03-06; GE08 or.

³⁵⁹ GARA 2008-03-08; GAUR8-03 or.

artikulua, «*Gizona naiz eta harro nago*»³⁶⁰ izenburupean, non sexuaz eta generoaz aritzen den ikuspegi feministatik landuta.

Zutabegileen lana eskasagoa izan da enkoadre honetan, bederatzi besterik ez dira argitaratu, tartean Josebe Egiak, urte osoan, astelehenero, feminismoaren ikuspegitik idazten dituenak.

EUSKALDUNON EGUNKARIAN, EGUNERON eta BERRIAN fokatze honek presentzia txikiagoa badu ere, garapen argi bat ikusten da urteen poderioz. EUSKALDUNON EGUNKARIAN bost aldiz aurkitu dugu, horietatik hiru aztertu dugun lehenengo urtean eta beste biak 1993an. EGUNERON (2003) ere hirutan agertzen da, baina BERRIA aztertu dugun bi urteetan gorakada nabarmena egon da, 13 artikuluetan topatu baitugu, bost zutabe agertu zaizkigu eta zortzi iritzi-artikulu.

Esan bezala, beste egunkarietan fokatze honen presentzia iritzi-artikuluetan oso txikia izan da, ia anekdotikoa.

Enkoadre tradizionala iritzi-artikuluetan

Enkoadre tradizionala erabilitako bigarrena izan da, esan dugunez. Honetan 105 iritzi-artikulu aurkitu ditugu, argitaratutako % 38,2 bederatzi egunkarietan, BERRIAK ez baitu fokatze hau erabili aztertutako urteetan. Kopuruei erreparatzen badiegu, GRUPO NOTICIAS taldeko bi egunkari izan dira fokatze hau gehien erabili dutenak, batetik DEIA, non 30 artikulua topatu ditugun, eta atzetik DIARIO DE NOTICIAS 19 artikuluekin; bietan gehien erabiltzen den fokatzea da fokatze hau. Tradizionala da ere EL CORREOK gehien erabiltzen duen fokatzea, 13 iritzi-artikulutan topatu baitugu, baita DIARIO VASCON eta DIARIO DE NAVARRAN aurkitu ditugun 10etan.

Bigarren mailan gelditu da fokatze hau EGINEN eta GARAN, feminismoaren enkoadrearen atzetik, hala ere osotara 18 artikulua agertu dira urte hauetan.

Artikuluen sailkapenari erreparatuz, zortzi Editorial topatu ditugu: DEIA, EGIN eta GARA egunkarietan bitan idatzi dituzte Editorialak enkoadre honen ikuspegitik, eta DIARIO VASCON, eta DIARIO DE NOTICIASen Editorial bana.

Zutabeei dagokionez DEIAko zutabegileak oso maiz aritu dira enkoadre honetan, hamabi zutabe aurkitu baititugu. Askotariko gaiak jorratu dituzte DEIAko zutabegileek hauetan, kirola, amatasuna, lana, edota indarkeria matxista, adibide

³⁶⁰ GARA, 2013-03-09;GAUR8-20 or.

gisa Goizalde Landabasok 2008an idatzitako «*Eurei*» zutabearen non familiako hiru emakumeei omenaldia egiten dien.

Laginaren beste egunkarietan zutabe gutxiago argitaratu dira enkoadre honetan, bost DIARIO VASCON, lau DIARIO DE NOTICIASEN, hiru DIARIO DE NAVARRAN, bi EL CORREON eta bana EGINEN eta EUSKALDUNON EGUNKARIAN. DIARIO DE NAVARRATIK berreskuratu dugu Manuel Alcantarak sinatutako zutabearen zati bat:

«Un día es un día: Durante largo tiempo se les negó a las mujeres el derecho al voto mientras se les cedía el asiento en los transportes públicos. Las cosas han cambiado, pero no lo bastante para que no sea ignominiosamente válido aquello de que el rol femenino era ser, "en las clases altas, animal de lujo, y en las bajas, animal de carga"»³⁶¹.

Egunkari honetan idazten zuen Antonio Papell zutabegilearen beste zutabe bat ere aipatu nahi dugu, honetan nahiz eta egoeraren salaketa egiten den, ez dago egoerari buelta emateko aukerarik, horrela amaitzen baita:

«Según el Defensor (del pueblo) las causas de este estado de cosas son dos: la benevolencia de las instancias judiciales hacia los agresores y la inadecuación de la legislación penal. Esto último puede corregirse modificando las leyes, pero lo otro requiere el gran cambio cultural que todavía no ha experimentado este país, que sigue siendo machista.»³⁶²

Enkoadre tradizionala erabili duten iritzien %40 (39 artikulua) iritzi-artikuluak izan dira, aipatu dugunez, talde, sindikatu, elkarte edo pertsona indibidualek egunkarietara zuzenduriko artikulua. Sailkapen honetan ere, DEIA izan da artikulua gehien argitaratu dituen egunkaria, heren bat hain zuzen. Oro har artikulua hauek emakumeen kontrako indarkeria eta lan-eskubideak lantzen dira, eta kopuru txikiago batean gai kulturalak edota heziketarenak.

Berdintasuna enkoadrea iritzi-artikuluetan

Berdintasuna lantzen duten 26 iritzi-artikulu topatu ditugu gure ikerketan, iritzi-artikuluen kopuruaren %9,5. Horietatik lau DIARIO VASCON eta DEIAN agertu dira, sei EL CORREON eta DIARIO DE NAVARRAN, hiru BERRIAN, bi GARAN eta beste bat EGUNERON.

³⁶¹ DIARIO DE NAVARRA, 2008-03-09; 19. or.

³⁶² DIARIO DE NAVARRA, 1998-03-05; 10. orr.

Hiru editorial daude gai honi buruz, lehenengoa DEIAN 1998an, eta beste biak Vocentoko egunkariak 2013an «*De todas y para todas*»³⁶³ lerroburupean argitaratzen duten editoriala da, EL CORREON eta DIARIO VASCON egun berean agertzen dena. Editorial honen ideia nagusia emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko krisiak jartzen dituen oztopoetan oinarritzen da, bai diru publiko gutxiago zuzentzen delako berdintasun hori lortzeko eta baita emakumeek lan-baldintza kaxkarrak pairatzen dituztelako. Amaitzeko baina, etorkizunean, krisiak gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak areagotu ditzakeela esaten du, eta krisiaren eragina ez duela dirua kendu behar emakumeen kontrako bortizkeria ekiditeko plangintzatik.

Esan dezakegu Berdintasuna agintari instituzional zein politiko edo sindikalei interesatzen zaiela bereziki. Gai hau lantzen duten 14 iritzi-artikuluetatik zazpi agintari instituzional desberdinek sinatzen dute, Izaskun Moïua (GARAN eta BERRIAN 2008an) eta Izaskun Landaida (DEIAN, GARAN eta BERRIAN 2013an), biak EMAKUNDEKO lehendakariak, Angeles Iztueta, gobernuko kidea (2003an) edo Ana Madariaga, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria (2013an). Beste lauk sindikatuetaiko ordezkariak sinatzen dituzte, bi CCOO eta beste bi UGTkoak (hauek Emilia Malagalk sinatutakoak, DIARIO VASCON eta EL CORREON 2013an). Beste bi artikulu adituek sinatzen dituzte, Javier Elzo ekonomialaria eta Begoña Muruaga feminista.

Zuzendariari bidalitako eskutitzak zazpi dira, eta zutabe bakarra Antonio Papellek sinatzen du DIARIO DE NAVARRAN. Eskutitzak DIARIO DE NAVARRAN (3), EL CORREON (2) eta DIARIO VASCON eta BERRIAN (1) agertu dira.

Antifeminismoaren enkoadrea iritzi-artikuluetan

Iritzi-artikuluen %5,09k antifeminismoa lantzen dutela esan dugu, zehazki, 14 artikulu, sei DIARIO VASCON, lau DEIAN, bi DIARIO DE NAVARRAN eta bana NAVARRA HOYN eta DIARIO DE NOTICIASen. Egunkarietako ohiko zutabegileek zortzi zutabe sinatzen dituzte fokatze honen barruan, beste lau iritzi artikulu dira, eta bi zuzendariari bidalitako eskutitzak. Ez dago editorialik enkoadre honetan.

Iritzi-artikulu hauetan M8aren eta feminismoaren kontrako gogoeta agertzen da, adibidez horrela esaten du Begoña Ameztok «*Solo para mujeres*» izenburupean sinatzen duen artikuluan:

³⁶³ EL CORREO, 2013-03-08; 34. or. eta Diario Vasco, 2013-03-08, 34. Or.

«Por eso, como ya les hemos demostrado lo que vale un peine, creo que podemos ir bajando la guardia, que tampoco hay que pasarse. Y además, ejercer de féminas tiene sus ventajas: aquí, entre nosotras, hay que reconocer que son muy apañaditos con su cajita de bricolaje. Definitivamente el próximo año por estas fechas deberíamos celebrar el armisticio de la "guerra de los sexos". Porque nosotras las mujeres, no necesitamos que nadie nos reivindique. Estamos ya en otra historia»³⁶⁴.

Autore berak horrela esaten du beste artikulu batean, 2003an: *«Que no nos engañen las feministas profesionales. La mujer al poder ¡Si! pero no cualquier mujer ni a cualquier precio»³⁶⁵.*

DIARIO DE NAVARRAN zuzendariari bidalitako eskutitz batean horrela hasten da emakume bat: *«Va para vosotras feministas que os llamáis defensoras de la mujer, son varios los aspectos en el campo de los derechos y las libertades de la mujer que los defendéis mal; yo diría que justamente entorpecéis el avance»³⁶⁶.* Egunkari honetan bost urte lehenago *«Las chicas de Txiki se cabrean»³⁶⁷* lerroburua irakur zitekeen iritzi-artikulu batean.

José Luis Iturrieta zutabegileak bi zutabe idazten ditu DEIAN, *«La cocina sabe a mujer y se conjuga en femenino»* eta *«De mujeres cocineras y sirgueras»* eta bietan agertzen da M8aren kontra; lehenengoan dio: *«Pero la última entrega del abecedario gastronómicos, el paseo por la literatura y el arte del buen comer de Lydia Vázquez es la demostración más palpable de que la mujer no necesita celebrar del día de la madre ni el de la fémina trabajadora»³⁶⁸,* eta bigarreanean: *«...soy de los que no creen en el día de... sin que nadie nos marque la pauta del guión para 24 simples horas anuales»³⁶⁹.* Amatiño, bere aldetik, 1998 urtean feministen kontra agertzen da EAJn emakumeen partehartze-kuotak eskatu dituztelako *«Mujeres»³⁷⁰* izenburupean idazten duen iritzi-artikulu batean.

Azkenik, Joxe Agustin Arrietaren zutabearen, honakoak irakurri ditugu:

«Gizonezko eta emakumezkoen arteko arazoak, ezberdintasunak eta elkar menperatzeak, ez dira bien arteko borroka konponduko. Batak bestea desegitea besterik ez dakar

³⁶⁴ DIARIO VASCO, 1993-03-08; 3. or.

³⁶⁵ DIARIO VASCO, 2003-03-10; 96. or.

³⁶⁶ DIARIO DE NAVARRA, 1993-03-10; 28. or.

³⁶⁷ DIARIO DE NAVARRA, 1988-03-11; 10. or.

³⁶⁸ DEIA, 2003-03-09; 22. or.

³⁶⁹ DEIA, 1998-03-11, 11. or.

³⁷⁰ DEIA, 1998-03-09; 8. or.

eskubide-borrokak, gaur moda-modako gauza miraritsua balitz bezala eskaintzen duten arren "feminista" deituriko taldekideek. Batak bestea hobeto ezagutzea, elkar osotu nahia, eta bakoitzak bere grina eta berekoikeriak neurriraturik, elkarri on egitea; bestearen onerako, nork bere burua sakrifikatzea eta batak bestea zorioneko egitea. Hemendik ikusten dut egiazko berdintasun bidea eta hauxe zorion-bide bakarra»³⁷¹.

Adibide hauetan feminismoa arazoa balitz bezala enkoadratzen da, epaiketa morala ematen da feminismoaren kontra eta arazo honen ardura emakume feministen gainean geratzen da, ez dago irtenbiderik.

5.1.5 M8an egunkarietan agertu diren protagonisten soslaiak


Azpiatal honetan, informazio-artikuluetan agertu diren pertsonen soslaiak ikertu nahi ditugu, zenbat eta nortzuk izan diren eta nola irudikatu dituzten. Atal honetan informazio-artikuluak aztertu dira bakarrik, iritzi-artikuluak alde batera utzita.

5.1.5.1 M8aren estalduran izendatutako pertsonen kopurua

Genero periodistikoaren erabilera aztertu dugunean, 5.1.2.3 atalean, 823 informazio-artikulu aurkitu ditugu: 656 albiste, 116 erreportaje eta 51 elkarrizketa. Artikulu hauetan 574 pertsonen erreferentziak agertu dira, hau da, gutxi gorabehera 0,5 pertsona informazio bakoitzeko.

Lehenengo urteetan, 1978an hasi eta 1988ra arte, aipamen gutxi agertzen dira egunkarietan, azken urte horretan 41 aipamen besterik ez dira agertu dira. Baina 1993an eta 1998an igoera nabarmena ematen da; 130 aipamen aurkitu ditugu 1998an. Igoera hau bat dator 5.1.2.1 puntuan ikusi dugunarekin, bi urte horietan informazio-artikuluaren gorakada nabarmena egon baitzen. Hurrengo urtean erreferentzia-kopuru hori ia erdian geratuko da, 72 aipamenekin; eta 2013an, berriz, 89 aipamen daude (15. Grafikoa).

³⁷¹ DEIA, 1993-03-09; 12. or.

15. Grafikoa: Pertsonen aipamenak urtez urte

N = 574; protagonista. Iturria: autorea

Atal honetan egunkariak egindako lana desberdina izan da, hurrengo taulan ikusten denez (30. Taula). Urteko batez bestekoa aztertzen badugu, DIARIO DE NAVARRA (7,6) eta NAVARRA HOY (5,3) egunkarietan pertsonen aipamen oso mugatuak izan dira, urte bakoitzeko pertsonen erreferentzia 10 baino gutxiago izen baitira. BERRIAK, aldiz, erreferentzien kopururik handiena dauka, urtean ia 20 pertsonen aipamenak egin baititu.

Dударik gabe 35 urte hauetan pertsonen erreferentzia gehien egin duen egunkaria DEIA izan da, hain zuzen 108 erreferentzia topatu ditugu ikerketa honetan, bere atzetik EGIN/GARA binomioa dago, bien artean 104 pertsona identifikatu ditugu aztertutako informazioetan. DIARIO VASCON eta EL CORREON 80 pertsona inguru identifikatu ditugu batean zein bestean. EUSKALDUNON EGUNKARIA/EGUNERO/BERRIAK alde batetik eta NAVARRA HOY/DIARIO DE NOTICIAS bestetik 70 pertsona aipatu dituzte urte hauetan.

30. Taula: Protagonisten kopurua informazio-atalean

	Protagonista Kopurua	%	Urteko Batez beste
Diario Vasco	81	14,1	10,1
EL Correo	80	13,9	10,0
Diario de Navarra	61	10,6	7,6
Deia	108	18,8	13,5
Navarra Hoy	16	2,8	5,3
Diario de Noticias	54	9,4	13,5
Egin	73	12,7	14,6
Gara	31	5,4	10,3
Euskaldunon Egunkaria	22	3,8	11,0
Egunero	10	1,7	10,0
Berria	38	6,6	19,0
Guztira	574	100	11,4

N = 574 protagonista. Iturria: autorea.

5.1.5.2 Norbanakoen soslaiak: generoa, izendapena, adina, familiako loturak

Atal honetan pertsona horien soslaiak irudikatzen saiatuko gara, azter dezagun zeintzuk diren pertsona horiek.

Generoa

Emakumeak nagusi dira M8ari buruzko informazioetan, aipaturiko eta identifikatutako pertsonen %80,5 emakumeak baitira. Joera hau berdintsua izan da egunkari guztietan. Aztertu dugun laginean ez da agertu, edo ez da honela identifikatu pertsona transexualik, nahiz eta azken urte hauetan kolektibo hauen aldarrikapenak oso presente egon diren M8an.

Esan dugunez egunkari guztietan joera nagusia emakumeei hitza eta protagonismoa ematea izan da, baina desberdintasun txiki batzuk topatu ditugu. Horrela, gizonen portzentajerik handiena NAVARRA HOY egunkarian aurkitu dugu, agertutako pertsona guztien %31,2 izan baitira. BERRIAN, aldiz, emakumeen portzentajerik handiena (%94,7) (31. Taula).

31. Taula: Informazio-artikuluaren protagonisten generoa

	(%)	Emakumea	Gizona	Ez dagokio	Guztira
Diario Vasco	74,1	25,9	0,0	100,0	
EL Correo	80,0	18,8	1,3	100,0	
Diario de Navarra	78,7	21,3	0,0	100,0	
Deia	84,3	15,7	0,0	100,0	
Navarra Hoy	68,8	31,3	0,0	100,0	
Diario de Noticias	79,6	20,4	0,0	100,0	
Egin	78,1	21,9	0,0	100,0	
Gara	90,3	9,7	0,0	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	72,7	22,7	4,5	100,0	
Egunero	80,0	20,0	0,0	100,0	
Berria	94,7	5,3	0,0	100,0	
Guztira	80,5	19,2	0,3	100,0	

N = 574 protagonista. Iturria: autorea.

Izendapena

Pertsona hauek izendatzeko erabilitako estrategiak aztertu dira atal honetan. Egunkariak antzeko joera erabili dute pertsonen aipamenak egiteko. Oro har, izen-abizenekin identifikatu dituzte informazioetan agertu diren pertsonak, estilo-liburuek agintzen duten moduan, (%91,1). Izenekin bakarrik identifikatutakoak %5,0 izan dira, abizenak bakarrik erabilia %1,2 (32. Taula).

NAVARRA HOY egunkariak aipatzen dituen pertsonen %12,5 izenez bakarrik izendatzen ditu, laginaren portzentajerik altuena, eta aldi berean ez ditu pertsonen izenak aipatzen %6,2an. Ildo berean, EL CORREOK ez ditu aipatu pertsonen izenak %8,7an, eta izenez bakarrik identifikatu ditu %5 kasuetan. DEIAN gizon bat izengoitiaz identifikatuta topatu dugu, «Jose Antonio Nielfa (La Ochoa)» hain zuzen, «*Los "hombres" opinan sobre el día de la mujer*» lerroburua duen erreportaje batean³⁷².

GARAK eta EGUNEROK aipatzen dituzten pertsona guztiak izen-abizenez identifikatzen dituzte, EGINEN, aldiz, aipatutako pertsonen %9,6 izenez bakarrik identifikatu zituzten, abizenik gabe. BERRIAN agertzen diren pertsonen %97,3 izen-abizenez identifikatuta agertzen dira, eta geratzen den %2,6a identifikatu gabeko pertsonak dira.

³⁷² DEIA, 1983-03-08; 3. or.

32. Taula. Informazio-artikuluaren protagonisten izendapena

	Izena	Izen-abizen	Abizena	Izengoitia	Izenik gabe	Guztira
Diario Vasco	7,4	88,9	3,7	0,0	0,0	100,0
EL Correo	5,0	83,8	2,5	0,0	8,8	100,0
Diario de Navarra	3,3	93,4	0,0	0,0	3,3	100,0
Deia	5,6	90,7	0,9	0,9	1,9	100,0
Navarra Hoy	12,5	81,3	0,0	0,0	6,3	100,0
Diario de Noticias	0,0	98,1	1,9	0,0	0,0	100,0
Egin	9,6	90,4	0,0	0,0	0,0	100,0
Gara	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Euskaldunon Egunkaria	9,1	86,4	0,0	0,0	4,5	100,0
Egunero	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Berria	0,0	97,4	0,0	0,0	2,6	100,0
Guztira	5,1	91,1	1,2	0,2	2,4	100,0

N = 574 protagonista . Iturria: autorea.

Adina

Nahiz eta hasieran uste genuen errazago izango zela protagonisten adinak ezagutzea, ikusi dugu egunkariak oso gutxitan ematen dutela datu hori. Bakarrik aurkitu dugu laginaren %20ko pertsonen adina zehatz-mehatz adierazita, eta horietatik %19 helduak dira, hau da 18-65 urte bitartean daudenak. Egunkari guztiek joera berdina mantentzen dute.

Familiako loturak

Atal honetan aztertu dugu familia arteko loturak, hau da, emazte/senarra, seme/alaba; neba/arreba norekin aipatzen diren, gizon edo emakumeekin. Aldea nabarmena da, familiako aipamenak pertsonaien %20,6an agertzen dira, horietatik %19,2an emakumeei lotutako erreferentzietan, eta %1,4an gizonezkoenetan (33. Taula).

Familiako aipamen gehien egiten duen egunkaria DIARIO VASCO izan da (%39,5), eta horietatik %37,0 emakumeen erreferentzietan aurkitu ditugu, adibidez, «*Hillarys guipuzcoanas*» erreportajearen, non lau emakumeen soslaia egiten duten: «*Maite Urbietta: Enamorada de lo que hace y entregada a un proyecto que inicio hace cinco años, sin embargo no renuncia a ser esposa y madre*», eta aurrerago Arantxa Urretabizkaiaz: «*Pero si el hecho de compartir su vida con un actor no le ha supuesto renunciar a ninguno de sus objetivos profesionales, la*

presencia de un hijo de dos años sí le ha implicado a Arantxa Urretabizkaia sacrificar parte de su vocación de escritora en la medida en que se ha entregado en cuerpo y alma a esta nueva criatura»³⁷³.

Hurbilago dago 2003an publikatutako «*Ellas han entrado de lleno en la crisis*» erreportajea, non lau emakumeen bizitzaz hitz egiten duten, eta lauren lotura familiarrak aipatzen diren:

«Ana Galan: Divorciada, dice que no ha tenido suerte con sus parejas; Ana María Frutos: ella no tiene hijos y observa...; Isa Otero es madre de una chica de 26 años y un chico de 21; Ana Urkiza, madre de tres hijos...»³⁷⁴.

Aipamen hauetan bigarrena EL CORREO izan da, non, agertu diren pertsonen %27,5ean familiarekiko erreferentziak agertzen diren, eta horietan %26,2 emakumeenak izan dira, honen adibide 2003an argitaratutako «*Sin estereotipos*» erreportajea, non beste bost emakumeen soslaiak argitaratzen diren, tartean Mari Asun Belamendia: «*A su marido le tiene contento, en el mejor de los sentidos. Ella ha sido siempre la que ha llevado el sueldo más alto a casa, "me dice que es el más feminista de la familia", bromea*», edo «*Conchi Aguilar: Sus hijas adoran a su madre camionera, y en el puerto de Bilbao, una presencia femenina, aunque sea la única, está bien vista: Los compañeros me tratan muy bien*»³⁷⁵.

Beste aldean NAVARRA HOY eta EGUNERO kokatzen dira, bi egunkari hauek ez dute inoiz aipatu familiako loturarik.

³⁷³ DIARIO VASCO, 1993-03-07; D3. or.

³⁷⁴ DIARIO VASCO, 2013-03-08; 2. or.

³⁷⁵ EL CORREO, 2003-03-07; 66-67. orr.

33. Taula: Protagonisten familiako aipamenak

	Bai			Ez			Ez dagokio	Guztira
	(%)	Emakum.	Gizona	Guztira	Emakum.	Gizona		
Diario Vasco	37,0	2,5	39,5	37,0	23,5	60,5	0,0	100,0
EL Correo	26,3	1,3	27,5	53,8	17,5	72,5	1,3	100,0
Diario de Navarra	21,3	3,3	24,6	57,4	18,0	75,4	0,0	100,0
Deia	19,4	2,8	22,2	64,8	13,0	77,8	0,0	100,0
Navarra Hoy	0,0	0,0	0,0	68,8	31,3	100,0	0,0	100,0
Diario de Noticias	16,7	0,0	16,7	63,0	20,4	83,3	0,0	100,0
Egin	9,6	0,0	9,6	68,5	21,9	90,4	0,0	100,0
Gara	16,1	0,0	16,1	74,2	9,7	83,9	0,0	100,0
Euskaldunon Egunkaria	9,1	0,0	9,1	63,6	22,7	90,9	4,5	100,0
Egunero	0,0	0,0	0,0	80,0	20,0	100,0	0,0	100,0
Berria	5,3	0,0	5,3	89,5	5,3	94,7	0,0	100,0
Guztira	19,2	1,4	20,6	61,3	17,8	79,4	0,3	100,0

N = 574 protagonista . Iturria: autorea.

5.1.5.3 Norbanakoen rola: artikuluan, soziala, ikasketak, lanbidea

Egunkarietan agertu diren pertsona horien rolen azterketa egin dugu, zer-nolako papera bete duten informazio horietan, eta noren izenean hitz egin duten.

Norbanakoen papera

Atal honetan aztertu dugu noren izenean hitz egiten duten egunkarietan agertzen diren emakumeek eta gizonek. Gure azterketan topatu ditugun pertsonen %53,8 protagonista-rola betetzen duten emakumeak dira, eta %9,9 gizon protagonistak. Beste roletan emakumeak bozeramaile- (%12,5) eta iritzi-emaile lanetan (%12,4) parez pare agertzen dira. Bestalde adituen presentzia oso eskasa izan da, %1,6koa bakarrik. Gizonen kasuan ere antzeko joera ikusten da, bai bozeramaile- (%3,8) eta baita iritzi-emaileetan (%4,9), ondorengo taulan ikusi dezakegunez (34. Taula).

Bozeramaile-lanetan dauden emakumeak nagusiak dira bai GARAN (%38,7) eta baita EUSKALDUNON EGUNKARIAN (%40,9). Azken egunkari honetan protagonistaren papera betetzen duten emakumeak oso gutxi dira, bakarrik %18,2, portzentajerik txikiena laginean. Bestalde, emakume protagonisten portzentajerik handiena NAVARRA HOYN aurkitzen dugu, (%61,6), EGINEN (%61,6) eta DEIAN (%61,1) oso hurbil daude.

Bakarrik bi egunkarik aurkezten dituzte emakume adituak, EL CORREOK (%10) eta EUSKALDUNON EGUNKARIAK (%4,5). Baina agerpen hau anekdotikoa da bi kasuetan; lehenengoan erreportaje berean egiten dituzten galdeketa batean agertzen dira bost adituen erantzunak eta ia lagin osoa betetzen dute: «*¿Cuál es el principal reto de la mujer en lo que queda de siglo?* »³⁷⁶

³⁷⁶ EL CORREO, 1993-03-08; 23. or.

34. Taula: Norbanakoen papera (%)	Emakumeak						Gizonak						Guztira
	Guztira						Guztira						
	Aditu	Bozer.	Iritzia	Protag.	Beste		Aditu	Bozer.	Iritzia	Protag.	Ez dagokio		
Diario Vasco	0,0	14,8	2,5	56,8	0,0	74,1	3,7	8,6	1,2	12,3	25,9	0,0	100,0
EL Correo	10,0	2,5	12,5	55,0	0,0	80,0	0,0	5,0	5,0	8,8	18,8	1,3	100,0
Diario de Navarra	0,0	4,9	24,6	49,2	0,0	78,7	0,0	0,0	6,6	14,8	21,3	0,0	100,0
Deia	0,0	16,7	5,6	61,1	0,9	84,3	0,0	3,7	2,8	9,3	15,7	0,0	100,0
Navarra Hoy	0,0	0,0	6,3	62,5	0,0	68,8	0,0	0,0	12,5	18,8	31,3	0,0	100,0
Diario de Noticias	0,0	18,5	16,7	44,4	0,0	79,6	0,0	0,0	1,9	18,5	20,4	0,0	100,0
Egin	0,0	6,8	9,6	61,6	0,0	78,1	0,0	6,8	11,0	4,1	21,9	0,0	100,0
Gara	0,0	38,7	3,2	48,4	0,0	90,3	0,0	3,2	3,2	3,2	9,7	0,0	100,0
Euskaldunon Egunkaria	4,5	40,9	9,1	18,2	0,0	72,7	0,0	4,5	9,1	9,1	22,7	4,5	100,0
Egunero	0,0	0,0	50,0	30,0	0,0	80,0	0,0	0,0	0,0	20,0	20,0	0,0	100,0
Berria	0,0	2,6	34,2	57,9	0,0	94,7	0,0	0,0	5,3	0,0	5,3	0,0	100,0
Guztira	1,6	12,5	12,4	53,8	0,2	80,5	0,5	3,8	4,9	9,9	19,2	0,3	100,0

N = 574 protagonista . Iturria: autorea. Bozer= Bozeramaile, Protag. = Protagonista

Norbanakoen rol soziala

Aztertu dezagun zein den ahots horien paper nagusia M8aren inguruan publikatu diren informazioetan. Talderik handiena emakume ezezagunek osatzen dute (%32,9). M8an egunkari askok soslai desberdinekin osatzen diren erreportajeak argitaratzen dituzte, non bost edo sei emakumek beren bizitzaz, M8az eta batzuetan feminismoari buruz hitz egiten duten. Hauetan erizainak, teknikariak, abokatuak, jubilatuek edo kamioi-gidariak agertzen dira, bere egunerokotasuna informazio-gai bihurtuz. Adibide bat DIARIO VASCO 2008an argitaratutako «*Cinco historias en femenino*»³⁷⁷ erreportajea da, non bost emakume agertzen diren: Soraya Sánchez, autobus-gidaria; Patricia Noya, moja; Rosario Sanchez, zientzialaria; Silvana Luciani, teknikaria eta Miren Gurrutxaga, etxeko langilea, denak pertsona anonimoak eta bizitza sozio-politikoan inziditzeko gaitasun txikia dutenak.

Bigarren postuan hiru talde agertzen dira, adituak, agintari instituzionalak eta politikariak edo sindikalistak; talde bakoitzak %12ko errepresentazioa du. Gizonen talde nagusia agintari instituzionalena da (%7,3) eta bigarrena politikari eta sindikalistena, beste %3,6 (35. Taula).

³⁷⁷ DIARIO VASCO, 2009-03-08; 12. or.

35. Taula: norbanakoen rol soziala

	Emakumeak						Ema. Guz.	Gizonak					Giz. Guz.	Ez dagokio	Guztira
	(%)	Aditu	Ag. inst.	Ezez.	Perts. Nabar.	Pol./ Sind.		Aditu	Ag. inst.	Ezez.	Perts Nab..	Pol./ Sind.			
Diario Vasco	6,2	14,8	35,8	12,3	4,9	74,1	3,7	8,6	8,6	1,2	3,7	25,9	0,0	100,0	
EL Correo	11,3	11,3	41,3	11,3	5,0	80,0	2,5	10,0	2,5	1,3	2,5	18,8	1,3	100,0	
Diario de Navarra	11,5	11,5	41,0	0,0	14,8	78,7	4,9	11,5	1,6	0,0	3,3	21,3	0,0	100,0	
Deia	11,1	20,4	21,3	20,4	11,1	84,3	1,9	3,7	2,8	3,7	3,7	15,7	0,0	100,0	
Navarra Hoy	12,5	6,3	18,8	0,0	31,3	68,8	6,3	12,5	0,0	0,0	12,5	31,3	0,0	100,0	
Diario de Noticias	3,7	13,0	27,8	1,9	33,3	79,6	1,9	9,3	1,9	0,0	7,4	20,4	0,0	100,0	
Egin	12,3	4,1	35,6	15,1	11,0	78,1	2,7	8,2	1,4	8,2	1,4	21,9	0,0	100,0	
Gara	3,2	19,4	58,1	0,0	9,7	90,3	3,2	0,0	3,2	0,0	3,2	9,7	0,0	100,0	
Euskaldunon Egunkaria	13,6	4,5	27,3	0,0	27,3	72,7	0,0	9,1	9,1	0,0	4,5	22,7	4,5	100,0	
Egunero	30,0	0,0	40,0	0,0	10,0	80,0	0,0	10,0	0,0	0,0	10,0	20,0	0,0	100,0	
Berria	52,6	5,3	18,4	10,5	7,9	94,7	5,3	0,0	0,0	0,0	0,0	5,3	0,0	100,0	
Guztira	12,7	12,2	32,9	9,9	12,7	80,5	3,0	7,3	3,1	2,1	3,7	19,2	0,3	100,0	

N = 574 protagonista . Iturria: autorea. Ag. Instituzionala: agintari instituzionala, Perts. Naber, Pretsonaia nabarmena, Pol/sind: politikari/sindikalista, Ema. Guz. Emakumeak Guztira, Giz. Guz. Gizonak guztira

DIARIO VASCON emakume ezezagunen presentzia %35,8koa da, DIARIO DE NAVARRAN eta EL CORREON %40ra hurbiltzen da. Hiru egunkari hauetan emakume adituen presentzia mediatik behera dago, DIARIO VASCOREN kasuan erdia da (%6,2). Halaber, gizonetzkoetan ahots instituzionalak nagusi dira hiru egunkarietan. NAVARRA HOYK emakume ezezagunen kopururik txikiena dauka (%18,75) eta DEIAK emakumeen ahots instituzional handiena (%20,4). Oso deigarria da GARAREN kasua, non emakume ezezagunek %60ra hurbiltzen diren, eta emakume adituak berriz %3ko portzentajearen agertzen dira bakarrik, portzentajerik txikiena egunkari guztien artean. BERRIAK, bere aldetik, emakume adituei presentzia berezia ematen die (%52,6), eta gizonen artean adituek bakarrik daukate ahotsa M8ko informazioetan.

5.2 Emakumeak, planto! 2018. urteko eztanda feminista

Feminismoa edonon dago gaur egun. Eztabaida, arlo politikoan, zientifikoan, ekonomikoan, teknologikoan eta baita modaren munduan edo sare sozialetan ikusten dugu egunero. Aldaketa honen arrazoiak askotarikoak izan dira. Gaur egun Sonia Reverter eta Maria Medina-Vicent-ek aipatzen duten moduan, Feminismoa mugimendu- eta teoria-mailan inoiz baino zabalagoa da. (Vicent eta Reverter 2020, 27). Nuria Varela-ren arabera, feminismoaren laugarren olatuak gogor astindu du planeta osoa eta horren emaitzak oraindik ikusteke daude; fenomenoaren tsunamia gisa definitzen du:

«Horrela, tsunami gisa, feminismoa agertu da XXI. mendeko lehen hamarkadetan. Aparteko fenomeno indarkeria, zapalkuntza eta diskriminazioaren aurrean modu izugarrian erreakzionatu duten milioika emakume aspertuta egotea da. Geofisikaren arabera, olatu mota hauek haizeak eta mareek eragindako azaleko olatuak baino askoz ur gehiago mugitzen dute. Horrela, feminismoaren laugarren olatuak, aurreko hirurek elikatua, sare sozialek eta belaunaldi gazteenen kontzientzia hartzeak, zimendu patriarkalak inarrostean ditu, inoiz ez bezala. Ekitaldi konplexu handi horren barruan, kontraesanak eta diskurtsoak ere hazten dira, eta postmodernitatearen haizeekin nahastuta, kontzeptu berriak,

galdera berriak eta aldarri berriak planteatzen dituzte. (Varela 2020)»³⁷⁸.

Mugimendu feministarentzat, bai mundu-mailan eta baita Euskal Herrikoan, 2018. urtea benetako tsunamia izan zen. Mugimenduak mundu-mailan antolatutako lehenengo greba feminista eraman zuen aurrera (Centenera 2019). Fenomeno hau hobeto ulertzeko zenbait aurrekari kontuan hartu behar ditugu.

EMAKUMEEN MUNDU MARTXA (hemendik aurrera EMM) ekintza feministen munduko mugimendu bat da, emakumeen aurkako pobrezia eta indarkeria eragiten duten kausak ezabatzeko jarduten duten emakume-talde eta erakundeak biltzen ditu. 2000az geroztik, milaka emakume mobilizatu ditu tokiko mailan zein nazioartean, jasandako desberdintasun- eta diskriminazio-mota guztien aurkako borrokaren inguruan. EMMk LAUGARREN NAZIOARTEKO EKINTZA 2015eko irailean antolatu zuen, Euskal Herriko 27 herri zeharkatu zituen karabanak aste betez, eta lehendik zeuden talde feministak indartzeko tresna izan da karabana hau, batez ere mugimendu feminista aktibatuta ez zegoen lekuetan artikulatzeko aukera bat eman zuen eta horrek talde berriak sortzea ekarri zuen (Gandarias Goikoetxea 2017).


EMMren balioek eta ekintzek aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoak aldarrikatzen dituzte, eta ardatz hauen inguruan antolatu dira: emakumeen arteko eta herrien arteko berdintasuna, emakumeen arteko aniztasuna errespetatzea eta aitortzea, emakumeen lidergoari balioa ematea, elkartasunen globalizazioa, eta emakumeen eta beste gizarte-mugimenduen arteko aliantzak indartzea, adibidez ekologia edo arrazismoaren aurkakoak.

Reverter eta Medina-Vicente-k borroka feministak 2011tik aurrera sare sozialetan erabili dituen 35 *traola* arrakastatsuenak aztertu dituzte. Horien artean Argentinatik 2015eko Maiatzean abiatu zen *#niunamernos* salaketa nabarmendu behar dugu. Chiara Paéz gaztearen gorpua bere mutil-lagunaren aitona-amonen

³⁷⁸ Así, como un tsunami, ha aparecido el feminismo en las primeras décadas del siglo XXI. El fenómeno extraordinario es el hartazgo de millones de mujeres en el mundo que han reaccionado de manera impresionante frente a la violencia, la opresión y la discriminación. Dice la geofísica que este tipo de olas remueven una cantidad de agua muy superior a las olas superficiales producidas por el viento y las mareas. Así, la cuarta ola del feminismo, alimentada por las tres anteriores, las redes sociales y la toma de conciencia de las generaciones más jóvenes, está removiendo los cimientos patriarcales como nunca antes. En el interior de ese gran evento complejo también crecen las contradicciones y los discursos que, mezclados con los vientos de la posmodernidad, plantean nuevos conceptos, nuevas preguntas, nuevos reclamos.

patioan lurperatuta aurkitu zuten, bortxatuta eta jipoituta. Momentu horretan Marcela Ojeda kazetariak txio hau bota zuen: *Aktoreak, politikoak, artistak, enpresaburuak, gizarte eragileak, emakumeak denak, ez dugu ahotsa altxatuko? Gu hiltzen ari dira.* (Vicent eta Reverter 2020, 54)

12. Irudia: Marcela Ojedaren txioa



Iturria: twitter

Txio honi erantzuten *#niunamenos* traola zabaldu zen, hasieran Argentinan, baina oso azkar mundu-mailan ere hedatu zen³⁷⁹; eta gaur egun oraindik erabiltzen den traola da. Handik gutxira, ekainaren 3an Buenos Airesen feminizidioen kontrako mobilizazio handi bat egin zuten, eta hurrengo urtean, 2017ko M

martxoaren 8rako emakume argentinarrek greba orokorra deitu zuten “*Ni una menos, vivas nos queremos*” lelopean. Deialdi hau 70 herrialde baino gehiagotara zabaldu zen, horrela, herri ezberdinetan antolatutako mobilizazio solteek nazioaz gaindiko ekintza kolektibo artikulatuta bati bide eman zioten mundu osoko antolatzaileek modu bateratuan borrokatzea erabaki zutenean, Emakumeen nazioarteko egunari zentzu politiko berria eman baitzioten Varela (2020) gogoratzen digunez.

Urte horretan bertan, 2017ko urrian, beste traola batek arrakasta lortu zuen mundu-mailan, *#metoo*. Alyssa Milano aktoreak, Tarana Burke aktibistak erabiltzen zuen traola horretaz baliatu zen Harvey Winstein zine-produktorea sexu-abusuak egiteagatik salatzeke. Burke-k 2006an sortu zuen kontzeptu hau helburu argi batzuekin, horien artean dago sexu-indarkeriatik bizirik atera diren

³⁷⁹ Euskaraz *#eztatabatgutxiagoere* eta *#batgutxiagorikez* itzuli da traola hau

emakume eta neskato beltzen defentsa. Era berean, indarkeria sexualetik bizirik atera zirentzako baliabideen eskasiari aurre egin nahi diote, baita bizirik atera zirenek bultzatutako defendatzaileen komunitate baten eraikuntzari ere, euren komunitateetan indarkeria sexuala eteteko irtenbideak sortzearen abangoardian egongo baitira. Sortzailearen arabera, bi arrazoi argi ditu mugimenduari izen hori emateko: biktimek umiliazio-sentimendurik gabe deklaratu ahal izateko, bakarrik ez daudelako xehetasunengatik, eta, bigarrenik, biktimarekin hitz egiten ari direlako babestuta sentitzeko.

Esan dugunez, zenbait aktorek, zinemagilek eta musikariek erabili zuten traola hori urteetan sufritutako abusuen berri emateko, eta ziztu bizian mundu osora hedatu zen, bai originala eta baita hizkuntz desberdinetara moldatuta: *#MoiAussi* Kanadan, *#memyös* Finlandian, *#BalanceTonPorc* estatu frantsesean, *#yotambién* estatu espainolean, *#nirierebai* Euskal Herrian. Traola horrekin, areagotu egin zen genero-indarkeriari buruzko kontzientziazioa, baina, zehazki, egunero milaka emakumek jasan dituzten eta oraindik ere jasaten dituzten sexu-eraso eta -abusuei buruzkoa. Hollywoodean hasitako mugimendu honek ez zuen kaleko mobilizazioetan islarik izan, sareetan gelditu baitzen. Lehenengo 24 orduetan 200.000 txio argitaratu ziren traola horrekin, eta Facebooken 4.7 miloi pertsonak erabili zuten 12 miloi postetan *Ezyinsights* webgunearen arabera (Ezez. 2017).

Esan dugun bezala, aurrekari hauek guztiek bidea zabaldu zioten 2018ko martxoaren 8ko greba orokorrari.

5.2.1 Testuingurua: 2018a, aldaketaren urtea

Aurreko urteetan ikusi ez den bezala, aste honetan askotan hitz egin da M8az egunkarietako azaletan. Egin dezagun ibilbide azkar bat urte honetan aztertutako zazpi egunkarietatik (BERRIA, GARA, DIARIO VASCO, EL CORREO, DEIA, DIARIO DE NOTICIAS, eta DIARIO DE NAVARRA)

BERRIAN, adibidez, emakumeek gaur egun duten egoerari buruzko hainbat gai eta ikuspuntu aztertu ziren, hilaren 6an, amatasuna eta kirola nola uztartzen duten goi mailako hainbat kirolariei azaleko berri nagusia ematen dio, «*Ama, eliteko kirolaren mugetan*³⁸⁰» lerroburuarekin, EL CORREOK, hurrengo egunean, martxoak 7an, «*Euskadi reivindicará los derechos de las mujeres en una huelga sin*

³⁸⁰ BERRIA, 2018-03-06; 1. or.

precedentes»³⁸¹ iragarri zuen, eta DIARIO VASCON, martxoaren 10ean oraindik azala ematen zion «*Las instituciones vascas prometen que el 8M acelerará el paso hacia la igualdad*»³⁸².

Martxoaren 8ko azal guztietan greba aipatzen da, eta martxoaren 9an azal bereziak ikusi ditugu ia egunkari guztietan, argazki handiak azala eta azkeneko orrialdea hartzen dituztenak, manifestazio erraldoien irudiekin. Salbuespen bakarra BERRIA egunkaria da. Hedabide horretako emakume kazetariak grebarekin bat EGIN zuten martxoaren 8an, euren testu eta irudietarako hutsuneak hutsik utziz, tartean azalaren erdia.

Astea Oskar Sarien galarekin hasi zen, urte horretan Benicio del Toro zinemagileak irabazi zuen sari nagusia baina Hollywoodeko emakume aktoreen aldarrikapenek aipamen berezia izan zuten. Frances McDormann-ek emakumezko aktorerik onenaren saria jasotzean aldarri egin zuen emakumeen alde, eta zutik jartzeko eskatu zien hautagai ziren kategoria guztietako beste emakume guztiei, txalo zaparrada artean. #MeToo oso presente egon zen galan, eta oso presente egon da hainbat egunkaritan egindako analisietan ere, adibidez Gontzal Agotek BERRIARENTZAT idatzitako «*Frances, Harvey, Guillermo eta Mina. 97ko belaunaldia*»³⁸³, GARAK azalean eta kulturako bi orrialde nagusietan argitaratutako «*Me Too, los oscar también*»³⁸⁴ edo DEIAN «*Los oscar que retaron a Trump y pusieron en pie a las mujeres frente al sexismo*»:

*«Las actrices, unidas por el mismo objetivo, el de acabar con el acoso sexual, convirtieron la fiesta grande del cine en una manifestación feminista. Frances McDormand, la ganadora del Oscar a mejor actriz protagonista, pidió a todas las mujeres que se encontraban en la gala que se levantaran de sus asientos para reivindicar su papel. “No queremos hablar de nuestros proyectos hoy, mejor hablamos mañana, pero no en la fiesta sino en los despachos, que es donde os contaremos nuestros proyectos y nuestras ideas”, reivindicó»*³⁸⁵.

Iruñean *Punto de Vista* zine-jaialdia ospatu zen eta DIARIO DE NAVARRAK martxoaren 8an jaialdi honi azaleko argazki nagusia eskaintzen dio, «*La mirada*

³⁸¹ EL CORREO, 2018-03-07, 1. or.

³⁸² DIARIO VASCO, 2018-03-10, 1. or.

³⁸³ BERRIA, 2018-03-06, 35. or.

³⁸⁴ GARA, 2018-03-06, 1,30-31. or.

³⁸⁵ DEIA, 2018-03-06, 52. or.

femenina tiñe el Punto de Vista»³⁸⁶ Ierroburupean. Parte-hartzaileen artean Trinh T. Minhék zine-zuzendariak parte hartu zuen. Zuzendari feminista honek mugimendu feministaren beharraz eta indarraz mintzatzeko da DIARIO DE NOTICIAS egunkarian:

*«Sí que nos puede conducir a iniciar una fase diferente, porque hasta ahora estábamos hablando de colectivos pequeños y casi siempre desconectados que trabajaban por crear conciencia y ahora la escala es mucho mayor, internacional. Y lo maravilloso de esta dimensión no son los números, sino las alianzas que estamos construyendo»*³⁸⁷.

Beste alde batetik, Martxoaren 6an Xabier Rey Iruñeko preso hilik aurkitu zuten Puerto III espetxean, eta honek ere isla izan zuen egunkarietako azaletan, batez ere BERRIAN eta GARA³⁸⁸.

Urte honetan M8ak aurreko urteetan baino eragin handiagoa izan duela esan dezakegu, bai nazioartean eta baita tokiko mailan, eragin hau ez da ikusi bakarrik grebaren jarraipenean, gizarteko beste eremu batzuetan ere islatu da, hala nola zineman.

5.2.2 2018ko Martxoaren 8a informazio eta iritzi artikuluetan

Aurreko epealdiaren antzeko eskema mantenduko dugu urte honetako emaitzak aztertzeko. Aurtengo lagina osatzen duten item kopurua kontuan hartuta, ezinezkoa da aurreko urteetako datuekin zuzenean alderatzea; beraz, aurreko 35 urteetako datuak konparatzera ekarri arren, aurtengo emaitzak banan-banan aztertzea erabaki dugu.

5.2.2.1 Kazetaritza-estaldura 2018. urtean

Urte honetan aztertutako egunkariak zazpi izan dira, EL CORREO, DIARIO VASCO, DIARIO DE NAVARRA, DEIA, DIARIO DE NOTICIAS, GARA, eta BERRIA. Ale- kopuruari dagokionez, osotara, 48 ale aztertu ditugu –zazpi, egunkari bakoitzeko–, BERRIAN izan ezik, azken hau astelehenetan ez baita argitaratzen.

³⁸⁶ DIARIO DE NAVARRA, 2018-03-08; 1. or.

³⁸⁷ DIARIO DE NOTICIAS, 2018-03-08; 82. or.

³⁸⁸ GARA eta BERRIAN gai hau martxoaren 7, 8, 10 eta 11ako azaletan agertzen da, testu eta argazkiekin; DIARIO DE NOTICIAS egunkarian 7an eta 11n bi dei txiki aurkitzen ditugu eta beste egunkarietan ez da agertzen.

Duda barik, 2018ko M8a berezia izan da. Mugimendu feministak mundu-mailako greba orokorraren antolaketak oso informazio- eta iritzi-jario handia ekarri du, eta horren lekuko da urte honetako egunkariak irakurrita osatu dugun lagina. M8arekin lotutako 1854 item bildu ditugu aurten, aurreko epealdian bildutako lagin bera, hain zuzen (1855). Hau da, 2018an aurreko 35 urteetako item-kopuru bera argitaratu ziren aste honetan ikertutako egunkarietan. Kopuru horrek egun honen garrantzia erakusten digu, bai aurreko egunetako antolaketa lanena eta baita hurrengo egunetako ondorioena ere.

Hala ere, esan behar dugu egunkari bakoitzak eraman duen tratamendua oso desberdina izan dela, aurrerago ikusiko dugunez. Hurrengo taulara ekarri ditugu bi egunkariak egindako estaldura horren datuak, bi epealdien konparaketa egin ahal izateko (36. Taula).

36. Taula: 2018ko item-kopurua, testu eta irudiak barne

	2018		1978-2013	
	Item-kopurua	%	Item-kopurua	%
EL CORREO	529	28,3	199	10,7
DIARIO VASCO	270	14,6	211	11,4
DIARIO DE NAVARRA	198	10,7	155	8,4
DEIA	301	16,2	355	19,1
DIARIO DE NOTICIAS	278	15,0	271	14,6
GARA	131	7,1	450	23,6
BERRIA	147	8,0	214	11,5
GUZTIRA	1854	100,0	1855	100 ³⁸⁹

Iturria: autorea.


Lehen begiratuan, egunkarien portaera oso desberdina da aurretik egindakoaren aldean. EL CORREO artikulua gehien argitaratu duen egunkaria izan da, lagin osoaren laurdena baino gehiago (%28,3); aurreko urteetan, ordea, haren ekarpena guztizkoaren %10,7 baino ez zen izan. Testuak eta irudiak zenbatuz EL CORREOK 2018an 529 item argitaratu ditu, aurreko epealdian kopurua 199 izan zelarik. DEIAREN 301 itemek laginaren %16 osatzen dute, era argitalpen kopuruari dagokionez, bigarren postuan jartzen dute; lehengo epealdian egunkari horrek 355 item zituen, hau da, guztien %19,1a.

³⁸⁹ Batu egin dugu EGIN/GARA, NAVARRA HOY/DIARIO DE NAVARRA eta EUSKALDUNON EGUNKARIA/EGUNERO/BERRIA argitaratutako itemen kopurua, irudia osatuagoa emateko

Beste muturrean GARAREN eta BERRIAREN kasuak ditugu. GARA³⁹⁰ da urte honetan item- kopururik txikiena argitaratu duen egunkaria, lagin osoaren %7,1, aurretik item gehien argitaratu zuen egunkaria izan zen EGIN/GARA binomioa, lagin osoaren ia laurdena osatu zutelarik. BERRIAREN kasuan urte honetako portzentajea %8koa da, kontuan hartu behar dugu Martxoaren 8ko alean orrialdeetan espazio asko, emakume kazetariak landu behar zituzten espazioak hain zuzen, hutsik agertzen direla grebaren ondorioz.

Argitalpenei dagokienez M8-efektua argi eta garbi ikusten da aste honetan, Martxoaren 8an eta 9an argitaratutako artikuluak laginaren %71,4a osatzen dute, baina lehenago eta ondorengo egunetan presentzia hori ez da hain nabarmena. Martxoaren 11rako, igandea, Emakumearen Nazioarteko Egunaren presentzia desagertu egin da (%3,3), 16. Grafikoa: Egunez egun publikatutako item-kopuruak (2018)16. Grafikoan ikusi daitekeenez.

16. Grafikoa: Egunez egun publikatutako item-kopuruak (2018)



N: 1854 item. Iturria: autorea.

Har dezagun EL CORREOREN adibidea: Martxoaren 8an 280 item eta hurrengo egunean 146 item argitaratu zituen, aste horretan argitaratu zituen itemen %80,5. Baina asteburuan, Martxoaren 10 eta 11n, apenas 30 item topatu ditugu.

³⁹⁰ GARAK eta BERRIAK egunero argitaratzen duten orri-kopurua besteekin konparatuz askoz txikiagoa da. GARAK aste honetan 328 orrialde argitaratu ditu gehigarriak aparte, BERRIAK 264, baina EL CORREOK 636, edo DIARIO VASCOK 632 orrialde bete dituzte.

Ikuspuntu honetatik aztertuta BERRIA da jarduera orekatuena mantendu duen egunkaria, martxoaren 6an argitaratutako berrien %21,1 publikatu zituen, eta asteburu horretan %19ra hurbildu zen.

Ikusi dugunez, urte honetan gaiari eman zaion estaldura bi egunetan kontzentratu da, greba-egunetan bertan eta grebaren ondoren.

Hemendik aurrera informazio- eta iritzi-artikuluetan jarriko dugu begirada, argazkiak eta irudiak momentuz alde batetara jarritz.

5.2.2.2 Informazioaren eta Iritziaren arteko oreka 2018ko M8an

Iritziaren eta informazioaren arteko erlazioa mantendu egiten da aurreko epealdiarekiko; laginaren %72,7 informazio-artikuluak dira eta %27,3 iritziaren generoari dagozkio, aurrekoan erlazio hori %75,1 eta %24,9 izan zirelarik. Egunkariak banaka aztertuta, desberdintasun batzuk aipa ditzakegu, adibidez, BERRIAN iritzi-artikuluen portzentajea altuagoa da (%39,1); DIARIO DE NAVARRAN ere iritzi-artikuluek laginaren %38a osatzen dute eta GARAREN kasuan aztertu ditugun artikuluaren heren bat iritzi-sailekoak dira (37. Taula).

37. Taula: Informazioaren eta iritziaren arteko oreka, 2018

	(%) informazioa	iritzia	Guztira
DIARIO VASCO	72,0	28,0	100,0
EL CORREO	83,0	17,0	100,0
DIARIO DE NAVARRA	62,4	37,6	100,0
DEIA	75,2	24,8	100,0
GARA	66,2	33,8	100,0
DIARIO DE NOTICIAS	70,6	29,4	100,0
BERRIA	61,2	38,8	100,0
Guztira	72,7	27,3	100,0


N = 825 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autoreak.

5.2.2.3 Kazetaritza-generoak 2018an

Aurreko urteetan bezala, albistea izan da gehien erabili den kazetaritza-generoa, laginaren erdia baino gehiago (%53,3) albiste-formatukoa izan baita. Albistea formatu sinpleena da, errealitatearen isla zatitua ematen duena, testuinguru gutxikoa, eta ekarpen txikia egiten diona eztabaida sozialari. Bigarren postuan elkarriketak eta erreportajeak gelditu dira, lagina osoaren ia %20 betetzen baitute bien artean

Iritzi-sailean zutabeak nagusi izan dira honetan (%13,1), iritzi-artikuluena gainetik (%7,5) hurrengo grafikoan ikusi daitekeenez (17. Grafikoa: 2018an erabilitako kazetaritza-generoak).

17. Grafikoa: 2018an erabilitako kazetaritza-generoak



N = 824 itemak: informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea

Aztertutako egunkarien artean EL CORREO nabarmendu behar da; egunkari honetan albisten erabilpena oso altua izan da, %69,8koa, hau da, M8ari eskainitako tratamendua albisteetan finkatu da, eta oso gutxitan sakoneko eta landutako informazioetan, adibidez, 21 elkarrizketa eskaini ditu, laginaren %8,5a.

DIARIO VASCOK modu orekatuagoan erabili ditu genero hauek, albistek %43,9 izan badira ere, elkarrizketak %25 izan dira.

BERRIAK beste estrategia bat erabili du 2018ko M8ari buruzko estaldura egiteko, bere orrialdeetan oreka bat hauteman dugu kazetaritza-generoen erabileran, hala, egunkari honetan, albistek bere argitalpenen % 27 izan dira, eta elkarrizketak, berriz, %21,5; erreportajeak, % 11.

Iritziaren atalean Editorialek protagonismo berezia izan dute urte honetan, 13 Editorial irakurri ditugu zazpi egunkari hauetan. Egunkari bakoitzak gutxienez bana argitaratu du, BERRIAK izan ezik, azken honetan ez baitago Editorialik. Aurreko 35 urteetan 17 Editorial irakurri genituen guztira; beraz, joera-aldaketa nabaria gertatu da.

EL CORREOK eta DIARIO VASCOK hiru editorial argitaratu dituzte, horietako bat bi egunkariak partekatzen dute, martxoaren 10ekoa, «Resistencias a la igualdad»³⁹¹ lerroburu duena; bertan garatzen den ideia da, gobernuak berdintasunaren esparruan estrategiak aldatu behar dituztela, soldata-arrakalarekin behingoz amaitzeko eta genero-indarkeriaren kontrako paktuan konprometitutako 200 milioi euro erabiltzea. Aurreko egunean, grebaren arrakasta aztertzean, Berdintasunaz aritu zen DIARIO VASCOK, horrela dio:

«Quienes así opinan no acaban de entender que ha sido la visualización de que la igualdad de género es una utopía realizable lo que ha movilizado a las mujeres en demanda de lo que les pertenece como seres humanos. Las mujeres movilizadas advirtieron ayer que no están dispuestas a avanzar hacia su dignificación al exasperante ritmo que imponen los hombres desde las esferas de poder e influencia. Que quieren acelerar el cambio social promovido el 8- M. En adelante las agendas de las instituciones, de las empresas y de las organizaciones sociales no podrán postergar a las mujeres»³⁹².

Aurreko urteetan DIARIO DE NAVARRAK ez zion Editorialik eman M8ari, baina urte honetan bi Editorial irakurri ditugu, martxoaren 8an «La concienciación de las mujeres... y hombres»³⁹³, eta 9an «El desafío se libra a partir de hoy»³⁹⁴, azken honetan feminismoren aldarrikapenen garrantziaz ari da:

«Su éxito ha descolocado a más de uno. Han sido muchas las voces que han evidenciado desconcierto porque las reivindicaciones feministas hayan conectado con tantas mujeres en un tiempo en el que se han producido más avances que nunca en el terreno de la igualdad formal, y también en el de la igualdad real. Quienes así opinan no acaban de entender que ha sido, precisamente, la visualización de que la igualdad de género es una utopía realizable lo que ha movilizado a las mujeres en demanda de lo que les pertenece como seres humanos. Las mujeres movilizadas advirtieron ayer que quieren avanzar hacia su dignificación a un ritmo mayor»³⁹⁵.

³⁹¹ EL CORREO, 2018-03-1; 30. or eta DIARIO VASCO 2018-03-10; 24. or.

³⁹² DIARIO VASCO, 2018-03-09; 38. or.

³⁹³ DIARIO DE NAVARRA, 2018-03-08; 2. or.

³⁹⁴ DIARIO DE NAVARRA, 2018-03-09; 20. or.

³⁹⁵ EL DIARIO DE NAVARRA, 2018-03-09; 20. or.

DEIAK eta DIARIO DE NOTICIASEK bina Editorial dedikatu diete gure gaiari, bigarrenak, martxoaren 8koan, egun honetako alean gaiari eman dion garrantzia justifikatzen digu, azala eta 6 ataletan espazio berezia eskaini diola azaltzen du «*Igualdad de oportunidades y de trato*»³⁹⁶ lerroburupean.

Azkenik, GARAK Editorial bakarra ematen dio, martxoaren 9an, «*Valores y políticas que brotan de este impulso emancipador*» lerroburupean, non mugimendu feministaren lorpenak azpimarratzen dituen:

«Los avances realizados en las anteriores olas del feminismo, algunos tan importantes como la aportación realizada por las lesbianas o la lucha por los derechos reproductivos, son una base firme. A la exigencia de la paridad hay que sumarle una diversidad que tiene como ejes los derechos y la libertad. Existen condiciones objetivas para un gran cambio político y social. Traducir la fuerza de ayer en políticas feministas es una labor comunitaria de primer orden para la sociedad vasca»³⁹⁷.

Aurretik esan dugunez, iritzi-artikuluen portzentajea jaitsi da urte honetan, laginaren %7,5koa izan da, 62 iritzi-artikulu hain zuzen. Horietatik 11 DIARIO VASCON topatu ditugu, eta beste 16 EL CORREON, hau da, Vocento taldeko egunkariak laginaren %43,5a osatu dute. Bi egunkari hauek hainbat kolaboratzaileen testuak konpartitu dituzte, adibidez, Edurne Portela-ren «*Vuelta a los orígenes*»³⁹⁸, Elena Martínez de Madina-ren «*Traspasando los cabezos*»³⁹⁹ [sic] edota Carlos García de Andoin-en artikulua, «*Conseguir un avance efectivo de Igualdad*»⁴⁰⁰ eta «*El reto de avanzar hacia la Igualdad efectiva*»⁴⁰¹; izenburua aldatuta baina eduki berdina bi egunkarietan.

DIARIO DE NAVARRAN eta BERRIAN bederatzi iritzi-artikulu publikatu dira urte honetan eta DIARIO DE NOTICIASEN eta GARAN sei bakoitzeko, DEIAN bost testu.

Egiletzari begiratuta, artikuluen portzentaje handia, hamarretik zazpi pertsonai ezagunak idatzitakoak dira, kazetariak, soziologoak edota aktibistak. Agintari instituzionalen sinadura bi topatu dugu, Nekane Balluerkak, garai horretan

³⁹⁶ DIARIO DE NOTICIAS, 2018-03-08; 3. or.

³⁹⁷ GARA, 2018-03-09; 17. or.

³⁹⁸ DIARIO VASCO, 2018-03-08; 32. or. eta EL CORREO, 2018-03-08; 38. or.

³⁹⁹ DIARIO VASCO, 2018-03-08; 31. or. eta EL CORREO, 2018-03-08; 39. or.

⁴⁰⁰ DIARIO VASCO, 2018-03-09; 38. or.

⁴⁰¹ EL CORREO, 2018-03-09; 60. or.

UPV/EHUko Errektorea, idatzitako testua «*Adierazpenetik harago, berdintasuna ekintzen bidez eraikitzen da*» BERRIAN⁴⁰², GARA⁴⁰³, DEIA⁴⁰⁴ eta DIARIO VASCON topatu dugu, azken honek izenburua aldatu diolarik «*La igualdad se construye con hechos*»⁴⁰⁵. EMAKUNDEKO burua zen Izaskun Landaidaren iritzi-artikulua BERRIAN argitaratu zen bakarrik, «*Ikasitako lezioak*» lerroburupean. Testu honetan EMAKUNDEKO zuzendariak feministatzat definitzen du bere burua eta grebarako deialdiarekin bat egiten du: «*Bat gatoz gaur nazioarteko grebarako deia egin duen mugimendu feministaren aldarrikapenarekin, eta bakoitzak ahal duen neurrian jarraitzeko emandako aukerarekin*»⁴⁰⁶.

Egunkari bakoitzean argitaratutako zutabeen batez bestekoa 16 izan da, DIARIO DE NAVARRA izan ezik, 11 argitaratu baititu, osotara 108. Kasu honetan ere, gehien errepikatu den gaia emakumeen eskubide soziopolitikoak izan dira; zutabeen % 65 gai horretan kokatzen dira.

5.2.2.4 M8aren estaldura egunkarietako atalean 2018an

Urte honetan ere, aurreko epealdian gertatzen zen bezala, egunkariek tokiko orrialdeak erabili dituzte M8ari buruzko informazioa emateko. Konkretuki idatzitako artikuluen %31,1 tokiko-orrialdeetan topatu ditugu, aurreko aldi baino 4,2 puntu gehiago. Lau puntu horiek Gizarte-sailak galdu ditu, %18,5etik %14,6ra pasatuta. Orrialde pisutsuenetan, politikan eta ekonomian, aldaketa txikiak egon dira aurrekoarekin alderatuz, Ekonomia-saila %3an mantendu da eta Politikak, aldiz, beste lau puntu galdu ditu, %14,6an gelditu da. Bestalde, gehigarrien erabilpena nabarmen gutxitu da azken urte honetan, hauen presentzia ia anekdotikoa baita, apenas %2,4 gehigarri arrunta eta bereziak batuz gero, (18. Grafikoa).

⁴⁰² BERRIA, 2018-03-08; 18. or.


⁴⁰³ GARA, 2018-03-08; 11. or.

⁴⁰⁴ DEIA, 2018-03-08; 2. or.

⁴⁰⁵ DIARIO VASCO, 2018-03-08; 3. or.

⁴⁰⁶ BERRIA, 2018-03-08; 21. or.

18. Grafikoa: "Martxoaren 8a" gaia egunkarien atalen arabera



N = 824 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

Vocento taldeko egunkarietan nabarmena da tokiko orrialdeen erabilpena, DIARIO VASCON «*Al Día*» (%60) eta EL CORREON «*Ciudadanos*» (%44) sailletako orrialdeetan aurkitu ditugu artikuluen portzentajerik handienak. Hala ere ñabardura bat egin behar dugu, askotan orrialde hauetan gaiak nahastuta agertzen baitira, tokiko eta estatuko albisteak orrialde berean nahastuta. Adibide gisa, martxoaren 7an EL CORREOko 15. orrialdea ekarriko dugu, «*Ciudadanos*» atalean, non batetik «*El metro espera circular por encima del servicio mínimo, con uno de cada dos trenes*»⁴⁰⁷ lerroburuarekin Bilboko metroaz ari diren eta orrialde berean «*Fátima Bañez atribuye la brecha salarial a ser madre, no a ser mujer*»⁴⁰⁸ albistea irakurtzen dugu, hurrengo irudian ikusi dezakegunez:

⁴⁰⁷ EL CORREO, 2018-03-07; 15. or.

⁴⁰⁸ EL CORREO, 2018-03-07; 15. or.

13. Irudia: EL Correo, 2018-03-07; 15. orrialdea. Gai-nahasketa



Egunkari honek, «*Mujer, empleo y tecnología*» leloean, jardunaldi bat antolatatu zuen martxoaren 7an, arlo teknologikoan karrera bat landu duten emakumeak ezagutzera emateko. Esparru horretan nabarmendu diren emakume profesionalak bigarren hezkuntzako ikasleekin partekatu zituzten beren esperientziak. Jardunaldi honi buruzko informazioa ere «*Ciudadanos*» orrialdeetan aurkitu dugu

DEIA egunkarian hiru sailetan banatzen dira argitaratutako artikulua, batetik tokiko-orrialdeetan artikuluen %41 kokatu dira, Gizarte-sailean %28,6 eta Iritzi-sailean %18,1, hau da hamar artikuluetatik ia bederatz hiru sail hauetan kokatu dituzte. Ekonomia edo Politika sailean artikuluen, beraz, %1a agertu da.

Politikako orrialdeak gehien erabili dituzten egunkariak GARA eta DIARIO DE NAVARRA izan dira; bietan artikuluen %40 baino gehiago kokatu dituzte orrialde hauetan. GARAREN kasuan, ez dago tokiko informazioari dedikaturiko orrialderik, eta *Eguneko Gaia* deituriko sailean kokatu dira tankera honetako informazio gehienak, bigarren postuan Iritzia Saila agertu delarik. Egunkari honek M8ari dedikatu dio 12 orrialdeetako gehigarri berezi bat, Martxoaren 8an argitaratutakoa.

DIARIO DE NAVARRAREN kasuan artikuluko gehienak Politikari dedikaturiko orrialdeetan topatu ditugu (%42), eta honetan ere iritzia bigarren postuan geratzen da, (%33).

BERRIAK joera orekatuagoa mantendu du, bere argitalpenak sail desberdinetan bananduz, horrela Politikako orrialdeetan artikuluen %27,9 aurkitu ditugu, Iritzi sailean %29,4 eta Gizartean %19,1. Egunkari honetan ere gehigarri berezi bat argitaratu zen, zortzi orrialdeetako.

Urte honetan M8ak presentzia nabarmena izan du egunkarietako azaletan, eta orain arte agertu ez den eredu ia egunkari guztietan ikusi dugu zenbait egunetan, argazki handi batek betetzen duen azala, eta martxoaren 9an kasuan, bi orrialde, azala eta kontrazala bete dituztenak. Martxoaren 9ko eredu hau aztertutako egunkari guztietan topatu dugu, BERRIAN izan ezik, esan dugunez egunkari honek martxoaren 9an agerian utzi baitzuen egunkariko emakume langileen hutsuneak. Hurrengo irudietan bi kasu hauen irudiak.

14. Irudia: DIARIO DE NOTICIAS 2018-03-09, azal doblearen adibidea



15. Irudia: Berria 2018-03-09; Emakume kazetarien grebaren ondorioak



5.2.2.5 M8an landu diren gaiak 2018an

Aurrekoan esan bezala, bederatziko kategoria erabili ditugu M8aren inguruan erabili diren gaiak aztertzeko, bost orokorrak, 1) ekonomia, 2) politika, 3) gizartea, 4) kultura eta 5) kirola, beste hiru emakumeekin lotutako gai bereziak, 1) emakumeen kontrako indarkeria, 2) emakumeen eskubide soziopolitikoaren aldarrikapena eta 3) ugaltze-eskubideak, eta azken kategoria bat beste kontuez aritzen direnentzako sortu dugu.

Ondorengo taulan (38. Taula) ikusiko dugu nola banatzen diren gai hauek gure egunkarietan.

38. Taula: M8an egunkarietan landu diren gaiak

	(%)	Ekonomia	Politika	Gizarte- gaiak	Kultura	Kirola	Emakumeen kontrako indarkeria	Esk soziopolitikoak	Ugaltze- eskubideak	Beste	Guztira
DIARIO VASCO		12,1	8,3	2,3	12,1	6,8	5,3	50,8	0,0	2,3	100,0
EL CORREO		21,6	6,1	4,5	11,0	11,0	9,8	31,8	0,0	4,1	100,0
DIARIO DE NAVARRA		13,0	13,0	2,0	18,0	0,0	4,0	41,0	0,0	9,0	100,0
DEIA		13,3	1,0	4,8	17,1	4,8	5,7	45,7	0,0	7,6	100,0
GARA		7,0	2,8	1,4	18,3	1,4	1,4	66,2	0,0	1,4	100,0
DIARIO DE NOTICIAS		8,8	6,9	2,9	18,6	5,9	2,9	51,0	0,0	2,9	100,0
BERRIA		8,7	5,8	5,8	13,0	10,1	1,4	53,6	1,4	0,0	100,0
Guztira		14,1	6,4	3,5	14,6	6,7	5,6	44,9	0,1	4,1	100,0

N = 824 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

Aurreko epealdian emakumeen eskubide soziopolitikoaren aldarrikapena eta defentsa gai nagusia bazen, %27,4 betetzen zuelarik, oraingoan portzentaje hori %44,9raino igo da. Bigarren lekuan, baina oso urrun, beste bi gai agertzen dira, kultura-gaiak (%14,6) eta ekonomia-gaiak (%14,1), azken gai hau ez da landu ekonomia orrialdeetan, aurreko atalean ikusi dugun moduan, kultur-gaietan ere antzeko joera ikusten dugu.

Urte honetan emakumeen kontrako indarkeria oso gutxitan landu den gaia izan da, bakarrik artikuluen %5ean agertu da, eta ugaltze-eskubideak desagertutzat eman dezakegu %0,1ean.

Emakumeen eskubide soziopolitikoak egunkari guztietan izan da gai nagusia, baina ñabardura batzuk topatu ditugu, adibidez EL CORREON %31,8an agertu da gai hau eta, aldiz, GARA eskubide soziopolitikoak irakurritako artikuluen %66,2an agertu da.

Egunkari guztietan ere kultura eta ekonomia agertzen da bigarren eta hirugarren postuetan, GARA kultura bigarren postuan agertu da, laginaren %18,3 bete baitu. Gai honetan deigarria iruditu zaigu, martxoaren 11n egunkariaren azalean agertzen den liburu baten iruzkina, Iñaki Sotok GARAKO zuzendariak idatzitako «*bell hook, un punto de partida*⁴⁰⁹».

Iritzi artikuluen gai-zerrenda aztertzen badugu, emakumeen eskubide soziopolitikoaren presentzia are handiagoa da, %68,4koa, hau da hamar iritzi-artikuluetatik zazpi gai honi buruz hitz egin dute, eta joera hori nahiko uniformeak izan da guztietan, DIARIO DE NAVARRA eta EL CORREO izan dira gutxien landu dutenak (%52,6 eta %53,7 hurrenez hurren) eta gehien landu duena DEIA izan da, %88,5. Hau horrela izanda, landu diren beste gaiak ia ez dira agertu, adibidez, kulturari buruzkoak (%8), emakumeen kontrako indarkeria (%1,3) edota ekonomia (%6,7).

5.2.2.6 M8ko kazetarien eta iritzi-egileen generoa 2018an

Egunkarietako publikatutako artikuluen egileen generoaren azterketak adierazten digu oreka bat egon dela, hiru kategorien artean, emakume, gizon edota sinadurarik gabeko artikuluen artean, hurrengo taulan ikusten dugun moduan (39. Taula).

⁴⁰⁹ GARA, 2018-03-11; 1. or.

39. Taula: Egileen generoa, eduki guztiak barne (info+iritzi)

	(%)	Emakumea	Gizona	Ezezaguna	Guztira
EL Correo		21,2	22,9	55,9	100,0
Diario Vasco		37,1	38,6	24,2	100,0
Diario de Navarra		29,0	36,0	35,0	100,0
Deia		39,0	41,0	20,0	100,0
Gara		42,3	32,4	25,4	100,0
Diario de Noticias		41,2	34,3	24,5	100,0
Berria		50,7	43,5	5,8	100,0
Guztira		33,7	33,3	33,0	100,0

N = 824 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

Baina egunkariak banan-banan aztertuta, joera desberdinak agertzen dira honetan ere. EL CORREON artikuluen erdiek baino gehiagok ez daukate sinadurarik, (%55,6) eta beste muturrean BERRIA topatzen dugu, non sinadurarik gabekoak soilik %5,8 izan diren. Orokorrean gizonen eta emakumeen sinaduren artean oreka bat mantendu da; GARA izan da oreka hori pixka bat desbideratu duen egunkaria, honetan emakumeek artikuluen %42,3 sinatu dituzte eta gizonen %32,4; hamar puntuko aldea dago bien artean.

Iritziaren eta informazioaren egileen generoa aztertzen direnean ere aldaketa nabarmenak agertzen dira.

M8aren inguruko informazio gehienetan (%42,7) ez da agertzen kazetariaren generoa, sinatu gabekoak edota letra larriz sinatutako informazioak dira. Sinatutakoen artean emakumeek gutxiagotan sinatzen dute (%26,9) gizonen (%42,7), honek aldatzen du aurreko epealdiaren tendentzia, non gizonen sinadurak (%16,3) emakumezkoen erdia ziren (%30,2). Baina kontuan hartu behar dugu M8an hainbat emakume kazetari greba orokorrarekin batu zirela.

Hurrengo taulan (40. Taula) informazio-artikuluen sinadurak ikus ditzakegu:

40. Taula: informazio-egileen generoa

	(%)	Emakumea	Gizona	Ezezaguna	Guztira
EL Correo	12,7	21,6	65,7	100,0	
Diario Vasco	34,7	34,7	30,5	100,0	
Diario de Navarra	19,4	32,3	48,4	100,0	
Deia	34,2	41,8	24,1	100,0	
Gara	37,0	26,1	37,0	100,0	
Diario de Noticias	36,6	31,0	32,4	100,0	
Berria	47,6	42,9	9,5	100,0	
Guztira	26,9	30,4	42,7	100,0	

N = 599 item; informazioa bakarrik. Iturria: autorea.

Atal honetan EL CORREOREN kasua nabarmendu nahi dugu, non informazioaren bi herenak sinatu gabeko artikulak izan diren, eta sinatutakoen artean nagusiki gizonak sinatu dituzte informazio hauek (%21,6). DIARIO DE NAVARRAN sinadurarik gabe informazioen ia erdia argitaratu da, (%48,4 hain zuzen). Beste aldean, berriz ere, BERRIA daukagu, non sinatu gabeko informazioen portzentajea oso txikia izan den (%9,5). Egunkari honetan gizonen (%42,9) eta emakumeen (%47,6) arteko sinadurak oreka bat mantentzen dute.

Iritzi-artikuluen sinadurak aztertzeak berriz beste egoera bat irudikatzen digu. Honetan nagusiki emakumeak agertzen dira sinaduretan, (%52,0). Tendentzia hau egunkari guztietan mantentzen da DIARIO VASCON izan ezik, non gizonen sinadurak (%48,6) gehiago dira emakumeenak baino (%43,2).

Datu hauek aldaketa bat suposatzen dute aurreko epeko joera batzuekin, adibidez, EGINEN eta GARAN emakumeen sinadurak %82 izan ziren eta BERRIAN %87,6. Bi egunkari hauetan joera nabarmen aldatu da, eta orain gizonen parte-hartze handiagoa izan da iritzi-sailetan, (41. Taula).

41. Taula: iritzi-artikuluaren egileen generoa

	(%)	Emakumea	Gizona	Ezezaguna	Guztira
EL Correo		63,4	29,3	7,3	100,0
Diario Vasco		43,2	48,6	8,1	100,0
Diario de Navarra		44,7	42,1	13,2	100,0
Deia		53,8	38,5	7,7	100,0
Gara		52,0	44,0	4,0	100,0
Diario de Noticias		51,6	41,9	6,5	100,0
Berria		55,6	44,4	0,0	100,0
Guztira		52,0	40,9	7,1	100,0

N = 225 item; bakarrik iritzia. Iturria: autorea.

5.2.2.7 M8ko egileen rola 2018an

Batetik informazio-egileek betetzen dituzten rol profesionalak eta bestetik iritzi-egileek noren izenean hitz egiten duten aztertuko dugu atal honetan, urte honi dagokionez ere.

Kazetariak informazio-artikuluaren %60,6 sinatu dituzte, eta idazgelak sinatutakoak, hau da sinadura gabekoak, %34,9 izan dira, bien artean %95 baino gehiago. Informazio-agentzien presentzia ez da %5era ailegatzen. Ez da aditurik edo bestelako sinadurarik agertu epealdi honetan. (42. Taula).

42. Taula: Informazio-egileen rola

	(%)	agentzia	Idazgela	kazetaria	Guztira
EL Correo		1,0	64,7	34,3	100,0
Diario Vasco		0,0	27,4	72,6	100,0
Diario de Navarra		14,5	25,8	59,7	100,0
Deia		10,1	10,1	79,7	100,0
Gara		0,0	30,4	69,6	100,0
Diario de Noticias		11,3	15,5	73,2	100,0
Berria		0,0	4,8	95,2	100,0
Guztira		4,5	34,9	60,6	100,0

N = 831 item; bakarrik informazioa. Iturria: autorea.

Bi joera nagusi ikusten ditugu egunkarien jokoan, batetik informazio-agentziak erabili dituztenak: DIARIO DE NAVARRAK informazioaren %14,5 agentzietatik jaso ditu, DIARIO DE NOTICIAS-ek %11,3 eta DEIAK %10,1. Beste batetik, agentziarik

erabili ez dituztenak, DIARIO VASCO, GARA eta BERRIA. EL CORREOK ere ildo honetan sar dezakegu, agenzietatik %1 besterik ez baitu jaso.

Egunkari guztietako joera informazioak sinatzea izan da hein handi batetan, EL CORREON izan ezik. Egunkari honetan informazioen %64,7 sinatu barik agertu da.

Iritzi-sailean aurreko epealdiarekin alderatuz joera batzuk aldatu dira. Taldeek sinatutako artikulua, esan bezala, mugimendu sozial, politiko edo sindikalak baita elkarte edo GKEek sinatutako artikuluen garrantzia %6,2ra jaitsi da, aurreko epealdian bost bider gehiago agertzen zirelarik (%31,3). Talde hauen artikulua presentzia nabaria izan dute DIARIO DE NOTICIAS egunkarian (%19,4) eta GARA (%12,0), txikiagoa BERRIAN (%7,4) eta oso txikia besteetan (%3 baino gutxiagokoa).

Urte honetan zutabegileak nagusitu dira iritzi-emaileen artean, (%47,6). Hiru egunkari gelditu dira portzentaje honen azpitik, EL CORREO, non zutabegileen artikulua %39 izan diren, DIARIO VASCO (%40,5) eta portzentaje txikiena DIARIO DE NAVARRAN topatu dugu (%28,9).

Pertsonaia nabarmenek sinatutako artikuluek, berriz, gora egin dute urte honetan, %20raino. Hauetan hainbat aditu topatu ditugu, adibidez Filosofiaz idatzi du Elena Martinez de Madina-k «*Emazteen kaltez*»⁴¹⁰ artikuluan edo Psikologiaz Rosa Ramos-ek «*Una desigualdad estructural sostenida en el tiempo y normalizada*»⁴¹¹ artikuluan. Artikulu hauek garrantzi berezia hartu dute EL CORREON, non publikatu duten iritzien %36,6ko portzentajea bete dute. Beste muturrean DIARIO DE NOTICIAS egunkaria topatzen dugu, non %3,2 besterik ez dira izan, (43. Taula

Agintari instituzionalek 2018an ez dute presentzia handirik izan, EMAKUNDEKO Lehendakariaren iritzi-artikulu «*Ikasitako lezioak*»⁴¹² bakarrik agertu zen BERRIA egunkarian, eta Nekane Balluerkak, UPV/EHUko Errektoreak idatzitakoa izenburu desberdinekin DIARIO VASCON⁴¹³, DEIAN⁴¹⁴, GARA⁴¹⁵ eta BERRIAN⁴¹⁶ agertu zen.

⁴¹⁰ BERRIA, 2018-03-11; 48. or.

⁴¹¹ DIARIO DE NAVARRA, 2018-03-08; 15. or.

⁴¹² BERRIA, 2018-03-08; 21.orr.

⁴¹³ DIARIO VASCO, 2018-03-08; 30. or. Kasu honetan izenburua aldatzen dute, «La igualdad se construye con hechos».

⁴¹⁴ DEIA, 2018-03-08; 2. or.

⁴¹⁵ GARA, 2018-03-08; 11. or.

⁴¹⁶ BERRIA, 2018-03-08; 18. or.

Pertsona ezezagunak sinatutako artikuluek presentzia nabarmena daukate DIARIO DE NAVARRA egunkarian, aurreko epealdian gertatu zen bezala, urte honetan gai honi buruz zuzendariari bidalitako eskutitzak iritzi-artikuluen %26,3 izan dira. DIARIO VASCO bigarren postuan agertzen da, publikatutako iritzi- artikuluen %21,6 eskutitzak izan dira.

43. Taula: Iritzi-egileen rolak

	Agintari (%)	Agintari			Pertsonai				Guztira
		Agentzia	instituzionala	Idazgela	Kazetariak	nabarmena	Taldea	Zutabegilea	
EL Correo	0,0	0,0	7,3	0,0	36,6	2,4	39,0	14,6	100,0
Diario Vasco	0,0	2,7	8,1	0,0	24,3	2,7	40,5	21,6	100,0
Diario de Navarra	2,6	0,0	10,5	2,6	26,3	2,6	28,9	26,3	100,0
Deia	0,0	3,8	7,7	3,8	11,5	0,0	61,5	11,5	100,0
Gara	0,0	4,0	4,0	4,0	8,0	12,0	68,0	0,0	100,0
Diario de Noticias	0,0	0,0	6,5	0,0	3,2	19,4	54,8	16,1	100,0
Berria	0,0	7,4	0,0	11,1	18,5	7,4	55,6	0,0	100,0
Guztira	0,4	2,2	6,7	2,7	20,0	6,2	47,6	14,2	100,0

N = 275 item; bakarrik iritzia. Iturria: autorea.

5.2.2.8 M8ko artikuluen tamaina

Garrantzitsua izaten da artikuluen tamaina ezagutzea, horrek gaiari eman zaion garrantziaren adierazle bat delako. Aurreko epealdian artikulua gehienak txikiak (%37,3) edo oso txikiak baziren (%7,3) oraingoan ere artikulua txikiak (%26,0) eta oso txikiak (%22,6) laginaren ia erdia bete dute. Urte honetan artikulua oso txikien portzentajeak gora egin du nabarmen aurrekoarekin alderatuz (44. Taula).

Beste aldaketa nabarmen bat ikusten da urte honetan. Tamaina oso handiko artikulua, hau da, orrialde bat baino gehiago bete dituzten artikulua, %13 izan dira, aurreko epealdian baino lau aldiz baino gehiago. Hauen artean kokatu dira Martxoaren 9ko azalak, kontrazalak ere bete dituztenak. Egun horretan ere, grebaren eta manifestazioen kronikak orrialde bat baino gehiago bete dute hainbat egunkaritan.

44. Taula: Artikuluen tamaina

	(%)	Oso Handia	Handia	Ertaina	Txikia	Oso txikia	Guztira
Diario Vasco	11,4	19,7	18,9	31,1	18,9	100,0	
EL Correo	9,0	12,2	14,7	10,6	53,5	100,0	
Diario de Navarra	9,0	10,0	33,0	32,0	16,0	100,0	
Deia	21,0	20,0	15,2	34,3	9,5	100,0	
Gara	12,7	26,8	18,3	40,8	1,4	100,0	
Diario de Noticias	23,5	8,8	32,4	33,3	2,0	100,0	
Berría	17,4	23,2	34,8	23,2	1,4	100,0	
Guztira	13,7	15,9	21,8	26,0	22,6	100,0	

N = 824 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

EL CORREON artikuluen %53,5 oso txikiak izan dira, martxoaren 8an egunkarian egindako planifikazioan ikusi dugu oso argi. Egun horretako alean, orrialde gehienetan tamaina oso txikiko artikulua informatiboak publikatu zituen, pertsona anonimo eta ezagunen, gizon zein emakume, aitortzekin, edo M8arekin lotura zeukaten albisteekin:

16. Irudia: EL Correo. 2018-03-08; 7. or.

Jueves 08.03.18
EL CORREO

CIUDADANOS 7

La 'niña sin miedo' se despide hoy de Wall Street, pero seguirá expuesta

Apareció por sorpresa el año pasado, en la víspera del 8 de marzo, plantando cara a otra escultura de bronce: el famoso toro de Wall Street. 'La niña sin miedo', obra de la artista Kristen Visbal, es una iniciativa de un fondo de inversión en favor de la diversidad de género en las empresas (la placa de la estatua habla del «poder de la mujer en el liderazgo») y se ha ganado el cariño de muchos neoyorquinos, que consiguieron que la dejaran ahí durante un año. Hoy es su último día en Wall Street, pero el Ayuntamiento ya ha confirmado que se exhibirá en otro lugar todavía por determinar.

46,8%
de las treintaeras tienen formación superior

La universidad tiene un perfil cada vez más femenino. Según el INE, el 46,8% de las mujeres españolas de 30 a 34 años han alcanzado el nivel de educación superior, frente al 33,5% de los hombres. La cifra de ellas mejora en tres puntos la media femenina de la UE, mientras que la de ellos se sitúa un punto por debajo de la masculina. Continúa, eso sí, la preferencia de las estudiantes por determinadas carreras: constituyen el 69% del alumnado en Ciencias de la Salud y el 61% en la rama de Artes y Humanidades, pero menos del 30% en Ingeniería, industria y construcción.

se adopten medidas de conciliación, si siempre se dirigen a las mujeres se perpetúa el estigma de que son ellas las que deben llevar los cuidados», afirmó Cristina Mendia, directora de Igualdad en la empresa de servicios sanitarios. «Tenemos que velar por que no se siga asociando conciliación laboral con mujer con hijos».

Se entrega el autor del apuñalamiento de un joven en Barakaldo

Detienen a dos menores de 16 años por atracar farmacias y un 'súper' a punta de pistola

... A. H. sus rostros con buff y chotos y que

Egunkari honetan tamaina handiko artikuluak (% 12,2) eta oso handiak (%9) izan dira, laginaren bosten bat.

DIARIO DE NAVARRAK artikulu handien portzentajerik txikiena publikatu du, artikulu oso handiak egunkarian agertu direnen %9 izan da, eta handiak %10.

BERRIAN, GARAN eta DEIAN topatu dugu artikulu handien edo oso handien portzentajerik handiena. Egunkari hauetan tamaina handiko edo oso handiko artikuluak laginaren %40 inguru izan dira. Aurreko epealdian portzentaje hauek txikiagoak izan ziren, adibidez, BERRIAN %27,7koa, GARAN %29koa eta DEIAN %16,8koa.

Esan dezakegu 2018an M8ari dedikatutako artikuluen tamaina handiagoa izan dela orokorrean, EL CORREO, eta neurri txikiagoan DIARIO DE NAVARRA, salbuespenak badira ere.

5.2.3 Irudien azterketa 2018ko martxoaren 8aren inguruan

Azpiatal honetan, hainbat alderdi ikertzen dira: 1) zenbat irudi eta zer motakoak argitaratu diren 2) irudi-egileen generoa eta 3) irudien edukia, protagonistak, kokapenak eta irudien dinamikak.

5.2.3.1 Argitaratutako irudi-kopuruak 2018an

Aldaketa oso nabarmena eman da honetan irudi eta testuen arteko oreka aztertzen badugu aurreko epealdiarekin alderatuz. Urte honetan irudi gehiago (%55,6) publikatu dira testuak (%44,4) baino; aurreko epealdian, aldiz, irudiak %40 izan ziren, hau da, oraingoan hamalau puntu igo da portzentajea. Kopuruei so

eginez, aurreko epealdi osoan 749 irudi argitaratu baziren, urte honetan 1030 izan dira, hau da, ia 200 argazki gehiago. Beste datu bat gehitu behar dugu, 2013an 139 irudi argitaratu ziren, urte honetako %13. Esan dezakegu, kuantitatiboki, jautzia ikusgarria izan dela irudi-kopuruei dagokienez ere.

Bi egunkari nabarmendu dira irudien erabilpen honetan, DEIA (%65,1) eta DIARIO DE NOTICIAS (%63,3), biak mediatik oso gainetik. Mediatik urrun gelditu da GARA egunkaria ere, baina beste muturrean, irudien portzentajerik txikiena argitaratu baitute, %45,8 (45. Taula: irudien eta testuen kopuruak eta portzentajeak).

DIARIO DE NAVARRAN, eta baita DIARIO VASCON ere neurri txikiagoan, irudien eta testuen arteko ia oreka perfektua ikusten dugu, kategoria bakoitzean %50tik oso hurbil.

45. Taula: irudien eta testuen kopuruak eta portzentajeak

	Irudia		Testua		Guztira	
	N	%	N	%	N	%
DIARIO VASCO	138	51,1	132	48,9	270	100,0
EL CORREO	284	53,7	245	46,3	529	100,0
DIARIO DE NAVARRA	98	49,5	100	50,5	198	100,0
DEIA	196	65,1	105	34,9	301	100,0
DIARIO DE NOTICIAS	176	63,3	102	36,7	278	100,0
GARA	60	45,8	71	54,2	131	100,0
BERRIA	78	53,1	69	46,9	147	100,0
Guztira	1030	55,6	824	44,4	1854	100,0

N= 1854. Testuak eta irudiak Iturria: autorea.

5.2.3.2 Irudi-motak eta tamainak 2018an

Irudien sailkapena egiteko bost kategoria erabili ditugu, argazkiak, binetak, grafikoak, infografiak eta marrazkiak. Berriz ere epealdi honetan argazkiak (%93,6) izan dira gehien erabili den errekurtsua, aurreko epealdiarekin konparatzen badugu %4 puntu gehiago. Bigarren postuan binetak agertzen dira, %3 izan baitira. Marrazkiek zeukaten garrantzi-apurra galdu dute, eta %1,9 bete dituzte urte honetan, aurrekoan %5,9a izan baitziren. (46. Taula).

46. Taula: Irudi-mota

	(%)	argazkia	Bineta	Grafikoa	infografia	Marraskia	Guztira
Diario Vasco	89,9	2,9	0,7	1,4	5,1	100,0	
EL Correo	96,1	2,1	0,4	0,4	1,1	100,0	
Diario de Navarra	84,7	7,1	0,0	3,1	5,1	100,0	
Deia	95,9	2,6	0,0	0,5	1,0	100,0	
Gara	86,7	6,7	0,0	6,7	0,0	100,0	
Diario de Noticias	97,7	1,1	0,0	1,1	0,0	100,0	
Berria	92,3	3,8	0,0	0,0	3,8	100,0	
Guztira	93,6	3,0	0,2	1,3	1,9	100,0	

N = 749 irudi. Iturria: autorea.

Atal honetan bateratasun handia dago egunkarien artean, argazkien portzentajea oso handia baita egunkari guztietan, %85 baino gehiago. Grafikoak eta infografiak ia ez dira erabili urte honetan.

Egunkari guztietan bineta bat baino gehiago argitaratu dira aste honetan M8arekin lotuta: DIARIO DE NAVARRAN 7 izan dira, DEIAN 5, GARA eta DIARIO VASCON 4 eta BERRIAN 3. EL CORREOK eta DIARIO VASCOK Zulet-en binetak konpartitu dituzte lau egunetan (Martxoak 7,8,10 eta 11) eta Antón-ek EL CORREON beste bi argitaratu ditu, 8an eta 10ean.

Irudien tamainari erreparatzen badiogu, irudi gehienak txikiak (%31,6) edo oso txikiak (%40,5) dira urte honetan, hau da, argitaratu diren irudietatik %70 baino gehiago tamaina txikiko irudiak izan dira.

Argazki oso handiak agertu dira ere, bi orrialdeetan zabaltzen diren argazkiak. Hauek, batez ere Martxoaren 9an ikusi ditugu, manifestazioen argazkiak bai azaletan eta baita manifestazio horien kroniketan ikusi ditugu.

5.2.3.3 Irudi-egileen generoa 2018an2018an

Irudi-kopurua gehitu arren, irudi-egileen generoan ez da aldaketarik egon. Emakumeek sinatutako irudien portzentajea %8,9koa izan da urte honetan, aurreko epealdiaren ia berdina (%8,7koa). Gizonak irudien %47,7a sinatu dituzte eta sinatu gabekoak %43,4koa da, aurreko epealdiaren antzekoak hauek ere (47. Taula).

47. Taula Irudi-egileen generoa

	(%)	Emakumea	Gizona	Ezezaguna	Guztira
EL Correo	3,9	35,9	60,2	100,0	
Diario Vasco	2,9	70,3	26,8	100,0	
Diario de Navarra	3,1	41,8	55,1	100,0	
Deia	6,6	38,8	54,6	100,0	
Gara	8,3	65,0	26,7	100,0	
Diario de Noticias	27,8	49,4	22,7	100,0	
Berria	9,0	62,8	28,2	100,0	
Guztira	8,9	47,7	43,4	100,0	

N = 1030 irudi. Iturria: autorea.

Emakumeek sinatutako irudiak %5 baino gutxiago izan dira hiru egunkarietan, EL CORREON (%3,9), DIARIO DE NAVARRAN (%3,1) eta DIARIO VASCON (%2,9); azken honetan gizonak hamar irudietatik zazpi sinatu dituzte. BERRIAN eta GARA gizonetzkoen sinadurak irudien %60 inguru dira.

Itxurazko aldaketa DIARIO DE NOTICIASen eskutik dator, non irudien % 27,8 emakume baten sinadurapean agertzen diren. Baina datu hori pixka bat zehaztu behar da; izan ere, emakumeek sinatutako argazkiak M8ko paperari buruzko kaleko inkesta batenak dira, eta argazkilari horrek ez du besterik sinatu egun hauetan.

Nahiz eta bineta-egile berriak agertu, egileak oraindik ere gizonak dira kasu batean izan ezik. DIARIO DE NAVARRAN, kultura-atalean agertutako bineta baten egilea *Srta Sifonier* ezizenez sinatutako tira txiki bat topatu dugu, «*Las recetas que no haré el 8 de marzo*»⁴¹⁷, non emakume bat agertzen den, eskua altxatuta pankarta txiki batekin, «*el Día 8 no cocinamos*» esaldiarekin. Hala ere, iritzi-sailean binetagine gizonak besterik ez ditugu aurkitu.

5.2.3.4 Irudien protagonistak 2018an

Urte honetan ere, emakumeak protagonista nagusiak izan dira publikatutako irudietan, emakume bakarrak %39,2 izan dira eta taldeka %33,8; aurrekoarekin konparatuz ez dago alde handirik, ia berdinak izan dira. Talde anitzak ere aurreko epealdiaren antzekoak izan dira, %13,4. Gizonen presentzia, taldeka zein banakako argazkietan,% 8,4ra baino ez da iristen (48. Taula).

⁴¹⁷ DIARIO DE NAVARRA, 2018-03-06; 64. or.

48. Taula: irudien protagonistak

	(%)	Ema. bat	Ema.- talde	Giz. bat	Giz.- talde	Talde anitza	Ez/d	Guztia
Diario Vasco		25,4	41,3	8,0	3,6	8,0	3,6	100
EL Correo		54,9	20,8	7,7	1,1	7,7	1,1	100
Diario de Navarra		23,5	37,8	3,1	0,0	32,7	0,0	100
Deia		49,0	29,1	7,7	1,0	7,7	1,0	100
Gara		16,7	55,0	6,7	3,3	6,7	3,3	100
Diario de Noticias		30,7	40,3	13,1	0,0	13,1	0,0	100
Berria		38,5	43,6	5,1	2,6	5,1	2,6	100
Guztira		39,2	33,8	8,0	1,4	13,4	4,3	100

N = 1030 irudi. Iturria: autorea.

Aurten aztertutako egunkari guztietan emakumeak %60tik gorako portzentajea izan dira protagonista. BERRIAN emakumeei protagonismo berezia ematen diote, portzentaje hori %82,1eraino igotzen baita. DEIAN ere protagonismo hori nabarmendu daiteke (%78,1).

GARAN emakume-taldeak agertzen diren irudiak gailentzen dira, %55etik gorako portzentajearekin; talde-argazki horiek data seinalatu honetan, emakumeen borroka kolektiboaren garrantzia erakusten digute. Beste muturrean EL CORREO ageri da, non emakumeen talde-irudiak laginaren % 20 baino ez diren.

DIARIO DE NAVARRAN talde anitzak edo mistoen portzentajea nabarmen igotzen da, %32,7raino, DIARIO DE NOTICIASen %13,1ekoa da; beste egunkari guztietan portzentaje hori %10en azpitik geratu da.

5.2.3.5 Irudien kokapena 2018an

Argazkien testuingurua aztertu dugu, irudiak, infografiak, grafikoak eta binetak aparte utziz⁴¹⁸, hau da, zein da argazkietan agertzen den eskenatokia, horretarako sei eremu definitu ditugu metodologian.

Eremu publikoa (%58,7) eta errebindikazioa (%30,5) izan dira nagusiki agertu diren agertokiak urte honetako irudietan, hurrengoan-ian eremua izan da %6,2rekin. Esan dezakegu beste guztiak ia desagertutzat jo daitezkeela. (49. Taula).

⁴¹⁸ Huetan askotan ez dago testuingururik

Baina egunkari guztiek ez dute berdin jokatu atal honetan. DEIAN, adibidez, errebindikazioaren agertokiek %17 bete dute, eta lan-eremuak agertzen diren irudiek media bikoiztu dute, %12,2koa izan baita. Egunkari honetan eremu publikoa ere mediatik gora agertu da, eta laginaren %65,4 bete du. EL CORREOK errebindikazio- eremuari (%21,2) garrantzi gutxi eman dio, eremu publikoari (%69,7) emandakoarekin alderatuz.

Beste muturrean GARA dago, non errebindikazioak laginaren %59,6 bete duen, media bikoiztuz. Egunkari honetan eremu publikoan egindako argazkiak %34,6 izan dira. BERRIAN bi eremu hauek %97,2 bete dute.

49. Taula: irudien kokapena

	Eremu (%) Pribatuak	Lan eremuak	Aisialdia	Eremu publikoa	Errebindi-kazioa	Beste	Guztira
Diario Vasco	0,0	4,8	0,8	57,3	36,3	0,8	100,0
EL Correo	2,9	1,5	3,7	69,6	21,2	1,1	100,0
Diario de Navarra	0,0	7,2	0,0	47,0	44,6	1,2	100,0
Deia	0,5	12,2	1,1	65,4	17,0	3,7	100,0
Gara	0,0	3,8	0,0	34,6	59,6	1,9	100,0
Diario de Noticias	2,3	10,5	0,0	50,6	34,3	2,3	100,0
Berria	0,0	1,4	0,0	52,8	44,4	1,4	100,0
Guztira	1,3	6,2	1,3	58,7	30,5	1,9	100,0

N = 1030 irudi. Iturria: autorea.

5.2.3.6 Irudien dinamika 2018an

Irudiekin lotutako azken bi taula aztertuko ditugu, argazkietan agertzen diren protagonista horien jarreretan finkatu dugu begirada, jarrera aktiboan edo pasiboan agertzen diren, hau da, posatuak diren edota zerbait egiten agertzen diren (50. Taula). Ez dago aldaketa handirik aurtengo epealdiaren gertatutakoarekin. Bertan ikusiko dugu argazki posatuak edo pasiboak %41,7 direla, eta pertsona aktiboak erakusten dituztenak argazkien %53,8.

50. Taula: argazkien dinamika

	(%)	Aktibo	Pasibo	Ez dagokio	Guztira
Diario Vasco	50,7	40,6	8,7	100,0	
EL Correo	41,9	54,6	3,5	100,0	
Diario de Navarra	59,2	35,7	5,1	100,0	
Deia	59,7	37,2	3,1	100,0	
Gara	70,0	21,7	8,3	100,0	
Diario de Noticias	52,3	44,9	2,8	100,0	
Berria	71,8	24,4	3,8	100,0	
Guztira	53,8	41,7	4,5	100,0	

N = 1030 irudi. Iturria: autorea.

GARAN eta BERRIAN agertzen diren argazkien hamarretik zazpitan jarrera aktiboa daukaten pertsonak agertzen dira, datu hau EL CORREOREN jokaerarekin kontrastatzen du, non hamarretik lauk bakarrik islatzen dituzten jarrera aktibo hori.

DEIA eta DIARIO DE NAVARRA egunkarietan ere jarrera aktiboa islatzen duten irudiak jarrera pasiboa erakusten dutenen gainetik agertzen dira.

Bigarren azterketa gorputzaren tratamendua izan da. Jakin badakigu emakumeen gorputza askotan zatikatuta agertzen dela. Hau publizitatean askotan ematen den fenomeno izanik, kazetaritzan ere batzuetan ikusten da. Hurrengo taulan horren lekukoa dago. Hala ere esan dezakegu jokaera hau urte honetan desagertu dela eta bakarrik laginaren %0,78ko irudietan agertu dela emakume baten irudia zatikatuta (51. Taula).

51. Taula: Gorputzaren tratamendua

	(%)	Ez dagokio	Osoa	Zatikatuta	Guztira
Diario Vasco	8,7	91,3	0,0	100,0	
EL Correo	3,9	94,7	1,4	100,0	
Diario de Navarra	3,1	95,9	1,0	100,0	
Deia	3,1	95,9	1,0	100,0	
Gara	10,0	88,3	1,7	100,0	
Diario de Noticias	2,8	97,2	0,0	100,0	
Berria	3,8	96,2	0,0	100,0	
Guztira	4,47	94,76	0,78	100,0	

N = 1030 irudi. Iturria: autorea.

Esan dezakegu irudi hauen sinbologiek emakumeen borroka islatu dutela hainbatetan, adibidez, EL CORREON ikusi ditugun eskuak⁴¹⁹, DIARIO DE NAVARRAN⁴²⁰ ikusitakoak edota Tasiok GARAN argitaratutako binetak⁴²¹:

⁴¹⁹ EL CORREO, 2018-03-09;30. or.

⁴²⁰ DIARIO DE NAVARRA, 2018-03-09; 7. or.

⁴²¹ GARA, 2018-03-09; 17. or.


17. Irudia: EL Correo



18. Irudia: Diario de Navarra



19. Irudia: Gara, Tasioren bineta



5.2.4 Interpretazio-markoak 2018an

Aurretik esan genuen bezala, hiru enkoadre- edo *frame*-tipologia aztertu dira: *Tematiko-episodiko* edo *gai-gertaeraren enkoadrea*, *Generoaren Araberako enkoadrea* eta *Feminismoaren enkoadrea*. Aztertuko dugu orain nola gauzatu diren hiru enkoadre hauek 2018an argitaratutako artikuluetan.

5.2.4.1 Interpretazio-enkoadreak “gai-gertaera” binomioan, 2018an

Aurretik esan dugunez, enkoadre hau dikotomikoa da, batetik tematikoa edo gaikakoa eta bestetik enkoadre episodikoa edo gertaerazkoa.

Urte honetan gertaerazko enkoadrea nagusitzen da, (%51,7), aurreko epealdian ez bezala (%46,8). Honek adierazten digu ebentu konkretuetan oinarritutako informazio-itelak nagusi izan direla, artikulua hauek indibiduoetan ipintzen dute fokoa, gai pertsonaletan. Gaikako fokatzean (%48,3) analisi edo abstrakzio gehiago dago, honetan informazio-gai nagusiak tendentzia orokorrak dira, M8ari eta emakumeen egoerari buruz ikuspegi sakonagoa ematen dute. (52. Taula).

52. Taula: Gaikako eta Gertaerak enkoadreak informazioan eta iritzian

	(%)	GAIKAKOA EDO TEMATIKOA	GERTAERAZKOA EDO EPISODIKOA	GUZTIRA
Diario Vasco	58,3	41,7	100,0	
EL Correo	30,6	69,4	100,0	
Diario de Navarra	49,0	51,0	100,0	
Deia	50,5	49,5	100,0	
Gara	59,2	40,8	100,0	
Diario de Noticias	51,0	49,0	100,0	
Berria	72,5	27,5	100,0	
Guztira	48,3	51,7	100,0	

N = 824 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

EL CORREO egunkariak nagusiki enkoadre episodikoa edo gertaerazkoa erabiltzen du, ia hamar artikuluetatik 7 holakoak dira. Gogoratu behar dugu EL CORREO artikulua gehien publikatu duen egunkaria izan dela, baina baita tamaina txikiko artikulua nagusitu direla egunkari honetan.

Gaikako enkoadrea, aldiz, BERRIAN (%72,5) GARAN, eta DIARIO VASCON nagusitu da, azken bi hauetan %60tik oso gertu geratu da. Bai BERRIAK eta baita GARAK aurreko epealdian bete zituen antzeko portzentajetan gelditu dira, DIARIO VASCON, aldiz, ia sei puntutan igo da portzentajea.

Iritzia enkoadre tematikoan kokatu dugu beti, beraz argazkia hobeto enfokatzeko enkoadre hau informazio-artikuluetan nola moldatu den aztertu behar dugu (53. Taula) .

53. Taula: Gaikako eta Gertaerazko enkoadreak informazioan

	(%)	GAIKAKO MARKOA	GERTAERAZKO MARKOA	GUZTIRA
Diario Vasco		43,2	56,8	100,00
EL Correo		16,7	83,3	100,00
Diario de Navarra		17,7	82,3	100,00
Deia		34,2	65,8	100,00
Gara		37,0	63,0	100,00
Diario de Noticias		29,6	70,4	100,00
Berria		54,8	45,2	100,00
Guztira		29,0	71,0	100,00

N = 599 item; informazioa bakarrik. Iturria: autorea.

Hemen gauzak aldatzen dira, gaikako enkoadrea ez da heren batera ailegatzen, %29an gelditzen baita. Beraz, esan dezakegu 2018an M8az informatzeko modua axalekoa izan dela, sakontasun gutxikoa eta analisirako leku txikia utzi dela. Hala ere, egunkariak banan-banan begiratuta, joera hau ez da uniforme izan, desberdintasun nabarmenak topatu ditugu.

Gertaerazko enkoadrea gehien erabili duten egunkariak EL CORREO eta DIARIO DE NAVARRA izan dira, %83 inguru, hau da, hamar informazioetatik zortzitan informazioa indibiduotan oinarritu da, eta ez erantzukizun sozial batean.

Vocentoko beste medioan, DIARIO VASCON, orekatuagoa izan da bi *frame* hauen erabilera, gertaerazkoak %56,8 bete baitu.

Egunkari batek joera hau aldatu du, BERRIAK. Kasu honetan gaikako tratamendua %54,8koa izan da, hau da, informazioen erdiak baino gehiagokoa. Lotu dezakegu datu hau aurretik emandako beste batekin, BERRIA egunkariak elkarrizketa eta erreportaje ugari publikatu baitu urte honetan, kazetaritza-genero horiek erabiltzeak M8a prozesuaren eta testuinguruaren inguruan sakontzea ahalbidetzen du.

Eskubide soziopolitikoak gai nagusia izan da urte honetan; gai honetan gertaera-enkoadrea nagusitzen da eta bost informazioetatik bakar bat kokatzen da gaikako enkoadrea. Beraz, esan dezakegu manifestazioen eta beste ekintzen informazio soila, testuinguru zabal batean kokatu barik, izan direla gehien irakurri diren berriak M8 honetan. EL CORREOK eta DIARIO DE NAVARRAK muturrera eramaten

dute enkoadre hau eta hamar informazioetatik bederatzi enkoadre honetan kokatu dira.

Berriz ere BERRIAK joera honekin apurtzen du eta gaikako enkoadrea erditik gora kokatzen da, %56an eskubide soziopolitikoak lantzen dituzten informazioetan.

5.2.4.2 Generoaren markoa 2018an

Esan dugunez, bai informazioa eta baita iritzi-artikuluak sailkatzeko zazpi enkoadre erabili ditugu: Deabruaren enkoadrea, Eskubideen aldarrikapenen enkoadrea, Genero-rol tradizionalaren enkoadrea, Politikan esku-hartzearena, Tribalizazioarena, Agendarena eta Beste, hau da, aurrekoetan sartzen ez direnak.

Urte honetan bi enkoadre erabili dira nagusiki atal honetan, Eskubideen aldarrikapena (% 40,9) eta Genero-rol tradizionalak islatzen dituen enkoadrea (%50,7). Beste enkoadreen agerpena anekdotikoa izan da; Politikan esku-hartzea (%3,5), Deabruaren markoa (%2,1) eta Tribalizazioa (%0,4). Agenda ere oso anekdotikoa izan da. Erabilpen hau oso berdintsua izan da iritzi- eta informazio-ataletan; beraz, ez dugu bereizketarik egin (54. Taula).

54. Taula: Genero-markoak informazio eta iritzietan.

(%)	DEABRUA REN MARKOA	ESKUBIDEE N ALDARRIKA PENA	GENERO ROL TRADIZION ALAK	POLITIKAN ESKU- HARTZEA	TRIBIALIZA ZIOA	AGEN DA	BEST E	GUZTI RA
Diario Vasco	1,5	28,8	62,9	2,3	3,8	0,8	0,0	100,
EL Correo	0,0	32,2	64,9	1,6	1,2	0,0	0,0	100,
Diario de Navarra	4,0	25,0	55,0	9,0	5,0	1,0	1,0	100
Deia	2,9	23,8	65,7	3,8	2,9	1,0	0,0	100,
Gara	5,6	83,1	7,0	2,8	0,0	0,0	1,4	100,
Diario de Noticias	4,9	53,9	35,3	4,9	1,0	0,0	0,0	100
Berrria	0,0	81,2	15,9	2,9	0,0	0,0	0,0	100,
Guztira	2,2	40,9	50,7	3,5	2,1	0,4	0,2	100

N = 824 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

Datu hauek orokorrak dira, baina egunkari bakoitzaren portaera desberdina izan da honetan ere.

Eredu tradizionala lantzen duen markoa nagusi izan da lau egunkarietan, DEIAN (%65,7), EL CORREON (%64,9), DIARIO VASCON (%62,9) eta DIARIO DE NAVARRAN (%55). Aurretik esan genuenez, eredu honetan emakumeek batzuetan duten diskriminazioa aipatzen badute ere, mezuetan ez da salaketarik egiten, ez dago egoerari aurre egiten dion mezurik edo mugimendu feministaren errebindikazioen aipamenik. Beraz, egunkari hauetan nahiz eta M8 gaiari buruz informazio anitza eman, mugimendu feministaren mezuak presentzia txikiagoa izan du, garrantzi gutxiago eman zaie haien aldarrikapenei, eta mezu kontserbadoreagoa lehenetsi da, emakumeen egoera zalantzan jartzen ez duen mezua. Egunkari hauetan Eskubideen aldarrikapena landu duten artikuluak %25eko eta %32ko tartean kokatu dira.

Beste muturrean GARA eta BERRIA topatzen ditugu. Hemen eskubideen aldarrikapenarekin lotutako markoen portzentajea %80 baino handiagoa izan da, hau da, bost artikuluetatik lautan landu dira mugimendu feministen mezuak. Adibide bat jarriko dugu, BERRIAN 56 artikuluetan topatu dugu marko hau, eta horietatik bederatzai hainbat feministei egindako elkarrizketak izan dira, adibidea, Trinh T.Minh zinemagilea, Begoña Zabala Iruñeko Mugimendu Feministaren partaidea, Izaskun Landaida, EMAKUNDEKO Lehendakaria, edo Veronica Gago, *Ni una menos* taldeko partaidea. Elkarrizketa hauetan emakumeen eskubideen aldarrikapenak oso presente egon dira, Begoña Zabalak BERRIAN adierazten duen bezala:

«Mugarri bat izan da aurrez ibiltzen ari ginen bidearen norabidean. Bide horretan jarraitu behar dugu. Feminismoaren lehia ez da hurrengo hauteskundeetara aurkeztea. Ministerio bat lortuko bagenu ere, ezin izango genuke egoera errotik aldatu. Sistema kapitalista eta patriarkalaren sustraiak sakonagoak dira, eta hori amaitu nahi dugu. Nola? Borroka honetan aurrera eginez. Lan-ildoan ondo zehaztuz, eta heltzen ari diren gazteengan konfiantza izanda»⁴²².

DIARIO DE NAVARRAN Deabruaren markoa topatu dugu zenbait artikulutan (%5), hain zuzen bost artikuluetan, bi iritzi zutabeetan, bi zuzendariri gutunak eta albiste batean, albiste honetan grebak eskoletan sortuko dituen arazoez ari da, *«Inquietud en las familias por cómo afectará la huelga a los comedores escolares»⁴²³* lerroburupean, iritzi sailean; aldiz, *«Beateria»* lerroburupean

⁴²² BERRIA, 2018-03-10; 5. or.

⁴²³ DIARIO DE NAVARRA, 2018-03-07; 21. or.

idatzitako zutabeen Juan Gracia Armendarizek horrela dio: «A algunas escritoras se les está escapando el feminismo de las manos y al amparo de justas reivindicaciones sociales y laborales hay quien se apunta a un bombardeo con tal de sacarse en procesión». Eta horrela amaitzen du: «Tampoco, por cierto, Simon de Beauvoir, esa hermosa bruja que, a pesar de sus dotes intelectuales, fue despedida de la enseñanza por corrupción de menores. Trabajó para Radio Vichy, portavoz de la ocupación nazi»⁴²⁴. Beste zutabe batean, soilik emakumeentzat den greba deialdiaren kontra egiten du Rafael Torres-ek:

«La negativa de ese sector del posfeminismo ultramontano a que los varones secunden la huelga, pese a que el maltrato social a la mujer en todas sus formas les concierne particularmente, revela una visión desmedida, sectaria, del problema que aflige y empobrece a todos sin distinción de sexo»⁴²⁵.

DIARIO VASCON ere beste bost artikulua topatu ditugu marko honetan (%3,8). Kasu honetan iritzi-artikuluak izan dira, bi zuzendariari eskutitzak eta beste hiru zutabeak. Zutabe horietatik bik emakumeen sinadura daramate, Arantza Furundarena-renak eta Rosa Belmonte-renak. Furundarena horrela mintzatzen da «Lavadora» lerroburupean: «No soy partidaria de ese feminismo revanchista, 'hooligan', en plan 'serenos' las mejores y hay que aplastar al equipo rival; el que pretende dar la vuelta a la tortilla y hacerles a ellos lo que durante siglos nos hicieron a nosotras»⁴²⁶. Eta Belmonte-k bere aldetik, «Mujer, mujer» zutabeen feministen kontra mintzatzen da: «Las que firman manifiestos con las que no lo firman, las que van a hacer la huelga del jueves con las que no. Es el otro. La otra (que a nada tiene derecho). Nos hemos reído mucho de Aznar por aquello de que le gustaba la mujer, mujer. El feminismo de carril no es distinto. Sólo admite a su mujer, mujer. La buena»⁴²⁷. Azken bi zutabe hauek EL CORREON ere agertu ziren.

DEIAK ere hainbat artikulua argitaratu ditu enkoadre honetan, «Huelga de sexos» zuzendariari gutuna: «Queda claro que la huelga de las mujeres ni nace de una visión honesta de la discriminación sexual ni de una sensibilidad neutra e imparcial ante el sufrimiento que ambos sexos soportan, por eso constituye otro obstáculo hembrista a la igualdad real». DIARIO DE NOTICIAS egunkarian behin topatu dugu

⁴²⁴ DIARIO DE NAVARRA, 2018-03-11; 12. or.

⁴²⁵ DIARIO DE NAVARRA, 2018-03-09; 2. or.

⁴²⁶ DIARIO VASCO, 2018-03-08; 74. or. EL CORREO, 2018-03-08; 92. or.

⁴²⁷ DIARIO VASCO, 2018-03-06; 23. or. EL CORREO, 2018-03-06; 33. or.

enkoadre hau, «*No sé bordar, pero...*» zutabea, non Koldo Aldaik modo oso sutil batetan esaten digun zeregin guztiak ez direla egokiak genero guztientzako:

«Por supuesto que las labores han de ser compartidas. Claro que hemos de implicarnos plenamente en las tareas domésticas..., pero que las huelgas no sean contra nadie, sino en pos de una conciencia mutuamente solidaria, yo no diría igualitaria. La cuestión quizás no es tanto hacer el hombre y la mujer de todo, sino estar del todo entregados al otro/a. No se bordar, no se dar pecho, peinar, tricotar, cuidar flores...; pero me encanta comprar, cocinar, fregar..., disfruto cogiendo el hacha o la azada y vaciando la fuerza acumulada después de horas al ordenador. Todas las tareas no son igualmente aptas para uno y otro género, por más que no debe haber diferencias de oportunidades a la hora de acceder al mercado laboral»⁴²⁸.

BERRIAN eta GARAN ez dugu enkoadre hau aurkitu 2018an.

Tribializazioa markoari dagokionez, behin bakarrik agertu da urte honetan, DEIAN publikatutako zutabe batetan, «*Sin novedad en casa, cariño*»⁴²⁹ lerroburupean, *Caduca hoy* komikilari taldearen sinadurarekin.

5.2.4.3 Feminismoaren enkoadrea 2018an

Enkoadre hau emakumeen borroken aurrean identifikatu ditugun bost jarrerekin elkartu dugu, feminismoaren aldarrikapena, antifeminismoaren aldarrikapena, Berdintasuna, rol tradizionalen sustapena eta agenda, non ez den enkoadrerik ematen.

Bi enkoadre nabarmentzen dira urte honetan, batetik rol tradizionala mantentzen duena, laginaren erdia baino gehiago (%53,9), eta bestetik feminismoaren enkoadrea, laginaren %27,9. Kasu honetan ez dago desberdintasun handirik aurretik lortutako emaitzekin, non fokatze tradizional hori %58,6koa izan zen eta feminismoarena %29,3koa.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, (55. Taula), Berdintasunaren enkoadreak %13,3ko portzentajea bete du, eta besteak, antifeminismoa (%3,2) eta neutroa (%1,7) anekdotan gelditu dira. Berdintasunaren markoaren gorakada ikusten da

⁴²⁸ DIARIO DE NOTICIAS, 2018-03-06; 33.or.

⁴²⁹ DEIA, 2018-03-09; 3. or.

hemen, aurretik %4koa izan baitzen. Gogoratu behar dugu enkoadre honetan kokatu direla berdintasun formalaz hitz egiten duten artikulua, erakundeek zabaltzen duten parekidetasuna, berdintasun formala bultzatzen duten politikak eta halako gaiak.

Aurreko epealdian ikusitako antzeko joerak islatzen dira oraingoan ere, baina ñabardura batzuekin, adibidez, aurrekoan DIARIO DE NOTICIAS izan zen rol tradizionalaren enkoadrea gehien erabili zuen egunkaria, publikatutako artikuluen %86,3an agertu baitzen, eta oraingoan erdia baino gutxiago izan da (%43,2). Oraingoan EL CORREO izan da enkoadre hau gehien erabili duen egunkaria, (%73,1) aurrekoan baino 4 puntu gehiago. DIARIO VASCON ere portzentaje hau oso altua izan da (%62,9), aurrekoan %67,9 izan zelarik.

Bi egunkari feminismoaren fokatzeari eman diote garrantzi handiagoa, BERRIAK %73,9 eta GARAK %80,3. Hauetan mugimendu feministaren mezua oso garbi azaldu da urte honetan. Aurreko datuekin alderatuz, enkoadre honek igoera nabarmena izan du, batez ere GARA, non, aurrekoan %62,0koa izan baitzen.

Gauzak horrela, egunkari bakoitzak erabili duen bigarren fokatzea oso urrun geratu da. Joeratik alderatu den bakarra DIARIO DE NOTICIAS izan da, non bi fokatze hauen arteko portzentajea nahiko orekatuta egon den, Feminismoak %35,3koa izan da eta Tradizionala %43,1koa.

55. Taula: Feminismoaren fokatzeen azterketa

(%)	FEMINISMOA	ANTIFEMINISMOA	ROL TRADIZIONALA	BERDINTASUNA	NEUTROA	GUZTIRA
Diario Vasco	14,4	6,1	62,9	15,2	1,5	100,0
EL Correo	14,3	1,6	73,1	11,0	0,0	100,0
Diario de Navarra	12,0	8,0	58,0	22,0	0,0	100,0
Deia	19,0	3,8	56,2	18,1	2,9	100,0
Diario de Noticias	35,3	2,0	43,1	14,7	4,9	100,0
Gara	80,3	0,0	8,5	5,6	5,6	100,0
Berria	73,9	0,0	21,7	4,3	0,0	100,0
Guztira	27,9	3,2	53,9	13,3	1,7	100,0

N = 824 item; informazioa eta iritzia sartuta. Iturria: autorea.

Feminismoaren fokatzea iritzi-artikuluetan 2018an

Iritzi-artikuluetan fokatze hau aztertu dugunean joera aldatzen da, eta lau enkoadre nagusiak modu orekatuago batean agertzen dira. Feminista %41,8koa

izan da eta rol tradizionala %31,6koa da. Baina antifeminismoa %10,2ko portzentajea agertu da, eta berdintasuna %16,4koa. Beraz, desberdintasunak nabariak dira saila honetan (56. Taula).

56. Taula: Feminismoaren fokatzeen azterketa iritzi-artikuluetan

(%)	Antifeminismoa	Feminismoa	Rol tradizionala	Berdintasuna	Guztira
Diario Vasco	21,6	27,0	27,0	24,3	100,0
EL Correo	9,8	19,5	48,8	22,0	100,0
Diario de Navarra	18,4	10,5	42,1	28,9	100,0
Deia	11,5	50,0	26,9	11,5	100,0
Gara	0,0	96,0	0,0	4,0	100,0
Diario de Noticias	3,2	45,2	41,9	9,7	100,0
Berria	0,0	77,8	18,5	3,7	100,0
Guztira	10,2	41,8	31,6	16,4	100,0

N = 275 item; bakarrik iritzia. Iturria: autorea.

Feminismoaren enkoadrea aztertzen badugu, GARA egunkaria da enkoadre honetan nabarmentzen dena. Publikatutako iritzi-artikuluen %96 fokatze honetan kokatu dira, eta beste %4a Berdintasunaren enkoadrean topatu dugu. Iritzi-artikulu hauetako hainbat lehenengo pertsona idatzita daude, martxoaren 8k utzitako emozioak islatzen dituztenetan adibidez: Itziar Zigak idatzitako «Gloria feminista» zutabearen horrela esaten du: «*Hay ochos de marzo como este, inaudito y multitudinario, que suponen un punto de no retorno en la larga batalla del feminismo contra el patriarcado. Y sabe a gloria*»⁴³⁰, edo Aitziber P de Karkamoren zutabearen hasiera, «*Egunkarian ezin da sumatu datozen hitzak idatzi dituen esku urduriaren dardara, baina halaxe jaio dira letrok, historiko izatera deitua dagoen egunaren lekuko izateak dakarren zirraren eraginpean*»⁴³¹. Ez bakarrik kazetari emakumezkoek, gizonak ere eredu hori hartu dute zenbait zutabetan, adibide gisa, Iker Bizkarguenagak sinatutako «*Gaur*»⁴³² zutabea, non bere seme-alabei azaltzen dien zergatik eta zertarako den greba-eguna.

Egunkari honetan bi egunetan agertu dira iritzi-artikuluak azalean, alde batetik iruzkin baten deia, Iñaki Soto egunkariaren zuzendariak idatzitako «*bell hook, un*

⁴³⁰ GARA, 2018-03-09; 3. or.

⁴³¹ GARA, 2018-03-08; 48. or.

⁴³² GARA, 2018-03-08; 30. or.

punto de partida»⁴³³ eta Martxoaren 6an, «*Me too, los Óscar también*»⁴³⁴ komentarioaren sarrera.

BERRIAN ere enkoadre hau nagusia izan da, laginaren %77,8an hain zuzen ere. Bigarrena, rol tradizionala islatzen duena izan da, %18,5ean hain zuzen. Grebaren aurrean gizonen deserosotasunaz mintzatzen zen Andoni Egaña honetan:

*«Galduta. Deseroso. Erdigunetik kanpo behin aurkituko eta ohituraren faltan non kokatu asmatu ezinik. Halaxe gaude. Behe-lainoarena ez da goitik be- giratzera ohituak gaudenok asmaturiko aitzakia baino. Lainoa, mendeetan saretu ez den laino»*⁴³⁵.

BERRIAN ere topatu dugu Jose Mari Pastoren asteroko artikuluan gaiari heltzeko beste ikuspuntu bat, amantalak jarri baitiete Rubial Eta Agirreren estatuei:

*«Rubial eta Agirreren estatuei amantala jarri zieten greba egunean, nolakoa izango zena haien jarrera etxeko lanei buruz galdetzen dio bere buruari kazetariak. Garai berekoak ziren Agirre (Bilbo, 1904) eta Rubial (Erandio, 1906). Eta boterearen sinboloak. Egun bizirik baleude, emakumeen aldarrikapenekin bat egingo lukete, ez dut dudarik egiten, baina seguru nago euren denboran ez zutela oso desberdin jokatuko arlo horretan. Emakumezkoen aurkako zapalkuntza ez da gizarte, herri, aberri edo bandera jakin baten monopolioa. Horregatik, Rubial espainolari amantala jarri zioten osteguneko greban. Eta Agirre euskaldunari ere bai»*⁴³⁶.

Beste egunkarietan feminismoaren enkoadrearen agerpena txikiagoa izan da, adibidez DEIAN, %50ekoa izan da eta DIARIO DE NOTICIAS egunkarian %45,2koa. DEIAN EMAKUNDEKO Lehendakari zen Izaskun Landaida-ren iritzi-artikulu irakur dezakegu, «*Lecciones aprendidas*», lehenengo pertsonan idatzita hau ere, feminismoak bere bizitzan izan duen garrantziaz mintzatzen da:

«El feminismo, tantas veces vilipendiado y aún hoy desconocido por gran parte de nuestra sociedad, supone también un importante aprendizaje para la vida. En mi caso, y supongo que en el de muchas personas, supuso un descubrimiento que me ha ofrecido numerosas lecciones. En primer lugar, me ha enseñado a mirar: a tener una mirada crítica, a detectar desigualdades que permanecen ocultas por el manto de la normalidad o de la

⁴³³ GARA, 2018-03-11; 1-17. or.

⁴³⁴ GARA, 2018-03-06; 1-30. or.

⁴³⁵ BERRIA, 2018-03-08; 19. or.

⁴³⁶ BERRIA, 2018-03-10; 11. or.

costumbre, a desaprender algunas verdades que no lo son tanto, a reinterpretar la realidad... Me ha enseñado también la importancia de que las mujeres nos empoderemos, de que seamos conscientes de nuestra fortaleza y capacidad y me ha permitido detectar en las mujeres de mi entorno y sus historias de vida verdaderos ejemplos de empoderamiento a seguir. Y el feminismo, entre otras muchas cosas, me ha permitido también reconocer la importancia de crear alianzas entre mujeres diversas como herramienta indispensable para avanzar hacia la igualdad»⁴³⁷.

DIARIO VASCON portzentaje hori %27koa izan da, eta EL CORREON %19,5koa eta DIARIO DE NAVARRAN %10,5koa, are txikiagoa. Egunkari hauetan grebaren aldeko ahotsak ere irakurri ditugu, adibidez DIARIO VASCON Joseba Urrutik idatzitakoa, euskaraz, «Egunero erein» lerroburupean:

«Martxoaren 9tik aurrera berriz itzalpera itzuliko dena, ohikoan jazarpen eta diskriminazio hori berriz ikusezin izateraino. Emakumearen Eguna urte osora eramanda baino ez da benetan aurrera egitea lortuko, jauzi handiak keinu eta urrats txikiz osatutakoak direnean baino ez direlako egiazkoak, geratzekoak»⁴³⁸.

Esan dugunez emakumeen rol tradizionalaz mintzatzen diren iritzi-artikuluen portzentaje handienak EL CORREON (%48,8), DIARIO DE NAVARRAN (%42,1) eta DIARIO DE NOTICIASEN (%41,9) izan dira, hauetan mezuak beste bide bat hartzen dute, adibidez, Antxon Villaverde-k DIARIO VASCON idatzitako zutabearen: «*La mujer es nada menos la que nos da el ser, la que nos cria, cambia los pañales y educa a sus hijos... En la casa es la que señala, por ejemplo, dónde hay que colocar esa lámpara...*»⁴³⁹.

Berdintasunaren enkoadrea gehien erabili duten egunkariak DIARIO DE NAVARRA (%28,9) eta DIARIO VASCO (%24,3) izan dira, baita EL CORREO ere (%22,0). Enkoadre hau oso gutxitan agertu da GARAN (%4) edo BERRIAN (%3,7). Azken bi egunkari hauetan Nekane Balluerka-k argitaratutako iritzi-artikuluak erabiltzen du enkoadre hau:

«Adierazi ditudanak bezain gai pertsonalak aipatzea iruditu zait begien bistakoa den zerbait ikusarazteko modurik egokiena; izan ere, berdintasuna lortzeko arlo pertsonaletik egiteke

⁴³⁷ DEIA, 2018-03-08; 4. or.

⁴³⁸ EL CORREO, 2018-03-10; 9. or.

⁴³⁹ DIARIO VASCO, 2018-03-10; 26. or.

dagoen lana arlo politikotik egiteke dagoena bezain beste da, edo gehiago. Eta horrek gizon askoren konpromisoa, apustua eta aurreranzko pausoak eskatzen ditu... Horien guztien aitorten gisa, bat egiten dut geldialdiarekin eta aditzera ematen dut, berriz ere, guztion berdintasunaren aldeko nire konpromisoa, baita berdintasun hori ondorio guztiekin onartzen dutenekiko nire esker ona ere»⁴⁴⁰.

Azkenik, antifeminismoaren enkoadorean kokatu daitezkeen 24 iritzi-artikulu irakurri ditugu urte honetan, iritzi-artikuluaren %10,2. DIARIO VASCON bere laginaren %31,6ko portzentajea bete dute artikulu hauek, DIARIO DE NAVARRAN %18,4koan edota DEIAN %11,5ean. Ez BERRIAN eta ezta ere GARA ez dugu topatu enkoadre honetako artikulurik.

Grebaren aurrean ezinegona adierazten dituztenen adibide pare bat ekarriko dugu hona. Adibidez, DIARIO VASCOKO bi zutabegileen idatziak, Arantza Furundarena-k idatzitako «*Lavadora*» zutabearen: «*No soy partidaria de ese feminismo revanchista, ‘hooligan’, en plan ‘sernos’ las mejores y hay que aplastar al equipo rival; el que pretende dar la vuelta a la tortilla y hacerles a ellos lo que durante siglos nos hicieron a nosotras*»⁴⁴¹, edota Ramon Etxezarreta-k bere zutabearen hasieran idazten duena:

«No sabía yo a qué modalidad de huelga apuntarme para que nadie cuestionara la honradez de mi postura, ni pensarán que con ello me librara de reconocer y pretendiera perpetuar esas prácticas viciadas y perennes de hombre consentido y macho civilizado. No sabía a quién gritar y pedir ayuda urgente para que no me fundieran en esa masa masculina enemiga convicta y declarada de los feminismos e igualdades entre personas, esa mayoría de la humanidad que considera que no se debe de ceder a las sensiblerías, ni a rollos progres ni buenistas. Me hicieron pasar el día descolocado»⁴⁴².

EL CORREOK ere mugimenduaren kontrako iritziak argitaratu ditu, adibidez, Arantza Furundarenarena edota Lorenzo Silva-ren «*La huelga del 8 de marzo*» zutabearen irakurtzen duguna:

«Lo que ya no es de recibo es conminar a las mujeres a adherirse a la reivindicación, como si fuera un deber que no les cabe rehuir,

⁴⁴⁰ GARA, 2018-03-08; 11. or.; BERRIA, 2018-03-18; 18. or. eta DEIA, 2018-03-08; 2. or.

⁴⁴¹ DIARIO VASCO, 2018-03-08; 74. or. eta EL CORREO, 2018-03-08; 92. or.

⁴⁴² DIARIO VASCO, 2018-03-09; 17. or.

so pena de pasar por traidoras a su sexo o tibias con la causa femenina. En primer lugar, porque hay mujeres que discrepan del sesgo ideológico de quienes han convocado la huelga. Y en segundo lugar, y más importante, porque cada mujer valorara por sí misma si ha de parar o no de trabajar, de estudiar, de atender a los suyos o su negocio. Mal iríamos con una igualdad construida a costa de la libertad.»⁴⁴³.

⁴⁴³ EL CORREO, 2018-03-06;33. or.

6. ONDORIOAK

Hasieran planteatutako hipotesiak bete diren egiaztatzea egokitzen zaigu orain. Ikerketa honetan sakonki aztertu dira 1978-2018 epealdian Hego Euskal Herrian argitaratu eta argitaratzen diren egunkarien jarrerak M8arekiko.

Lehen hipotesiari dagokionez, ikerketako emaitzetan egiaztatu egiten da egunkariaren ildo ideologiko propioak feminismoaren interpretazio desberdina sorrarazten duela eta martxoaren 8aren betedura periodistikoan eragin zuzena duela.

Egunkari kontserbadoreetan, hau da, EL CORREO, DIARIO VASCO eta DIARIO DE NAVARRAN, eta baita DEIA, NAVARRA HOY eta DIARIO DE NOTICIASek, M8 inguruan argitaratu dituzten informazio eta iritzi-artikuluak gutxiago izan dira, informazioen atomizazioa nagusia izan da, baita tamainari erreparatzen badiogu ere, tamaina txikiko edo oso txikiko albisteak argitaratu baitituzte, erreportaje eta elkarrizketa gutxiago. Beste aldean, progresistatzat hartu ditugun EGIN/GARA eta EUSKALDUNON EGUNKARIA/EGUNERO/BERRIA egunkarietan orokorrean artikulu gehiago agertu dira, eta oro har, kazetaritza sakonagoa erabili dute, erreportaje- eta elkarrizketa-kopuru handiagoan islatzen dena, tamaina handikoak.

Gauzak aldatu dira 2018an, informazio eta iritzi asko argitaratu dira aurreko aldikoekin alderatuz, hazkunde izugarria izan baita. Hala ere, kualitatiboki estaldura ez da hain ona izan, albiste laburrek lehentasuna izan dute, batzuetan betegarriak suertatu direnak. Egunkari progresisten kasuan, bai GARAN eta bai BERRIAN, 2018ko artikulu kopurua txikiagoa izan da, biek besteek baino orrialde askoz gutxiago argitaratu dituzte gari horretan, hala ere 2013ko datuak aise gainditu dituzte, eta nabarmendu behar da tamaina handiko artikuluak nagusi izan direla epe honetan.

M8ko informazioa egunkarietako bigarren mailako orrialdeetan agertu da, hau da, tokiko, gizarte edota kulturari dedikatutako orrialdeetan, egunkarietako orrialde bigunetan. Honek adierazten digu M8 bigarren mailako informazioa izan dela egunkari desberdinentzat, garrantzi gutxikoa oro har. GARA egunkariak bestelako tratamendua eman dio gai honi, politika-orrialdeetan argitaratu baitu ia informazio erdia. BERRIAK M8 ardatza eta gai nagusia duen gehigarri berezia eskaini du urtero, non sakonki aztertu den emakumeen egoera soziopolitikoak.

Azpimarra dezakegu 2013ra arte EGIN/GARA eta EUSKALDUNON EGUNKARIA/EGUNERO/BERRIA izan direla emakumeen iritziak gehiagotan publikatu

dituzten egunkariak, taldeek edo norbanakoek bidalitako iritzi-artikuluak presentzia nabarmena izan dute egunkari hauetan ere.

Bestalde GARAK garrantzi handiagoa eman die emakume-taldeek erakusten dituzten argazkiei, eta M8 bezalako egun bateko izaera kolektibo hori azpimarratu du. Joera hori, neurri txikiagoan, DIARIO VASCO, BERRIA eta DIARIO DE NOTICIASen ere ikusi da, baina beste komunikabide batzuek hala nola DEIAK eta EL CORREOK, nahiago izan dute banakako emakumeen irudiak islatu. Argazkietako eskenatokiei dagokienez, antzeko joerak ageri dira. GARAK emakume-talde horiek pankartak eta sloganak ikusten diren errebindikazio-inguruneetan erakusten dituen bitartean, beste komunikabide batzuek, hala nola EL CORREO eta DEIAK, nahiago dituzte ingurune “garbiak”, aldarrikapen horiek erakutsi gabe. BERRIA, eta DIARIO DE NAVARRAN eremu publikoa erakusten da argazkietan.

Enkoadrearen azterketak M8aren estalduran komunikabideek duten portaerari buruzko gako zehatzenak eman dizkigu.

Batetik gertaerazko enkoadrearen edo interpretazio-markoaren erabilpena egiten da, batez ere egunkari kontserbadoreen kasuan, eta errealitatearen azterketa sinplea islatzen du, sakontasun edo testuinguru gabekoa. Iyengar-en (1994) arabera «erantzukizuna bi motatako prozesuen bidez esleitzen da: ideologia politikoa eta pertsonaren balio kulturalak, edo testuinguruaren eraginez, komunikabideen eragina barne». Beraz, gure kasuan M8k eta Mugimendu Feministaren aldarrikapenak bigarren mailan geratzen dira, banakako istorioetan oinarritutako M8 fenomenoaren banakako ikuspegia lehenetsiz, emakumeen eskubideen aldeko borroka baten kolektibizazioa erakustea saihestuz.

Nagusia da eredu tradizionala deitu dugun enkoadrearen edo interpretazio-markoaren erabilera, non ez diren mugimendu feministaren aldarrikapenak islatzen, eta nahiz eta fokua emakumeengan jarri, ez diren ikusten mugimendu feministak salatzen dituen errealitateak. Egunkari kontserbadoreek ez dute errealitate hori islatu eta oso jarrera hotza erakutsi dute, batzuetan mugimendu feministaren jarreraren aurkakoa ere bai. Portaera hori iritzi-ataletan ikusi da batez ere; izan ere, askotan irakurri ahal izan dira M8aren aurkako artikuluak, baita mugimendu feministaren aurkako burlak eta isekak ere.

EGIN/GARA egunkariak, berriz, aktiboagoak izan dira emakumeen eskubideen inguruan informatzen, eta Mugimendu Feministaren aldarrikapenak portzentaje altuetan agertu dira. Aipatzekoa da, halaber, EUSKALDUNON EGUNKARIATIK BERRIARA

egin den bilakaera, non emakumeen aldarrikapenen presentzia nabarmen hazi baita. BERRIAN rol tradizionalak tokia galtzen du emakumeen eskubideen defentsan oinarritutako enkoadraketaren alde. Egunkari hauetan ez dago tribializaziotik edo deabruaren enkoadretik idatzitako artikulurik.

Lehen epealdiko azken urteetan (1978-2013) desagertu egin ziren *frame* negatiboak, hala nola tribializazioa edo deabruarena, eta horrek pentsarazten digu emakumeen eskubideen defentsak legitimitatea lortu duela. Baina aztertutako azken urtean, 2018an, emakumeen eskubideen aldeko borrokaren kontrako jarrera hori erakutsi dute berriro ere zenbait egunkaririk, borroka horrek inoiz baino indar gehiago erakutsi duenean. Uste dugu elementu kontserbadoreenen erreakzio bat dela, mundu-mailako fenomeno baten aurrean, zeinek agerian utzi baitzuen emakume guztien eskubideen alde borrokatzen jarraitzeko beharra.

Bigarren hipotesia izan zen EMAKUNDEREN sorrerak eragina izan duela feminismoa eta M8ko gaiaren estaldura periodistikoan. Azterketan bi epe nabarmendu dira, bata 1978tik 1988ra artekoa eta bigarrena 1993tik aurrera, bigarren epealdi honetan M8 gaiari ematen zaion garrantzia hirukoizten da, testuetan eta baita argazkietan. Honek bidea zabaltzen digu gure bigarren hipotesia baieztatzeko, Emakunderen sorrerak eragina izan zuela M8aren estaldura periodistikoan. Espero genuen bezala, Emakunde sortu ostean egunkarietan M8arekin lotutako gaiak eta erreferentziak hazkunde nabarmena izan dute, 1988an EMAKUNDE sortu zuten urtean 112 item argitaratu baziren, bost urte beranduago zenbaki hori ia hirukoiztu zen, 306 item agertu baitziren, eta hurrengo urtean, 1998an, 350. Ikusi dugunez, honek ez du esan nahi feminismoak leku preferentea izan duenik, baina bai emakumeei buruzko berriak egunkarien agendan sartu direla.

Baina bestalde, berdintasunaren enkoadreakaren erabilera eskasak iradokitzen digu EMAKUNDEREN politikek ez dutela isla handirik izan euskal hedabideetan. Interpretazio-marko hau batez ere agintari instituzionalek erabili dute Berdintasun Politikak sustatzeko, baina ez du leku esanguratsurik lortu euskal kazetarien orrialdeetan, eta, esanguratsua da Emakunderen adierazpen ofizialak 2018an ez duela ia espaziorik izan egunkarietan. Beraz gure bigarren hipotesia ez da bete, hau da, Berdintasunaren diskurtsoak ez du eragin handirik izan prentsak duen diskurtsoan, eta oraindik eredu tradizionalak markatzen du diskurtso hori.

Hirugarren hipotesiari dagokionez, Feminismoaren enkoadreak azterketak erakusten digu Mugimendu Feministaren ikuspuntua ia erabat desagertuta dagoela zenbait egunkaritan, eta hauen informazioak eredu tradizionalenetan oinarritu direla, mugimendu feministak sozializatzen zituen eztabaidak alde batera utzita. Eztabaida hauek ezkutatzek errealitateari buruzko ikuspegi partziala ematen du zenbait egunkaritan. Egunkari kontserbadoreetan, mugimendu feministaren eta M8a ospatzeko behararen kontrako jarrera nabarmen agertu dute zenbait kasutan, Diario Vascon adibidez ohiko zutabegile bat izan da behin baino gehiagotan M8aren kontra egin duena, Begoña Amezttoy hain zuzen.

Beste alde batetik, EGIN eta, ondoren, GARA eta BERRIA, izan dira Mugimendu Feministaren eta haren aldarrikapenen plataforma. Joera hori oso nabarmena izan da iritziaren esparruan, non ikuspegi feministatik idatzitako artikuluek eremu nagusi bat izan baitute GARA eta EGINen; eta, bigarrenik, EUSKALDUNON EGUNKARIAN eta BERRIAN. EGIN eta GARA egunkariak beren orriak eskaini dizkiote Mugimendu Feministari, eztabaidak eremu publikora eramateko. Josebe Egiak sinatzen duen asteroko zutabearen ere islatzen da tribuna hori, ikuspegi feministatik idatzita beti.

Hemen, Euskal Herrian, feminismoaren kontrako jarrerak ez dira izan AEBn edo Australiakoak bezain oldarkorrak. Horren ordez, feminismoa ikusezin bihurtu eta ezkutatu egin da (North 2009). Asley eta Olson (1998) ikertzaileen emaitzekin alderatuz, gure egunkarietako emaitzak ez dira oso desberdinak: sinatu gabeko artikulua nagusi izan dira, emakumeek landu dituzte gehien bat eta garrantzi gutxi orrialdeetan.

Komunikabideek gai jakin batzuetara arreta erakartzeko duten gaitasuna azpimarratzen du *agenda settingen* teoriak, eta, aldi berean, gizarte-gertaerak interpretatzeko markoak sortzeko ahalmena azpimarratzen du. McCombs-en arabera, (2006, 24) eguneroko albisteek azken gertaeren eta gure berehalako esperientziatik harago geratzen den ingurune horretako aldaketen berri ematen digute. Baina prentsako informazioak, egitate eta gai garrantzitsuak daudela adieraztera mugatzen dira. Editoreek beren eguneroko aukeraketarekin eta informazioen hedapenarekin, gure arreta gidatzen dute eta eragina dute eguneko gairik garrantzitsuenei buruz dugun pertzepzioan. Baina M8ari dagokionez, ikusi dugu egunkaririk kontserbadoreen ez dituztela beren agendetan mugimendu

feministaren errebindikazioak sartu; edota Berdintasun formalaren sustatzen dituztela mezuak; eta emakumeen ohiko rolak iraunarazten dituzten ikuspegiak landu dituztela, gure gizartean nagusi den eta emakumeen diskriminazioan oinarri duen eredu patriarkala dudatan jarri gabe.

Shaw-en arabera egunkariak aldatu egiten dute gizarteak errealitatearen zati handi bati buruz duen ulermena, *agenda settingaren* eraginez. Egunkarien aukeren ondorioz, publikoak onartu edo ez onartu egiten du, gai batean arreta jartzen du edo ez, garrantzia ematen dio edo ez. Jendeak hedabideek beren edukietatik kanpo uzten dutena bere ezagutzatik kanpo uzteko joera du (Shaw 1979).

Hau horrela izanik, aztertutako zenbait egunkaritan M8ari eta oro har Mugimendu Feministari egindako jarraipena txikia izan da, eta ez zaio merezi duen garrantzia eman, gaia erreperitorio publikoko gai "garrantzitsuetatik" kanporatuz. Ale gehien saltzen dituzten egunkari kontserbadoreenek ikuspegi atomizatu eta erreduktionistak eskaini dituzte, ez dute mugimendu feministaren benetako indarra islatu, eta, horregatik, 2018ko mobilizazioetara egindako deialdiak harritu egin du haren oihartzunagatik

Proposamena. Inork zalantzan jartzen ez duen gizarte honen betebeharrak emakumeen eskubideak defendatzea da. Hura sustatzen duten mezuei tratamendu periodiko egoki bat eskaintzeak eragin positiboa izango du gizarteak gai honi buruz duen ikuspegian. Horretarako, egunkariak eta oro har, komunikabideak, berdintasunezko ereduak sustatu behar dituzte, berdintasunik gabeko egoerak ikusarazi, testuinguruan kokatu eta eztabaida sozial eta demokratikoa sustatu. Hori ezinezkoa izango da kokapen atomizatu, alboratu eta azalekoa erabiltzen jarraitzen den bitartean, non ez baitira mugimendu feministaren mezua islatzen, ezta eskubide horien aldeko mobilizazioak ere.

Etorkizunari begira, ikerketa-lerro berriak zabaldu zaizkigu. Egiteke dago, adibidez, Euskal Herriko emakume kazetarien historia, lana eta jokatutako papera kazetaritzaren garapenean aztertzea eta berreskuratzea. Baita gaur egungo kazetaritza modernoan emakume kazetarien rolak eta lanak aztertzea ere. Komunikabide publiko zein pribatuen iritzi-orrialdeetan emakumeen presentzia, ordezkaritza eta lana da ireki den beste ikerketa-ildoetako bat. Ildo interesgarri bat zabaldu da, halaber, bidearen beste aldetik, mugimendu feministaren

komunikazio-estrategien azterketa eguneroko lanean eta egun esanguratsuenetan, hala nola M8an, A25ean edota E28an, edo Emakumeen Mundu Martxa edo jardunaldiak bezalako ekintzak.

7. BIBLIOGRAFIA

- Abril Vargas, Natividad. 1991. «La mujer como sujeto de atención periodística en la prensa vasca : estudio de los mensajes publicados en los diarios Deia, Egin, El Correo Español-El Pueblo Vasco y La Gaceta del Norte». Tesis Univ País Vasco Departamento de Periodismo, 1991, [s.n.].
- Agirre, Lorea. 2004. *Gezurra ari du. Egunkaria-ren itxieraren kronika*. Andoain: Alberdania.
- Agirreurreta, Arantxa. 2008. *Simone de Beauvoir emakume libre bat XX. mendean*. Donostia: Elkar.
- Agote, Koro eta Landa, Mariasun. 1986. «Simone de Beauvoir». *Jakin* 39: 141–145.
- Akkerman, Tjitske eta Stuurman, Siep. 1998. *Perspectives on Feminist Political Thought in European History*. Londres: Routledge.
- Alberdi, Ines eta Matas, Natalia. «N.,(2002): La violencia doméstica. Informe sobre los malos tratos a mujeres en España». *Colección Estudios Sociales* (10).
- Álvarez González, Ana Isabel. 1999. «Los orígenes y la celebración del Día Internacional de la Mujer, 1910-1945». *KRK-Ediciones: Oviedo*.
- Alvarez Uria, Amaia. 2004. «erabili.com/ Euskara hizkuntza sexista al da?» *Euskara hizkuntza sexista al da?* <https://labur.eus/lbbpD>.
- Amorós, Celia. 2005. *La gran diferencia y sus pequeñas consecuencias-- para las luchas de las mujeres*. Universitat de València.
- Amurrio Vélez, Milagros. 2003. «Genero, nazio eta nazio hezkuntza : ikastoletarako irakasleria». Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Anderson, Bonnie S. eta Zinsser, Judith P. 2000. *Historia de las mujeres: Una historia propia*. Barcelona: Crítica.
- Antequera Yepes, M. 2005. «El papel de la mujer en la dirección y gestión de las empresas informativas en España a principio del siglo XXI: un análisis prospectivo». Tesis Doctoral (inérita). UCM, 2005.
- Arenal, Concepcion. 1896. *La educación de la mujer*: <https://labur.eus/qdR83>
- Arnold, Mary & Nesbitt, Mary. 2006. *Women in media 2006. Finding the Leader in you*. Evanston: Media Management Center, Northwestern University..
- Ashley, Laura & Olson, Beth. 1998. «Constructing reality: Print media's framing of the women's movement, 1966 to 1986». *Journalism and Mass Communication Quarterly* 75 (2): 263–277.
- Auzmendi, Lourdes. 2002. *María Dolores Agirre (1903-1997)*. Bidegileak 23. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza = Gobierno Vasco.
- Bach, Marta et al. 2000. *El sexo de la noticia: Reflexiones sobre el género en la información y recomendaciones de estilo*. Madrid: Icaria Editorial.
- Baker Beck, Debra. 1998. «The “F” word: How the media frame feminism». *NWSA Journal* 10 (1): 139.
- Ballarín Domingo, Pilar; Gallego Méndez, Teresa & Martínez Benlloch, Isabel. 1995. *Los estudios de las mujeres en las universidades españolas, 1975-1991 : libro blanco*. [Madrid]: Instituto de la Mujer.
- Barredo Ibáñez, Daniel & Oller Alonso, Martín. 2012. *Género, ideología y prensa digital: la construcción informativa del Día Internacional de la Mujer Trabajadora en www. abc. es y www. elpais. com (2001-2010)*. Alicante: Revista Mediterranea de Comunicacion.

- Barry, Kathleen. 2005. «Teoría del feminismo radical: Política de la explotación sexual» in Amorós, Celia & De Miguel Alvarez (arg.). *Teoría feminista: De la Ilustración a la globalización*, 189–210. Editorial Minerva.
- Beasley, Maurine. 2003. *Taking their place: a documentary history of women and journalism*. 2nd ed. State College Pa.: Strata Pub.
- Beauvoir, Simone de. 1949. *El segundo sexo*. Feminismos, 85. Catedra.
- . 2019. *Bigarren sexua: Bizi izandako esperientzia. II*. Elkar.
- Berelson, Bernard. 1952. *Content analysis in communications research*. Illinois: Free Press.
- Bock, Gisela. 1991. «La historia de las mujeres y la historia del género: aspectos de un debate internacional». *Historia social* 9: 55–77.
- Bosch, Esperanza Bosch & Ferrer, Victoria A. 2002. *La voz de las invisibles. las víctimas de un mal amor que mata*. Valencia: Universitat de València.
- Bosch Fiol, Esperança; Ferrer Pérez, Victòria A. & Alzamora Mir, Aina. 2006. *El laberinto patriarcal: reflexiones teórico-prácticas sobre la violencia contra las mujeres*. Barcelona: Anthropos Editorial.
- Bourdieu, Pierre. 2000. *La dominación masculina*. Anagrama.
- Bronstein, Carolyn. 2005. «Representing the Third Wave: Mainstream Print Media Framing of a New Feminist Movement». *Journalism and Mass Communication Quarterly* 82 (4): 783–803..
- Bueno Abad, José Ramón et al. 1996. *Estudio longitudinal de la presencia de la mujer en los medios de comunicación de prensa escrita*. Valencia: Nau Llibres.
- Cabrera Bosch, M. I. 2007. «Las mujeres que lucharon solas: Concepción Arenal y Emilia Pardo Bazán» in . *El feminismo en España: Dos siglos de historia*, 45–80.
- Calero Fernández, Maria Angeles. 1999. *Sexismo lingüístico : análisis y propuestas ante la discriminación sexual en el lenguaje*. Madrid: Narcea.
- Caminos Marcet, Jose M. 1997. *La prensa diaria en el País Vasco*. Euskal Gaiak. Donostia: Orain SA.
- Campoamor, Clara. 2006. *El voto femenino y yo. Mi pecado mortal*. Madrid: Editorial Horas y Horas.
- Capel Martínez, Rosa M^a. 2010. «Prensa y Escritura Femenina en la España Ilustrada». *El Argonauta español. Revue bilingue, franco-espagnole, d'histoire moderne et contemporaine consacrée à l'étude de la presse espagnole de ses origines à nos jours (XVIIe-XXIe siècles)*
- Carnés, Luisa et al. 2017. *De Barcelona a la Bretaña francesa*.
- Centenera, Mar. 2019. «Cuatro años de Ni Una Menos, el movimiento que rompió el silencio de las argentinas». *El País*, ekainak 4, atal. Sociedad. https://elpais.com/sociedad/2019/06/03/actualidad/1559590094_787207.html.
- Chambers, Deborah; Steiner, Linda & Fleming, Carole. 2004. *Women and journalism*. London u.a.: Routledge.
- Chomsky. 1997. «What Makes Mainstream Media Mainstream?» *ZMagazine*. <http://www.chomsky.info/articles/199710--.htm>.
- Cobo Bedia, Rosa & Sanchez Bello, Ana. 2004. «El sistema sexo/genero. La construcción de la agenda setting desde los medios» in . *Manual de Información de género*. Madrid: IORTV (RTVE) e Instituto de la Mujer.
- Cohen, Bernard Cecil. 1963. «The press and foreign policy».

- Cova, Anne. 1997. *Maternité et droits des femmes en France*. Anthropos.
- DEIA. 1977. «DEIA: Editoriala». DEIA.
- Díaz-Diocaretz, Myriam eta Zavala, Iris M. 1993. *Breve historia feminista de la Literatura Española(en Lengua Castellana): La literatura escrita por mujer, desde la Edad Media hasta el siglo XVIII / María Mercedes Carrión ... [et al.* Anthropos Editorial.
- Díazhandino, Pilar. 2008. *Josefina Carabias, Corresponsal*. Madrid: APM.
- Entman, Robert M. 1991. «Framing US Coverage of International News: Contrasts in Narratives of». *Journal of communication* 41: 4.
- . 1993. «Framing: Toward Clarification of a Fractured Paradigm». *Journal of Communication* 43 (4): 51–58. doi:10.1111/j.1460-2466.1993.tb01304.x.
- . 2003. «Cascading Activation: Contesting the White House's Frame After 9/11». *Political Communication* 20 (4) (urriak 1): 415–432. doi:10.1080/10584600390244176.
- Epelde Pagola, Edurne; Aranguren Etxarte, Miren & Retolaza Gutierrez, Iratxe. 2015. *Gure genealogia feminista*. Donostia: Emagin Domunetazio eta Ikerkuntza Zentro feminista.
- Evans, Richard J. 1998. *Introducción al pensamiento feminista contemporáneo*. Minerva Ediciones.
- . 1980. *Las feministas: Los movimientos de emancipación de la mujer en Europa, América y Australasia (1840-1920)*. Madrid: Siglo Veintiuno.
- Ezez. 2017. «#MeToo – Lo Más Viral de 2017». *EzyInsights*. <https://ezyinsights.com/metoo-viral-event-2017-2/>.
- Ezez. «LAS CUATRO CONFERENCIAS MUNDIALES SOBRE LA MUJER, 1975 A 1995: Una perspectiva histórica». <https://www.un.org/spanish/conferences/Beijing/Mujer2011.htm>.
- Fagoaga, Concha & Secanella Lizano, Petra María. 1984. *Umbral de presencia de las mujeres en la prensa española*. Madrid : Instituto de la Mujer, 1984.
- Firestone, Shulamith. 1976. *La dialéctica del sexo*. Ensayo Series. Kairós
- Flecha García, Consuelo. 1999. «Género y ciencia. A propósito de los estudios de la mujer en las universidades». *Educación XXI: revista de la Facultad de Educación* (2): 223–244.
- Gallagher, Margaret. 2001. *Gender setting*. London: Zed Books.
- Gallagher, Margaret & Euler, My von. 1995. *An unfinished story*. Paris: UNESCO Publishing.
- Gallego Abaroa, Elena. «Harriet Martineau y la novela económica». http://www.usc.es/estaticos/congresos/histec05/b13_gallego_abaroa.pdf.
- Gamba, Susana. 2007. *Diccionario de Estudios de Género y Feminismos*. Editorial Biblos..
- Gandarias Goikoetxea, Itziar. 2017. «De la unidad a lo común: hacia una articulación feminista de las diferencias. La experiencia de la Plataforma de la Marcha Mundial de Mujeres de Euskal Herria1». *Universitas Humanística*: 361–387.
- García de Cortázar, Marisa & García de León, María Antonia (arg.). 2000. *Profesionales del periodismo : hombres y mujeres en los medios de comunicación*. Madrid: Centro de investigaciones sociológicas.
- García-Albi, Inés. 2007. *Nosotras que contamos: mujeres periodistas en España*. Madrid: Plaza y Janés.

- Ghanem, Salma. 1997. «Filling in the tapestry: The second level of agenda setting». *Communication and democracy: Exploring the intellectual frontiers in agenda-setting theory*: 3–14.
- Goffman, E. 1986. *Frame analysis: an essay on the organization of experience*. Northeastern University Press.
- Gomez Patiño, María (2011) «Análisis del tratamiento de la mujer en la prensa española. Día Internacional de las Mujeres» *Estudios sobre el Mensaje periodístico*, 17 (1) 119-140.
- González Luna, Lola. 2002. «La historia feminista del género y la cuestión del sujeto». *Boletín Americanista* 52: 105–121.
- Guerrero Salazar, Susana. 2002. *Medios de comunicación y español actual*. Archidona Málaga: Ediciones Aljibe.
- Herrera Gómez, Coral. 2010. *Más allá de las etiquetas*. Txalaparta Argitaletxea, S.L.
- Holsti, O. R. 1969. *Content analysis for the social sciences and humanities*. MA. Addison-Wesley Pub. Co.
- Humanes, María Luisa. 1998. «La profesión periodística en España». *Zer: Revista de estudios de comunicación / Komunikazio ikasketen aldizkaria*.
- Idoiaga Arrospe, José Vicente & Ramírez de la Piscina, Txema. 2002. «Euskal gatazka, prentsaren portaera eta herritarren iritzia (1998-2001)». *Uztaro* (42): 85–101.
- Idoyaga, P. & Ramírez de la Piscina, T. 2002. *(In)komunikazioaren atarian: prentsa eta euskal gatazka*. Donostia: Alberdania.
- Igartua, Juan José; Muñiz, Carlos & Cheng, Lifan. 2005. «La inmigración en la prensa española. Aportaciones empíricas y metodológicas desde la teoría del encuadre noticioso». *Migraciones. Publicación del Instituto Universitario de Estudios sobre Migraciones* (17): 143–181.
- Iyengar, Shanto. 1994a. *News that matters: agenda setting and priming in a television age*. Chicago: The University of Chicago Press.
- . 1994b. *Is anyone responsible?: How television frames political issues*. University of Chicago Press.
- Iyengar, Shanto & Simon, Adam. 1993. «News coverage of the Gulf crisis and public opinion: A study of agenda-setting, priming, and framing». *Communication research* 20 (3): 365–383.
- Janés, Clara. 2015. *Guardar la casa y cerrar la boca: En torno a la mujer y la literatura*. Madrid: Siruela.
- Jiménez Morell, Inmaculada. 1992. *La prensa femenina en España: (desde sus orígenes a 1868)*. Ediciones de la Torre..
- Jorge Alonso, Ana. 2004. *Mujeres en los medios, mujeres de los medios: imagen y presencia femenina en las televisiones pÙblicas: Canal Sur TV*. Akademeia . sociedad y opinión. : Icaria : Málaga.
- Kaltzakorta, Xabier. 1999. *Errose Bustintza (1899-1953)*. Bidegileak 16. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia/ Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Kaplan, Temma. 1985. «On the socialist origins of International Women’s Day». *Feminist Studies* 11 (1): 163–171.

- Kim, Sei-Hill; Scheufele, Dietram A. & Shanahan, James. 2002. «Think about it this way: Attribute agenda-setting function of the press and the public's evaluation of a local issue». *Journalism & mass communication quarterly* 79 (1): 7–25.
- Krippendorff, Klaus. 1990. *Metodología de análisis de contenido: teoría y práctica*. Paidós.
- Lagarde, Marcela. 2001. *Claves feministas para la autoestima de las mujeres*. Horas y Horas.
- Lakoff, George. 2007. *No pienses en un elefante: lenguaje y debate político*. Editorial Complutense.
- Landeta, Mikel Arriaga & Soengas, José L. Pérez. 2000. *La prensa diaria en Euskal Herria:(1976-1998)*. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=165387>.
- Lerner, Gerda & Tusell, Mònica. 1990. *La creación del patriarcado*. Crítica Barcelona. https://www.antimilitaristas.org/IMG/pdf/la_creacion_del_patriarcado_-_gerda_lerner-2.pdf.
- Letamendia, Francisco. 1990. *Euskadi: pueblo y nación*. Linorsa.
- Limone Reina, Flavia. 2003. «Un intento de aplicar la hermenéutica de Gadamer al diálogo (¿ posible?) entre patriarcado y feminismo.» *Sexo y Género*. <http://sexoygenero.org/hermeneuticafyp.htm>.
- Lind, Rebecca. Ann. eta Salo, Collen. 2002. «The framing of feminists and feminism in news and public affairs programs in US electronic media». *Journal of Communication* 52 (1): 211–228.
- Lledó Cunill, Eulàlia (arg.). 2004. *De mujeres y diccionarios evolución de lo femenino en la 22. edición del DRAE*. [Estudios] / Instituto de la mujer 83. Madrid: Instituto de la Mujer.
- Lomicky, Carol S. 2002. «Frontier Feminism and the Woman's Tribune: The Journalism of Clara Bewick Colby». *Journalism History* 28 (3): 102.
- López Díez, Pilar. 2002. «"El techo de cristal" también existe en los medios» in Junta de Castilla Y León. Dirección general de la Mujer e Igualdad de Oportunidades (arg.). *Mujeres, hombres y medios de comunicación*, 2:291–300. Valladolid : Lex Nova.
- Lopez, Guisela. 2009. «Olimpia de Gouges: Una personaje que escribió su propia historia». Ciudad de mujeres. http://www.ciudaddemujeres.com/articulos/IMG/pdf_OlimpiaDeGouges_GuiselaLopez_.pdf.
- Loscertales, Felicidad. & Núñez, Trinidad. 2009. «La imagen de las mujeres en la era de la comunicación». *Información y comunicación* 6: 426–463.
- Macharia, Sarah & Lee, Philip. 2017. «Proyecto de Monitoreo Global de Medios::?` Cómo abordar los prejuicios de género y los estereotipos?» *Infoamérica: Iberoamerican Communication Review* (11): 159–167.
- M.A.R. 2003. «Historia de Diario de Navarra». *Diario de Navarra*. <http://www.diariodenavarra.es/centenario/seccion.asp?id=historia>.
- Martinez Martin, Maria Ascension. 2009. *Gizartea eraldatuz, Maria de Maeztu Forum Feministaren Historia*. Vitoria-Gasteiz: FFNN. http://www.forumfeministamariademaeztu.org/quienes_somos.php.
- Matte, Diane & Guay, Lorraine. 2001. «La marcha mundial de las mujeres: por un mundo solidario e igualitario». *Seoane, José y Taddei, Emilio (comps.) Resistencias Mundiales. De Seattle a Porto Alegre*.

- McCombs, M. E & Shaw, D. L. 1972. «The agenda-setting function of mass media». *Public opinion quarterly* 36 (2): 176–187.
- McCombs, Maxwell. 2006. *Estableciendo La Agenda/ Setting The Agenda: El Impacto De Los Medios En La Opinión Pública Y En El Conocimiento*. Grupo Planeta (GBS).
- Méndez, Lourdes. 2005. «Una connivencia implícita: perspectiva de género, empoderamiento y feminismo institucional». *Antropología Feminista y/o del Género. Legitimidad, poder y usos políticos*: 203–26.
- Menéndez Menéndez, María Isabel. 2003. *El 4º. poder: ¿un poder de mujeres?* Gijón: Ma. I. Menéndez.
- de Miguel Álvarez, Ana. 1995. «Feminismo» in Amorós, Celia (arg.). *Diez palabras Clave sobre mujer*. Iruñea: Verbo divino.
- . 2005. «La articulación del feminismo y el socialismo: el conflicto clase-género» in . *Teoría feminista: de la Ilustración a la globalización. De la Ilustración al Segundo sexo*. Libk. 1. Madrid: Minerva Ediciones.
- . 2007. «HISTORIA DEL FEMINISMO 1 - EL FEMINISMO PRE MODERNO -Mujeres en Red». *Mujeres en Red*. <http://www.mujeresenred.net/historia-feminismo1.html>.
- Mill, John Stuart. & Mill, Harriet Taylor. 2000. *Ensayos Sobre la Igualdad de Los Sexos*. A. Machado Libros : Mínimo Tránsito.
- Mill, John Stuart. 1869. *The Subjection of Women*. Forgotten Books.
- Millett, Kate. 2010. *Política sexual*. Madrid: Ediciones Catedra.
- Mintegi, Laura. 1993. *Julene Azpeitia*. Bidegileak 1. Gasteiz: Eusko Jauriaritzaren Argitalpe, Zerbitzu Nagusia, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Miyares, Alicia. 1999. «1848: El manifiesto de Seneca Falls». *Leviatán: Revista de hechos e ideas*.
- . 2005. «El sufragismo» in De Miguel Alvarez, Ana & Amorós, Celia (arg.). *Teoría feminista : de la ilustración a la globalización. De la ilustración al segundo sexo*, Vol 1:245–294. Madrid: Editoria Minerva.
- Montero, Justa. 2004. «Movimiento feminista: una trayectoria singular». *Mientras tanto* (91/92): 107–121.
- Moran, Carmen. 2007. «Una de cada cinco directivas renuncia a tomar el permiso de maternidad». *El País*, maiatzak 22, atal. Sociedad. http://www.elpais.com/articulo/sociedad/directivas/renuncia/tomar/permiso/maternidad/elpepusoc/20070522elpepusoc_6/Tes.
- Moreno, Victor. 2011. «Diario de Navarra, un periódico golpista -». *Diario digital Nueva Tribuna*. <http://www.nuevatribuna.es/opinion/victor-moreno/diario-de-navarra-un-peridico-golpista/20110718171857058097.html>.
- Nash, Mary. 1999. «El mundo de las trabajadoras: identidades, cultura de g#eenero y espacios de actuaci#on» in . *Cultura social y pol#itica en el mundo del trabajo*, 47–68. Valencia: Centro Francisco Tomaf#as y Valiente UNED Alzira-Valencia, Fundaci#n Instituto Historia Social.
- . 2005. *Mujeres en el mundo : historia, retos y movimientos*. 1. arg. Madrid: Alianza.
- Nazio Batuak. «Día Internacional de la Mujer, 8 de marzo». *Un.Org*. <http://www.un.org/es/events/womensday/history.shtml>.
- Nobre, Miriam & de Roure, Sarah. 2012. «La construcción de la Marcha Mundial de las Mujeres: formas organizativas y sostenimiento de nuestro movimiento» in Piris

- Lekuona, Silvia (arg.). *Movimientos sociales y cooperación*, 53. Bilbao: Hegoa UPV/EHU.
- North, Louse 2009. «Rejecting the ‘F-word’ How ‘feminism’ and ‘feminists’ are understood in the newsroom». *Journalism* 10 (6): 739–757.
- Núñez Domínguez, Trinidad & Loscertales Abril, Felicidad (arg.). 2009. *Las mujeres y los medios de comunicación. Una mirada de 20 años (1989-2009)*. Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer.
- Ocaña Aybar, Juan Carlos. 2000. «El triunfo del sufragismo 1870-1945». *Sufragismo y feminismo: la lucha por los derechos de la mujer 1789-1945*. <http://clio.rediris.es/udidactica/sufragismo2/triunsufrag.htm>.
- Olaziregi, Mari Jose. 1999. *Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura*. Sociedad de Estudios Vascos.
- Olmos, Víctor. 2006. *La Casa de los Periodistas : Asociación de la Prensa de Madrid, 1895-1950*. [Madrid]: Asociación de la Prensa de Madrid.
- Ortiz, Teresa; Salcedo, Margarita-Johanna Birriel & Parra, Vicenta Marín. 1999. *Universidad y feminismo en España: Situación de los estudios de las mujeres en los años 90*. Universidad de Granada.
- de Pablos, E. & Tarifa, E. 2003. *Conciliar vida laboral i familiar: tasca impossible per a les dones periodistes? Informe sobre l'Enquesta a les dones periodistes de Catalunya sobre la conciliació de la vida laboral i familiar*. Barcelona: Secretaria de la Dona del Sindicat de Periodistes de Catalunya. Institut Català de la Dona.
- Palenque, Marta. 2006. «Ni ofelias ni amazonas, sino seres completos: aproximación a Teresa de Escoriaza». <https://idus.us.es/handle/11441/46556>.
- Posada Kubissa, Luisa. 2005. «Pactos entre mujeres». *Mujeres en Red*. <http://www.mujiresenred.net/spip.php?article294>.
- Puleo, Alicia. 2000. *Filosofía, género y pensamiento crítico*. Valladolid: Secretariado de Publicaciones e Intercambio Editorial Universidad de Valladolid.
- . 2007. «Introducción al concepto de género» in Delgado Álvarez, Carmen & Plaza Sánchez, Juan (arg.). *Comunicación y Género*, 13–32. Madrid: Fundamentos.
- Radl Philipp, Rita María. 1995. «La nueva identidad del género femenino en los debates de la televisión» in . *As mulleres e os cambios sociais e económicos*, 77–96. Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela.
- Ramos, Dolores. 1995. *Historia social: un espacio de encuentro entre género y clase en las Relaciones de Género*. Madrid: Marcial Pons.
- Reese, Stephen D. 2001. «Framing public life: a bridging for media research» in Gandy, Oscar H. et al. (arg.). *Framing Public Life: Perspectives on Media and Our Understanding of the Social World*. Taylor & Francis.
- Reguant Fosas, Dolors Reguant i. 1996. *La mujer no existe: un simulacro cultural*. Bilbao: Maite Canal.
- Rhode, Deborah L. 1995. «Media Images, Feminist Issues». *Signs* 20 (3) (apirilak 1): 685–710.
- Riveras Irusta, Ainara, Arbelaitz Garcia, Miren, eta Ormazabal Gaston, Andere (2012) *Ondarroako emakumeak herriko partaidetza politikoan eta sozialean: emakumeen asoziazionismoaren eta mugimendu feministaren bilakaera eta*

- horien eragina emakumeen boteretzean (1978-2006)*. Ondarroa: Ondarroako Udaleko Berdintasun Sailak.
- Rivero Santamarina, Diana 2012. «La situación profesional de las periodistas en los principales medios de comunicación del País Vasco». Tesis doctoral .UPV/EHU
- Roig Castellanos, Mercedes. 1989. *La Mujer en la historia a través de la prensa : Francia, Italia, España : S.XVIII-XIX*. Estudios (Instituto de la Mujer). Madrid: Instituto de la Mujer.
- Rush, Ramona R.; Oukrop, Carol E. & Creedon, Pamela J. 2004. *Seeking equity for women in journalism and mass communication education*. Mahwah N.J.; London: Lawrence Erlbaum.
- Rush, Ramona R.; Oukrop, Carol E. & Sarikakis, Katharine. 2005. «A Global Hypothesis for Women in Journalism and Mass Communications: The Ratio of Recurrent and Reinforced Residuum». *Gazette* 67 (3): 239–253.
- Salas, María. 2000. «Una Mirada sobre los sucesivos feminismos - Mujeres en Red». *Mujeres en Red*. http://www.nodo50.org/mujeresred/feminismo-maria_salas.html.
- Sarasua Garcia, Carmen & Galvez Muñoz, Lina. 2003. *Privilegios o eficiencia?: mujeres y hombres en los mercados de trabajo*. San Vicente de Raspeig: Publicaciones de la Universidad de Alicante.
- Sau, Victoria. 2001. *Diccionario ideológico feminista*. Libk. I. Barcelona: Icaria.
- Scheufele, Dietram A. 1999. «Framing as a theory of media effects». *Journal of Communication* 49 (1): 103–122. doi:10.1111/j.1460-2466.1999.tb02784.x.
- Scott, Joan. 1990. «El género: una categoría de análisis útil para el análisis histórico» in Amelang, J. S.; Nash, Mary. *Historia y género. Las mujeres en la Europa moderna y contemporánea*, 23–58. Valencia: Edicions Alfons el Magnànim, Institució Valenciana d'Estudis i Investigació.
- Semetko, Holli A. eta Valkenburg, Patti M. 2000. «Framing European politics: A content analysis of press and television news». *Journal of communication* 50 (2): 93–109.
- Seoane Couceiro, Marij & Saiz Garcia, Marij. 2007. *Cuatro siglos del periodismo en España : de los «avisos» a los periódicos digitales*. Alianza Editorial, S.A.
- Serrano, Manuel Martín; Serrano, Esperanza Martín eta Lagos, Vicente Baca. 1995. *Las mujeres y la publicidad: Nosotras y Vosotros según nos ve la Televisión*. Madrid: Instituto de la Mujer.
- Shaw, Eugene F. 1979. «Agenda-Setting and Mass Communication Theory». *Gazette (Leiden, Netherlands)* 25 (2) (maiatzak 1): 96–105.
- Shingler, Martin eta Wieringa, Cindy. 1998. *On air : methods and meanings of radio*. London ;New York: Arnold.
- Sloan, W. David eta Parcell, Lisa Mullikin. 2002. *American journalism : history, principles, practices*. Jefferson, N.C.: McFarland & Co.
- Suarez Llanos, Maria Leonor. 2002. *Teoría feminista, política y derecho*. Madrid: Dykinson.
- Terkildsen, Nayda eta Schnell, Frauke. 1997. «How media frames move public opinion: An analysis of the women's movement». *Political Research Quarterly* 50 (4): 879–900.
- Tomaselli, Sylvana. 2010. «Mary Wollstonecraft». *The Stanford Encyclopedia of Philosophy*. <http://plato.stanford.edu/entries/wollstonecraft/>.

- Torres Ramirez, Isabel. 2003a. «Los estudios de género y los recursos informativos-documentales que originan: síntomas evidentes del nuevo protagonismo de las mujeres?» in Mexico: UNIFEM.
- . 2003b. «Los recursos informativo-documentales para los Estudios de las Mujeres. Panorámica breve desde Europa.» *Mujeres en red*. http://www.nodo50.org/mujeresred/isabel_de_torres.html.
- Tristan, Flora. 2003. «Por qué menciono a las mujeres» in de Miguel Álvarez, A. & Romero, R. (arg.). *Feminismo y socialismo: antología*, 47–68. Los Libros de la Catarata.
- Tuchman, G. 1978. *Making news: a study in the construction of reality*. Free Press.
- Union Europea (arg.). 1997. *Tratado de Amsterdam por el que se modifican el Tratado de la Unión Europea, los Tratados constitutivos de las Comunidades Europeas y determinados actos conexos*. Luxemburg: Oficina de Publ. Oficiales de las Comunidades Europeas.
- Valcárcel, Amelia 2008. *Feminismo en el mundo global*. Madrid: Cátedra.
- 1997. *La política de las mujeres*. Feminismos Series. Madrid: Cátedra.
- 2009. «Les Dones com a subjecte de Transformación Social» Barcelona: Ayuntamiento Barcelona. <http://www.bcn.cat/congresdones09/ca/>.
- Varela, Nuria. 2005. *Feminismo para principiantes*. Barcelona: Ediciones B.
- . 2020. «El tsunami feminista». *Nueva Sociedad* (286) (apirilak): 93–106. 2393621449.
- Vicent, María Medina eta Reverter, Sonia. 2020. *El feminismo en 35 hashtags*. Los Libros De La Catarata.
- Weaver, David.H. eta Wilhoit, G.Cleveland. 1996. *The American Journalist: A Portrait of U.S. news people and their Work*. Mahwah (NJ): Lawrence Erlbaum Associates.
- Weaver, David Hugh eta Wu, Wei. 1998. *The global journalist : news people around the world*. Cresskill (New Jersey, USA): Hampton Press.
- Ybarra, de, Enrique. 1985. *Un Periodico Institución. 75 años informando: 1910/1985*. Bilbao: El Correo Español- El Pueblo Vasco.
- Zabaleta Urkiola, Iñaki. 1997. *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia: metodo empirikoak eta interpretatzaileak*. Bilbao: UEU.
- Zalakain, Jesus Mari. 1992. «Euskal prentsa herri-proiektua da». Leioa: UPV/EHU. www.euskara.euskadi.net/appcont/.../Jesus_Mari_Zalakain_TESI.pdf.
- van Zoonen, Liesbet. 1988. «Rethinking Women and the News». *European Journal of Communication* 3 (1) (martxoak 1): 35–53. doi:10.1177/0267323188003001003.
- Zuberogoitia Espilla, Aitor. 2004. «Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean Egin, Deia, Enbata, Ekaitza, Gara eta Le Journal du Pays Basque». Leioa UPV/EHU.

8. ERANSKINAK

1- Tesi honetan erabili den datu basea lotura honetan aurki daiteke: [datubasea](#)